

ANTONIO TRUEBAREN IPUIÑAK I ATALA



OTAZUA TA ASUA'TAR BENITO

ERREKALDEKO LAGUN ARTEA KULTUR TALDEA

BILBOKO UDALAREN DIRU LAGUNTZAZ ARGITARATUA

**ANTONIO TRUEBAREN
IPUIÑAK
I
ATALA**

OTAZUA TA ASUA'TAR BENITO

ERREKALDEKO LAGUN ARTEA KULTUR TALDEA

BILBOKO UDALAREN DIRU LAGUNTZAZ ARGITARATUA

**ANTONIO TRUEBAREN
IPUIÑAK
I
ATALA**

EGILLEA: OTAZUA TA ASUA'TAR BENITO

**ARGITARATZAILLEA: ERREKALDEKO LAGUN ARTEA
KULTUR TALDEA**

BILBOKO UDALAREN DIRU LAGUNTZAZ ARGITARATUA

IDATZ-AURREA

Antonio Trueba Bizkaitar gizon idazle ospetsua, milla zortzireunde emeretziko Lotazillaren ogeta lauan, Gabon egunean, Enkarterriko Galdames errixua, Montillano deritxon auzunean jaio zan.

Gizon erritarra, asko maite eban Euskalerrria ta batez be Galdames bere jaiotze-errria ta Sopusuerta bere gaztearoa emon eban errria.

Zoritxarrez gure erriak, Euskalerrriak larregi izan dauazan anai arteko guda zital, guda ta matxinada guztiak zitalak izaten dira, batek eraginda ta beragandik igeska Madrillera al-dendu zan. Karlistatar gudea zan eta Trueba bake zalea izanik ez eban beratan tarteko, kide izaterik eta mutiko gaztea ondiño, milla ta zortzireunde ogeta amaseiko Azillako egun baten Madrillerako bidea artu eban.

Ara non, Enkarterriko baserritar gazte bat, gitxi ikasia, ezjakiña, Madrilleko uri nagusian burdindenda baten lanean, bearrean, bere eguneroko ogia irabazten eban bitartean eskuratu al ebazan liburu, egunkari ta aldizkari guztiak irakurriz bere jakin-naia azetuz, idazle trebe ta ospetsua izatera eldu zan. Benetan da txit txalogarria gizon Enkartar au.

Bere idaz-lanetan Euskalerrri ta Enkarterriganako maitasun bero beroa beti agertzen dau ta bere biotzean erriratzeko gurari, naia sutua. Milla ta sortzireunde irurogeta bian, berak ain maite ebazan Enkarterri, Galdames, Sopusuertako lurraldeak oinperatu ebazan eta arik aurrera bere bizitza Euskalerrrian izan san, azken urteetan Bilbon. Milla ta zortzireunde larogeta bedaratzian il zan eta bere uzkiñiak Bizente Deunaren eleizan, Bilbon dagoz. Eleiz onen aurrez aurrez bere oroimenez eraikitako oroiarri bat, Platza Albian, Albia Lorategian, dago.

Bere liburuak, idazkiak gaztellez idatzita dagoz. Bera euzkalduna zan, aldi aretan euskerea Enkarterri lurraldetan ondiño bizirik zan, bafia berak iñoanetik bere izkuntzan, euskeraz, ez zan bat be trebea. Bere idaz-lanak munduan zear izkuntza askotara itzuliak

izan dira ta Bizkaitar onen oroimenez zer oba gure izkuntz zaar onetara ta batez be ilzorian dan Bizkaiko euskerara itzuli, euskeratu?

Emen dozu irakurle bizkaieraz beste liburutxu bat. Gure izkuntza babestu, zabaldu nai ba dogu bearrezkoa da idazkiak argitaratzea ta nire elburua euskera bultzatea izanik, lan orretan saiatzen naz. Naizta elertiari dagokionez liburu au ez izan lilluragarria, alegindu zaitetz azkenengo orriraño irakurten, idazleak eskertuko zaitu. Agur.

OTAZUA TA ASUA'tar BENITO

TERESARI

Zuri, ene maitea, ipuiñ oneik eskeintzen dautzudaz, nire arkatetik sekula urtendako deduzkoenak diralako, eta zure aingeru-arima maitamenduak, euretan ezarri gura izan dodan eder eta garbia sentitzea eragin daustalako.

"Larrosa margodun ipuiñak" izendatu dagiguzan, ludia eremu zigarrri bat bezela, lora ta bizi-gabe, izartxu batek be dizdiratzen dauan amaibako gaba izugarri bat bezela, agertzen dauskun elerti etsipenen domiñaren beste arpegia dalako.

Ni, Adanen seme errukigarria, umetxua nintzala, Enkarterri inguruetako aran, ibarrak, itxi nebazanetik, gure Jaun eta Jaungoikoak gure lenengo gurasoei ezarritako madarikape-na, egun baten be ez da izan bete gabe; nik, bizia maite izango dot eta ludian Jaungoiko, adiskidetasun, maitasun, sendia, goizero irribarrekatzen nauan eguzkia, gabera argitzen nauan illargia ta Udaberrietan abesten etorten jatazan txoriak dagozan bitartean, erbestera-tua izango nazanik, ez dot uste izango.

Guzti au diratsudan une onetan, nire bizitzako itxaropen eder eta gozoenak irribarre-tzen gaitu; sortzen dagozan loratxu margodunak, eguzkiak zimeldu baño lenago Enkartaer-ri aldeko aize-ozkirriak gure bekokiak ozkirrituko dauz. Agure biotz-zabal eta tolesgabe itzal dan eta alabearen izena ezarriaz onartzen zaituna, erria pozez zearkatzen dau, ta negar-malko alaitsuakaz bere arpegia buztirik, nire gazteroko lagunai, dirautse:

Nire semeak dato! Orain ogei urte agurtzean izan eban maitasun sutsu, beroaz, aran, ibar, oneik agurtzen nire semea dator!

Eta nire gazteroko lagunak, ni bezela eguneroko jardunaldia Jaungoikoa gorezten, beratan koldartu ez daitezcan laguntzen dautsena, gure aitaren poz-alaitasunean kidekoak dira.

Gure aita ta gure neba-arrebak ordu ta une guztietan gogoratzen gaitue, ta txirotasun-ak dauzcan pitxi, apainketarik bikaiñenak, opako dauzkuen egoitza edertu, txukuntzeko

erabilten dabez, eta etxeko leiora agertzen diran bakoitzean, orain ogei urte estaltzen ikusi ninduen mendi magalean noiz agertuko zain, itxaropentsu dira.

Jaungoikoak, zuk eta nik sentitzen dogun eta jaretsi geinkeen zorion-utsa, gu bezelako ain txiroen eskuetan esartzen ba dau; ludi, ortziri, beratan astanduta epaitzen diran ergel, keto, orreik, zer eskatzen dautse? Ludian, lurrean, zerua aurkitzea itxaroten ba eben, bizitza onen ondoren, zer itxaroten eben aurkitzea?

Aintzat artu daigun maitea, bidea Jaungoikoak opatzen dauzkun bezela, jardun-aldi ondoren amaigabeko atsegin-tokia itxaroten dogun ezker, iturri bat arimea ozkirritu daiten eta zugatz bat gorputza, religio ta sendia atsedentu daiten, Jaungoikoak gure ibillaldian ezarriaz, naiko egin dau.

Larrosa lpuñak idaztean, niretzat merezigarria da, eurekan alkaturik zu gogoratzea ta nire jaiotze aranak gogoratzea da, au uste izaten neban eta au sentitzen eban zure.

Madrill Jorreila 1859.

ANTONIO'K

BIZKAIKO ENKARTAERRIAK

Truebetar Anton izan da munduan zear Enkartaerriren izena ezagutzen emon dauana: "Antziña-antziña izen onegaz ezagutzen da Bizkaiko Jaurerrian Bilbotik Santanderreko mugarafño sortaldetik dagozan lurraldeak. Enkartaerria osotzen dabe Balmaseda, Lanestosa ta Portugaleteko uriak, Karrantza, Trutzios, Arzentaes, Gordexola, Santurtzi, Sestao, Trapagaran, Muzkiz eta Sopusuerta, Galdames eta Zalla Udalak".

Lurralde, beti eze, orlegiak, arretaz, zeaztasunez landuak, baserri alai bikaiñak euren artean ezarririk; artalde bat dirudien baserri zurizkak, euren artzaiña, euren artean jasoten dan kanpadorrea izanik. Baserrian an emen tankeragabe, lantzar eder baten uso aldra batek euren mokoakaz bertako bedar eze biguna mokotuten daben antzera.

Mendietan, Landetar Koldok azaltzen dauan lez, aritz, pago, gaztaiña ta arteak ugari dira, euren egurra era askotara erabilli izaten da ta erritarrentzat aberastasunik aundiena. Ibarretan igali-zugatz ondo betetuta, kereix, sagar, intxaur, okeran eta abar, mendi magaletatik mats-ondoak or-emen ezarri ta aeuretatik nekazariak edari atsegingarria lortzen dabe, txakoliña.

Artoa, indabea, garia ta barazkiak dira euren janari ta uzta bereziak. Azkenez gisu, nabarri, meatz, tupikin eta bereun-obiak ugariak dira Enkartaerri aldean.

Bizkaiko Enkartaerrian erdirantz, Muzkiz aranean asita egoalderantz mendi-lerro bat dago, Kadagua ibaiaren ezker baztarra ukuturik, makurtzen da, ta Sartalderanz alde-erazita Galdames eta Sopusuerta erriak bere altzoan maitekiro besarkatu gura dabezala dirudi.

Triano lerro-mendia da.

2. Montellano, Santa Gadea ta Anton

Somorrostro deritxon ibai ondotik, aran eze, eder polit batetik igonez, eskumako mendien gaztanedi ta borto artean, auzune txiki bat, ogeta lau biztanleaz, Galdamez erriaren auzune baten, Montellano deritxon baserri-taldea aurkitzen da. Auzune onetako andra-

gizonak baten baño geiagotan jasan izan bear ebezan txantxeta mingarria Montellano izena dala ta, Baña Montellanotarrak albo-erritarren txantxeta oneitatik ondo babestzen ziran, eta sarritan babestu ez ezeze eurak be ondo zirikatzen ebezan beste txantxeta batzukaz. Montellanok aldi baten baño geiagotan abeslari trebeak izan dauz, baña euren artean ez nazala ezarritzen adierazo bear dot neure eratasun, apaltasunari dagokion bezela; bertan uste-gabe jaio nintzala dakien batzuk susmatu leikien lez.

Izan be, bertan, Montellano, Galdames erriaren auzune aretan, kereix eta gaztain artean dagoan auzune aretan Trueba eta Quintanar Anton, etxetxu zuri baten, errosa-mordo usotxu bat kokatzen irudikoan jaio zan.

Truebatar sendia jatorriz Montillakoak ziran, Santanderko baserri txiki bat Egoaldeko mugan Bizkaiaz. Montilla sendiko batzuk mende azko aurreragotik Enkatarri aldean bizi izan ziran.

Antonen aita-amak Truebatar Manuel eta De la Quintanar Marta izan ziran.

Bere amama aitaren aldetik Ortiz de Montellano sor-etxeakoak izan ziran.

Bir aititak amaren aldetik, Garaitar Agustin eta Umarantar Magdalena, oneik be Montellanokoak.

Egia esan, Montellanotarrak erdiak baño geiago aide, senideak ziran.

Bateo-agirian, Herrantar Fermin eta Etxegaraitar Karmelok Milla ta zortzireun eta emereziko abenduaren ogetalauan jaio zala adierazoten dabe. Baña ipuinzaleak, Antonek, milla-ta zortzireun da ogetabatean jaiokoa zala esaten eban, ziurki bere adin-berakata au lenengo karlista gudan tarteko izan eztearren izango zan, milla ta zortzireun da ogeta amaseian.

Gaur egun, kondaira-gizon guztiak 1819 urtea bere jaiotze lez ontzat artzen dabe.

Hurtado de Saratxotar abadeak bateatu eban.

Montellanon jaioa izan zan baña ez bertan azia, txiki-txikitán, aurtxoa zala, egun gitxi ebazala bere aita-amagaz Sopusertako errira, San Martin deritxon mendizkatik urrun dagon Santa Gadea auzunera joan ziran bizitzen.

"Nire umetxutako oroimen bat. Nire baserriko eleizan, aldare nagusian Ama Virgifiaren irudi bat bere Ume Jesus besoetan daukala gurtuten da. Nire amak, G.B., gure etxeko atera eskeko bat amoin billa etorrela ez nebala onartzen ikusirik, egun baten esan eustan:

Nire biotzeko seme maitea, jakin bear dozu Jesus Umetxuak eskekoei amoina emoten deusenei iri-barre gozoa egiten dautsela, eta txiroei, eskekoei, amoina uko egiten dautse naintzat ez dauala izaten barrerik.

Urrengo egunean gure etxeko atera eskeko bat urreratu zan, eta nire amak une bertan emon eustan ogi zati bat gozoki eder bateaz emon neutson. Ariñeketan joan nintzan eleizara, eta Josu Umetxuak irribarrerik gozo ta maitekiro luzeaz agurtu ninduan.

Egun batzuk geroago barriro beste eskeko bat agertu zan gure etxe aurren, eta amaren onuak bazterturik-amoina ukatu neutson. Jazoriko au nire amak arin jakin eban eta bereala eleizara biatdu ninduan ta Josu Umetxuak irribarririk egiten ba eustan ikustera.

Zeatz bete neban amaren agindua, eta zoritxarrez Josu Umetxuak irribarrerik ez eustala egiten ikusi neban!".

Ziurki, Antonek gaztetxutatik sardifia arrapau-berri ta arto guri ta urrea bezelako ogia jango eban.

Eta ez da esan bearrik igali-zugazetara igoteko zaletasuna be txiki-txikitxutatik ebalá.

Baña Montellano eta Sopuertatik ez eze oroimen gogoragarri ta begikoak ebazan beste erri batzuetatik. Balmasedako errosa margokoak ez dira gitxiagokoak, geroago erri polit oneri "nire gaztaroko arrigarri erria" deituko dautso, Muzkizko Ibar, arana, Kadagua ta Ibaizabal ibaiak, eta Bizkaiko mugaz kanpo, Castro-Urdiales.

Eta Bilboko Ama Virgifiari otoitzak?

Labalugako zubi ondoko urbare bera be, naizta beratan gaztetxutan itotzeko zorian aurkitu, joandako oroimen matekiroz agertuko da bere amesetatan.

Euskalerrian baserriak, obeto esanda, basetxeak an emen zakabanatuta aukitzen dira ta orregaitik umetxuen gurasoak ez dira ausartzen sortzi urte betetu arte ikastetxeetara bialtzen.

Truebatar Anton oitura onetan berezizkorik ez zan izan.

Baña, azkenean, urrango Astelenean lenengoz ikastetxera bialduko eban, orretarako fraka ta jake barritxu bat egin eutsoen "urte txarra aretarako" deitzen eutsoen, koton urdin oialkoa, modakoa ta barritan dirdiratsua.

Jakintsu, idazle zanean urte batzuk aurrerago izan zan oitura maltxurra umetxuei auzi-etxe ta idazgelatan egozan idaz-orriakaz irakurten irakatziazoteagatik bere idatzietan gogor jo eban, "neu be, idazten eban aitorle naz zelan idazki orre in bitartez irakurten ikasi neban, gaur egun orri orreik altxor berezi batzuk bezela gogotsu iraun-eraziko neukez eta osterá orduan gaztetxutan eurakaz txori-paperak egiten nebazan".

Bere irakasleak Santa Kolomatar Tomas eta Sagarmínagatar José Mari izan ziran, 1879an illa.

Bere lenengo urteetan, umetxuetan, Santander aldeko muga inguruan, Enkarrarian, euskerea ez zan bear bezela erabilten, gaztelarra zan euren izkuntz egunerokoa, naizta azkontzat erdi-erdera erdi-euskera izan. Gaztelarra izan zan Antonek ikasi eban izkuntza.

Euskeratzaz, bere liburutzuan "CUENTOS CAMPESINOS, 1860 idazten eban:" euskera izkuntz gaizt, zaillan, ez naz bat be trebea ifoiz izan. Askok uste dabe euskeraz ez ebalá bereziki egiten, euskaldun oso-osoa ez zala.

Zaletasun batzuetan bere ama ber-bera zan. Jaio ta azi zan auzoa, baserria asko maite eban. Montellanon jaio ta azia izan zan lez, beti egoan bere baserri buruz izketan eta guraritsu bertara joateko. Bera bizi zan etxetik an urrun, Ibar azkenean zurizka ikusten eban bere jaiotz-etxea. Ikuspegi orrek eraginda bere barnean umetxutan izaneko jolasketak eta beste gogoketa asko bizkortzen eutsozan. "Batzuetan, idazten eban, Ipar-aizea izaten zanean, etxe aurreko solo batetik Montellanoko kanpaiak entzuten genduzan, eta nire amari negar tantalak urteten eutsozan begietatik".

Sendia Santa Gadean bizi zan, Sopuertako erritxuan. "Sarritan nire anaia ta biok, batzuetan bakarrik eta beste batzuetan gure ama lagun, bera ta ni jaio giñan baserrira joaten giñan".

"Montellanotarrak, erdiak bai beintzat, nire aideak, senideak, izanik, eurakandik naiko diru ta gozoki artzen neban".

"Liburu batzuk eleiz-liburuak ziran, Año Cristiano edo Catecismo del P. Astete, Don Quijote eta Los Fueros de Vizcaya, ara emen, gitxi gora bera Bizkaitar sendi baten izaten zan liburutegia".

Baña Truebatar Antonentzat ez zan naikoa, berak askoz be geiago bear izaten eban.

"Nire umetxutako liburu atsegingarrienak itsuaren gert-irudi ta bertsoak izaten ziran. Nire aita azoka anbatera joaten zanean, esate baterako Gordexolako Deun Anderrenera, bere itzultea artega ta urduri itxaroten neban, ba da ba nekian beste liburutxu barri bat ekarriko eustala. Naizta goiezaldeko ordu biak edo geiagotan eldu, berari itxaroten, obeto esanda liburu barriari itxaroten, zain egoten nintzan, eta ain onartua nigandik izaten zan liburutxu au, beratan egozan bertsoak ia buruz ikasi arte ez ninduan loak artzen.

"Naizta nire aita gizon toles-gabe, nekazaria izan eta ez-jakifia, bere zentzun onegaz edu aurkako libururik ifioiz ez eustan ekarten, gizon deduzkoa zan, guzti au geroago ulertu al izan neban, berak ekarritako bertso liburuak irakurtean".

"Santa Gadea gure baserri inguruko zugatzak orriz betetzen ziranean, alboko iturria kerizpetzen ebezan kereixak lorez, eta soso ta biregarroak abaro aretan abesti-maitekiroz etengabe jarduten ebenean, nik neure barnean, nire biotz barruan zerbait, zeozer, berezia nabaitzen neban, alako alai-poztasun naaste bat azaldu ezin nebana".

"Ez dakit zer dauan nire seme maite gizajo oneiki!" esaten eban nire amak, artega ta larrituta nire izakera aregaitik. Eta nire aitak azaltzen eutson:

"Bere amaren semea dala jazoten jako, bere ama ber-bera da, zerbait bardifia jazoten jako bere amari Ego-aizeak eraginda Montellano kanpaiak entzuten dauazanean, bertarantz kezkatu begirutzen dau eta bere amentalagaz negar-malko erri-mindunak legortzen luzaro jardutzen dau".

Anton olerkaria zan.

Igandeetan, notintsa arrunta eleizara joan ondoren eta Meza nagusian bere ailitak eta bere aita-amak egozan bitartean, aita-aldekoen etxe aurrean egozan kerix-peetan jezarten nintzan... eta apur bat geroago lau edo bost nezkatilla, nire bekoki ganean dindilizka egozan kerez margotsuak bezelakoak, nezkatilla margotsuak edo euren ule-korda txairo bezelakoak nire billa etorten jatazan, arratsaldean pandero-soifuan intxaurpean euren senar-gaiei abestzeko bertzo anbat egin-azo eustezan. Toki orretan gazteak jaiegunetan dantzaten genduan eta zaarrak poz-arazten ziran gure alaitasuna ikusirik".

Sendiko lenengo bertsolaria ez zan izan Anton.

"Montellanotarren artean bertsolaririk ospetsuena nire osaba bat izan zan, Basko ezezunagaz lurralde aretan ezagutzen zan. Ordu osoak emoten ei ebazan bertoz berba, itz, egiten, ba da bere etorria ta trebetasuna bertsotarako amaibakoa zan. Nire gogoan zain dot, nire begien aurrean ikusten dodala esan neike, bere ebilladun oskiakaz, bere galtzoiñak, jake ta fraka baltzak, bere txupil urdifia, bere garriko amusko, bere, atsetik goraztuko egalak eta aurretik apur bat okertutako kapelataaz eta bere ule-txorta arre guztiz ondo

orrastuta". Bere osaba Quintanatar Manuel, El Basko, abeslaria ta beste aldetik bere amaren minberatasuna ikusirik, bere ama Quintatar Manuelen arrebea zan; argi dago ba zein aldetik jatorkon Truebatar Antoneri bere ertilari sentitze ori.

Dana dala, atxurrak bere eskuak ikorzirinez gogortu ebazan "mutil gizajo bat, Bizkai-ko baserri baten jaioa, nekazari bakan eta apal batzuen semea ikaspen laburrekoa. Orrez ganera bere izakera bildulkor eta biguna, eta ain samurra, sentikorra, ifloren, lagun-urkoaren poztasun nai samintasunen aurrean bere begiak errez negar-tantalakaz betetzen ziran.

Txarria ilten ebenean, "Nik alboko gaztanedira iges egiten neban eta bertan negarrez eta belarriak eskuekaz ostenduten nebazan, txarriaren girrintse mingarriak entzun ezteagaitik".

Bere aita-amak ez eben ifioiz uste izan euren semea jaio-erritik urrunduko zanik. Bafia 1833 garren urtearen Urrian anai-arteko gudea asi zan, lenengo karlist-gudea, eta guda orrek aldi aretako gaztei iskilluak eskuetan artu-azo eutsen.

Manuel, bere aita independentziko guda deritxonean tarteko izan zan; eta Marta bere ama, maitekor eta sentikorra, iskillu-bereunen bildurrez eta baita Anton egun anbatan gudar bat izan leitekelaokan, erdi-negarrez esan eban:

"Manuel, saldu daiguzan gure ondasun apurrak, eta gure seme maite au bialdu daigun Jaungoikoak zaindu daian emengo zoritxarretik kenduaz".

"Amabost egun geroago Madril bidean niñoian, Toledo Kanean, 81 zenbakian Quintanatar Jose Bizentek nire amaren lengusua ta nire baserriko parroko jaunaren anaiak, eukan burni-dende baten lan egiteko asmuz".

1836'ko azillako gaba bat izan zan.

"Ibar gora, begiak negar-malkoz ondatuta bidez-bide niñoian, baserriko nire baserri-ko azken etxea atsean geratu zan; sarritan kereixpetara nira billa etorten zan nezkatilatariko bat leioan agerturik zotinka agurtu ninduan. Mendikote bat gainditu ta beste magalerantz niñoiala, ibar zoragarri a estaldu baño lenago, urrunetik etozan abots, abesti lilluragarri bat entzunez gelditu nintzan. Nezkatilla bera zan eta bere biotz samur eta sentikorrek eraginda, abesti lilluragarri ta eder bateaz agurtzen ninduan. "... Jaunjoikoa zaillegi bedi ni jaio nintzan ibar, aranera itzultea".

"Urte batzuk geroago, Becerro de Bengoak jakin-arazi euskun, zelan bere aita atxilotuta espetxean euki ebela guda a amaitu arte, guda aren ondorioz, euki ebezan ondasun urriak galdurik".

Madrillen amar urte mostrador baten ostean.

"Nire aita-amak Madrillera Unibersidadera, nire adimena eragiten ez ninduen bialdu, ba da ori, naizta gauza guztien ganetik gura, nai, eurantzat ezifiekoa zan; sal-mai, mostrador, baten ostean eguneroko ogia irabasten bialdu ninduen, eta toki orretan amar urte luze emon nebazan".

Luzaro erri-miñak atsekabetuta izan eban; eta esan leiteke aldi orretan, bere laguna izan zala.

Bafia, "aita-amaren egoitzatik aldendu ta gero lenengo iru urteetan iru egoera zorio-

Txango orreitan, ibillaldi orreitan, jakiña, beti ez zan joaten Luche aranera. Atsegin izaten jakon gure Antoneri Virgen del Puerto, San Antonio de la Florida, el Retiro, Principe Pio mendia, Casa del Campo, Lavapies, Barquillo eta abar ikustea.

Bein baten, Progreso platzan, liberalak "Viva Espartero" oiuerazio egin gura izan eutsoen; "eta andik urte batzutura Truebak gogoraten eban, zelan esan eutsen bera ez zala Esparteron aurkakoa, baña bera ez egoala oituratuta kalean oiuka ifior goraltzen ez il dearrak egiten eta orregaitik ukatzen zala liberelehen gurarira, une aretan makillakada bateaz lurreratuta bertan il barik mirariz urten ebela".

Truebatar Anton Enkarrariko bere egoitzatik aldendu zanean, gudan tarteko izan ez gura ebalako izan zan, iskillurik bere eskuetan artzea atsegin ez jakolako, bere eguneroko ogia irabasteko ta bide batez bere sendiari laguntzeko; baña, Madrillen izan zanean beste gurari bat sortu zan beragan; ikasi, aritu, bere barnean eban azaldu ezifeko eragintzaillea adierazoteko trebetasuna lortu.

Toledo kaleko bere egoitza itxi eban, orain Espartero kalean bizi zan, 11'an.

Iru urte luze untseak saltzen eta beste zeregin apalagotan, bere osabearen burdindandan emonekoak atsean geratzen dira. Gero beste burdin-denda baten saltzaille lez alogoratu. Guztiz amar urte egun osoan sal-mai baten ostean, baña gabaz adimen, arimearen atea idegiten ebazan, jakozan.

4.- Izkien sorginpena

Egun baten, batek ba daki zenbat neke jasan bear izan eban orretarako, liburu batzuk erosten ausartu zan. Geroago, aldi aretako idazle ospetsuen liburuak irakurten jardun eban: Zorrilla, Espoonceda, Larra Rivas Duquea, Hartzen busch, Breton de los Herreros, Molins Marquesa, Nicomede Pastor, Diaz, Gil y Carrasco, Patricio de la Escosura, Aita Arolas, Estebanez Calderon, Carolina Coronado, Miguel de los Santos Alvarez, Ventura de la Vega.

Azkenean 1845 garren urtean itxi eban burdin-dendea ta idazten asi zan, beste alogor txiki bat lagun ebala.

Udal-etxean alogoratu zan amar erreal irabasten, eta onelan iru urte emon ebazan, Castro y Serrano, Eguilaz, Luque, Arnao, Carlos de Pravia eta beste gizon adiskide on batzuen laguntzari esker.

Ume umetxutatik bertsoak irakurten ebazan eta baita be idatzi ebazan batzuk bere jaiotze Enkarterri lurraldetatik urten baño lenago. Eta jakiña, Madrillen jarraitu eban, Naizta asikeran apur bat ostenduz, irakurri ta idatzitu.

Bere adiskide Pablo Piferrek aoldatu eutson Joaquin Rubió y Ors (Lo Gayter del Llobregat), onen liburuak irakurteko, eta liburu oneik irakurritz Truebaren idazt-bizitza bide bari bat argitaratu eutson.

Ipuin eta bertsoen ganera, irakurgai ta novelak idazten dauz eta baita be itzuli beste liburu batzuk.

Aldizkaritza maitatzen asi zan.

Gasteizen bere adiskide Aiala ta Mantelik zuzentzen eben aldizkarian, Revista Vas-

gongadan (1847) bere idazkiakaz laguntzen dau, eta geroago (1849) Madrilgo Epoca eritxon aldizkarian.

On Manuel Maria de Santa Anak "La Corresponden de España" sortu ebanean, Castro y Serranoren aolkuak on-arturik, idazle lez Truebari dei egiten dautso. Egunkariak 120 ale autografikotik 25.000 ale tipograficora igoten dau.

"Semanario Pintoresco Español", "Museo Pintoresco" (1853-56), "Museo Universal" Gaspar y Riogena (1857-69), "Correo de la Moda", argitaratu ziran lenengoz bere "Cuentos de Color de Rosa" "Cuentos Campesinos" eta "Cuentos Populares".

Baña ipuin orrein ganera aldi orretan argitaratu ebazan beste liburu batzuk, novelak eta abesti-liburu bat "El libro de los Cantares" (1851). Liburu onen ondore-ona ain itzala, arrigarria, izan zan, ba da Españaiko estadu barruan sei argitaraldi egin ziran eta atserrian beste batzuk.

5.— Anton eta Teresa.

"Cuentos de color de Rosa", ipuin oneik Truebatar Antonentzat bere bizitzan izan zan eginkizunen ondore garrantsitsu baten uzain eta margozturik agertzen da; bere eskontza.

Bere liburutxuan "Cuentos de Vivos y Muertos" Antonek zeruko atetan gizon bi agertzen dauskuz. Oneik il-barriak dira. Lenengoa bein eskondua zan. Ara emen egin eutsoen sarrera:

"Aurrera jauna, bada naizta oben aundiak izan ludian, penitentzi naiko da zerua irabasteko"

Bigarrenaren sarrera guztiz ezbardina da:

Eskondua ala eskongea?

Birritan eskondua jauna.

Birritan?

Bai Jauna.

Joan zaitez, ba, umeldegira (limbo), ba da zeruan ez da sartzen zulako lelorik.

Baña, "naizta txakurkeriak eskontzatza esan an emen, eskontza gauza guztiz ona da.

Eta Trueba eskontz-zalea da, beztela ikusi, irakurri, zer diñoan Juan Palomo azken idazkietan:

Errukigarria bakarrik bizi danarena, ba da txakurrak uts-utsean, negar egingo dabe bera ilten danean.

Bere txirotasuna oztopo izan zan bere eskontzarako; 1859 garren urtearte ezin izan zan eskondu.

Aurrerantzean beragaz neke ta poztasunak alkar-banandu bearko ebazana, bere lagun maitea, Pradotar Teresa izan zan.

Jakifia, oba izango zan andragaiak dukat eta beste ondasun batzuan jabea izan ba zan. Baña, azkenean "dirua zaldun gizajo bat da" ta Jaunaren Andurea beti zain izaten da.

Lope de Vega kalean, 32 zenbakian Anton eta Teresa bizi izan ziran. Eta bere liburutariko onen bat, "Cuentos de Color de Rosa" maitasun aundi aren uzain gozo ta lilluragarriaz uzainduta agertzen da.

Bere adiskide talde batek, gazte ta emonkorrak eurak, altzariak opa eutsoezan, guztiak ziran izkizaleak eta eurak añako txiroak. Bere idatzietan "El Gaban y la chaqueta" gogorazten dausku:

"Aberats maitasun eta itxaropenean, liburu apal batzun egillea bere biotzak aukeratu-ko nezkatilla bateaz alkartu-barria da, eta bera bezela, ondasungabea, umezurtza, eta an goian, etxe txiki barri baten gorengo bizilekuan, kaleko 32 zenbakian bizi ziran, eta zorion osoa izateko euren egoitza apurtxu bat dotoreago izatea baño ez eben nai, gura.

"Goiz baten goizeti, 1859'ko Udabarria, lanera joan zan. Itzuli zanean, ... arratsaldeko ordubietan, arpegi dizdiratsu, alai ta zorioontsuz izan eban bere lagunaren arrera. Goizeko amarretan, zaldi-burdiaren atsean mutil gazte batzuk etozan. Une Batzuk barru altzariak etxe txiki barri aren gorengo bizilekuan egozan, gazteak euren beso ta lepotan eroanda, ja-zota-zamauztatzaillle ta arotz biurturik, gazte areik gogoz eta alaitsu, gelatxikian aulki ta jazarlekuak ezarri ebezan, mirail, ispillu, ta konsola ganean ordutegi ta toskako lorontziak, oneik benetako lora uzaintsu ta ezeakaz beteta aurkitzen ziran, asti-gelan mai txiki bat eta aulki-apatzak, idaz-gelan, liburutegia, mai bat eta idatz-tresnak, ja-gelan, maia bat ulezko mai-oial bateaz; logelatan oge txiki dizdiratsuak, gaba-maitxuak eta garbi-ontziak, eta bear ziran lekutan, txilin txiki ta apain batzuk, olan ordurarte txiro, goibel ta itun izan zan bizilekua, ederra, alai ta ia ia aberatza biurtu...

"Gazte areik Jose de Castro y Serrano, Luis de Egilaz, Pedro Antonio Alarcon, Diego Luque de Beas, Carlos de Pravia, Eduardo Gasset y Artime, Antonio Arnao, German Hernández, Vicente Barrantes, Luis Mariano de Larra, Manuel Fernández Caballero, Jospe Marin Baldo ta José Picon, danak bizilekua alaitasunez betetu ebenaren etxe-jaunaren bezela, ondasunez txiroak. Jaungoikoak ba daki zenbat neke ta estutasun jasan bearko ebezan altzari areik erosteko.

Ogeita iru urte geroago bere jaio aranera

Naizta ogetla iru urte Madrillen egon, Truebatar Anton biotzez euskotarra zan, ta bere ames lilluragarria bere jaiotze errira itzultea.

"Bere aita-amaren etxera, bere jaiotzeko lurraldetara itzuli ta bertan bizitzea izan da niretzat griñ-kutun bereziena. Etxetik kanpo atserri-lurraldetan nire erri-miñak eraginda une naigabe ta atsekabetsuak emon bear izan nebazan".

1859 garreneko Agorrilletik urriaren asiera arte, aldi laburtxu bat txangoa izan zala.

Diligentzi, edo zaldi-burdian, egin bear izan eban ibillaldia, ba da ondifo lparaldeste Bultza, "Ferrocarril del Norte" ez ebillen.

"Obras de Fernández Caballero", liburu guztiak beragaz eroan ebazan.

Bere ama maite, D.^a Marta urteak ziran il zala. Bere aita anai-arrebak eta gaztaroko adiskideak 1836 garrenetik ez ebazan ikusten.

"Adierazo bear dot, naizta ogeta urteak nire lurralde aitor-sume maitetik urrun egon, nire biotzetik, zapuzkeriz esaten dana, "el pelo de la dehesa" aldeegiazoteko ez ziran naiko izan".

"Ipuin onein egilleak bere aztura ber-beragaitik daki luzaro, urte asko, bere jaiotzerri-

tik urrun egon ondoren, gaztarotan etengabeko alaitasuna sortzen eben kanpai soñuak eta kerizpe izaten zan kanpadorreak, bere biotz-barnean zer sentitzen dan”.

“Liburutxu au idatzi ta gero jaio aranera lenengoz itzuli nintzanean, Cinto deritxon ton-torrera igon neban. Udagoineko arratsalde eder eder baten, nire begi aurean agertzen zan ikustegi zoragarria begiraten ordu bete baño geiagotan-egon nintzan; Egoaldetik Urduñako aitzetan amaitzen zan mendi-muru bat ikusten zan, Sortaldean, mendi tontor goi-goiak, lenengo Eretza, Galdames ta Gueñes bitartean, Elorriotik ur aurkitzen diran Amboto ta Urkiola azken izanik, Sortaldean, Mendiak Sobaren tontor goi goiak muga zirala, eta Iparraldean, lenen-lenen, Sopuerta ta Galdames osotzen dabezan basetxe zuritxuak an-emenka ezarrita ta bigarren, Kantauri itxaso eragintsua”.

“Nik, bere jaio-erria iguñiez begiraten dauana, naizta beste bere egikisun guztietan gizon on bat, ia deun bat izan, nire adiskidetatik kanpora itxitea, ezarten dot.

Bere erritar-neskatillak, “bere anaiaren alabak ez diranak, gaztaroko bere lagunen alabak dira”.

Nezkatillak ez eze, Enkatarri aranak ospetsu egin dauana ikustera urretzen diranak, ezezunak dira, aurpegiz ezezunak”.

Urriaren lenengo eguneta Anton eta Teresa, Madrilgo etxetxura, Lope de Vega kalean, itzuli ziran.

Zoriontsua izan zan bere eskontz-aroa?

Bai, “Alkar maite daben eskondu guztiak, eskonduak, eskongaiak dira beti”, bere liburu “Las sombras y las cosechas” idatziten dauan bezala.

Ames egin eben aifia zoriontsuak izan ez ba ziran, Trueba zendia izango balitzan lez bizi izan zan.

“Zer aulkatzen daustazu, ze aolku emoten daustazu?

Eskondu zaitezala.

Baño nire emaztegaigaz uts egiten ba dot?

Aukeratu dozunagaz erara egon zaitez, ba da gizon zentzundunak birritan ez dabe aukeratu bear. Naranja mingotzak, mingotzak dira beti, baño buru naikodun batek beti asma-tuko dau zarbait iragangarri izateko.

Beifiek bein, berari atsegin jakozan gauzetan alan egiten eben, eta alkar maite eben, osasuna ba eben, zer geiago eskatu lei Trueba ta Teresa bezelako biotz emonkor, on, maitasun-zale bikote batek?

Milla ta zortzireun de irurogeian, Loraillean, Igokunde egunean alabatxu bat izan eben. Igone izendatua, burutxu kirruduna. Bere aitak, Antonek, bost urte geroago idazten ebanetik, “oker eta eragiña, bizkorra, aingeru-zaiña izan ez ba eban, bere bateo ber-bera be millaka bider apurtu, zatituko ebana”.

Aldi aretan ondiño Enkarterri lurraldeak euskaldunak ziran; naizta gaztelar izkuntz eta kulturaren erazo gogorrak izan, lurralde polit aretako biztanleak euskera eben euren eguneroko izkuntza ta beraz Antonio Trueba be, naizta berak ifioanetik ez gutziz trebea, euskalduna zan.

Urte gitxiaz Madrilleratua izanik, Montillanoko mutil gaztea gaztelar izkuntz eta kultu-raz azi ta ezia izan zan. Enkarterriko nekazari mutilla, gitxi-ikasia, ez jakifia, Madrillen gi-zarte guztiz ezbardiflean bizi bear izan eban; baserriko laia, kako ta atxurraren orde, mos-tradore baten ostean, ferreteri, burdindenda, baten tresnak saltzen eguneroko ogia irabas-ten eban bitartean bere ikasi-naia, guraria, azetzen jardutzen zan.

Trueba fededun, sifilsmen bero-beroduna ta bere erri maitalea zan. Bere idazki, ipui-ñetan argi agertzen dau Enkarterri lurraldea zelan maite eban. Bere elburua egun baten jaiotxe errira itzultea izanik, baztertu, aldendu al eziñeko erri-miñ izugarri batek bere biotza nekazaritzen eban. Zekula ifok ez dau goraldu bere erria, Antonek Enkarterria goraldu eban lez; bere zorionerako ain leiatsu itxaroten eban gurari, naia bete eban, eta itzuli arrez-kerro Euskalerrian izan zan.

Milla ta zortzireun de larogeta bederatzian Epaillaren amarrean il zan. Bilboko Bizente Deuna eleiztarra; gaur egun milla ta bederatzireun de ogeian Epaillaren amarrean Maillo-nako illobitegitik eroanda bere uzkiñak, eleiz onetan aurkitzen dira.

Bere azken agurra, azken eresia benetan da zoragarria, gomuta dagigun:

Lepazutek ilten danean abesten dauala diñoe

eta gaur biotz ain-mingorra dot,

nire eztarria lepazutena balitzateke izatea.

Jaungoikoaren gogoa guztiz deun eta zuzena da!

Nigan egin bedi Jauna, berak agintzen dauana!

OLERKARI BAT GEIAGO TA NEKAZARI BAT GITXIAGO ZERGAITIK DAN

Aita, Seme ta Espiritu Santuaren izenean, "LARROSA MARGODUN IPUIN"ari emon dagiogun asiera, eta egin dagigun Bizkaiko Enkarterri deritxon tokitxu kutun, maitea gogoraturuz; zeifetan, beratan, Jaungoikoa, sendi, aberri ta lana maitatzen ikasi neban ibar, aran polita gogoraturuz.

Gogorapen maitagarri oneik eta zuk, nire kutun ori eraginda, eta zure biotza lenengo dardarituko dabena, ta zure begiak lenengo ezotuko diranak izanik, zelan idazti arrunt oneik, Jaungoikoa, sendi ta aberria goraltzeko geienbat idatzita diranak, zelan difiot barriro, ez dira izango garbi, garden, zintzo, minkunkiak?

Umetxutan atxurrak nire eskuak maskortu ebazan, eta arkatzak, atxurra baño tresna astunagoa, nire gizon eskuak legortu dauz. Ludian olerkari bat geiago ta nekazari bat gitxiago, zergaitik dan? Zerbait edestua uts-utsean dauan au, eta larrosa margoduntzaz bere funts baltz latz-ikaragarria, estaltzen dabezan nabardurak, entzun, aditu eizuz.

Uztailaren egun bero, sargori, bat zani. Aran sakonetan, aran eder sakonetan, andik ur bere aldamenen gure egoitza, etxea, egoan lekuan, an bean, kanpadorrea jasoten zan ordutegian amabiak jo ebenean, inguru aretako soloetan lanean ziardun guztiok, batzuk garia ebagiten; beste batzuk artojorran, igitai ta atxurra alde batera itxita, utxita, ordu erdi lenago etxeko-andrak artu eben bidetik bakoitza bere egoitzarantz poz, alai, abiatu gihan. Bitartean an urrunetan, egoitz, etxe, bakoitzeko ke-zulotik ke-edoi urdintxu bat jasorik, andrak gertatzen eben janari usain gozoa nabaritzen zan, bai kanpai doñu ta baita be jaki-amesak ifozkula: "Ala, ala, etxera, etxera, eguna agertu ordutik lanean, bearrean, jardunzen dabenak, eguzkia sartaldean estaltzen danean elikatu ta atsedean apur bat artu dagien".

Uda-min gogorrean, eguzkiak geien zigortzen ebanean, atsedeen-aldia amabietatik

ordu-bietara izaten zan. Eleiz-dorreko kanpaiak ordu-biak joten ebazanean, bazkalondokoa amaitu zala adierazoz, ze nasai, lasai, gogotsu soloetara itzultzen giñan! Atsedentzen emon genduzan ordu bi areikatik, nezka-mutil gazteak zugatzpe kerizpetsuetan alkar-izketan eta barreka, txantxetan emon ebezan ordu bi areikaitik, pozik eta alai!

Gure etxea, intxaur eta kereix abarotsu baten erdian ia estaldurik, baztertuta egoan, eta irureun bat urrats berago, oneik be zugatz artean ia estaldurik beste iru egoitz, etxe, teillatupe baten, bardin egozan. Gure etxe alboko landak inguratzen ebezan lurraldeak, kerizpe ta igaliak opatzen eutseezan zugatzpez beterik egozan ezkeru, ta euren albo batetik saretz eta urretza artetik joian errekatxu ozkirri, gardedun bat ebalako, Udan toki atsegingarriak ziran. Bazkalosteko orduan auzo etxetako ta apur bat urrunago aurkitzen ziran basetxeta-koak, gazte ta ez ain gazte, bertara igoten eben astia emoten.

Esan dodan lez, Uztailaren egun bero, sargori, bat zan, eta gure etxe alboko, gure auzuneko auzokide guztiok, bazkalondokoa egiten, bertan batzen giñan.

Baña aaiil danok esatean guzurrea diñot, an erriko mutil gazte, lerden, jaseko ta saoi onekoen utsa zan. Aldi aretan, Españako lurraldeak eta batez be Euskalerrrikoak, guda zital batek, guda guztiak dira zitalak, anai arteko guda batek atsekabetu ta ondatzen ebazan; naizta azken illeetan Enkarteri inguruan zioo onetzaz ondamen izugarririk ez zan nabaritzen. Izkilluak erabilteko gauza ziran mutil gazteak, amazapzi urte izan orduko ta, euren gorputzak zoli ta indartsu agertzen ba eben, gazteagotan be, karlista gudarostean kide izatea, nai ta nai ez bearturik izaten ziran.

Alkar-izketa, egun aretan guztiz illun, mingarria zan. Aurrerako egunean, erregiñaren gudarosteak alboko erri baten egin ebazan kalte izugarritzaz ziardeen.

Onetan, kereix-ondo baten otzaratxu batera bere igaliak batzen egoan mutil batek, bereala ikeratuta oiuka iñoan:

Kristiño bat! Kristino bat!

Kristino bat, non? bera baño be ikeratuta ta alde guztietara bagiraturaz, itaundu geutson.

Pasadasetan, otsaratxua kereizaz beterik adar, kereix-adar, baten eskegita itxita, utxita, leiatsu jaitsirik, mutillak esan eban.

Pasadas alderantz, ikeraz, artega, kezkatu danok begiratu genduan. Pasadas etxe goiko aldean, mendi ta solo-lurralde bitartean egoan tontortxu bat zan Eta zuzen be, alan zan, gaztain zaar zabal baten enbor ostean estaldu gurean, kristino bat ikusi genduan.

Aldi aretan, kristino, ondiño umetxua bere Andra Maria Kristina erregiñaren babespean zan Isabel erregiñaren alde-jokatzen, gudadzen, ebenei deitzen jaken. Gure mendi ta ibar, aran, areitan, gudaroste onen aurkezpena benetan izugarria izaten zan. Gure erritar gazteak karlistar gudarostean jokatzen eben, eta beraz eurak gure erria euren arerio, etsaia zala uste izanik, oinperatzen eben lurraldea kalte izugarrien jabe izaten zan. Gudea, Jaurigoikoak madarikatu dagiala, ta batez be anai arteko gudea, ba da ez dau ez zuzentasun ez biotzik, naizta alderdi batekoa nai bestekoa izan.

Kristinoa agertu zan beste aldean, ibarska bat egoan eta bertan, gudari aren talde-

koak, gudarostea, egongo zala uste genduan. Bere gudari-soiñekoak kristino zala jakinarazi euskuen. Erregiñaren aldeko gudarostean jokatzeko ebalatzen dira.

Unetu batzuk geroago lurralde aretan ez zara inor ikusten, danak izututa, bakoitza bere abere, soiñeko, jan-edari, ta al eben guztia estaldu ta babestu gurean, iges egin eben. Bardi-bardin jazoten zara kristino gudaroste-talde bat agertzen zanean. Euren artean, gudari batek baño geiago gure erria, Euskalerra, etsai, arerio, bezela ikusten eben.

Gure etxea arriskutsuena zara; lenen, kristinok aukitzen ziran edo agertzen ziran lekutik, urrago egoana zalako. Nire anal ta biok kortatik idi ta beiak atarata eurakaz estarta kerizpetsu batetik, gure etxe aldamenean goi-aldetik egoan gaztañedi abarotsu batera iges egiteko gengoan bitartean, gure aita-amak etxean, beratan geratzen zara eder baliotsuena estaltzen zirelauden.

Nire aitak zeregin au amaitu ebanean, leioan agertuz, zelan geldiro-geldiro, aldizka gelditurik, mendiska tontortxuaren bildur balitz bezela, zugatz-enbor lodienetan estalduta, lurralde eztalki-gabeak baztertu gurean, kristinoa jaitsiten zara ikusi eban. Naizta nire aitak bein eta barrero mendi tontor guztietara begiratu, ez eban ikusten beste gizonik jaitsiten.

Marta, inñotsen gura amari, kristino jaitsiten da...

Jaungoikoak zaindu gaizala! nire amak ikeratuta erantzun eutsan.

Baño bakarrik jaitsiten da,... edo ez da kristinoa...

Ba, ez da izango ba? Longain arre, ugal zuri ta buru-babesa ba daukaz?

Karlistarra izango balitz, txapel gorria, kana ta longain baltz-illuna eukiko leukez.

Baño kristino ez karlistea izatea izan leiteke.

Baño gizona, zoraruta zara, ala? Ostantzean zer izango da ba?

Ez bata ez bestea, errukarri bat, zorigaiztoko bat.

Aaaii! Jaungoikoak ori izatea nai, gura, dagiala! zerurantz bere begiak jasorik, eta itxaropen-izpi batek nasaiturik, esan eban.

Nire ama, errukigarri, zoritxarreko bat, izan daitela, Jaungoikoari eske! Nire ama maite deun eta gozo-biguna! Giza-bizirik zelan ustegabetasun bereziak agertzen dau zara!

Kristinoa intxaur eta kereixpean egoan, eta ez zara beste inor inñondik ikusten. Bera bakarrik etortea, eta gizon arek agertzen eban istasun eta bildur ikaragarria nabariturik, nire aita-amak guztiz nasaitu ziran, eta etxeko leio barrutik begiratzen eben.

Nire aita ausarta-ausarta esaten dabena ez zara, baiña "oilloa" be ez, Indapendentzi gudan ori ondo baiezta eban, beragaz, kristinoaz, topo egitera joan zara, eta une bat geroago, nire ama, naizta bigun, gozo ta bildurkor bat izan, bere gizonaren arriskuan kide izatea gure izan ebana, bere atsetik zala intxaurpetan agertu zara.

Jaunaaaaa!... bildurkor kristinoak esan eban.

Eta beste itz, bertarik esan ezirik, kereix-enborrera izkillu, fusilla, alboratuta, izkilluak baztertu ta etsemendu egiten zala adierazorik, nire aitagana urreratu zara.

Zer da ori, gudari? Zer gaxorik zatoz?, maitasunez nire aitak, itaundu, galdetu eutsan.

Aiii! Bai jauna, gorputz eta arimaz gaixorik, jauna! begiak negar-malkoz betetzen jarkozala, kristinoak erantzun eban.

Nire amak, bai erantzun onegaitik edo baita be berantzat negar-malko areik irudi argiak ziralako, mutil gazte a zoritxarreko bat zala argi ikusi eban; eta onez ganera mutil arek lenen-lenen bear eban laguntza ama maitale, bigun baten maitasun bero-beroa zala. Gure amak bere ariman, biotzean, ain gozo dan onetariko altxor ugari eban ezker, gazte areri, obeto esanda ume areri, bere biotz-bero maitasuna leiatsu eskeifi eutsan, opa eutsan.

Etorri zaitez, zatoz gugaz, nire seme meitea, ba da ama naz eta nire errailetako ume-txuak gure Jaun eta Jaungoikoak ifoiz babes-gabetu ez daiazan, nik zeure ama izango bantiz bezela, zaindu ta babestuko zaitut; bere esku bateaz sorbaldatik oraturik, eta sukardun, dardaratsu eban gudarien eskua besteaz alkar estututa, nire amak biotz-eraginda esan eutsan.

Bere esker-ona, itzak, berbakaz baño negar-malkoakaz obeto adierazorik; gudaria nire amaren atsetik gurera joan zan. Bitartean nire aita etxetik urratz batzuk urrunduta, aurretizik oartuta genduan keifu bateaz, nire anai ta nire arriskurik ez egoala, ez zala, adierazo euskun.

Gozez eta nekez erdi illik etorriko zara, ez? janari apur bat gertatzen asiaz, gudariari itaundu, galdetu eutsan.

Geien nekarazten nauana, gazteak erantzun eban, izugarrizko narraskeri, garbitze-gabe au da...

Ba beingo baten, txistu baño arifiago, zidarra bera baño be garbiago ta urraza, letxua-gea, baño ozkirriago ezarriko zaitugu. Nire seme Antonion soifekoak zuretzat guztiz ego-kiak izan bear dabe.

Arik une batzuetara, nire amak, gudaria garbitu eiten jabo ta ura gertuta eukan etxeko gela txiki onenatariko batera eroan eban; orrez ganera mutil errukigarri arek jantzi-aldatzea egin al eiten, soifeko guztiak gertu egozan, txiroak, ori bai, baña ia barriak eta guztiz garbiak.

Nire Igandeetako soifekoak ziran. Egia esan, nire soifekoak gudari arentzat, berantzat egifeko bezelakoak ziran, ba da ni naizta amabost urte baño ez izan, orain aifako goia nintzan; alde batetik, nire adiferako larregi zala uste izanik, arduratzen eban. Aurrerako aldi baten karlista-talde batek, erriko mutillak euren gudarozterako lerroratzen bertatik igaro zanak, eurakaz eroan gura izan ninduen; giza-betea neurritz gora nebala esanez, eta izkilla, fusilla erabiltzeko adifnak ez ebala lebarik, ardurarik, gizonaren giza-bete, goiak baño.

Nire amak arazo au olan ikusirik, ifioan:

Nire biotzeko seme maitea gudarostera joateko adifna arte eroango ez baleuzkide, beintzat onetaz ziur izango banintzake, nasai biziko nintzake, Jaungoikoak guda zital au aldi orretararte, nire semeak gudarosteara joateko urteak izan arte, ez dau zillegiko iraun dagian; baña usterik gitxien danean ondiño ume dala eroaten ba dauste, tiroifi, bala, batek ilten ez ba daust, bere izakera bildots bezelakoak, bigun, gozo, lotsorak ilgo daust.

Jaungoikoak gudaren izugarrikerietarako ez ninduela azi, esaten ebanean, nire ama zuzen egoan.

Bizkaiko basetxeetan Gabon aurreko egunak, txarriak ilten diran aldian, sasoietan poz

aundikoak ziran, eurentzat txarri-iltearen osteko jazokisunak garrantsi aundia dabe, batez be txarri-erretea onetarako gertu eukiten dabezan ira legor edo gari-galtzuaz, apatzak ondiño bero dagozanean zuzkertzea, mutikoak eurakaz gero jolasteko, ta amak umeentzat egiten eban buzkentz txiki ta lukinka txiki bat opari bezela artuaz, benetan egun areik pozgarririk ziran. Ain leiatsu itxaroten eben egun ori, niretzat urte osoan kezka larri bat izaten zan. Beste mutil batzuentzat, nire adifiekoko beste mutil batzuentzat, aberea, txarria, ol ganean etxunda ezartzean, anka batetik oratuta edo bai txarriaren odol beroa ontzira itzultzen zanean, zotz aundi bateaz nastatzean, eurentzat jolaste bat ziran egikisun orreitan lagundu ez eze, alboko, etxe alboko gaztañedira iges egiten neban eta bertan esku biakaz belarriak estaldu, estutzen nebazan, abere ilgai erukigarriaren girrintz mingarriak ez entzutako.

Gizasemeen zitalkeri batzuk ezin dodaz ulertu. Abereak geure etxean, egoitz ber-beratan aziten doguz, umetxutan eurakaz jolasten dogu, adimendu gizakien bezela laztandu ta maite izaten doguz; eurak billatzen gaitue, ta adimen eta biotz-dun balitzakez bezela, laztandu ta maitatzen gaitue. Guzti au, txarri, bei, idi, ardi, oilloakaz jazoten da, ta ostera euren okelakaz, aragiakaz, gure jan-gurea azetzeko izugarrizko iltea emonez, poztu, alaitu egiten gara.

Autortu bear dautzut, nire maitea, bizitzan, giza-bizitzan onetariko gauzak, zerbaitzuk, nire barnean kezka, zalantza izugarriak eragiten dabezanak dirala. Egikisun oneik ez dira zuzen, erakoak eta bai zitalkeri ta izatearen aurkako izugarrizkoak, edo ni ludi onetara okerkuntsa bategaitik etorria naz eta beratan uts-utsean jan-txakur bat.

Bitartean Juanek, Jonek, ba gudariak olan deitzen zala esan eban, arimaz garbi diranak egiten daben lenengo zeregin bereziena danean ziardun, au da, bere gorputza garbitzen. Bitartean gure amak zekulako zuku arrautz eta txingor batzukaz gertatu eban, il bat ber-bera be biztutzeko bezelako zuku bat.

Jonek, eguzkia bezela garbi nire iganderoko soifiekokoak burutik oifetara jantsita urten ebanean, gure amak nire irudia zalako atxakiaz, irribarre ta negar batera, maitekibat emon, ondoren sukalde, sutera eroanda seme-alaba jateko gogo-gabe egoten diranean, izaten diranean, ama guztiak agertzen dabezan errazoiak esanda, esate baterako, jaten ez dabenak bizitza-miña dauala esanda, jakia jateko adorea Jonegan sortu eban.

Gure aitak bitartean, gudariaren izkilluak eta gudari-soifiekokoak, gaztaiña zaar enbor zulo baten estaldu. Toki egokia olako estalketarako ta baita be beste gauza aundi ta balioitsuagotarako; errian zoritxarrez, karlistar gudariak agertzen ziranean, bein baño gelagotan ezagutu ebana.

Erritar guztiak kristinoa, mutilla, karlista ez kristino ez zala jakitun ziran eta bai zorigaiztoko gazte bat, orregaitik arratsalde osoan euren soloetan nasai lanean, bearrean, ziardun eben. Illuntzean lana amaituta gero etxeetarantz, euren etxeetarantz abiatu bearrean, erbes-tetarra ikusteko gurari biziaz, nondikoa zan eta zerk eraginda, gure etxe inguruan an emenka ezarrita etxeak eta Lugarez auzoa osotzen daben toki aretara jaitsi zan jakiteko asmuz, abiatu ziran.

Gaba illargi-bete ta guztiz atsegingarri. Gure etxe goi-aldamenean egoan gaztaifieldian ez eze, etxe aurrean, landa txikitxuan, alboko ortutik gaiferatzen ziran urretz kerizpettsu batzuk makurtzen ziran landatxua, soloetatik etozan auzokideak batzen asi ziran. Batzuk bide aldameneko zoztor ganetan eta beste batzuk, gure aitak neguan mukur utsik ez izateko, Udal pillotu ebazan egur ganetan jazarri ziran.

Illargi argitan izan zan batzar aretan, Jon bazkidea zan, eta mutikoak, gure amak esaten eban lez, estegu guztietako aitorleak, beragaz, Jonegaz, adiskide benetakoak gifan, eta bere gudari-bizitzaz itaunketa, galdeketa, amaibakoakaz erdi-zoratuta genduan. Izan be, mutikoentzat, gudarostea, gudari-bizitza, beratan eta beragaz larregitan lagun izaten diran odol eta gogorkeria ez da nabaritzen, eta bai beratan izaten diran margo, soifiu ta neurrizko mugimenduak.

Ixildu zaitze, etsai barrabanok! gure larritasuna Jonek berba, itz, egian ikusirik, gure amak esan eban. Nagusiok, adifekook, bertan jaloa izan balitz maitatzeko bere bizitza zelan izan dan jakin bearrrik ez ba dogu, ba da bere arpegia ikusita argi dago gu aifako ona dala, ume mokoti batzuk bere bizitza kondaira edestu-azotea, lotsagarria da.

Milla-esker Marta, biotz-ikara ta tolesgabe, gazteak esan eban. Baña mutiko onein eta zuen guztion erakoa be bai da, ta zuen guraria, naia, betetzera noa.

Ni Burgoskoa naz, uri onetan jalo nintzan eta beti bertan bizi izan naz. Ille gitxi dira zortzi adifia izanik, erregifaren gudarostean gudaritu ninduen. Nire aita alogore laburreko langille bat zan. Instituto ikastetxean bigarren ikasketak egin nebazan, gero Valladolidera Osagilletza ikasketak egitera bialdu ninduen. Nire aitak, lege-gizon edo beste lagintza bat baño etorkisun obeagokoa zala eritxon, ba da berak ifioan, oneitan ikasketak amaitu edo eginda ondoren, luzaro egon bear izaten ei da irabaste egokiak lortzeko, ori ifioiz lortzen ba dira, baña nire aita ondifo gazte zala il zan. Galtze onek eta bere ondorioz nire ikaskuntza itxaropena galduak eragin eutsan samin, oifazeak jasan ezifnik, nire ama ni gudarosterao adifia, zortzi joateko adifia baño ille batzuk lenago bera be il zan. Zio onegaltik ama alargun txiroen semea bezela gudarostetik baztertua ezin izan nintzan. Nire errian nire jaiotze erri gogamenak izan ezik ez dot ezer, eta eurak be atsegingabeak; umetxutako gogamen alaiak eurak be, illei dagokien illuntasun estalgarriaz agertzen jataz.

Mutil errukigarria! andrazkoak euren amantalakaz begiak igortzirik ifioen, eta euretariko bat, gure auzokide batzuk, bere osaba-izekoakaitik, aita-amagandik umezutz geraturik etxeratua izan zana ta Karmen eritxona, beste guztiak baño samintasan, oifaze aundiagoaz ikusten zan.

Eneel Karmen negarrez ikusirik, mutikotariko batek esan eban. Argi dago Karmen kristinotarra dala!

Ixildu zaitze arlote oril kokoteko bat emonaz, bere amak esan autsan. Karmenen negarrak kristino ez karlistakaz ez dabe zer ikusirik, ez dira orreik nezkatilearen arazozen ziorik; gudari errukagarri bezela, bera be aita-ama barik geratua dala baño.

Kondaira onetaz aurrera jarraitu baño lenago, eta obeto ulertu dagizun, mutil maltzur aren urteker a gaiztoaren zioa azaldu bear dautzut. Mena-ibar, aretako mutil auzokide azko erregiñaren aldekoak agertu ziran eta beraz bera babestu gurean euren gogoz izkilluak ar-tu, aran erdian, arreziz inguratuta egoan antziñako Villanueva dorrean borrokan ziardun eben. Karmela tolesgabe, zintzo izanik, nire baserrira eldu zanean, umezurtz, iñor-gabe, bere zaletasuna erregiñaren alde zan, bada bere aita karlistatar gudarien aurka ziardun ebala, balakada bat bularrean artuta il zan.

Erritar guztiak naizta zaletasun ezbardifekoak izan, eretxi ezbardifekoak izan, griña, zaletasun orre in zioa ta zintzotasuna onizat artzen eben, eta iñok ez eban iñoiz uste izan laidotu ez da be eurei dagokien itzala ukatu.

Jonek bere kondairatzaz jarraitu eban.

Nire aita bere azken urteetan, nik osagilletzarako ez nebala balio konturatzen asi zan, eta nire griña ta zaletasunari obeto dagokion beste bizi-bide bat oldozten, ba nire amak esaten eutsan eta berak be olan eritxon:

Ogi-bide bi dagoz Jaungoikoak mutil onantzat ezarri ez dauzanak, osagilletza ta gudarostea. Baña zelan umetxu au, guztiz bigun, gozo ta errukitsu au sendagille lez bizi az nekatzen diran artean, eta sarritan gaixoa zuzpertzeko, miñ izugarriakaz nekatu-arazten, zori-ontsua izan leiteke? Sendagitza bizi-bide deun eta zindoa da benetan gorputz-abade, apaiz, da; erretore, parrokoa arimaren abade dan bezala. Baña sendagintzan jarduntzeko arima sendo, adoretuak bear dira, eta ez nire seme errukigarri onen bezela bildulkor, adikor-
rak, bada aingeruz beteriko ludi bat eta zero urdin edoi-gabe eta ekaitz bako bateaz, amesetan beti da. Beste alde batetik, Osagilleak bere seme-alaba errugabeak sendakaritza-ri dagokiozan arrizkuetatik ezingo dauz geriztu, bada eguneroko lan gogorretik, atsedan apur bat izateko etxeratuta besarkadutzen dauazanean, ze ziurtasun dau, bere sabelera urreraturik edo laztandukeran, naastau dauazan ule, ile, kirru areik bere eskuakaz eratzean, ze ziurtasun dau, diñot barriro, euratan, esku ta osagillearen soñekotan ez ba daroetse izugarrizko kutxazpen bat eta ondoren euren eriotza? Gudarostean be ezin leike gure semeak aurkitu zorionik, eta ala bear zoritzarreko batek ogi-bide orretara deituko baleuskio, nai ta nai ez eriotzara eroango leuken langintza orretatik baztertu bear dogu. Bere izatea, griña ta eretxiak, gogorkeri ta odola izuritearen aurkakoak izanik, eta oneik gudari baten zeregiñ bereziak diran ezker o, gizon arteko borrokak ezeze, bere griña ta izakearen aurkako eten-gabeko borrokak, bere eriotza izango litzake.

Nire ama au entzutean eta nigan gogoratuta, bere begiak nigan ezarrita, dardaraturik geratu zan.

Nire amak olan oldoztukan errozoia eban, Jonek jarraitu. San Martin ate aurretik, urkaitzaillea bertan bizi zalako uts-utsagaitik, iñoiz ez neban igaro gura izan; abere-iltokira iñoiz ez neban gura izan urreratu, mailluak euren buru-azurrak ezerezutean abereak egiten dabezan murruez mingarriak entzun eztegitik; iñoiz ez neban gura izan joan zezen-zelaira, ikusgai edo erri-jai basati, odolko i ori ikusi eztearren; españatar gizasemeak, abereak erru-
kigarriak izan leitekezela uste ez ebala ikusirik beti sumindu nintzan; bada abere gaitz-artze

ankerkeria ta euren eriotz eta oiñazpenakaz izaten daben ajola-gabekeriak baleztatzen daben ezkeru.

Nire amak niregan bere begiak aditurik, biotz-eraginda iñoan:

Nire seme errukagarri au, bardin bardiña dal

Nire txastamen eta jolasketak, Jonek jarraitu eban, notintsa, gentetsa, bizkortzen dauzazanetik guztiz ezbardiñak ziran. Niretzat soñu on bat, irri-antzerki on bat, liburu on bat, lauki eder bat, ikus-irudi on bat, eleiza-nagusian, jauretze aretan gordeten diran ainbeste altxor izugarri, bai erletitzaz eta baita be siñismen buruz, arima-konkorduta ordu luzeak begirutzen ziardunez, arto-solo loradunak zearkatuz; begiak eta adimena izarrez kateztatuko zeru urdiñean begiraturik edo sutondo baten inguruan agure itzaltsu edo etxe-andra maitagarri batek kondaira izugarri edo arruntak edestutakoak, ume ule, ilekirrudun umetxu begi urdindunak eta gazte-kuntze bietakoak, euren adimena ortzi amaibako, dizdiratsu ta gorrikatsuetatik izaten dirala, entzun.

Gure biotzeko seme kutun onen lez bardin-bardin! ixillean barriz nire amak, bere eskuman egoan nire aitagan aditurik eta bere esku maitekorra, ezkeraldean nengoala nigatatz luzaturik, iñoan.

Jonek jarraitu eban.

Gudarostean sartu ninduen, eta azaldu ezingo dautzuedazan, ez da zuek ulertu be, nire neke ta samihak asi ziran. Bere egoitzan oituratuta egoan amaren beso gozo, kutunen orde, gudari errukigarriak, toki ta ordu guztietan bere arima ta gorputzean burdiñezko kateak izaten dauz.

Lokarri areik niretzat jasan eziñekoak ziran; ni, txoriak bezela egazka lur eta zeruetatik azke oituratuta nengoana; Lokarri areik, zio naikorik izanik, ba zan ostera gudarostean bertako Araudi kateak eta bertako gudaritza-nagusien, aundi ta txiki, militarren berezko nausikerian ganera beste oiñaze, biotz-kezka izugarriago bat. Gudatea zan, eta gure eguneroko zeregin berezia lapurreta, iltea ta erretea. Niretzat jardunaldi au izugarrikoa agertzen jatan eta nire biotzeko indar guztiekaz sumin-arazita baztertzen neban; zoritxarrez nire gudaroste-lagunen artean nire izakera ta sentipena ulertzekorik ez zan, bai nire Nagusi ta bai nire gudarikideen artean, gudari epel, koldar eta zaindu, babestzen genduan alderdiaren aurkako bezela begiratu izaten nintzan, eta onein guztien ondorioa eguneroko zigorra zan.

Nire gogo ta gorputza be bai, jasan bear izaten nebazan antzerkeriakaitik auldu, makalduta aurkitzen zan, eta nire azken ordua, naizta gaztetasunak antzerkeri guztiak naiko erre jasan al izan, urreratzen joiala nabaritzen neban. Orain ille bete bat, emakume errukigarri bat tiroz-ilteko, fusilatu egiteko, talde baten kide izatea izan neban; bere erru guztia karlistar talde bat babestea, talde onetan bere, emakumearen, seme bi egozan eta berak mezu bat bialdu eutsen, eurak, karlistatarrak, atxilotzera goiazala adierazoz.

Bear bada, neure izkillutik urtenda bala anbatek bere buru-azurra zatiturik, emakume errukigarri a jauzten ikusi nebanean, neu be, konorte-gabe lurrera jauzita; nire nagusiak eta baita be nire gudari-lagunak koldarkeri bat bezela jazokisun au arturik, euren sumin eta arbuioz osatxera eroan ninduen.

Atzo, nire azkenengo neketatik apur bat bizkortuta, nire talde, konpañiagaz Balmasedatik, mendizka orren beste aldean dagon, erri, baserrira, bertako biztanleak zigortzeko asmu-
muz urtenda; bada bertan egun batzuk aurrerago gaba emon eban karlistatar talde bateri
ostatu ta otamena emon eutselako, etorri giñan.

Nire gudari-lagunak egiten ebezan basatikeriak egin ezeze ikusi be al ezifñik, nire la-
gunakandik ez-arian aldendurik, mendi beko-aldean dagozan gaztaifedietan barneratu
nintzan. Nire betiko amesa, nire egarria, nire arimea, gogoia atxilotuten daben izugarri-
riakaitik azke izan daiten, egazka azkatasun-aize kutunak gozaten izan daiten ludi barriak,
gizarte ta bizi-bide barriak ikertzera izan da. Orregaitik ia uste-gabe igon-igon, geldiro-
geldiro zer egiten neban konturatu barik, erri, baserri errukigarri aretan, an bean, beko-al-
dean entzuten ziran aieneka ta sugarretatik atunez igeska, mendi tontorrera igon neban.

Bertan, mendizka tontorrean, azaldu ezifñeko ames eta itxaropenentan luzaro, ordu lu-
zeetan, konkorduta ziardun neban. Baña ames eta itxaropen areititik, bereala turuta ta tan-
bor doiñuak, erri aretatik, baserri aretatik alde egitera deiturik, izartu ninduen.

Igeslari! lotzez eta arrituta esan neban.

Nire lagunakaz batzeko, biltzeko, urrats batzuk jaitsi nintzan, baña arin gelditurik, eu-
rakandik ordu larregi aldenduta egonda, eurak jarezteia lortzen ba neban, zitalkeriz zigortua
izango nintzala, oldoztu neban; orrez ganera gudatean, gudaroztea niretzat liltze-ziur bat
naiko urra ta eriotza bera baño be zitalkeri izugarriak aurretizik jasanez, zala, gogoratu ne-
ban.

Barrero mendizka tontorrera igonda, eta aran, ibar, eder onetan eta batez be errizka
txiki polit oneitan, nigandik ain ur, larretik gaba urreratzen zalako itzulten ziran bei ta idien
txillinak entzunda, eta iturritik itzulten ziran nezkatilatxuen barre algarak, eta larretan abe-
reak biltzen ziardun eben mutikotxuen abots gozoak, eta euren atxurak lepoan arturik, so-
loak itxita, utxita, euren egoitzatara itzulten ziran andra-gizonezkoen alkar-izketak entzurik,
neure gogo, biotz barne-barnetik esan neban:

Ludiko tokitxu onetara jaitisiko naz, eta ibar beko-aldean, otoitzera deiturik dagon
eleiz aren kerizpean bizi, lan, bear egin, maitatu ta atsedentuko naz. Ibar, aran au nire ludi,
nire aberria ta nire egoitza izango da, eta bertako agureak nire aita-amak izango dira, ber-
tako gazteak nire neba-arrebak, eta neba orreitariko arreba bat, nire biotzak aukeratuko
dauana.

Ala, aala! Kezkatu zaitetz, Karmele, ba zuk ez dozu nebarik eta beraz Jonen emaztegaia
ezin zeinteko izan! mutiko maltzur arek, arterago be gudariaren berbetea geldi-arazi eba-
nak, esan eban.

Naigabezko zurrumurru ta amaren kokoteko bat, mutikoren urtekera aren ondorioa
izan zan, eta batzarkide guztietan barre eragin ez ba eban, begi guztietan eta biotz guztietan
biotz-eragin samifizekoa zalako, izan zan, bada senar-emazteak, anal-arreba, emaztegaia,
danak gudariak ifioana entzutean, izugarrizkeriz eta maitasunez, karlistatar gudarostean
edo bertarako izendatuak ziranak jasan berarko ebana ta gudaritxu arek isabelinotar guda-
rostean jasan ebana oldoztutzen, gogoratzen eben.

Ama guztien artean, nirea zan atsekabe, biotz samurtzuena, ta bere begiak negar-mal-koz ondatuta, illargia bera baño dizdiratsuak ziranak, ulertu bai, baña azaldu ezifeko, bein eta barriro ningan begirekada kutun eta bigunak egiten ebazan.

Aala, esan eban, danok gara atsedean apur baten bearzaneakoak, eta iñor baño geiago Jon.

Guztiok jagi glifan eta adiskide ta begikotasunez gudarian eskua estutu ez ebanik ez zan izan.

Eta ni, dardaraz biotz-eraginda gudariak iñoan, ni, gaba osoan urrengo goizarte jai-tsiteko bildurrez mendi goian egon nintzana; ibar, aran onetako biztanleek, nire lagunak beste aldeko biztanleak egin ebena, nigan mendekatzeko egingo ebela uste izanda, bildurrez nengoana!

Ba asmakisun orretan ez ziñan bat be egon zuzen, gure amak irribarre maitekizoz esan eutsan, eta ederto egongo litzake zure biotz aukeratu enkartarritarra ez izatea.

Ara ba! len aipatuko mutillak iñoan. Orduan bere emaztegaia Karmen izango da, erbestetarra da ta.

Batzarkidè guztien barre algarakada bat mutikoari, Estranbonek edestuten dauan bezela, orain bi milla urte kantauritarrek illargi-beteko argitasunean izaten ebezan antzera, gure etxe aurreko atean izan batzarraren amai izan zan.

III

Urrengo urtearen Urria zan, eta beraz Jon kristinoa Lugaresera eldu zala, urte bete baño geiago.

Nire ama, gudea amaitzeko itxurarik ez ebala ta iñok nire jaiotze-txartela ikusi-gabe, amasei urte oraintsu egiñak nebazala adiarozten ebala, eta beraz amazapi urte beteta ez nebazala sifñestekorik ez egoala, uste izanik, geroago goibel eta larriago zan.

Karlistatar bilketari batzuk, aurrerako egunetan errian egon ziran, eta talde orretako nagusia zan sargentoak, naizta nire jaiotze-txartela erakutsi, beragaz, bere taldeaz eroan gura izan ninduan. Bizkaian izan zan jaurlari-gizon, batek, legea ulértzen eban bezela arturik, bere eretxiz epaille ta agintariak bete bear dabezan legeak, norberan giza-barneak adierazoten dautsenak izan bear dabela, uste eban; eta egia esan, eretxi onen egokitasunak ugarriak izan leitekez, euretariko bat, udal-zain bat legegizon edo legegille guztiak baño jakitunago izatea, ta beraz ainbeste lege-batzar eta lege-biltzaille ez litzakez bear izango, eta ez da be, antziñako, barri, berri eta azkeneko laburtzapen bilduta diran oar-idazki izugarri orreik erabili bear izanik be.

Sargento-bilketari Jon eroateko ez zan saiatu, bada erregiñaren gudaroztea itxi, utxiten ebenak, euren gudari-soiñekoak eta izkilluak emotea, itzultea uts-utsean beartuta izaten ziran; eta gero karlistatar gudaroztean lerroratzea bere gogoz izango zan. Ori bai, sargentoak gudari igesleari aren soiñeko ta izkilluak emon-eraztea gogor eskatu eban, eta

onek, gudariak, pozik eta gogotsu bete eban bere gurari, naia, onelan ziur zan, karlistata-rrak gozatzen eban zorion eta poza ez ebela keska-araziko.

Alan zan, Jon bere aita-amak galdu ebazanetik ain zorionsu ez zan zentitzen lan, bear egiten eban, maitatu ta maitatua zan, eta zuzen be au, biotz on eta adimen garbikoak dabezanentzat zorion-iturri bereziena da.

Bere eskuak atxurra erabilten oituratuta ez ziran ezkeru, lenengo egunetan apur bat makaldu ziran, baña norberan izate aurkakoa ez dan guztia gizonak bere gogoz lortzen dau, ta lana, bearra, aurkakoa ez izan ezeze ongarrri, mezedegarria da, eta Jon gaiztasun aretan garaille arin izan zan.

Errian, lanean Jonen bezelakorik, ingurukorik ez zan eta orregaitik erritarren artean goraldua. Bere lagilletasun bereziaz itsuturik, erritar etxegun nagusitariko batek, olan ifioan.

Mutil orrek, eskontzea erabagiten dauanean eta gure artean erritar bat geiago izan, erritaratu, nire basetxe onenatariko baten bordaria izango da.

Langilletasun, langille on bat izatea, gizonak eta baita be emakumeak, Bizkaian izan bear daben zeintasunik bereziena da. Norbaiten zeintasunik jakin gura izaten diranean, lenen-lenen langille ona, beargif on, ba da begiratzen da. Langille ona, langilletasunean onenatarikoa dala jakifik, bere beste zeintasunik, guztiak onartzen dira. Ziurtasunez uste izanik, langilletasunean ona ba da, bikalifa ba da, beste zeintasunik guztietan be ona izango dala, eta oster langilletasunean txarra, alperra ba da, beste zeintasunik guztiak be bardin zamarrak izango dirala, uste izaten dogu.

Jonek, erri, baserri onetan, bere gorputz eta arimaren osasun osoa aurkitu eban. Birtartean bere indarrak be sendotzean joiazan eta bere arpegia, eguzki ta lurraldeko aize osasuntsuak eta arima, gogo, nasaitasunik eraginda, margo erdi gorritzka erdi baltzaran biurtu zan. Bere arima, gogo, nasaitasuna ezin obe irrikagarria.

Bere arima, gogoak, ludi aingeru eta zeru, ortzi, garbi edoigabe, ekaitzgabe ta antzifitako istasunik apeta, zaletasuna, ez eban galdu; Baña nire amagan eban apal, tolesgabe zintzo arein artean, eta lan, zeregin gogor, neketsu areitan bearturik izateak, ez zan Jonentzat, difiot barriro, eragozpiderik estitasunik eta alai bizitzeko. Baserritar, nekazariak, Jaungoikoagandik arima, gogo, olerkari amezale ta bigunduna jabe danak, naizta bere bizitza elertigabe kultur, literatura, antzerki saillatetik guztiz urrunduta izan, aukera izaten dau egu-nero bere arima, grifa, zaletasunik, apeta azetua izan daiten.

Nekazariak, baserritarrak, beragan Jaungoikoak olerkarian begi-zista, aztura, sumo, arima bigun, amezlari ezarri dautsona, naizta elerti, eritlari kultur gizonentzat ulertu ezifia izan, bere bizitzan aukera izaten dau, egu-nero bere arima, gogoaren, grifa zaletasunik azetzeko. Maitasunik eta izatearen atsegin, lillura, kutuntasunik olerkariaren elburu, amez bereziena dana, ikastetxe-nagusi, unibersidade, ikasteetxeetan ez dira izaten. Jaungoikoaren egikuntz ederrena, lurra ta bera biztanlez betetzen daben gizasemeak dagozan tokia da, bere lenen egin -gai izan zan Ludiko Atsegin Toki- lauki ederra.

Mutil gaztea, nekazari olerkari arima, gogodun bat zan, eta beragaz bizi ziran notin,

pertzona guztiak, gazte zoro, arlote bat ez zala bezela ezeze, eurakandik guztiz ezbardiañ bai, baña eurak bezela, Jaungoikoak ezarri eutsan bizitza on-arturik, eta bere neurri barruan bizirik, bere arima, gogoaren zaletasun berezienak azetzen ebala.

Jonek, egun-sentian, txorien abesti, txio-txio alai entzutean, bere burua bere gelako leiotik ateraten eban, eta ibar, aran, sortalderan zabaltzen ziran mendi lerro goiak koroitzen eban izugarritzko argitasun bigun, gozoa begizatzen unetxu baten geratzen zan, gero atxurra lepoan artuta, txoriak zugatz-adar guztietatik euren txio-txio, abesti bigun, gozoakaz urrukuturik, soloetarantz abiatuz, egun-aro, giroa, landara ta loratuak egun-sentiko intz, garoaz ezoturik lurrintzen eben usain-gosoa arnasatzen ebanean; an bean, ibar sakonetan, bertako etxe, egoitzetatik keezko edoitsuak jasoten, egun-sentiaren argitasun epel, miragarritz begiratzen ebanean; mendira joiazan abere-murruzak; idegiten ziran ate ta leioen saratak entzutean; mugitzen ziran leioen saratak entzutean; mugitzen ziran burdien txirriok eta ur garden, ozkirri billa jaoiazan nezkatiillatxuen abesti gozoak; atsedean apur bat artzeko, izateko, erdi-lotan izan zan edonongo bizitzaren biztuera jakin-araziten eben; guzti au begiztatu, entzun eta arnasatzen ebanean, bere olerkari arima, gogoak, ze bearzen eban Homero ta Virgilioren eresiak entzun edo eraz abestzeko!

Eta otoi-deia entzun ondoren, sartalderantz egozan mendizka goietan, eguzkiaren azken dizdiratuak begizatzean, eta aran barnean atsedean apur bat izateko batzen ziran egoitzatoko sendien azken zurrumuruak entzutean; soaldi labur onen ondoren, Karmen joaten ikusi eban gaztaiñediko iturrirantz abiatuturik, bertan bere nezkatiill maitea aurkitzen ebanean, eta beragaz geldiro-geldiro alkar-izketa ixillean, Jaungoikoak berak uts-utsean euren obengabeko itz, berbak entzun eta euren zorion eta maitamendurizko amesak aditu egiazan, orduan bere bitotzak ze bearzen eban bere biotzkadak egokitatzeko, eta bere arima, gogoak, ludian zear goi-ikasle olerkariak zabaldu daben jarraibide, ereduaz, bere maitasunak adiñondutzeko!

Illargi-bete gaba baten, nire amak kristino igeslariari egin eutsan madarikapen miragarria, enkartarri nezkatiil bat bere biotzeko aukeratua ez eitela izan, gura izanik, txarto diñot, kristinogaz izan bedeinkapen au, Jonentzat bete-betea izan zan atsegingarria. Bere biotzak aukeratu eban nezkatiill maitea Karmen, erbestetar umezurtz bigun, goibela zan!

Ebro iparraldeko bazterretik, Sortaldetik Sartalderantz muru-aitz lerro bat dago, Aulfamendietan sorturik Finisterre lur-adarrean amaitzeko. Arresi, muru-aitz lerro onen bazterrean, oifarrietan, bear bada, Altabizkar euskotar bertsolari ospetsuak esaldi garrantzitsua esan ebanetan: "Jaungoikoak mendiak, menperatzaileak gaindatu ez egiezen egin dauz!", mendi-lerro onein barrenean, Pelayok esku baten kurutzea eta bestean espatea guda-burua izanik, iparraldeko abendak asi eban bir-jabetzearen zador, misterio, apaingarri, izkutu-koenak dagoz. Mendi-lerro onein barrenean, arrizko muru-lerro onein barrenean, Mena deritxon aran, ibar martzala dago; geografi, kondaira, oitura ta biotzez euzkotarra eta gaiñerozkoz gaztelarra. Egun baten, gaztelar olerkari batek, Pueblo izan apal eritxonak, aintz aundi, itzelen ganean agertuta, Iparraldeko ibar, aranak maitamenduta begiraturik, eta lenngo bere begien aurrean Mena, bigarren Enkarterria ta azkenean Kantauri itxasoa ikusi-

rik, eta aran arein edertasunaz maitamenduta, biotz-dardaratuta eta itsaso aren itzaltasun suminkorra ikusirik, esan eban:

Ama ni aberatsa ba nintzake
millakaka dukado emongo neukez
Aritz, arkaitz, berantz
maite-miñak uts-utsean izate arren.

Jon busgostarra, Ebro iparraldetik, Arkaitz berantz lenengo ikusi eban aranean, bere biotzak aukeratuko nezkaitilla billa etorri zan Gaztelarreko olerkaria ez ete zan?

Zuzen be, Jonen eta Karmen, umezurtzak biak, biak goibel, biak jaiotze-ibarretik erb-vesteratuak; eta illobiak uts-utsean aran onetan aurkitu ebezanak, alkar-ikusi ziranetik euren oroimen illun, goibelak, euren erbesteratze, euren goibeltasun eta euren umerzurtasuna aitzu jaken, ikusi orduko alkar-maitamendu ziralako, bene-benetako maitasundunak izanik, ez maitasuna galtzen danean atzetasunean babesten diran maitasunez, ez, maitasuna otzitzen danean, maitasun zerutarrez, illobian abarotzen diranak baño, baizik.

Jon gure etxean bizitzen jarraitzen eban; gure amak, eskondu ta beraz bere egoitz bat euki arte gure etxea itxi, utxi, ez egian, leentasun eskubideak beranak zirala baieztatzen eban; Jon errira eldutean lenengo etxean sartuzana gurea izanik, eskubide oneik argi agertzen ziran. Bestela langille zintzo izanik danak maite eben ezkerro, ta errian langille indartsu ta trebeena aldenduta egozalako, beso utsa nabaritzen zan, eta erritar guztiak euren so-loetan alogor ona ordainduta lan, bear, egiteko gura izaten eben. Beste errazoi guztien ganetik, gure amak Jon bere seme bat bezela maite izateko ta beraz bere alboan eukiteko, beste errazoi berezin bat ba eban. Errazoi au, nire amak Jon nire irudi ber-bera zala uste ebalatzen zan. Ama-baikortasun uts-utsa, baikortasuna, ba da ni Jonen irudia, arima, gogoaren zeintasun baten zan, guztitarako gogorkeri, zartzail, zital edo ankerkeri, naskagarri, iguingarri, berari bezela izaten jatan, eta ostera begiko, guztitariko gozo, atsegintsu ta ona, eta baita be, nire amak nigaitik esan leikeena, Jonen amak bere seamaitik ifioana bezela, ni beti aingeruz beteriko ludi bateaz eta edoi ta ekaitz-gabeko ortzi, zeru urdin bateaz amesetan izaten nintzala, arazo oneitan uts-utsean zan.

IV

Esan dodan lez, Urria zan. Nire aitak egun-senti baño lenago ogetik jagiteko oiturea eban, edo eguna argitu orduko; euskalerriko nekazari geienak, etxeko idiak euren maitetasunetarikoa bat izanik, eurari, idiei, zarankada bat janari jaitzitzeko oiturazko orduan jagi zan, eta leiora-urreraturik, ez dakit zelako eguraldia zan jakiteko asmuz ala txakurra auzika gogor zalako, larri ta ikeratuta atseratu zan; kristino talde bat, naizta ordu aretan eguna guztiz argituta ez izan, euren guda-ugal zuriak, zein taldekoak ziran ondo agertzen eben, etxea inguratzen ikusi ebazan. Jonen billa etozala uste izanik, bereala arifketan bere gelara joanda, Jon jantziten egoala ikusi eban. Gazte errukigarriari jazoten zan guztia adierazon

eutsan, eta gudariak etozanean etxeko altxor eta gauzarik garesti ballotsuenak estaltzeko, gortan, kortan, egin eban lurpe-zulo batera sartzen lagundu gura eutsan.

Ez, ez naz estalduko, Jonek ifioan, ba da aurkitu, argiratu izan naiteke ta orduan zuen ondarena izango litzake. Naiago, gurago dot leio batetik iges egin, eta olan il edo gaizkatuko naz.

Nire ama, nire anaia ta ni txakurraren auziakaz izartuak izanik, Jon eta nire aitak alkar-izketan ifioen zerbait entzun genduan eta zeozer, zerbait, garrantsitsua, neketsua jazoten zala ulerturik, ogetik jagi ta beingo-baten jantzi gifan.

Etxeko jauna, idegi eizu atea atea jo ta bultzakadaka idegi gurean, kristinoek oiuka ifioen. Eta beraz atea idegitzea guztiz erreza zan, barrutik txarameltxu bultzaka txikiena ja-san eziñeko bateaz, babestuta egoan.

Bere ate-orpo ganean birakatzean atea egin eban txirrioak, txaramela apurtua izan zala, ta kristinoek atari barruan zirala, adierazo euskuen.

Nire aitak eta Jonek eztabaidan, au, Jon, etxe barruan estaldu ala sukalde, suteko leiotik saltu eginda, gaztañediraño luzatzen zan baso-zugatz abarotsu txikira iges egin, al-perrikoa zala ikusirik, bereala amaituta, barnebiderantz arifieketan joan zan; barnebide onetan sukalde, suterako atea, zurubi, nire aita-amaren gela ta nire anakal eta biok lo egi-ten genduan gelako atea egozan.

Jonek barnebidetik sukaldera joatean gugaz topo egin eban. Besarkada labur bana guri emotea zan bere guraria, bear ba da betirako agurtzea, baña orduan eskillerako atean, geldituli! alto! abotsa entzun, eta gugarantz euren izkilluak ipiñorik, lau kristino agertu ziran.

Areik, gudariak, egingo ebezan danbadakaz, bera ez eze gu be ilgo ginduezala argi ikusirik, ta arrisku ori dala ta, iges egiterik ez eban uste izan. Jazargogabe etsaimendurik, atarira jaitsi eben, eta bertan bere besoak izkillu-ugal bateaz basapizti, gaizkille ikaragarri bat izango balitzake bezela lotu eben.

Eguna argituta egoan, eta kristinoek baserritik alboratuz, ateartean lerro bitan ezarri ziran.

Talde edo konpañi aretako nagusiak, kapitanak, itaunketa, galdera batzuk egin eutsa-zan, eta Jonek artez, zuzen eta apal, zelan eta zergaitik iges egin eban; gure etxe ta erri osoan izan eban on-artez maitagarria ta gure artean egunetan egin ebana, adierazo eutsan.

Jauna, kapitanak nire aitari esan eutsan, asaldarien artean, eta zuek asaldariak izango zarie ziurki, eskergarria da erregiñaren gudari bat gogor ez artzea, naizta beraganako, gu-dariaganako, begiragun on au; igeslaria dalako izan. Baita be kontuan izatekoa da, kristi-noren, olan deitzen dauzkúñez, ez? soifñeko ta izkilluak asalderiei bialdu-gabe, bilketaiek orain egun batzuk ertsatu arte zuen eskuetan euki dozuez. Bilketari areik arrapau al izan doguz, eta izkillu ta soifñeko areik zelan eta non artu ebezan esan euskuela esker, tirokatuta il barik geratu ziran. Zuri be guzti onek, zure etxea erreten, sutan, ikustea, ta bear ba da zerbait azkoz be neketsuago ikustetik, gaizkatzen zaitu. Morrosko au ostera, nekazari bizi-tzaz ain sendo ta galant ezarri dana, bere kmena, indarra, emendik Balmaseda bitartean

beste igesketa barri bat egin ez daizkun, makaldu bear dogu, gero an, Balmasedan, ikusiko dogu beragaz zer egin.

Jakiña, guzti au ikusi ta entzunik, danok bildorrez erdi-ilda ta Jon errukigarria ifior baño bildurrago, nozean beinka burua jasota, gure etxetik urrun ez egoan beste etxe bate-rantz begirakada mingarriak, besterik ez eban egiten. Egoitz au Karmenen osabearena zan Karmen etxe beratan bizi zan!

Erri aretako adifeiko notin, sasoizko pertsona guztietan, jakingurea baño bildurra gelago nabaritzan zan, ba da ordurarte onetariko, gizon sasoizkorik, ez zan agertu, ostera mutiko gazteak, mutikoen artean bardin ez zan jazoten. Iru edo lau bertatik ebiltzan. Bere amak, Karmen kristina zala ta bera ta onen artean artu-emonak, arremanak ebezala esana-gaitik, kokoteko batzuk artu ebazan mutiko kozkor maltzur, nontsebarria be an zan. Guda-rien izkillu ta soifeiko margodunak ikustean, erdi-zorotuta bezela aurkitzen ziran, eta aure-tariko, mutikoratiriko, urtennenak soifeiko ta izkilluak ikututzero be ausartu ziran.

Gudari-taldeko nagusiak, kapitanak, gudari-igeslariak bereala zigor bezela eun zarta-da artu egiazala agindu eban.

Atarira joten eban baralda barru aldetik, nire amak guzti au entzun eta ikusirik, etxea-ren beste aldera epai izugarri arek sortu eutzan naigabe, larritasuna, jasan ezifrik, joan zan. Kapitanan oiñetan belaunikotuta, Jon, gudari-igeslariarentzat parkamena edo zigorra arin-du egiala eskatzera joateko gertu egoan, baña nire aitak bere erreguak, eskariak, alperri-koak izango zirala ziurki izanik, eta zigorra ez arindu ez eze aunditu egingo eutsala ta, bere asmua burutik alidendu eutson.

Gudari-taldea osotzen eben lerro bien erdien, lurrean, ezarri eben tanborra, Joneri bere soifekoak kendu-azo autso ezan, jakea ta txalekoa, tanborraren ganean belaunikotu-azo, ta buruzagi edo cabo bik sarta gogor batzuk euren eskuetan ebezala, tanborraren erre-pikapen izugarrien otsaren batean, Jonen sorbaldea, euren amurru osoaz astindu eben.

Jonek lenengo sartadak artutean oiuragarri bat egin eban, baña ondoren geldigeldi ta ixilik geraturik, sartadak amaitu ta tanbor otsa ixildu zan. Billosik zan bere sorbal-datik odola oldarka izuritzen eban, alkondarea sartadak eraginda guztiz zatituta odolez be-terik aurkitzen zan.

Leio batetik begiratzen ausartu nintzan, baña odolez margotuko ikuspegi a ikusirik, arrituta atseratu; nire bizitzan egun baten be gogorapen izugarri arek ez dauz baketan itxiten.

Ia, kapitanak esan eban, ozpifrik ez ba dago, mutillaren sorbaldak, ur apur bat eta ga-tzagaz, gargbitu eizuez, eta aurrera lan beratan, ba da emen ez dogu ezer egiten eta.

Gudari-taldeko bizar-kentzaillea, kapitanaren agindua betetzeko asmuz, igesleariaren-gana makurturik eta zigortua izan zanaren pultsua edo tanpadea arakaturik, ouika sutundu zan:

Nire kapitana, ilda ba dago!

Ilda! Bertan ziran geienak, arrituta ta errukiturik esan eben.

Baña danak ixildu ziran, Karmen ouika ta negarrez gudari-taldeaganatz ariñeketan joiala ikusirik:

Parkatu, parkatu, erregifagaitik nire aitak emon eban biziagaitik!
Zer diño asaldari orrek erregifatzaz? Kapitanak asarraturik, nezkatillatxuak ifoana ulertu eziñik, ifoan.

Ara, Karmen, begiratu eizu, zure emaztegaia ilda dago! Karmen gudari lerro bitartetik, Jonen gorpua odolez beterik, tanborraren ganean makurtuta ikusi eban une beratan muti-llatariko batek esan eban.

Ilda!... bere biotz-samiña jasan eziñik ifoan.

Eta atsez atsez urrats batzuk egifnik, basapizti begirakada bateaz kristino guztiak irun-tzi gurean, esan-eziñezko etsimen osoaz oiú ikaragarri batek bere aotik urten eban:

Gora Karlos VI...

Bereala oldez, berez, ogei izkillu, fusil, jaso ziran eta iforen abots-agintserik gabe, eta Karmen aita, Gora Isabel II'garren oiú-egitean bere espanetan erdi-esanean geratu za-nez, bere gorputza balaskadaz zearkaturik Gora Karlos VI oiúka ilda jauzi zan.

Une beratan nire ama be zentsun-gabe jauzi, zentzuratu zanean, eskuak, bere eskuak, alkartuta, maitsunezko eskaria adierazorik, eta bere begiak negar malkoz itsututa, nire aita-gan ezarririk, ifotsan:

Inmanoli, Daukaguzan ondasun apurrak saldu dagiguzan, gure biotzeko seme erru-kigarri au, emen itxaroten dautsan etorkisun gaiztotik, Jaungoikoak zaindu daian!

Amabost bat egun geroago, Madrillerako bidean nintzan, Toledo kalean 81 zenba-kian, nire amaren lengusu ta nire erriko parroko ta oneri egokion Bikario Nagusia zan, On Jose Vicente de la Quintanak eukan burdin-denda batera alogoratuta.

V

la urte-bete joanda zan, eta ondiño anai-arteko guda zital a, amaitu-gabe,
Printzipe ergel, burugabea sortu-azo ebanak, odol eta negar-malkoak errege-koroi-en dizdira lausotzen ebanik, ez eban uste.

Egun baten nire aitaren gutun bat artu neban eta bereala leiatsu idazten asi nintza; eta Galdakoan, nire erritik zortzi bat milla bitartean dagon errian idatzita egoala ikusirik, apur bat baño geiago arritu ninduan.

Gutunaren asiera olan zan:

"Seme maitea: Orain ille bi, amazapi urte bete zinduzanean, guda-lerroratzeko deitua izan ziñan, eta arik eta zu emen auzkertu arte, onafio ekarri ninduen..."

Au irakurtean, su-amurruz gutuna mostradoreen ganean jaurtirik, erabagi sakon ba-teaz oiúka niñoan:

Oraintxe, naiz-ta oiñez eta jaio nintzan lur maiteak, lenago azke ta zoriotsu, odolez eta negarrez betetzen dauan guda zitalariak gorrotatu izan, oraintxe Bizkairantz abiatuko naz.

Baña apur bat geroago, ta nire aitaren eskutitzak adierazo eustan barri negargarriak,

nire aita bere egoitzatik kanpo, atxilotuta bear ba da, Jaungoikoak daki, zartadaka zigortuta, ni karlistar gudarostean deitua izan nintzanean, aurkeztu ez nintzalako, nigan eragin eban asarraldiaz nasaituta gutuna irakurten jarraitu neban. Olan ifioan:

"... baña orregaitik ez zaitez ausartu etorten, nik ez dot arriskurik, eta etorriko bazifia-ke zure ama samintasun, oiñazez, ilgo litzake. Asti labor bat barru, lazter, zure anaiak gudaroztean lerrotzeko urteak beteko dauz, eta gudari bezela joan bear ko dau, baña a zulakoa ez danez, guztiz ezbardifia dan ezker, ba da orretarako jafioa dala dirudi, zure ama arazo onegaz etsituta da. Seme bi ust utsean izanik, bat, bietatik bat, gudaria izatea naiko da, biak izan bear izatea larregi izango litzake. Guk, nekazaria izan zaitez gura genduan, baña Jaungoikoak beste gauza bat gura izan dauan ezker, bere naimen deuna izan daitela. Bata zein bestea izan, zeure langintza olakoa edo alakoa izan, izan zaitez beti deduzko, zintzotasunez, au da zure aita-amak eskatzen dautzuena".

Bizkairako bidea artzeko nire erabagia, aitik bialduko gutuna osorik irakurri nebanean, aldendu zan, baña betirik neban erabagia, nire bizitza osoan deduzko ta gizon zintzo, zentzuduna izatekoa; Jaungoikoak nai, gura, eban bidetik joatea, geroago ta sendoagoa zan.

Nekazaria izatea uste izan ebana, oiturazko abesti ta ipuifien idazlea izan zan. Deduzko, zentzunez ba da, zeru ta lurreko agintari itzaltsu bien aginduak betetzea uts utsik egiten dau. ¡Jaungoiko ta bere aita-amarenak!

LARROSA MARGO IPUIÑAK ARIMEAREN BERBIZKUNDEA

Entzun eizu maitetxu, Arimearen Berbizkunde ipuiña...

Zer, Alejandriko zitori ta larrosa txorta ori, Larrosa ipuiñen goi-argi ori, ipuin onen izenburua ez jatzu atsegin, ba da kiñu-destaiñez olan adierazoten dozu, ta?

Ez, ez jat guztatzen, ez jat atsegin, arimea il-eziña dalako, ta beraz ilterik ez dan lekuan, berbizkunderik ezin leiteke izan.

Eta ori da zure kezka guztia?

Bai, ori, beste kezkarik ez dot.

Ba, ori baño ez ba da, nasaitu zaitetz, Larrosa Margo ipuiñaren egilleak, idazleak, siñismen eta gogoz aberats añako txiro bera, ukamen donge bateaz, orri onein garbitasuna ez dau zikinduko, loituko. Ba dakit arimea, gure izate auzkorra bizkortzen dauan aize goizboladea, dala, bere illezintasunaren bitartez, izakia ilten danean zerura jasoten dala, baña arimea goi zerurako ilten ez ba da, ludi onetarako ilten da, beragandik aldenduz, au da emen erabilliko dogun iltea. Nasai zara orain, jorraill eta lorailleko larrosatxua?

Zure ipuin izenburuaz nasai naz, baña beste kezka bat dot, metafisikatgaz jardungo ba dozu bildur naz.

Baztertu, baztertu eizu gogaimen ori be, ba da ifoiz ez dot aitzuko gaztelar gizarteak ulertu daistan idazten dodala. Españatar gizartean gizon onak ba dira, baña irakurri ta idazten oztaz ostaz dakie, aurrerako geiago barik.

Eta ori zelan susmatu dozu?

Guztiz errez. Españatar jakituri maillan, mailla bakoitzeko gizon bat artu dot, danak

naastau dodaz eta nire jakipen opillean uztuta itxi dot, gero autz onegaz gizaseme baten irudia itxuratu; gizaki ederra, ori bai, lortu dodana, baña irakurri ta idatzi ostaz ostaz egiten dauana. Baña ixildu zaitez, ba da Reparos katedratikuaren lekua artzen ba dozu, nire ipuifia amaibakoa izango da.

Mende, gizaldi, onen asieran G... erritxuak, Enkatarri lurraldea osotzen daben ama-bostetariko batek, gaur-egun baño ogeta amar etxe gitxiago eukazan.

Ipuin antzera esaten dabe, lurralde areitan andiki edo gentil aldian, esakera onek aldi aretan Enkatarrian Españatar probintzietan moro-aldia esatea bezela dala, Euskalerrri gizarte onek, moro-gizarteak, menperatu ezin izan eban aldia, G... erria osotzen daben mendiak ez egozan bananduta ibar edo aran anbatetik; baña egun baten, beraz itun, goibel, eta edoitsua, Egoaldetik ibai bat agertu, ouika ifoala: "Itxi eidazue igaroten, itxaso zabalaren billa noa ta". Eta mendiak alde batera ta bestera egin eben, aran zabal bat eskeñiz, esanez: "Aurrera jauna, lurralde onetan ez gara oituratuta atserritar txangolariari eragozpenik ezartzen, naizta bere baimen-txartela guztiz legezko ez izan".

Arrezkero ibaia bere ur garden ozkirriakaz itxarorantz doa, ta mendiak bere auzotasuna alaitasunez ikusten dabe; ordez ibaiak esker-onekoa izanik, euren oiñetan ondasun ugari, arrain, arto, gari, barazki ta lora, ezartzen dauz.

Mende onen asieran gaur bezela, aranen sakonetan, erria erdibitzen dauan lekuan, eleiz bat intxaurr eta leizarrez inguratuta egoan, alboan burdin-ol bat eta ibai berantz errota batzuk, eleizatik ur, bere inguruetan, ogeitaamar edo berrogei etxe, kereix, sagar, madari beteriko ortu ta landa bitartez, bananduta.

Erritar geienak, mendian an emenka bananduta aurkitzen ziran basetxetan bizi ziran. Gaur egun areitako mendi baten, bertako eleizea inguratzen dabela eta auzoa osotuz, ogei ta amar bat etxe ikusten dira, baña aldi aretan lau batera ez ziran izango. Eurretariako bat, illunki zurituta gaiztañedi abarotsu baten egoan, beste bat uriol baten bazterrean, aitz arte batetik dariola troka batetik ibaiko urak zelaz jolazan ikusten, ume kozkor ezi-gaitz bat, ariñeketan txangolaria, gizon ezezuna, naizta bere ama leiotik oiuka ain arin ez daitela joan esaten egon, lertuko da! lertuko da! deabru orrek nire biziaren azkena ekarriko daust!, esaten egon, ikusten joaten dan bezela.

Jakifia, alegia, etxe guztiak euren inguruetan sei-amar gizalaneko ortu bat, maitasunez landuta, maillesi, karkaba edo orma bateaz barruti egifñik, eukien, geienak bordalariak ziran.

Basetxe oneitan bizi ziranak bordalariak, gaiñerokoak etxagunak, oneik gitxienak ziran.

Etxagunetariko egoitz bat, zelaitze aundi baten jasoten zana, zugatz eta baso landu-gabe inguratuta, besteagandik apur bat al denduta egoan; leko-erdi bat zan aldakuntz-bitartea.

Basetxe ori, itz, berba edo izki gitxitan zeazki azalduko dogu... baña naizta nire buru-argitasuna urria izan, Enkarterri lurraldetatik igaroko bidagilleak errez gogoratuko dabe, ikusi dabela.

Ipentza basetxea zuri ta lukondea zan, gora etxe-aurretik begiraturaz eta bea beste-alde-

tik begiratur. Iru sorailu eukazan, bea kortea, naizta ez ondo esanda, an upeltegia deitzen eutsoena, ta labakia. Lenengo sorailua, bertako biztanleen bizilekua, gela aundi ta aizetsuakaz, eta irugarrena leio aundi biaz kanbara ederra. Etxe zuri zala esan dot, eta ez da guztiz egia, egi osoa, ba da alboko orma bat intzuriz estalduta, orlegia zan. Baserritarak iru errozoi ebazan intzurri abarotsu a babezteko, bata, lenengoa, etxea alan besarkatzen ba eban, maite ebalako izango zan, bigarrena, zaar-zaarra izanik, bere asabak ezagutu ebazalako; eta irugarrena, ekaitz egunetan, kanpoan abereentzat janari urri zanean, ederto jatorkozan intzurri-orriak kortako abereak elikatu al izateko.

Etxe aurrean patin bat egoan, eta bere albotik etxeko bizileku berezienera sartzen zan. Arri artetatik perejil-orri moltoak indartsu urteten eban, sute, sukaldean erbi edo aumeki saltzan usaintzen ebanean esango balebe bezela: "Emen nago ni" eta bozkoitz mordo aundi bat, onek baserritarra asarraturik egoten zanean, txal anbatek, naieta iru illebeta baño gelago izan, titirik edan gura ez ebalako, su-garratz esaten eban; "Itxi eidazue txal ori nireztat, neuk esnea artuazoko dautsat". Patifien alboan iko eder bat, bere kerizpetan oilloak udagoienera mamarro anbat edo beste aurkiztuz jolasten eben eta Navarro eritxon txakurra, oilloei aginkada batzuk egin gurean, baña zoritxarrez lotuta. Patifien beste aldetik beko bizileku sarreraren atea. Apur bat urrunago labea, bere aterpean burdi, gurdia, egurra sua egiteko, eta lurra lantzeko tresnak gordetzen ziran. Basetxe aurrean landa eder intxaur, ke-reiz eta beste igali-zugatz ondo batzukaz guztiz inguratuta.

Eta azkenean, landa edo lantzar onen erdian apaiku edo ur-ozin aundi bat, bear berezkoa basetxetan abereak bertan, udan batez be, egarria azetu egien. Urtean birritan ozin au garbitzen zan, euritze egunetan urak narrastuz bertan aurkitzen ziran lur eta zazkilleriak ortu ta soloak narotzeko izanik zan; zaatz-orde guztiz ongarria uzta onak lortzeko. Ur-ozin onen alboan, apur bat bere uretan sartuta, aizkora ta lurgintza, nekazaritzarako, bear ziran tresnak zorrozten ziran arearri, zorroz-arri bezela egoan.

Enkarterri aldetik ibilli, bertako lurraldetatik bidegillea izan, eta beraz naizta sarritan andik igaro, Ipentza basetxea ez dozula ikusi esaten ba daustazu, ikusmen laburra dozula edo aitz-bera ifioiz ez zarala jaitsi, esan berarko dautzut.

II.

Sanjuanetako goizetxua

Jenteak goiztartzen dauana.

Katalin eta Santiago, Ipentzatic urtenda, mendi-arte aretako lenengo mezarako amezti areitatik saltuka ta abeslari. jaitsi ziran.

Katalin amabi urteko nezkaitillatxu polit bat zan, umotuta dagon artoburu gorritzka bezelakoa, amuko-lora bezelako begi itzal urdifiiduna.

Santiago amabost urteko mutil azkarra, arpegi baltzizka ta sasi-okaran antzeko begi urdifiiduna.

Kataliñ Itzaingo, Septendrion, birgifiña gozo, biguna, apal eta garbitasunez, lirain lilluragarria.

Santiago Egoaldeko mutil kementsu, urduri, sutsua.

Kataliñ umezurtz zan, aita-amarik ez eban ezagutzen. Neguko egun baten, Kika. Ipentzako etxe-andrea, au da, Santiagon amak, labapetik etozan aur-negarrak entzun ebazan, aurtxo jaio-barri batek egindakoaren antzekoak, eta arin jakin gura izan eban abots orreik norenak ziran. Laba barruan aurtxo jaio-barri bat egoan, kofa, trapa, batetik eskegita, dindilizka eta aur-zapi arre batzukaz inguratuta.

Aurkitze aregaz, Kikaren arritasuna itzela zan.

Aingeru koitade maiteal baserritar-emakumeak esaten eban, bere besoetan aurtxua aurturik eta negar-malkoz eta mozuka jan bearrean. Noren erraietan, zelako basa-piztiaren sabelean sortua izan zara!

Eta bere garrian umetxuak orritxu bat lotuta eukala ikusirik, arduratsu irakurri eban.

Orritxuak, paperak, onelan ifioan:

"Umetxu au ez da bateotua. Bere ama naigabetuak, Jaungoikoagaitik Ipentzako biztanlel eskatzen dautse, soritzardun umetxu oneri lagundu egiela, babestu dagiela. Emen ezarria izan da abereakandik miñik, kalterik, izan ez dagian, otzez il ez daiten, ba da labea, atso berotu zana, ondiño epel aurkitzen da, eta Ipentzako Kika ona ta esku zabala dalako".

Kika umetxua ikusi orduko, olan euren umetxuak edozein baztarrean itxiten dabezan amakaitik ifiolako iraiñak esaten asi zan, baña orritxu au irakurri ebanean ixildu.

Ustegabeko aurkitze aren barria bere gizonari jakin-araziten arifieketan joan zan. Unetxu batzuk geroago, umetxuaren soin bigun eta guria, bere semearen izan ziran aur-oi-llakaz inguratuta egoan. Alboko basetxe baten bizi zan emakume baten billa etxeko bat bialdu, gozez erdi-illik egoan aurtxuari bularra, titia, emon egion.

Erramon'ek au zan Ipentzako etxagunaren izena, bere andrearen añaiko biotz ona eukan.

Baña Jaungoikoaren aingerutxu onegaz zer egingo dogu?, Kikak arpegira arreta aundiz begiraturaz, berantzatz itxaroten eban erantzuna arduratsua izango balitzake lez, itaundu utsal.

Zer egin bear dogun? Eramonek erantzun. Auzi-etxean barri au jakin-azo, umetxua aldundira bialdu dagien...

Gure Jaun eta Jaungoikoal andra-baserritarrak goibelki esan eban. Batek ba daki non izango dan umetxu onen azken tokial! Bear ba da lau egun barru, ilten itxiko dautsan amarde zital baten eskuetan izango da!

Eta umetxua mozukaturik eta begiak negar-malkoz beterik jarraitu. Ze ederra zaran, nire biotzeko kutun oril!

Benetan da ederra, baieztu eban Erramonek, umetxua biotz-minkiro begiraturaz.

Esakerak diño, zori-ona ez dala beti izaten billatzen dauanantzatz. Nik, Jaunari alabaxtu bat beti eskatzen izan dautsadanak, neure guraria, naia, ezin izan dot bete ifioiz, eta edozein baztarrean itxiten dabezan endekatu onei, Jaun eta Jaungoikoak, zeruko aingerutxuek aifako aurrak emoten dautsez.

Andrea, baña zer egin bear dogu, edo egin geinke Jaungoikoak nai dauanaz, ados egotea baño!

Baña, Erramon, ez dozu ikusten umetxu au zelako altxor berezia dan?

Bai, bai, ederra da. Jaungoikoak zaindu dagiala!

Tamala da asmatzea, bear ba da emakume barraban baten eskuetara joango dala; Al-
dunditik artzen dauan illeroko diruagaitik, umetxua maitasun-gabe aziko dala...

Bai, zuzen zara andrea, tamala da!

Bere gizonak.

Berak iñoana ez ebalu ulertzen edo ez ebalu gura ulertu, bere guraria, naia ez ebalu
igarritzen ilusirik, Kika guztiz etsimenduta aurkitzen zan.

Azkenean argi ta garbi bere gizonaria zer nai eban adierazoteko aurkitzen zanean, ara
non erriko Udaltzaina, Ipentza basetxea ikusten zan mendi-tontor txiki batetik, agertzen
dan.

Erramon, Alkate Jaunak...

Erramon, Alkate jaunak agindu nau zuri esateko, datorren Igandean eguerdiko ama-
bietan batzar bat izango dala Udal-etxean, eta batzarkide izan zaitezala gura dauala.

Ederto dago, Erramonek erantzun. Baña entzun eizu, urreratu zaitez mezedez onafio,
ba da emen neuk be Alkate jaunarentzat, mezu bat dot .

Oraintxe noa, udal-zañak esan eban eta basetxerantz abiatu.

Ze mezu dozu alkate jaunarentzat?

Galdetu eutsan Kikak bere gizonari, guztiz urduri ta artega.

Zein izango da ba? iñoan Erramonek. Umetxua eroan dagiela auzi-etxera, emendik
Bilbora bialdu dagien.

Nire biotzeko alaba maiteal oiuka Kikak negarrez, kutuntasun, mizkez bere bularrean
estutzen ebalu, esan eban.

Orduan argi ikusi eban Erramonek bere andreak gura ebana, baña ixilik geratu zan
udal-zañia aurrez aurrez aurkitu arte.

Etxeko-andrearen kezka, larri-aldia jasan ezifiekoa zan.

Deitu dautzut, Erramonek esan eutsan udal-zañari, gaur goizean gure labapean aur-
txo eder au aurkitu dogula, Alkate jaunari esan dagiozun.

Eta altxor eder bat da! umetxua begiratzuz udal-zañak esan eban, tamala da amarik ez
izatea...

Ez, gaur goizean ez eban amarik, baña orain ba dau, Erramonek erantzun eban.

Eta nor da bere ama ba?

Nire semearen ama, iñotsan Erramonek.

Kika, au entzutean poztasunez beterik oiuru ikaragarri bat egin eta umetxuagandik azke
eban besoaz bere gizona, Erramon, besarkatu.

Alan da ze, Alkate jaunari esan eiozu jazoten dana, ta nezkaitillatxu au alabatzen artzen
dogula.

Olan egingo dot, udal-zañak esan eban eta ibar aurrera abiatu.

Pozik zara orain atsekabedunaren ama?, barreka Erramonek bere andreari galdetu eutsan.

Bail Bail Jaungoikoak zaindu zaiazalala, Kikak poz-negarrez lasaiturik, ifioan.

Ala, ala, maitekiro txantxetan Erramonek ifiotsan, ifongo amagandik jaio dan ume-txuena zaral paulatar Bizente Deunagaz eskondua izan bear zenduan, arek umetxuak kuka-txu barruan be eroaten ei ebazan eta.

Egun aretatik aurrera, umetxuari bularra, titia, emoten etorri zan emakumea Ipentzako biztanlea biurtu zan. Ordutik aurrera bertako, etxekoa zan.

Baŕia ikusi dagigun Santiago ta Jariegaaz, ezizen onegaz Kataliŕari deitsen eutsoen, zer jazoten zan.

Zergaitik dan izen ori emotea?

Ezin esan dautzut besterik, nire kutun, maite ori, Enkaterri aldean sasi-artei, abaroei, "jaro" deitzen dautsela, baŕio.

eta zer ikusi dau "jaro" deitzeak, ixil-umeakaz, bata bestearen ondorio, antzekoak iza-teaz?

Parkatu eidazu ez ba difotzut, bada ulertzeko aŕiako jakituna ez zara.

Barregarrial...

Madarikatua txautasunaren aurretik, txantxea erabilten dauana!

Baŕia entzun eistazu, aditu eistazu, alderrai oneik burugabekeriak dirala irakurle an-batek esan daistan ezarri ez naizun.

Santiago ta Kataliŕi eguzkiak apur bat urtenda geroago lenengo mezatik itzuli ziran, eta ordu bi geroago Ipentza basetxeko ugazaba bakarrak ziran, ba da gaiŕerokoak meza nagusira jaitzita egozan. Etxekoak urten baŕio lenago oilloak eta lapikoa zaindu egiala agindu eutsoen eta Erramoneri barrutia zaintzeko. Naizta barrutia malesi ta karkaba onagaz inguratuta egon, auntzak saltuka barrura sartzen ziran.

Kataliŕiek bere emakume lanak, garbitza, janari preztatzea eta abar, ederki egiten eban, baŕia Santiagok bere lanen, bearraren, ardurea Navarro txakur alperraren ardurapean itxi eban; orretarako barruti ta landa guztiak ikusten ebazan mendizka baten ezarri, baŕia bere ugazaba etxeratu zan orduko, alboan aurkitzen zan mats-parra baten kerizpetan etzun eta gozoro loak artu.

Santiago mutii urduri, beti artega egon bearrekoa zan, geldirik egon ezifa ta ez Navar-rroren antzeko alper, itxi bat. Bere amak esaten eban lez, aldean zillar-bizi ebala, Santiago, Navarro lurralde aren zaindari ezarri ondoren, kereizatara etozan zozo ta beste txori batzuri, basetxe aurrean, arrikadaka jolasten ziardun.

Onetan, bereala ustegabe ibarren beste aldeko mendietan, Jon Deunaren bazeliza egoan auzoan, egun aretan jaieguna izanik, danboril eta txistu zoifua entzun zan.

Soifua entzutean Santiago zoro bat egifiki bera bakar-bakarrik dantzan asi, besterik bikotetzat aurkitu ez eban ezkeru, zugatz-enbor lodi bat aukeratu eban, Kereiz enbor bat.

Irribarre zara? Espai-gabe zara? Uste dozu dantzazale batek, dantzazale itsu-itsu ba-tek olako gauza bat egin leikela? Ba entzun eizu.

Enkarterri aldean, berrogei urte luzeetan gizon bat ospetsua izan da, ezizenez, eta beraz ondo ezarrita ezizena, Zurmots (Chato) bezela ezagutzen zana. Gizon bat danbolifia besotik dindilizka eroaten ba eban, txistu bat bere aboan, eta zozt bat bere eskumako eskuan, Zurmots (Chato) an egoten zan, baña etxean lurra landu edo basetxearen zain egon bear izaten ebanean, txistu soñua entzutean, naizta bakarrik eta jaialdetik urrun egon, arratsalde osoan, ondiño Ontañes ondoan dagon zugatz-enbor bat bikote ebala, dantzian emoten eban.

Baña Santiago, Zurmots bezela ez eban jasan izaten bere nekea. Bere menpekotasuna bere bikotearen gelditasunatzaz Zurmotsen añaiko ez zan. Alan da ze, lenengo dantzaldia egin eban, eta bigarrenaren soñua entzun ebanean, entzun orduko, sukaldeko leioarantz joanez, oiuka deitzen eban.

Jariegala Jariegala! Jaitsi zaitez! Joan Deunaren jaia asi da ta txistua joten dago, eta beraz dantzaldi bat egin bear dogu, naiz ta ludia ondatul!

Katalifien burua, leioan agertu zan.

Baña ez zara konturatzen, gure amak asarre egingo daustala bazkaria zaintzen ez ba dot; eta ganera goiz osoan Morroño emendik dabil, sultan dagozan janariel zelan aginkada bat edo beste sartul!

Bazkaria deabruak eroan dagiala!

Baña zer? Jolastegaitik?...

Gitxi deritxazu jolastea? Ordu beteko jolastegaitik nire biziko ogei urte pozik emongo neukez.

Ez... Eta aberatsa izango ba zintzakel...

Ara, ni aberatsa izango ba nitzake, jolasten lelatu ibilliko nitzake, unetxu bat be galdu barik; ba da naizta eriotzea ni nekazari gurean guztiz arin etorri, berandu elduko litzake. Jaitsi zaitez, Jariega, jaitsi zaitez, oraintxe beste dantzaldi bat asiko da ta!

Katalifien menpekotasuna larregi zan, eta batez be Santiagoaz; egoera a arretaz begiratuta, ipifii ebazan gauzak Morroño barrabankada bat janariakaz ez egian bezela eta in-txaustira jaitsi.

Bere nebearentzat ebanaren guraria, naia, betetzegaitik, beragaz, Santiagoaz, dantzaten asi zan, baña dantzaldia amaitu baño lenago, nekatuta egoala esan eta naizta Santiago dantzaten atsegin-lekuan bezela aurkitu, berak be, dantzaldia, Katalifiek atsedean apur bat artu egian, itxi eban.

Andik luzaro barik, barrero txistularia bere soñu-tresnak jotzen asi zan.

Arima garbi ta gardenentzat dantzatea antolagarria da. Elerkari ospetsua izan zan Davidek, Kutxa Deunaren aurrean dantzatu ba eban, bere illezkor Damu-eresiak beragan eragin eben biotzkadagaitik izan zan eta ez Betsabek irrikatugaitik, baña azken biotzkada au, aragikeri, bakan batzuetan izan ezik, lenengo mendeetatik gaur egun arte, ludian izan diran gizon-emakumeen iztar-oiñak arintzen dauana da.

Gaur egun olerkari baten arimea dantzari baten gorputzan izatea, biak batera soin baten, neurritik kanpoko izango litzake ta beraz urte gitxi barru, beste batzuei dantzaten irakatsiaz, guztiz aberastuko litzake.

Barriro txistu ta danbolifaren soñua entzuten zan, eta Kataliñaren arima garbi, garde-nantzat dantzatea antolagarria zan ezkerero, ez eban dantzatu. Alegiñak egin ebazan Santiago dostatuaz asarratu ez eiten. Lenen-lenen burutatu jakona begiak kereiz baten goi-aldera begiratzea izan zan, esanez:

Zelako kereix ederrak!

Santiago bereala zeozer, zerbait, esaten asi zan, errez igarri leiteken zerbait; "Ara, beste dantzalditxu bat egin dagigun", baña bere aoa ixil-ixilik geratu, ba konturatu zan Kataliñek ez ebalá gelago dantzaterik gura, nai, osterá kereix batzun guraria ba ebalá.

Gura dozu, umetxoari, nezkatiñlatxuari, itaundu eutsan, zugatzera igonda garao batzuk artu, edo bear ba da orretariko adar kereiz beteriko bat zugana urreratu?

Ez, ez, kereixea lerdekatuta dago ta, Kataliñek erantzun.

Kereiz-zugatz ori lerdekatuta egoteak ez dau niretzat leba, ardurarik, Santiagok esan eban bere aragiak sauritu-eziñiak izango balitzake lez, zugatzera igoten abiatuz.

Zugatzaren be-aldeko aizegotudun adar baterantz urreraturik, bere gorputzaren astuntasunagaz, Kataliñen eskuetan ezarri eban.

Nezkatiñlatxuak kereix batzuk artu ebazan; baña geien-bat Santiagoren beragan eban gogo-ona ontzat-arteagaitik izan zan, ez igali orreik jateko gogoá ebalako.

Santiago saltu bat egifiñk kereixatik ostó-kider baten bidez alkaturik egozan kereix-bikote eder bi agoan ekarzala, jaitsi zan.

Ikusiko dozu, nezkatiñlatxuari esan eutsan, zelako belarritako, arrakada, bikote bi opa-ko dautzudazan.

Belarrietatik, nezkatiñlatxuaren belarrietatik, kereix bikote bana dindilizka ezarri eutsazan; gertaera onek Kataliñ atsegintsu ta bere esker ona, irribarre maitegarriaz agertu eutsan.

Orain, jarraitu eban, alegiaz da, baña aberastuten nazanean, ikusiko dozu olan ez da izango.

Bai, ona izango naz beste batzuk ipinten ez ba dodaz zu aberats izan arte...

Ikusiko dozu zelan aberats izango nazan Indiatara joaten nazanean, eta uste dot luza-ro barik izango dala, ba da bertan dagon nire osaba batek amabost urte betetzen dodazanean, nire billa norbait bialduko ebalá esa eustan, eta zuzen be Santiagotan betetzen dodaz.

Kataliñek goibeltasunez beterik bere burua makurtu eban.

Baña umetxua, zergaitik goibel-erazten zara?

Zergaitik izango da ba, Ameriketara joango zarala diraustazulako.

Orregaitik? Obeto biar izango balitzake.

Eta zetarako joan gura dozu?

Galdera, itaun, polita! Guztiz aberastuteko ta bizi on bat emoteko...! Zuk ez dozu gura aberats izatea?

Bai gura neuke.

Eta orduan zer egin gura izango zeunke?

Ez dakit!

Zuk ez dozu ifioiz guraririk

Ederto, olan izan dedilla, Josu! Ez dodala guraririk? Oraintxe ikusiko dozu. Dirutsa aundia gura dot, etxeko ate aurrera urreratzen diran eskeko guztiei ogerleko bat emoteko, baratz loratsu bat gura neuke, larrosa, zitori, ta krabeliñez beterik, goizaro eurakaz lora-txorta bi egin eta bata Bakardade Birgiñaren aldarean eta bestea nire logelan ipinteko, Ipentzan beste etxe barri bat egin dagien gura dot, etxe bakar baten bizitza bildurgarria dalako, eleizatik guztiz ur egotea nai dot, kanpaiak alaitu nai, aldare aurrean otioz egiñik goibeltasuna kentzen dalako, eta gura dot... Ameriketara ez zaitezala joan. Begiratu eizu ez ba dodaz gurari, nai, ugaril...

Nezkatillatxuaren gurari errugabeakaz Santiago isekutzen egoan, auzoko basetxe batetik oiuka, auntz-talde batek soloan betekada polita egiten egozala, esan eutsaenean. Navarro txakurraren zaintzpean auntz oneik itxi ebazan.

Ariñeketa baten joan zan komunistei txakurra saldu gurean, eta Kaaliñ be sutean Morronak auntzak egin eben bardiña egiten ba egoan. Morroño auntzen eretxi bardiñekoa ba zan, au da, ondasun-jabetasuna, lapurreta bat dala.

Gente, notintsa, mezatik urteten asi zan eta ondoren an-emenka ezarrita egozan base-rrietarako bide-ziorratatik abiatu. Geienak Ipentza basetxearen antzera mendizka goietan egozan.

III

Ibarren sakonetik, aran barrenetik, Erramonek auntzak barrutian ikusi ebazan, eta bere etxera eldu baño lenago, zarta bat latesian artu, urretxazko zarta bat, Santiagoren itxita-sunagaitik, berari, Santlagori, zaletzak berotzeko asmuz.

Non dago, non dago barraban ori, il egin bear dot eta? Kataliñeri etxera eldukeran itaundu eutsan.

Aita maitea, guztiz bildurturik nezkatiillatxuak erantzun, esparruan dago.

An egon ba zan, agindu jakon bezela, auntzak artoa ez eben porrokatuko.

Neuk kereix batzuk arrapatzeko deitu neutsalako etorri zan.

Jariega, sasi-kume zara zu be ona izateko! Erramonek esan eban, Kataliñeri kokoteko bat emon gurean, baña Kika bitartean sarturik bere gizonaren besoa geldi-erazi eban, esanez:

Erramon, gure Jaun eta Jaungoikoagaitik, nezkatiillatxua ez eizu jo, naiko dau zoritxarrekorik aita ez amarik ez ezagutzeazl...

Orduan, zure semeak, onek bai ezagutzen dauz, eta beraz eukiko dau bere merezia.

Baña gizona, ez zaitez setatia izan, gogoratu eizu danok gazteak izan garala, ta beraz ardura gitxikoak. Ganera, gaur eguna bakean eta Jaungoikoaren maitasunean emon bear dogu, izpar on bat be izan dogu ta.

Ederto zeuk gura dozuna, andrea, Erramonek apalkiro erantzun. Beti izan bear dau zeuk gura dozuna. Emen, nire ildako aitak esaten ebana emakumeen naikeriei, naizta ludi-ko gauza gaitzenak izan; ez da jaino atsera-arazitekorik.

Eta zein ipuin da ori? Kikak guztiz alai itaundu eban, bere gizona, ain atsegingarri ikusirik.

Kristo ludian zear gaixoak osatzen eta illak berbiztuten ibilli zanean, emakume bateaz topo egin eban. Onek bere soñi-ganekotik, Kristoren soin-ganekotik, tirakada bat egiteaz eta negar baten esan eutsan:

"Jauna, gaur goizean il jatan nire senarra berbiztuten etorri zaitez mezedez".

"Ezin naz gelditu, Jaunak erantzun eutsan, iñondiko mirari bat egin bear dot gaur, emakume zezen eta zekorazaleen artean, etzeko-andra, ama on bat aurkitu gura dot, sendi-ama on bat, baña guztia jazoko da astoa gelditzen ez ba da. Ostera, nik egin neikena, zuga zure gizona berbiztuteko naia, guraria, sortu, ta zure senarra berbiztuko da".

Esan eta egin, emakume areri bururatu jakon bere senarra berbiztu bear ebala, eta bere senarra, berbiztu zan; illak eurak be ezin dabe atsearazi andrazkoak nai dabena".

Erramonen ipuifia entzutean, Kika ta Kataliñek barre-algarak egin ebezan, maitasunak jazokirik itsusiena be lirain eta polita ikusi-azoten dau ta, olan jazo zan Erramonen ipuifia-gaz, naizta poz-arasi ez izan, nik edestuten dodazanaren antzera, onartua izan zan.

Azkenean zerua, eguraldia argitu zala ikusirik, Kataliñ patifien iko zoragarri batzuk kerizpetzen ebala, maia ipinten joan zan.

Maia gertatzen eban bitartean, bere baitan galdetzen eban,

Gure ama maiteak esan dauana ze albiste pozgarria ete da?

Santiago ta Nabarro, txakurra, intxaustitik agertu ziran, biak buru-apal eta arduratsu, euren barnea kezka-arazita.

Etorri zaitez jaten, zaldun-gazte oril Erramonek Santiagori esan eutsan.

Nabarrok uste eban ugazaba beragaz egoala izketan, eta marmar bururatu eban.

Ori txarra! norbaiteri, bateri, izan barik Jauna deiten deutosean, ekaitza dator!

eta bildurki maipera joan etzuten. Mai beratan Santiago arduragabe jazarri, txakurra baño nasaiago.

Erramon eta Kikak ba ekien, ondoren ona eragingo eutsola artu eban izparrak, eta euren lapikotxuan euki ezifnik, arin asi ziran barri ori azaltzen.

Albiste onen mezularia, Mexikotik artu eben eskutiz bat zan, Erramonek atara eban bere sakeletik, eta onelan iñoan:

"Erramon anai maitea: Oker ez ba naz, mutillak amabots urte laster beteko dauz; sa-soirik onena lurralde onetan errikotuteko ta baita be ikaskuntzak egiteko, sal-erosketa-ikasketak egiteko. Bialdu eidazu ba nire loba ta besotako Santiago, ia etorri al ba da Bilbotik urtengo dauan lenengo itxasontzian. Emen nigaz bene-benetako gizon zintzo, jakitun eta langille bat egingo da".

Eskutiz onek Santiago pozez ia zoratuta biurtu eban ta ostera Kataliñ, naigabetuta guztiz goibel geratu zan.

Eldu zan ba agorrillaren amabots Ama Birgiñaren jaja ta euren errian egun aretan eleiz nagusian Maria Igokunde jaja ospatzen zan.

Eguna argitu-barría zan, bafía an emenka ezarríta egosan basetxetatik jasota keezko edoi-txiki urdiñak iruditurik eta kantauriko aize-ozkirriak astintzen ebazala aran, ibar osoa menperatzen eben.

Euskalerriko mendietan, kondairak aundikatu ta bertako biztanleen izerdiaz narotu-koetan, ain ederki ta gozokiro eder-apaillatzen ziran jauretxe egoitza ta lurralde-giroa, guzti au erbestetar txangolariek begizaturik, eta iru beso oneik alkaturik ikurra ta Irurak-Bat edestia osotzen dabela ikusirik, ziur bururatuko jake, ikurr au iru probintzi anaí oneina uts utsean ete da ala baita be jauretxe, egoitza ta lurralde-giroa dala. Ibarreko, araneke jaiak urreratzen dira, eta irukote onegandik euskalerríaren alaitasun garbi ta gardenenak sortzen dira. Bere mendiak, eguzkiak gorrizkatzen asten danean, bizilekuetan lenengo barre, zantzo arrantzak izango dira, eta baita be zugaztietan eguzkia sartzaldera illuntzen doanean. Beti, an beti adiskidetasunean naspiltzen dira kanpai soñua, jaitarení izena, jseme-anail eta bi-regarroaren abesti liluragarria.

Eta an bean, ibarren sakonean, danboliñ soñua ta dorreko kanpaiketak naastatzen dira, eta zendi-maitasuna basetxe guztietatik, senide, aide, erbestetarra onartzen urteten dira. Erbestetar-senideak gaztañadi kerizpetsu, edo solo ondo landu orlegietatik zear, teillatu areinpean, zugazti areitan, ortu ta solo areitan, eleiz aretan ebezan oroimen gozo ta deunak urtero gitxienez bein gogoratuz, euren biotzak, indar, adorez, gaztetu egiten ebezan.

Bizitoki guztietatik kee-edoz zuriak zerurantz jasoten ziran, goiko Jaun eta Jaungoikoari, eurakan ezartzen ebazan ondasun eta alaitasun ugariak eskeintzen bezela. Bafía Ipentzako egoitzan ondiño sua biztugabe aurkitzen zala eritxon. Ostera bertako biztanleak goiz-sentiko txoritxuen txio txio eztiitsua entzun baño lenago ogetik jagi ziran.

Santiago Bilborantz abiatzeko gertatzen egoan, bada ludi barri orretara joateko eguna eldu jakon, ontziratu bear eban, nora?... Aa nire aberri apal eta zintzo oril bere gaztetasun eder eta zalduneko usaintsua, itxi ta illobi itun, goibel baten billa doa. Jaungoiko Jauna, ama maite baten negar-malkoak eurak be ez dabe deuntzen, ez da jaiotzeko arane erneten diran lora margo ta usaintsuak-be ez dabe apaintzen. Mingarria da benetan bai, mutil gazte osasun ta azkar batentzat, batez be, eta baita be bere aita-amarentzat, naizta bizi-bide oba baten billa joan, erbesteratu bear izatea.

Bilboraña Erramonek lagundu bear eutsan, ba da Ameriketarantz eroan bear eban itxasontzia Olabeagako kai-barruan aurkitzen zan.

Ordurarte Kikan begietan negar-malko bat be ez zan agertzen, ba da bere semea zorion-uts bidean iruditen jakon, bere semearen zorion utsa ikusten eban edo ikusi gura eban, zuek ama naigabetuak egun baten ikusi zenduen bezela, ta gaur-egun ameriketako lurraldetan illobi bat besterik ez doze ikusten. Geiago jasan ezifñik Kikak, ama biotz-urra-tudun batek izan leikean biotz-miña bere negarraren bitartez agertzen eban.

Aurreko ille ta erdi luzean Kataliñek egin ebezan negarrakaitik bere begietan ez zan

geratzen malko geiago, begiak agortuta ebazan, ez eban negarrik egiten, baña ilten diran goibletasun ta aukura senti bear izan ebazan.

Santiagon begiak une batzuetan ezotzen ziran, baña barriro alaitasunez agertzen ebazan, bein eta barriro makaltzeko.

Goazen, goazen, ume nergarti batzuen irudi ber-bera zarie ta, Erramonek esan eban, Kika ta Kataliñen besoetatik semea kenduaz. Edozeiñek esango leuke negar egiteko jazoki bat dala!... Ez nozue ikusten ni? Neuk be nire arimea dot eta samin eta atsekabeak, baña neuk ausnartu bear dodaz...

Eta alan zan, Erramonek be beintzat bat, biotz bat ba eban, eta guztiz maitekorra, ta bere begietatik urretxa-garao bezelako negar-malkoak dariola dizdiratzen ziran.

Erramon eta Santiago abiatu ziran toki aretatik aldentuten.

Kika ta Kataliñ guztiz atsekabeluta, adi-adi egozan, mendi tontor batetik beste magalera igarotean, estaldu arte.

Orduan nezkatilatxuak baketu gurean, zekulako alegin bat egitiñik, esan eban:

Ama maitea, ardiak, ardiak mendira eroan bear dodaz.

Egizu alabatu zeuk nai, gura, dozuna, oargabe erantzun eutsan.

Kataliñ oituratuta egoan, goizero artaldi txiki bat kortako atea idegita, basetxe alboko barruti batera eroaten ta bertan bakarrik, zaingabe, itxi, utxi, baña egun aretan, Erramon eta Santiago euren bidalian estaldu ziranean, mendi bizkarreraño joan zan, beratik beste mendi tontor batera eta onetatik beste urrunagoko batera, beti Bilbo bidera adi adi, begiratzen, arik eta goibeltasunez ilda ta nekez nekatuta, bere bekoki ederra makurturik, Ipentzara joan bearrean, eleizarantz abiatu, bertaan Bakardade Birgiñaren aurrean belaunikoturik, otoi be-ro-bero batzuk berari opatuz.

IV

Urte azko dira Santiago Ipentzatik aldentu zanetik.

Edestu eidazu, edestu bere bizia aldi luze orretan.

Gitxi dira, urriak dira ta guztiz illunak beragan daukadazan izparrak. Orregaitik arinka ta ixilkiro ameriketakako barriakaz izango naz, alik arifien Euskalerriko lur aberats eta ezeetara itzultzeko.

Santiago maitasunez onartua izan zan Mexikon. Bere aide, senidekandik, arrera ona izan eban. Bere osabea uri aretako dendalaririk aberats eta ospetsuenatariko bat zan. Berrogeta amar bat urte ebazan, eskongea ta eskontzeko usterik ez ebana.

Lenengo urtean Santiago langille zintzo, zentzundun utsa zan, eta beraz, bere osabeak, beragan, maitasun berezi bat izan eban, asko maite eban. Berrogeta amar urtedunak, sendi ta adiskide zintzo-gabe ain beste urte luzeetan bizi izan diranak, euren biotzetan, jakin eziñik zer egin beragaz, maitasun oparo billatzen dabe, ta Santiagon osabeak beragan, lobearegan, maitasun ori izuri eban. Baña urte bete ingurura, Santiago bere osabeagandik

aldatzen asi zan, ondiño txarrago, bere maitasunaren orde, egikisun zikin, loi, eta lanean ardua-gabe, osabearen oifiaze ta atsekabe izanik, agertzen zan.

Maitekeri, joko, ikuspegi odolgarrikeriak, apainkeri, jan-tropeak, arima zatardun barentzat zorion aldi diran gauza guzti orreik, berantzat jasan ezifeko lillurekeriak izaten ziran. Goi-maitasun, elerti, eresi, maitasun gardena, mendi-troka-zelai-errekatu ikuspegiak, adiskidetasun tolasgabea, gure amak edo gure arrebeak, eskutitz barruan bialtzen dauzkun gogapen edo urkitz gozoa, jaiotzeko gogapen iraunkorra, jaiotzeko ibar, aran, maite-maitera itzultzeko gurari, nai, amaibakoa, gauza guzti oneik, arima minberakor eta maitasunez osoturiko batentzat, atsegin oso diran gauza guzti oneik, Santiagontzat ez ziran ezer, bere biotz-barnean ezelako grifiarik ez eben eragiten, eta alaitasunik gitxiago.

Egun baten bere osabeak idatz-gelara deiturik esan eutsan:

Santiago, samintasunez ikusten dot bide onetik baztartzan zarala, nik ludi osoan onespen eta gaur egun milloi bat peso aurkitzeko jarraitu dodan bidetik aldentuten zarala. Zuk atsegin osoan bizitzegaitik zeure bizia emongo zeunke, alegin guztiak egiten dozuz, etengabeko alegiñak, zeuk gura dozun elmugara eltzeko, bide guztiz okerra artu dozu. Atsedan barik lan egiten ba dozu, egun baten zure osabearen ondasun guztiak zureak izango dira, eta orduan, orain erreten zaituan gurari guztiak lortu al izango dozuz, baña, lanik egiten ez ba dozu, artu dozun biziera baztertutik, zure ametsak zekula be ez dira jazokisunak izango, ba da zeuk, zeuk irabazitako ondasunik ez dozu eukiko, ta zure osabagandik ez dozu izango ondorenik. Auznartu eizu ba ondo difotsudana, eta aukeratu eizu zuretzat egokiena deritxozuna.

Eta alan egin eban, Santiagok ondo be ondo auznartu ebezan osabearen onu ta esanak eta bereala aberastuteko, lanean gogor asi, epe laburrean aberastuteko asmuz eta gero biziera zoriontsu bat izan.

Bera ain maite eban osabeak Santiagogaitik, esaten eban:

Okertzen asi zanean, nik emon neutsazan onukaitik eta apur bat gogor artu nebalako, orain bere jokaera bear bezelakoa da. Beste ludira joateko eguna agertzen jatanean, berari nire ondasun guztiak itxiteko, utxiteko, erabagita nago, zuzen be, merezi dau, baña artega ta kezkatu naz, larri, aberasten danean eta nire babesgabe zer egin leikean gogoratuz. Amar egun oneitan jasan ezifilik dauan bere gurarikeri gozea, urte beten azetu gura izango dau, ta betekada anbateaz edo estanda egifilik ilgo da. Zuek ikusiko dozue, bizitzen ba zarie, nire ardureak egiazkoak ba dira ala ez.

Dendalariak uste izan eban baño lenago egun au eldu zan. Santiagon osabea, bere lobeia Mexikora eldu zaneke amar urteak bete ziranen il zan.

Olan, Santiago ogetabost urte bete ebazanean, ogetabost milloi erreleen jabe aurkitu, eta beste ogetabost milloi naikeri egiteko asmuz.

Gogoratu zaitex, Jon Deun goiz baten Ipentzako intxaustietan, Katalañeri zer esan eutsan.

Neskatille, ni aberatsa banitz, jolasten bizitzeko leiatsu izango nintzake, ta naizta erioztea arinketa bizkorrean etorri ni eragotzi gurean, berandu elduko litzake.

Katalñi aitatu dozun ezkeru, aldi luze onetan zer izan zan nezkatilla polit onentzaz, eta Kika, Erramon, Nabarro ta morroñoaz?

Enkarterri aldetik ikusten zan nezkatillarik politena, Katalñi zan, ta naizta sasi-urme, jariega, izan, illobi bera baño be, beti itun, goibel, egoan, eta mutil dotore ta arrozenari uko-egiten eutsala, ludi osoak jakin; egunero mutil gazte bat senargai izan gurean urrera-zen jakon.

Erramon eta Kika, urteak arin joaten dira ta, zaarkotxo batzuk eginda egozan eta ziurki, Ameriketatik bidal-ontzia eltzen zanean, Bilbon kaiatzen zanean eta mutillaren gutunik ez ekarrela ikusirik egiten ebazan negarrak eraginda, izango zan. Eta zorrirtzarrez gertaera au, sarriegi jazoten zan.

Ostera Nabarro betiko bezela egoan, beragan egunak eta urteak ez ebela zer ikusirik esan leitekean. Nabarrok bere biziera ederto antolatua eban eta zekula lez joakioan. Jan bizi-itzeko ta ez bizi jateko, ondo etorkionean iru edo lau txera egin bere ugazabari, ikusi egien bera esker onakoa zala; eta ez larritu, ez artegatu ezergaitik; ori zan bere biziera ta ortik ez eban urtetan, eta idi-buzterri batek be ez eban atarako, naizta indartsuenak izan. Olan izanik, amabost urte ebazan eta bere itxurea, zazpi-zortzi urteko batena.

Morroño betiko bezelakoa, bere baitaren oiua silogismu onegaz ito gurean jarraitzen eban:

"Ondasun-jabetasuna lapurreta bat da, orduan nire ugazabak jaki-gelan daukazan lukainkak ostuak dira, eta beraz lapur bat da".

"Gaztelarrak esaten daben lez, Lapur bateri ostuten dautsonak, eun urteko parkamena irabasten dau", eta orregaitik nik neure lanean aurrera jarraitu bear dot.

Baña itzuli gaitezkan Mexikora.

Santiagok, bere grifa txarren artean, zerbait ona be ba eban, eta onetariko bat bere aberriaregan eban maitasuna, egia da, zeintasun au euskotar geienetan izaten da. Ba daki-zu, loratan loratxuena, Euskotarrentzat, naizta Madrillen, Antillasetan, latinoameriketako lurralde, zein Estatu Alkartuetan egon, bere seta, izakera, oldartsuak eraginda joaten diran lurraldetan, bere aomen, ospe, gizon zintzo ta langillena, eta bere aberastuteko gurari bizi, bere sendia aberastuteko ta baita be bere aberria, zein dan gizon-emakume onein egikisunik lilluragarriena?

Asti aldietan, eguneroko lanak itxi, utxi, ta gero euren ibar, itxasalde, euskal-lurretan, eurak bezela bertan jaiu diranakaz alkartu, naizta uri edo ezbardiñetan bizi, zudu edo interesak, ez izan bardiñak, eta euren erbesteratzea aldi guztiz luzea izan, jaiotxe erriaz ames egin, zorobiotuz, euren aita-amagaitik berba, itz, egin, euren egoitzak bein eta barrero goratuz. Aa! ezin zeinke nik lez ulertu, euskotar-biotz baten zer jazoten dan, naizta bere etxetik irurogei laku, legua, bitartean bizi, euskotar mendietan oiartzunak eraginda bezela soñua ta danboliña entzuten danean, edo bere begien aurrean bere baserriko oiturazko soñiekoak agertu ta euskotarren izkuntz gozo, itzaltsu, lilluragarria entzuten danean!

Nire aberrira itzuli gura dot, egun batan Santiagok esan eban, nira aita amak zaarrak dira ta ikusi gura nabe, noiz ikusiko nabean itxaropenean bizi dira. Sasi-umea, Jariega, be

ume ona da, nezkatilla ona da, naizta bere gutunetan, beti bezela negarti adierazoten dan, eta nire aberria guztiz ona eta polita izanik, bira batzuk bertatik, bidali batzuk egitea, atsegin jat. Baña kokolo aundia izango nintzake, lenago ludi-barri onetan diran lilluragarri gauza guztiak ikusi ta iastatu, gozatu, egingo ez baneuz, orain arte ikuspegi oneik zulotxu txiki batetik baño ez dodaz ikusita.

Bere baitan au iñoan Santiagok, obeto esanda On Santiagok, ba da ainbeste milloi daukazan gizon bat olako laifotasunaz aitatzea lotsagarria da. Bai iñoan bai bere baitan, eta biramonean bere guraria bizitzera asi zan.

Errolda onak, bai, egin ebazan On Santiagok EgoAmeriketa ta Erdi-Ameriketan saldi-burdi Amabiko ugari, zaldia eunkadak, otsein ugariago ta nezkati adiskideak millaka. Gabero jatordu bat, jan-trope bat, eta gero ixilik eukiteko diran egikisun azko. Astero dema ambaten biotz-ikarak, egunero ordu-biko joko aldiak eragiten eutsan asarre-aldia, eta nozean bein, zaldi bat bost minutu baño lenago, baietz leer-eragin izaten eban deman, beragandik, zalditik, jauzita artzen eban saietzatakoa. Egikisun oneik, geien bat, izan ziran Amerika-Latina osoan, urte bete ta erdi inguruan, Santiagori opamen aundia emon eutsoenak.

Madrillen, eta ez dakit beste leku edo lurralde batzuetan bardiña egiten ba dabe, gozokiegilleak oitura azkar bat dabe, euren otsein-saltzailleak dendako bezerorik onenak izan ez daitezkan. Eltzen jake baserri-mutil bat, an Roxin esaten dautsee. Zelako txantxetak entzuten dira gai onetaz, Jauna!, eta lenen-lenen, bearrean, lanean, asi orduko esaten dautsee.

"Zu gozoki zalea izango zara, ez? Zeuk gura, nai, dozuzan guztiak jan zeinke, baña gero langille zintzo ta arduraduna izan bearko dozu".

Mutillaren amesa beti izan da, gozokiz beteriko denda bat berantzat eukitea, eta au entzutean zerua idegita agertzen jako, eta gerorako itxi, utxi, gabe gozoki gozoenakaz betekada itzel bat egiten dau.

Betekada onen ondorio beti izaten da bardiña, aurrerantzean gozoki geiago ez dau jango, gozokiak gorrotoz izango dauz, eta sarritan urdailla bera be gaixotuko jako.

Santiagori be, gozoki-dendalari mutillari bezelako zerbait bardiña jazo jakon. Ainbeste atseginkeri, jan-betekadak beragan alako iguin antzeko bat eragiten eutsoen eta baita be urdailla apurka apurka makaltzen joian, eta ondifo txarragoa dana, biotza goibeltzen.

Laterri-Alkartura joan zan, eta bertan beste urte-erdi emon, an be gozokiak jaten, lillurakerietan, baña geroago ta jateko gogo gitxiagoaz.

Otsoa okeleaz azetu zanean, lekaime sartu. Lillurakeri guzti areikaz iguinduta izan zanean, Santiagok bere aberriaz gogoratu eban, bere aita-amagan, eta baita be Sasi-ume, Jariegan, eta bere jaio-errira itzultzeko ontziratzea erabagi eban.

Deun Joaneko goizetxua,
Notintsa goiztar danean,
mozkortuta ogeratzen dana
uragaz azkaltzen dau.

Baña ara non egun baten gure gizonak gutun bat artu eban, bere aita-amak il zirala adierazoz. Zelan bere seme maitea ikusi-eziñak eragiten eutsen samintasunagaz ludi onetatik aldendu zirala, amar urte luzeetan bere urrutiratzean nekez, atsekabez eta samintasunez bizirik, negar-malkogabetuta, euren biotzak urraturik, il zirala esanez.

On Santiagok izpar negargarria au ajola-gabe ez eban artu, baña bestealdi baten, antziña, bere biotzean eragingo eutsan samin eta atsekabea beragan ez sortzea, arritu zan, bere arimea, bere gogoa, lizunkrietan moztuta egoan, ludi onetarako izaki il bat zan, eta zeruan egotea ez eban ikusten ain argi.

Orduan On Santiagok bere baitan esan eban:

Lurralde onetan, gaztetasun eta giza-bide aberats onetan, atseginiñ aurkitzen ez ba dot, nire aberri zaar, zaarkillo, zaar guztiak bezela, ezjakin eta umetxutako aalgabetasunara biurtuta danean, ze atseginiñ izan neike? orrez ganera nire aita-amak il dira, eta an, nire errian itxi, utxi neban basetxean, inguru areitan, ez aurkitzean; ezer, zerbait biotz-eraginiñ izango ba neu, atsekabe, samintasuna izango litzake. Ez, nire aberrira ez dot itzuli gural Ludian zear ibilliko naz, ia nire ondasunakaz ondiño atsegintsu izan al ba naz; baña lpenztako kereix eta intxaurrak zekula be ez nabe kerizpetuko.

Lasaikeriak, joko, lizunkeri, maitakeri salkor, edozelatariko atseginkeriak, beragan azperkisun zakon bat sortzen eban. Ostera, alegin goienetariko bat, zekulako alegin bat, egin eban, barriro euratan murgildu gurean. Ain gogotsu nai, gura, izan ebazan zorionkeriak ez ebazan ain errez bazertuko; baña jangartsu gaixoari jazoten jakona, jaten setatuaz, bere urdaillean biurkeri bat sortzen eban.

Santiagoren gaixoa ez zan arimea iltea, gogo iltea; naizta guztia au naiko izan, ez ziran Santiagon gaitz bakarrak. Bere arpegia zimelduta, bere uleak zuritzen asita, bere gorpuzkiak trokotzak eta bere birikiak neketsu arnasatzen eban.

Ameriketako Osagille ospetsuenak ikusi, arakatu, eban, eta danen eretxia bardiña izan zan; bere osasunerako, sendotu gura ba eban, jaiotzerriko aize osasuntsuak berezienak izango leitzakeiozala ta bertara gaixoak itzuli bear ebala.

Baña Santiagok Osagilleen onuak ez ebazan onartzen, berak ezelan be ez eban gura bere jaiotzeko basetxera itzuli.

Ni naz, iñoan, ludiko gizakirik zori txarrenekoa! Neure bizirik geiena lanean gogor emon dot, atsedean barik, eta arin aberastuteko gurarian gauza azkori uko egin! Azkanean aberastu naz, eta orain nire ondasunak alperrikoak dirala ikusten dot! Azkatasun lur oneitan bizi diran iru milloi jopuetatik azkenengoa bera baño be zoritxarrekoa naz! Ez dot, ez daukat, besterik nire gogogabetasuna nabaritzeko adimena baño! Aaa nire Jaun eta Jaungoikoa! Nire ondasun guztiak poz-pezik emongo neukaz, nire biotz-zartada bat sentitzegaitik eta nire begietan negar-malko bat dariola ikustegaitik!

Ez deritxazu, irakurle maitea, Santiago bene-benetan zorigaiztokoa zala?

Bai! Bai, alan zan bai!

Jaungoikoak, Goiko Epailleak, Olan nai ba dau, gure soin, gorputza, abaildu dagiala ajez beterik eta gure arimea naigabez.

Jaunak epaitu gaizala, gure izerdiaren bitartez zaartzarora eldu arte, gure eguneroko ogia irabasten.

Eta eriotz-orduan, gure il-ogean negarrez eta kututasunez inguratzeko seme-alabak ikustean izaten dan atsegifia, ukatu daiskula.

Baña gure arimea, gazte ta mardultasunean gorde daiskula!...

Santiago geroago ta gelago arrekunratzen zan bere gaztetasuna, zu ta ni atsegintzen gaituna, galdu ebalako.

Gorputzako bularrerria ezeze arimakoa be ba eban. Osagilleak azkenean argi ta garbi agertu eutsan, bere itxaropen bakarra, bizirik urten gura ba eban, bere jaioterrira itzultea zala. Azkenean Santiagok itxaropen au ontzat artu, bizitzeko gurariagaitik baño bere aler-gatasunagaitik, erabagi eban erriratzea.

V

Udabarriak Enkarrarriko lurraldeak kapel orlegi aberast bateaz apaintzen eban, sagar, madari, kereix, eta abar, lorez landaturik; eta goizero eguna argitu orduko txoriak euren txio-txio abeslariatz limurtzen eben, lilluragarria benetan euren abestia, eskerrak Jaungoikoari emonez, etengabe jarraitzen, ziardun. Abeslariak euren zeregiñean, euren txio-txio gozo ta alaietan, kementsu, etengabe jarraitu, Egilleari eskerrak emonez, abesti-aldi ondoren Udabarriak opatzen eutzezan kerexi eta beste igali gozo ta eder ugariekatik.

Nire bularraren berotasunean azitariko, ta ondiño nire saietz-ekzer alderdirantz bere abiada daukan, txoritxu batek izpar, barri, oneik edestuten daustaz.

Aran sakontasuneko barrutietan, zein goi-aldetan an emenka ezarrita egozan basetxetan, poz ta alaitasuna jaun eta jabe izaten zan, eta ez orriak, lorak, txori ta argi ta gaba launak eldu ziralako uts utsean; itxaropena, urre-margozko mitxeletak, txirpilotak, amabost egun aurrerago ereindako soloan bere burutxu kirrua agertzen eban arto-lazto, euren mumentzat oiñarria izanez, bere barnean galburua sentitzean arrokeriz eztandutako gari-laztoa, eta igalietako lorea, ama zoriontsua bere seme-alabak azita ikusi arte ilten ez dana, guzti oneikaitik be poz-alaitasuna zan.

Umetxuek, landa ta barrutietan idiak larreratuten ebezan bitartean, gaztaiña ta intxaur azalakaz txistuak egin, edo erreka bazterratako urreztietan txori abiak billatu; andra-gizonak aurreratuta agertzen ziran soloetan, landarak jorratzen, edo atseratukoetan mokillak josten; gizonak pipakada bat edo beste erreaz eta andrazkoak euren barre algarakaz, eta danak, ume, andra ta gizon, alai ta zoriontsu, uri urats pizuetan itoten garanoi eragotzita dan, zorion alai ori sentitzen.

Baña goibel eta bakartasuna jaun eta jabe zan solo ta landa batzuk be ba egozan; Ipentzako basetxea inguratzen ebanak ziran. Ildako Erramonek bere izakera maitekorrak eragiten eban alaitasuna, eta iraunkor izuriten eban, bizitza a, lurralde aretatik aldendurik

zan. Naiko egin eban Sasi-ume, Jariega, errukigarriak alabear mardulki ernetzen asi zan azia, euretan jaurtiaz.

Urte erdi luze zan Ipentzako etxagunak Jaunak beragana eroan ebazala, lenengo Kika, eta ille bete geroago Erramon; Kataliñeri eskon-sari ona itxiaz eta etxe ta etxaldearen gozamina, ondorengo bereziak itzuli-erazi arte. Ordutik aurrera, Kataliñen bizia goibeltasun eta negarrez zan, eta eskerrak bere sifiñismen beroari, bere Kristau sifiñismenari, eta bere bularrakaz elikatu ta azi eban emakume on, maitaleari, Ipentzara bere ama ta lagun bezela babestu ta zaindu egian, deitua izan zan emakumea gogoratzuz, une laburrta geldi-arazi al izaten ebazan.

Santiago ez zan itzulten, ez da be nezkatilla naigabetuaren gutun edo eskutitzei be ez eutsan emoten erantzunik. Gutun oneitan nezkatillatxuak argi azaltzen eutsan bere naigabea, bere bakardadea, betiko gogorapena ta aita-amaren etxeko bakardadea. Euratan, bere biotz-barnean izaten zan kezka, urduri ta larritasun amaigabea ezarten eban.

Igande bat zan. Ipentzako umerzurtzen antzera, eguna urdin eta eder izartu, bere begi gozo eder irudira, eta eguzkia sorkaldeko mendi tontorretan, zekula bezela gorrizka ta bizkor. Eleizako kanpaiak euren soñu alaiatz, mezara deiturik, ibar aretan zan poz eta zoriona toki guztietara zabalduz.

Karaliñ baltzez jantzita, baña ez bere barne, bere biotzean zan añako baltz giobeltasunaz. Kataliñ eleizara jaitsita, kandelak, argiziriak, biztuta, eta berak ain maite ebazan aita-amaren ilobi ganean, oiturazko ogi ta opariak ezarri ebazan.

Otoiz egiten eban bitartean, illobi aren arriak bere negar-malkoakaz buzti ebazan eta mezea amaitu zanean, barriro Ipentzako estartea, bidea, arturik, bere etxerantz joian.

Somorrostroko mendietari gari garbitzen asi dira, emen be laster eukiko dogu illuna.

Laiño ezo a, geldiro-geldiro, apurka apurka aurrerantz joian, eta Kataliñ Ipentzara eldu zanean, Enkarrari lurraldea, Soba tontorretatik Okondokoetaraño, Serantes tontor sumenditiki Kollitzaraño, lañopean egoan.

Eguzkia guztiz illundurik, Udako Goiz argi, alai batetik, Irailako arratxalde edoitsu bat biurtu. Ostera Kataliñen biotza alai sentitzen zan, eta itxaropen zoragarri ta gozo batek eraginda bezela taupatzen eban.

Gaba geroago ta illun ta euritsuago aurreratzen zan, eta Ipentzako biztanleak, agurtza edo errosario otoiz egin ondoren, ogeratzera abiatu ziran une aretan, labapean lo egiten eban txakurra, Nabarro, izaturik urrumedaka, auzika, zaunka, intxaustia zearkaturik, estratatik bera ibarrera jaitsi.

Katiliñek usté izan eban, Nabarro olan bere senetik, obeto esanda, labapetik artega atara ebana, zamari edo pasiego kontrabandista anbatzuk izango zirala ta basetxeko atari ganeko leio batera agertu.

Estartatik zaldi-otsa entzuten zan, eta geroago ta urrago egozala sarata edo ots oneik adierazoten eben, eta Nabarrok be itxi eban bere auzi, zaunka, soñua.

Pasiegoak ez dira izango, nezkatileak bere ama-ordezkoari esan eutsan, ba da orreik euren izatea iñoren izarratan ez dabe itxi, utxiten.

Zaldiak atarira urreratzen ziran.

Idegi eizu, Jariegal! Katalifiek ez bere ama-ordezkoak ezagutu ez eban abots batek iñoan, baña Katalifien biotzean guztiz ezaguna ta maitea ba zan bezela, biotz-dardara bat eragin eutsan.

Ezezagunak atari aurrean egozan.

Nortzuk zarie zuek? ama-ordeak itaundu eban, kandela-argia leiotik agertuz.

Idegi eizu, ama-ordezko edo deabrua! abots ber-berak oiuka zakarraldiz iñoan.

Kandela argiak atari aurrea argituz, atsotxu ta gaztearen arrituriko begietan agertu ziran:

Mandazain bat zaldi-ede baten lau mando gidaritzen, mandoak fardel eta kutxaz beterik, eta beste mando baten eta euren alboan zaartxu bat, beintzat bere itxureak ori iruditzen eban, au be mando ganean, onen alboan saltu ta burbutzika Nabarro, txeraz mandoduna laztandu gurean.

Etzetar, ain kutunki itz, berba, egin eutsen gizon a, biotzkada gozo ta alai bat, Santiago zala uste izanik eragin eutsena, naiz ta abots a eurentzat guztiz ezuna izan, euren itxaropen guztia ezereztuta geratu zan, lenengo mando ganean joianak Santiagoren itxurarik ez ebala ikusirik, naiz ta euren buruetan izan, urteak joanez gizakiak itxura-gabetu egiten dauzala, ta beraz Santiagori bardiña jazoko leiokola. Bere uleak zurizkak ziran, bere begiak ondatuta egozan, bellegi, ori, bere aurpegia zargil, bere eskuak zorrozki ta bere sorbaldea makurtuta. Santiago, ogetasei urte baño ez ebazana, eta lpentzatic alde egin ebanean, al-dendu zanean, aran, Ibar aretako mutil gazte indartsuenei pelota-jokoan zein palanka-jaurtiketan irabasten eutsena; Santiago, amabost urte izan ebazanako, bere eder eta lerdenta-sunagaitik erriko neskatilla guztiak bere atsean izaten ebazana; Santiago, amaika urtean ezin zeinkean gizon zaar, gaixo, makal bat biurtu. Urte gitxi ziran olan aldatzeko.

Nortzuk zarie, zuok? Katalifiek bildurrez ilda ta istasunez esan eben.

Idegi eizu, Jariega, arraio-arraio, atea bera bota ez daidan, dagidan! Arrera au da, nire aita-amaren eriotzean barria jakin-arazi zeustanean opa zeuztana?

Bera dal... Bera dal... oiuka andrazko biak esan eben.

Arifeketan atariko atera abiatu.

Bitartean, zaldi-gidariak lagunduta, Santiago mando ganetik lurreratu.

Nabarro laztankeriz, jan gurean beragana urreratu, baña ameriketarrak ostikada bat emon eutsan, birao edo "tako" ederrenatariko bateaz lagunduta. Txakur zaar errukigarria, auzi-mingarri, zaunka, batzuk egifilik labapera abiatu; oneik zaunka edo auziak kristau izkuntzara itzulirik, ziurki esan gura izango eben:

Aii! Aii! Aii!... Nire ugazaba ze astokillo itzuli da! Baña astokilloagoa naz ni, iñor eta ezergaitik ez arduratzeko dodan asmu, xede, baztertugaitik. Morroño ondo esaten dau, Ni Deuz, norbera, dala, batek oneraspen izan bear dautson deun bakarra. Aii! Aii! Aii! nire adiskide Morroño benetan da jakituna!

Nabarro onelan erostatzen eban bitartean, Santiago mar-mar, etxipenez iñoan:

Ildal... Betiko ilda nire arimeal... Ezer ez, ezer ez... grifarikeza, asper-aldi, bizi neke-

tsua, Bizkaian kaieratuan... jaio nintzan aran, ibar, maitean zartzean... nire aita-amaren etxean deitzean... nire umetxutako lagunaren abotsa entzutean...!

Kataliñ, bere ama-orde atsetik joiala, atarira arinka joan zan, eta Santiago besarkadazten abiatu; baña onek, bere besoak zabaldu ez eze marmar-otzez erantzun eutsan:

Ola Jariega! Uste neban atea gaba osoan ez zaiztala idegiten.

Oztasun onek Kataliñen biotza zauritu eban, eta izen onek, Jariega izenak gogora ekarri eutsan umezurtz adikor bat zala, uriko nezkatiilla errukigarri bat, bere bizitza, elikatzen eban ogia eta aterpetzen eban egoitza, goi-maitasunari zor ebalá. Esango eban zu, "TU" adiskidetasuneko "Tu" gozoa, "Los Martires"ko abeslariak deitzen dautsan bezela, "TU" ori, Ipentzako nezkatiilla lagun-gabearen kutxu-gabeko espanetan geratu, aundiki berba, itz, "USTED" aundikiagaitik aldatuaz eta ain gozo ta maitekor beti ordurarte eritxon Santiago izena, uts utsean aundikeri barik, "Usted" ori, Santiago izena beste laguntzaille sinokari bateaz deitu eutsan, len ain maitekiro zan Santiago izena, orain bere biotz-atsekaberako, beste itz, berba, apainduakaz erabili bear izatea. Guzti oneik bere biotzean izotz zati batek eragin eikean goibeltasun bat sorturik.

Zelan dago berori, On Santiago?, biotz urratuaz, indiatarrari itaundu eutsan.

Berori, Usted! Beti ergel bat, besterik ez zara izango! On! "Don! Nire aberri maite onek, arduza tentelak, bere aundikeriak... zekula be ez dauz baztertuko!... Zoriontsuak legebidez Adanetik sortzen diran laterrial j... mar-mar ixilllean, ameriketarrak, oztasun asperki-sunez esan eban, gauza bi oneik azturik:

Berori, (Usted) berari dagokion itzaltasuna adierazoteko esaldi ederra, baña balta be menpekotasun autortze apala, dala.

Gaur egun, On "Don" ez da aundiki, arrokeri adierazoten dauana, eta bai bere izen-abizenaren aurrean ezartzen dauana; aberats edo txiro, notin, pertsona, zuzen, deduzko bat; bere merezipen, jakituri, bere ezitzegaitik eskubidea dauala; zoritxarrez zeintasun oneik ez dabezan notiñ, pertsonakaz, nastau ez daiezan. Zeintasun oneik guztiz onetsiak dira gizarte ikasun eta gizatsu baten. Naiz ta nire anal ta ni, aita-ama baten semeak izan, eta ondasunetan bardin zamarrak izango gara, berak erosten dauazan liburuetan ezingo dau ipiñi, ba da au da bere eskubide bakarra, esaldi au baño:

"Liburu au JOSE DE TAL'ena da", nik osterá idasten dodazanetan esaldi au ipinten dot; "Liburu au DON ANTONIO DE CUAL'ena da". Guzti au olan da errozoí bakan onegaitik; nire anaia, naizta nekazari on, zintzo, langille, deduzko bat izan, bere gaztaroko gabak lotan igaro, emon, dauz, eta nik osterá, idazle, elerti-zale on-ona izan ez arren, nireak, nire gabak, ariskatzen, ikasten emon dodaz, nire adimena landuten, Jaungoiko, olerti ta lur-ikuspegien edertasuna ulertu al izateko; sentitze goigarriak euren neurri onenean onetsi al izateko, on-egíña ta gaiztakeria nabaritu al izateko, eta balta be zuzen eta zuzengabea.

Kataliñen samintasuná, atsekabea bere biotz-barne barnean sarturik, jasan eziñekoa zan. Santiago ain egoera txarrean ikusirik, bere gaztaroko lagun maiteagandik ain arrera otz izanik, ikusiaz zein oztasunez berba egiten autsan; amaika urte luzeetan itxaroten eta bere biotzak deitu eutsan lagunaren beraganako izakeragaitik. Ain zakona zan bere arpe-

giak adierazoten eban biotz-samintasuna, Kataliñen arpegian, ikusten zan oiñazea, azke-
nean Santiago be konturatu zan, eta bere oztasun eta gogortasunagaitik damutu, eta esku
luzaturik, nezkatililatxuari berba, itz, gozo, maitagarri batzuk esan eutsazan.

Orduan pozez dardarazituta Santiagori esan eutson.

Gaixorik zatoz, Santiago?

Bai gaixorik arima ta gorputzez.

Zer sentitzen dozu, nire biotzeko neba ori?

Ez dot ezer sentitzen, ori da nire doakaitza.

Kataliñek ez eban ulertu berba onein esangurea.

Otza dozu?

Bai, biotza izoztutz dot.

Etorri zaitzez, zatoz su-bazterrera, bertan afaria gertatzen dodan bitartean berotuko za-
ra.

Santiago sutera, Kataliñen sorbaldean zurkaiztuta sukaldertantz abiatu zan.

Marroño bero-zalea izanik, bere ugazaba-andrea apur bat lenago jezarrita egon zan
aulkiak jabetu. Ikusirik itzultera etorrela, bira bat egiñik, bere artean esan eban: "Sevillara
joan danak, bere jezarlekua galdu dau".

Eta alan zan, bere ugazabak geldirik itxi, utxi, eutson lo egin egiala berak nai, gura,
eban lez. Santiago be eritxi bardiñakoa izan zan.

Santiagok ondiño itxaropen apur bat ba eban, bere arimea ilda ez egoala, apur bat
aulduta baño, ainbeste gogorapen zoragarri eragin bear eutson etxe aretara, egoltz aretara,
inguratzean ondiño bere biotzaren eraginkada anbat, itxaroten eban naizta epela izan. Baña
itxaropen oneik arin zuntzilzen ziran.

Santiago sute, sukaldean, sartu zan, sutondora urreraturik, bere aita jezarten zan je-
zarlekuan jezarrri, bera ta Kataliñ jezarten ziran jezarleku beratan eta baita be bere ama je-
zarten zan lakarian; baña bardin, bere biotza bizigabe jarraitzen eban, otz, guztirako aierga-
be.

Orduan Santiagon biotzagaz auldurarik sakonena jabetu zan, eta Kataliñ eta ama-or-
dearen berba, itz, maitekiro, kutun eta laztantasunak bere makaltasuna bizkortzeko, alperri-
koak izan ziran.

Kataliñek ondo gogoratzen ebazan, zeintzuk ziran Santiagon janari berezienak eta bu-
ruratu jakon afari zalegarri bat gertatzea; ziurki bere analaren gogokoa, guztokoa, izango
zana, atsegin apur bat beragan sortuko ebana.

Egikisun guzti oneitan ziardula, Kataliñek bere biotz-barnean azaldu eziñeko poztas-
un bat sentitzen eban; ama batek goiz osoan bere seme-alaba maite maitei, eurentzat
atsegingerrien dan jakirik bereziñ gertatzean izango leukelakoa. Santiago maian jezarrri-
ta, bere aita-amaren etxeko ardao ta jaki areik bere urdaillak ez egiazala astandu itxaroten,
Santiagok bere espanetatik janari areik eta Kataliñek opa eutsan txakolin-edontzia, iguiñez
aldendu ebazanean, orduan Kataliñek, ama batek ainbeste lan eta nekez bere seme-alaba
maite-maite batentzat gertatuko janari garesti ta berezi bat, jateko gogogabe dalako edo

gustatzen ez jakolako uko egiten dautsonean sentitzen dauan eragin bardin-bardiña izan eban.

Azkenean Kataliñ, eta ez Santiagok ifoanagaitik, ez ba da maitasunaren usmo edo sumatzegaitik, konturatu zan, zein zan bere nebea atsekabetzen eban gaixoa. Notin edo pertzona, arruntz eta zakar batek, bere jan-eziña urdailako miñagaitik zala uste izango eban, baña Kataliñek arima bigun eta maitekorra eban, eta ziurki egoan, Santiagok urdaila ezeze blotza be galdurik ebala.

Kataliñ, non il ziran gure aita-amak? Santiagok itaundu eban.

Aretoko gelan, kataliñek negar baten erantzun.

Orduan, bertan, gertu eidazu nire ogea ta logela, ba da bertan il gura dot.

Baña neba maitea!... esaldia betetu ezifñik nezkaitillatxuak ifiotson. Zotinka ta negarrez ito bearrean.

Alperriko erosta orreik baztertu eizuz, amerikatarak, indiatarrak, barriro eramanpena galdurik, esan eban, amaitu eizuz zure ergelkeriak eta gertu eizu ogea gure aita-ama il ziran lekuan, gelan.

Kataliñ negarrez eta samintasunez, Santiagoren agindua bete eban.

Apur bat geroago Santiago, bere begiak legor eta bere blotza ajolagabe, bere aita-ama il ziran gelan sartu.

Ara emen azkenengo itxaropena suntsituta!, esan eban.

Eta ilda bezela ogean bere gorputz ajolagabetua bota eban.

VI

Urrengo egun-sentian, lauso lodi batek Ziko ta Alen mendi tontorrek inguratzen eban; Baña eguzkiak Urallagako goietan bere argi gozo ta alaitsua arin zabaldu eban. Eguzki argi gorritzak areik eraginda, lailñoak bere azkenengo abaro edo babes-leku areik arin, itxi, utxi, bear izan ebazan. Enkarterriko seme, otzandu-eziñak, erromatar gudari-talde arroak zatitu ebazanetik, zekula be Enkarterri lurraldeetan ez zan ikusiko alako egun alai, argitsu bat. Guda au galtzeak Augustori negar eragin eutsan, Soetonio Jaun onak diñoan bezela, "ateetan topoketa gogorrek eginda, azkatu zure bizarra ta ulea".

Ostera, Santiagok leioara ikuspegi ain zoragarriagaz gozatzeko ez eban urten gura izan, egun-sentien malkoak orri bakoitzean ezarri eban ikatz-arri, diamantezkoak ikusiaz, gozaten.

Asteko egunak, bata besteen atsean aurrera joiazan, guztiak danantzat ederrak, Kataliñentzat izan ezik, eta azkenean lgandea eldu.

Ibar, araneko, eleiz nagusiko kanpaiak euren soñu alaiaz lenengo mezara dei egiten eban.

Santiagol, maitekiro Kataliñek deitu eutsan. Nire abotsak aurkitzen zaran bakardade ilzoriko orretatik ez ba dau lortzen ataratea, Jaungokoaren abotsak nire gurari au lortu da-

gilla. Entzuten dozuz, neba maitea, kanpai orreik? Gure Jaungoikoaren abotsa da ori; dei egitiik, dei egiten dauskula gure aita-amaren illobi ganean otoi ta negar egitera.

Kataliñ, otoiak negarrik-gabe Jaungoia ganean ezin dira eldu, eta nire begietan negar-malkoak debekatuta dira. Itxi, utxi, eizu, ementxe, bertan, geratzen jatan aize izpi makala iraungi daitelal...

Ez Jaungoikoagaitik ez, neba maitea! Ain maite izan zinduzan ama maiteak, zu barrero ikusteko itxaropena galduta il zanak, esan ebazan azkenengo berba, itzak, ba dakizu zeintzuk diran? Bere azkenengo itzak zeintzuk ziran? "Kataliñ, alaba maitea esan eustan, iñoiz nire erraietako seme maitea ikusten ba dozu, bere amaren azken guraria esaiozu; bere aita-amak bizi ta il ziran bezela bizi daitela, Jaungoikoa maite ta goratzen eta azken orduan, nire otoi ei lagundurik bereak be Jaungoikoagan izan daitezala!"

Itz, berba, oneik entzutean, kikiilduta egoan jazarlekutik, jagita esan eban, Arrebatxual! Nire amaren eta Jaungoikoaren naia, guraria, bete daitelal...

Kataliñek alkartu ebazan bere eskuak, bere begi gardenak negar-malkoz ondaturik, otoi, eskerrak emonez.

Une batzuk geroago, Santiago ibarrerantz zan bidea artuta, bigarren kanpaiketa mezara sartzeko asi zanean, eleizara eldu zan.

Erri-batzarreko biztanle ugari, eleiz aurrean eta eleizpean batuta aurkitze ziran, eta guztiak indiatarregana urreratu ziran, berotasunez agurtzen; tamala zan danantzat ain itxura negargarriaz ikusi bearra; amaika urte aurrerago ain eder eta alai ezagutu eben mutilla, alan ikustea.

Alaitasan eta eskertasun areik, eta ez da be Santiagoren jakin-gureak, ez ziran izan naikorik, ez ziran izan gauza, Santiagoren biotza aurkitzen zan oztasunetik beste egoera itzulteko. Arpegi areik, mutil gazteen arima nasai, errugabe, apalak iruditzen ebezanak, lpentzako gazte-zaarrantzat ez ziran pozgarriak.

Mezarako azkenengo deiketa izan zanean, bere bekokian bateoan ura izuri eban abadea, mezea emoten urten eban une beratan, Santiago eleizan sartu.

Alatza zeartuan eta aldizka, bein banan, abade ta bere aita-amak illobiratuta egozan illarriari begiratzean, bere begiak pozez dizdiratu ziran, orduntxe Santiago nabaritu, konturatu, zan bere biotza ondiño guztiz ilda ez egoaola; ikuspegi arek biozkada alaia eragin eustan.

Bere amaren illobi ganean belaunikoturik, azaldu eziñeko zorion batek bere barnea betetzen eban bitarte, biotz-beroz otoi egin eban.

Amal mar-mar iñoen bere espanak. Zu ludian nigaz beti izan ziñan maitale ta errukitsu, begiratu eizu zerutik nire zoritxarra, eta gure Jaun eta Jaungoikoari, eskatu eiozu bere errukipean izan naiala, naiz ta orretzaz dollorrenatariko bat izan. Eskatu eiozu, nire ama maite done ori, negar egiteko begiak emon daistazala ta biotza sentizeko!...

Berba, itz, oneik esatean, Santiagok alaitasan osozko oiu bat ezin izan eban geldiarazi, bere biotza taupada baten egoan eta bere begietan negar-malko bat agertu. Bere arimea berbiztuten asi zan! Jaunaren abots miragarria entzutean, Lazaron biotz geldi-arazia ba-

rriro bizkortzen asil Santiago illobiaren illarri ganean, bere bekokia makurtu ta bere begietatik negar-malko ugaritsuak izuri ziran.

Mezea amaitu ondoren, eleizatik urtekeran bere biotza poz, alai ta itxaropenez ugari-tuta egoan; orduan bai, eskertasun eta jakin gureak eraginda, inguruan aurkitzen ebazan guztiak agurtzen ebazan, erbestera zanean umetxuak izan ziranak, ainbeste urte igaro ta gero zelako aldaketak izan ebazan arakatu gurean, eta aldi aretan gazte itxi, utxi, ebazan eta orain zaartuta ikusten ebazan bizitzatan zer izan zan jakin gurean.

Ipentzara Itzulteko, aldatz-gora naiko pike bat igon bear izaten zan, eta berantz, jaitsi-tea naiko neketsua izan ba jakon, zer izango zan orain igotean?, baña ez zan koldartu. "Je-zarri egingo naz, esan eban, nekatzen nazanean", baña arrituta, usterik-gabe bezela, une batzuk geroago Ipentzako intxaustian aurkitzen zan, naizta makalduta egon, nekerik barik. Izan be, maitasun negar-malkoak arima agortu batentzat, kemena izaten da, euriak landaraxuei bizkortasuna eragiten dautsen bezela.

Kataliñ, leiotik Santiagoren etxera itzultea, zelatatzen egoan; bere biotza, zalantza-mi-ñez beterik, Santiagoaz topo egiten urten eban.

Santiagon matrailak, lenago argizirik bezela zuri ta illak, orduan gorritzka egozan, be-reala odolak eurari berotasuna ta bizia emongo baleuskie lez.

Kataliñ! aldizka Santiagok esan eban. Negar egin dot, biotz-eragin bat izan dot! Mire arimea ez da ilda ondiño! Gure aita-amaren illobi ganean beiotzkada maitegarri bat izan dot!

Kataliñen espanetatik, alaitasunez beteriko oi u maitegarri batek urten eban eta bere nebearen besoetan bere gorputza itxi, utxi, eban jauzten.

Egun aretan Santiago maian jezarri zanean, artero izaten eban iguin garaitu-ezifekoa ez eban izan, eta lurralde aretako igali, janari ta ardaoa, ordurarte Kataliñek jan-erazi lortu ez ebazan jan-edariak, atsegingarriak eretxiozan.

Biramona be eguraldi guztiz ederra zan, baña gabeko ixil eta goibeltasuna, naizta Katali-ñek alegin guztiak egin osatzeko, barriro Santiagoren lagunak ziran.

Nezkatillea alperrikoak saiatzen zan, gelara zan tokitik Santiagok urten egian. Bere es-keintzak alperrikoak zirala ikusirik, Kataliñ negarrez Santiagoren gelatik aldendu zan. Santiago negar-malko areik ikusirik, nezkatilatuaz errukituta, eurak legortzea erabagi eban, bere zorionaren alde ain ekinkor ziran gurariak onetziatz.

kataliñ, bere arrebeari esan eutsan, ez eizu negarrik egin nigaitik ludi onetan negarrik naiko izan da ta, zer da gura dozuna?

Lagun dozun illuntasun, bakardade ori, baztertu dagizula, ta urten eizu kanpora, Jaungoikoak ospatzen daukun eguzki eder eta alai au gozatzen eta zugan bizi barri bat sortuko dauana goraltzen, Kataliñek negarrez erantzun eban, baña oraingoan pozez nega-rrez.

Santiagok intxaustira urten eban.

Kereix eta madariak an emenka intxaur artean landaratuta, lorez beteta egozan eta eu-rak lurrintzen eben usain gozoak edertu egiten ebazan.

Santiago zugatz areik begiratzean lilluratuta luzaro egon zan, eta bere arimea, beste

aldi batzuetan zugatzpe areitan izan eban zoriona, giro zoragarria aregaz gogoraturik, berbiztu ta aizetatzen.

Intxaustia baño apur bat araoago, ibarska ozkirri-ozkirri baten, gaztaña itzel, goi, batzuk kerizpetzen ebala, Ipentzako biztanleek urez ornitzen eban iturria bertan egoan.

Iturri aren alboan, Santiago gelditu ta bere gogoketatan murgilduta, gozoro urreraturik bere espanak teilla ganean ipiñi ebazan, ezarri ebazan, bere ganetik etorren ur garden izkirriaz, bere barnean eban gogoren eta zorion egarria azetzeko; ur apur bat artu bere eskuetan bere arpegia ozkirritu, eta ibarskatik berantz etorren errekatxuan maltzozko errota ta nasa-egonki batzuk egiteko tentalkeda bat be izan eban.

Aurrera jarraituta, txorko baten alboan geratu ta bertatik naiko ur egoan basetxe bat eta inguratzen ebazan barrutiak ikusten ziran.

Ur-aldean abots txiki batzuk entzutean eta zer ifioen jakin gurean, adi adi geratu; lau umetxu-mutillak ziran alkar izketan egozanak, txorko alboko abaroetan euren soñekoak sasi ta arantza artean urratzen.

Nik gaur goizean txori abi bat ikustatu dot.

Zerena da?

Biregarrona eta txorikumatuak lumak urtetan asita dagoz.

Aa! Erakutsi gura daustazu?

Bai, eta geiago be bai

Ba nik ez dautzut erakutsiko atzo ikusi neban zezati bat, perrotxikodi bat. Nire aita aldarrealdi Balmasedara joaten danean, bertatik abarketak eta tronpoi bat ekarriko daustaz.

Eta niri nire aitag txapel gorrizka bat, egozariak egozten dodazanerako.

Mutillak txistu batzuk egin dagiguzan, ba da izerditan asi dira ta.

Goazen.

Nik atara al baneu!...

Izerditu, izerditu

kozkol gogorra;

mando batek

ostikadak bota;

urten! urten!

Paskotarako

Nik txistu jo...

Eta durundi onen neurrian, aitzo galiziar edo baltz bateaz, an esaten daben lez, ebagi barria zan gaztaña azalean joten eben egurra jaregintzeko, danbada onein bitartez azala izerdi-erazi egiteko.

Santiagok pozik entzuten ebazan aur-esan oneik, ostera ez lilluratuta, zuk entzuten dozun bezela, nire biotzeko kutuna, zure biotz ozkirri, garden, siñiskorra euki bear da olako ezerezakaitik lilluratzeko.

Santiagok txistu bat egin eban, eta mutillak zer zan jakin-gurean tontortxu batera igon. Zaldun bateaz aurkitu ziranean, artega, urduri geratu ziran.

Mutillak, euretariko batek ixillean esan eutsen, Ipentzako Indiatarra ba da, nire aitak diñonetik, ez dau arimerik, il jakolako.

Eta ori zer da?

Zer? Arima iltea? Nik ez dakit, illeen gauzak.

Josus, zelako bildurral

Etorri zaiteze ona, zirtzil orreik, Santiagok adeibera umei esan eutsen. Eta umeak beragana urreratu ziran. Noren semeak zarie?

Ni Jonena.

Ni Kepana.

Ni Diegona.

Nire aitari ezizenez "Benditoseas" deitzen dautsoe.

Gaur sasi-eskola egin dozue, ez? Ez da egia?

Ez jauna.

Eta zergaitik ez zarie joan ikastolara?

Ni, nire amak gaur katoi bat erosteko dirurik be ez eukalako.

Eta ni bardin.

Ni nire amak apur bat apaiñago itxuratu arte ez daualako gura joan naiten.

Ni, nire amak diñonetik arazo bardiñagaitik.

Ederto. Zuen amaei esaiozue, zuekaz gaur arratsaldean Ipentzara joan daitezala.

Ederto dago.

Santiagon biotza geroago ta zabalago, nasaiago ta arnasea garbi, errezago, bere bidalian tontorretik ikusten zan basetxe baterantz abiatu, eta miselli bat guztiz nekez besteraldurik, urrerago egozan barruti batzuetan sartu.

Basetxeko bordariek arto-solo bat jorratzen egozan. Indiatarra ikustean gizonezko danak euren txapelak kendurik, berotasunez agurtu eben.

Santiagok, baserritarrak guztiz goibel, kezkatu, ziralala nabaritu eban, eta zein zan arazoa, zioa itaundu eutsen.

Zer izan bear dau, On Santiago! Inaziok sendi-buruak, aguretxua, bere arpegiak zindo, zuzentasun uts utsa iruditzen ebanak, erantzun eutsan. Bart gure idi-buzterria gorondoa apurtu, garondutu da, eta ondatuta geratu gara, ba da eurakaz ederto eraratzen giñan; batzuetan gure burdi-narra burdiñolatara eroanda ta beste batzuetan nekazaritzan, eta orain gure besoen indarran bitartez egin bearko dogu.

Baña, batzordeak ordainduko dautzue, ez?

Bai zera, jauna, aurten batzorderik be ez ba da eratu!

Baña azkenean, uzta ona ba da, ez da izango ain txarra.

Onenatarikoa izanda be, Jauna, urte erdian gitxienez be janari-zorroa erosi bearko dogu. Uztaren irugarren zatia lurraldearen ugazabarentzat izaten da, ta.

Gaur-egun idi-buzterri jasekorik ez dago salgai, ala?

Idi-buzterriak ba dagoz, On Santiago jauna, ez dagona dirua da. Lau ontzagaitik erriko alkate jaunak saltzen dau bat, Bizkaiko lurraldetan obarik ikusi ezifitekoa.

Alkate jaunari neuk erosiko dautsat ta zuei opatzen dautzuet.

Baña, zer diñozkuzu On Santiago jauna?

Zure idi-buzterria billa joan zaitezala.

Santiagok aguretxuaren eskua beranagaz alkaturik, lau ontza aguretxuarenean ezarri ebazan. Areintzat, lau eguzki bezelakoak ziran lau ontza.

Zeru goienetan dagozan izarrak zenbatu be errezagoa da, sendi arek egin ebazan poz-negarrek eta indiatarra goratze ta onetsiak zenbatu baño.

Egu-erdia zan, eta Santiago Ipentzako biderantz abiatu, jateko gogoa be ebalako... eta batez be, norbaiteaz bere poz-alaitasuna, bere biotz-barne zorion, atsegin osoa, kide izatea bear ebalako.

Intxaustira eldu zanean, Nabarro atsedentzen ikusi eban, auntz batzuk barruti baten besteralduteko izan ebazan neke ta naigabeakaitik kerizpean atsedentzen, Santiagok deitu eutsan zuku-atz eta atz-aldia igortzirik, baña Nabarro guztiz zaartuta egoan, eta txakur zaarrentzat ez dago txisturik.

Ostera, Nabarro ez zan gizon, diñot, txakur aierkorra, eta bere ugazaba deika jarraitzen ebal ikusirik, bere baitan esan eban:

Arraioa! Ara noa, eta eguzkiak Antekeratik urten dagiala! Nire lagun morroñoaz naz, geiago ipinten dauanak geiago galtzen dauala, baña ni ez naz beste bateaz asarratuta egotekoa.

Eta bere ugasabaz topo egitera joan, eta bata eta besteak, zekulako txerak alkar egin ebazan, olan diñon abestitxua zindoturik:

Maitale bik asarre egiten dabenean
ta barriro baketzen diranean,
aingeru ta serafifiek
zelan bekaitzeko dabez!

Santiagok jan eta edan gogotsu egin eban, ia ia jatunkeriz, baña Katalifiek ezin izan eban jan ezer, pozez beterik egoan.

Arratsalde illuntzera asi zanean, euren aamak lagun, Santiagoaz goizean alkar-izketan egon ziran umeak etorri ziran.

Ola morrozko! Santiagok umetxuei esan eutsen. Bear bearrezkoa da biartik aurrera egunero uts bat be egin barik, ikastolara joan zaitezen, eta kontuz geiago sasi-eskolarik egiteaz, ba da nik gauza guztiak edestuten daustan txoritxu bat daukat.

Soso batek iko baten gorengo adarretik, bere txio txio estitsuz eguzkia agurtzen eban, eta mutillak, aurrerago esanekoa aitzu barik ebena, ixillean alkar-izketan esan eben:

Mutillak, ori ez ete da esan dauzkun txoria?

Zin egingo neuke, orrek izan bear dau.

Begiratu elozu zalatariaril...

Mutillak, arrikeda bat emon al ba geuskio!

Bai orixe, gero indiatarrari esan dagion...

Indiatarrak jarraitu eban:

Igande guztietan, meza nagusi ostean, patin onetan jezarrita izango nozue otsarakada igali alde baten eta diru sakel bat bestean dodazala. Aurkezten daustasuen bake-txartel bakoitzagaitik, bai zuek edo zuen lagunak, lau lauko emongo dautzuedaz. Nilako aberatsei ikustaldi bat egiteko, jasez jantzi bear da, eta zuek jantziko zarie, ba da zuen aamak solifekoak egiteko arduratuko dira. Sakela solifekoei dagokiona izan daiten, okaifatu bear da, eta neuk emongo dautzuet zegaz okaifatu.

Olan esanik, andrazko bakoitzaren eskuetan, urrezko ontzako bana ezarri eban, eta esku bete lauko ume bakoitzanean.

Adi-adi au amaitu orduko, intxaustira joten eban estartean, gizon bat abesten Santiagok entzun eban. Bere idi-buzterriaz, Inazio zan, erosteko dirua emon eutsanaren agindupean ezartzen joian.

Inazio intxaustian agertu.

Ola Inazio! Gaur aldarte onean dala dirudi, intxaustian agertzean indiatarrak esan eutsan.

Ixildu zaitetz, On Santiago jauna, ez dakit gaur zer jazoten jatan! Emendik balego danboril edo pandero bat, naizta urte azko izan, moltso bat dantzatuko neuke. Emen daukazu bikote au, emendik etorri naz, zuk ikusi dagizun. Oneik baño idi adoretsuagorik, Enkarterri lurraldetan ez dago. Tratu-agiria egiten egozan bitartean, eurakaz sei zama meatz baiezt eroan, Menan jokatu dot. Eta ziur naz dema au irabasiko dodala.

Benetan bikote bikaiña dirudi.

Ba, On Santiago zeure menpean izango da beti, eta baita be nire andrea, nire semeak eta danok, zugaitik kanpadorretik buruz bera jaurtiko gifñakez, ba da zu zara gure aita.

Eskerrik azko Inazio, baña orren besterako ez da ziorik. Alan da ze, ez zaitetz oargabetu, illuntzean be ba doa ta, eta bide orreik guztiz txarrak dira.

Bai egia da, Jaungoikoa izan daitela zugaz, On Santiago Jauna, eta Kataliñentzat gorantzi azko; urretan bere astuntasunak baño be geiago balio dau. Aa, zuk eta berak zelako bikote egingo zeunkeen!... Parkatu eidazu, On Santiago Jauna, astokeri bat esan ba dot, gaur bikotetzaz uts utsean berba egiten baño ez dakit, izan be ain pozik naz neureaz...

Agure errukigarria, bere bikote ta tratu-agiriak erdi zoratu ebena, bere bidean abeslari jarraitu eban.

Gaba aretan, amaika urtetik ona jazoten ez jakona, Santiagori jazo jakon. Gau osoa ameseta baten emon eban, eta amesetan egin eban, ibar, aran, aretako biztanle guztiak bein eta barriri zin egiten ebela, On Santiagok agintsen ba eutsen, kanpadorretik buruz bera jaurtiko zirala.

VII

Santiagon arimea, il zanean baño milla bider ederrago berbiztuten zan. Miraria, geien bat Kataliñari esker izan zan.

Ille bi ziran egunero indiatarrak ibar osoa oñiez zeartzen ebala, bertako biztalei mezede egiten eta eurakandik goratze ta agurtze beroak artzen. Bere egikisun on bakoitzak bere arimaren edertasuna aunditzen eban eta baita be bere gorputzak jasetasun berezia iruditu. Indiatarraren gorputz eta arimeak edertasuna ganezka eben, eta bardiña jazoten zan Katalifien gorputz eta arimeaz be.

Udako arratsalde baketsu bat zan. Santiago ta Katalifñ orain amaika urte dantzan ikusi genduzan kereizpe ber-beratan eguaro ozkirri, lurrintsua gozaten egozan. Egunero egiten eban bezela, Santiagok inguruetakoko basetxe guztiak ibillaldia ta ikustaldia eginda egoan eta ogei edo ogeta-amar nekazari bordalari txiro egoitzetan, nabaritu eban, ikusi eban, zorion-sendia, Santiago Katalifñeri edestzen, kontatzen egoan.

Katalifñ, bere begiak nezkatiñ liraiñenetan ezarrita bereala esan eutsan. Ba dakizu eskonduko nazana?

Au entzutean Katalifñ, zuri-zuri gorpu bat iruditurik geratuta, alboko kereix-enbor baten jauzi ezteko zurkaiztatu bear izan eban; ostera Santiago Katalifñegan bere itzak entzutean eragin eban biotz-zartadeak ikusirik, bere arpegia poz-alaitasun azaldu ezifñekeko bat agertzen eban.

Nogaz neba, maitea? Katalifñek abots aldizkariz esan eutsan.

Txiroakaz, Santiagok erantzun.

Bai, txiroakaz eskonduko naz, Santiagok jarraitu eban, janari ta lana eurentzat lortuaz eta eurari emonaz, aberatsa nazan ezkeru, zer ez dot egin bear eurakaitik? Ikusiko dozu gure eskontza-bizitzan zenbat zorion eta maitasun izango dan. Txikitán, ez ziñoan zuk, eleiz ondoan gura sendia bizitzea? Lorategi bat euki ta etxe bakar baten bizi? Oneik ez ziran beste batzuen artean, zure gurari, naiak? Ba zure gurariak orain betetuko dira.

Eta zelan Santiago?

Zillegi eistazu arremán oneik ixilleán izatea, besterik ez dautzut esango; lasterrik aurrrera, Ipentza geografí ta kondaira estadistikatan, ogeita amaika biztanle, erri-eleiza bat ta lorategi eder eder batek osotuta, agertuko da.

Alkar-izketa au izan da amabost egun geroago, Katalifñ eta Santiago artean izandako alkar-izketa onen ondoren, Ipentzan edo obeto esanda Galdames errian, aldarte zoragarri bat jazo zan; Ipentzako indiatarrak, basetxe beratatik legua erdi barruan aurkitzen ziran mendi guztiak erosi ebazan, eta irureun langille alogoratu, zugatzak ebagi, sasi ta arantzak kendu, baita be arriak eta llurralde guztia zelai, leunduta, esku-barrena bezela, ipiñi.

Beste amabost egun geroago, Guriezo ta Markifñeko argin guztiak, ogeta amar sailla bardiñetan zatituta, banandua izan zan llurralde a, arriaz inguratzen ziardun, barruti bakoitzean sartu-urtenetarako bitarte bat Itxiáz, Utxiáz.

Batzuk jakin-gurean, nontzebarriak erri guztietan egoten dira ta, eta beste batzuk euren zudugaitik, ibar aretako biztanle guztiak, Santiagori itaunduten eutsoen, ia llurralde guzti areik berak uztiatuko ba ebazan, ala uste ba eban aukuratzea; baña indiatarrak itaun oneintzat ez eban eukiten erantzunik, ondiño erabagitzeko ebala gai onetzaz, esanez.

Lan areik amaitu orduko, beste batzuk ez txiki ta merkeagoak asi ziran. Erritarrak batez be arduratsu ta artega jarraitu egien, etxegille, arkiteto, bateri dei egiftez esan autsan:

Ara, nire etxe alboko soloa lorategi eder eder baten biurtu gura dot.

Orretzaz ez dago eragozpenik, etxegilleak erantzun eutsan.

Orrez ganera, Ipentzako intxaustian eleiz eder bat eraiki gura dot.

Ederto, ondo deitxot, etxegilleak erantzun, zeuk gura dozun lez egingo dot, baña bere baitan esaten eban, "gizon au zoratuta ez ete dagol".

Azkenengo, nire etxe ta eleizaren alboan ogeta amar etxe, basetxe, korta zabal aundiaz, bizitoki lekurik berezienean eta laztotegi aizetu ta zabalagaz, eraiki gura dodaz.

Baña, On Santiago, etxegillak erantzun eutsan, ez indiatarrak ain beste diru irazitegai-tik, txantxa bat eta ez bere guztokoa, zala uste izanik baño, On Santiago, ba dakizu...?

Ogei milloi erreal urretan daukadazala ba dakit, eta erdia naiko dot, zuri agindu dauztudana egiteko. Alan da ze, egitadua egidazu ta alik arifien oba, ba da lan edo egikisun oneikaz amaitu gura dot, ba da nireztat eta beste batzuentzat, atsegingarriagoak izango diran beste batzukaz asi gura dot ta.

Olan izanik, ederto, zeuk agintzen dozun erara egingo dot, zure guraria, naia, betetuz.

Ille batzuk geroago, lorategi, eleiza ta ogeta amar etxeak eraikita egozan. Orduan, egun baten goizean goizeti indiatarra ibarrera jaitsirik, idazkariari orri baten idatzita oarpen batzuk itxi, utxi, eutsazan. Baña, aste ta illeak aurrera joiazan eta lurralde barri a, eleiz eder bateaz apainduta lñor-gabe aurkitzen zan; bere egillearen etxea ta bere sendia bizi zan bakar bakarrik bertan.

Erritarren jakin-gurea itzela zan, jardunkisunak era guztietakoak, etxe ta lurralde areikaz zer egingo eban edo ze asmu eban; eretxiak batzutan erroizkoak ziran, beste batzutan burugabekeri utsak. Nabarro ta Morroño ziran arazo onetan gitxien ulertzen ebenak.

Agorrillaren amabosta eldu zan, zuzen be Santiago ameriketarntz joateko ontziratu zan eguna, baita zuzen be ibar aretako erri-jaiak ospatzen ziran eguna.

Indiatarra inguru aretako erromeri guztietara joaten zan, eta Gure Andra Goikundeko jaietara be joan zan; bertan batu ziran baseetxetako baserritar geienak.

Eleizea inguratzen eban intxausti zabala, notintsa, gentez, beterik egoan, alaitasun ta dantzatea lagun ebela; jantoki ta edantegiak baztar guztietan, txabola batzutan ezarrita, toki guztietan gentea dantza edo jan-zapi margodun ganean azkaltzen.

Indiatarrak be dantzatu eban eta baita be Katalifiek, euskalerriko anai-arteke erromerietan, txiro ta aberatsak, goiak eta beak, lodiak eta argalak, nekazari markez-andreaz eta markez-gizonak baserritar emakumeakaz; eta dantzatean ipuifiek mikeak bezela, danak esaten dabe:

Zindotasun aundiz! Zindotasun aundiz!

Dantzatu dogun lez, Santiagok Katalifari esan eutsan, zuzena da orain azkaldu daigun.

Bereala, azkaria gertatzeko agindu eban, baña ez edozelako azkari bat, ez, pardiillo ta txori txikiz betetutako azkari eder bat baño.

Baña jauna! Katalifiek esan eban. Nora zoaz janari guzti orregaz?...

Noa... edo obeto esanda, joango da, jaki guzti au joango da, gaur arratsaldean zer azkaldu ez daukien txiroen urdailletara.

Indiatarrak dantza lekua ondo zeartu eban, alde batetik bestera, tokixtu bat be aiztuta itxi barik, bere sendi ta beste ogeita amar andra-gizon baserritar Ipentzako goietan bizi ziranerane danak batera ta alkartasun osoaz beragaz azkaltzera, dei egifiez.

Azkaria alai izan zan, poztasunik aundienagaz ziran maikide guztiak.

Ara, indiatarrak esan eban, azkaria amaitu da ta, ordua da gu etxerantz abiatu gaitetzan, Ipentza urrun dago ta illuntzen be asi da, emakume oneik eta ni be ez gara bat be ausartak.

On Santiago, azkarikidea zan Inaziok esan eban, zure lagun danok izango gaituzu; Ipentzaraño lagunduko dautzuegu.

Bail gaiñeroako oiuka iñoen.

Ez zaitze nekarazi.

Zelan nekarazi! Besterik ez leiteke izan bearko, zuek etxera bakartasunean joatea baño. Zu On Santiago erri-alde onen aita izaniki!

Txangolari-talde ugaritsu a, Ipentzarako aldatz-gorak igoten abiatu.

Errira eldu ziranean, bordariak etxe barri areik eta eleiz eder a begizatzen zorobioturik geratu ziran.

Onaño etorri zarien ezkeru, indiatarrak iñotsen, ameriketatik ekarri nebazan laukorik erdiakaz eraiki dodazan abiak erakutsiko dautzuedaz. Eleizatik asiko gara.

Kataliñ, ama-orde ta Nabarro lagun, indiatarra eleizea erakutsiten asi zan. Gero banan banan, txundituta ziran baserritarrei ogeta amar etxe barriak erakutsi eutsezan. Eta egia esan zoragarriak eretxi jakezan.

Orain txakoliñ-zurrutada bat egiten, mezedez nire etxera igon eizue, olako abagunetarako Kataliñek gordeta eukiten dau ta.

Ederto, On Santiago jauna, Kataliñ eta zure zorion osogaitik kriskatuko dogu, baita be ama-ordekoagaitik eta jaioko danakaitik, ba da zu zara gure aita.

Basetzeko areto aundian danak jezarrri ziran. Kataliñ upeltegira jaitsita, pitxar aundi bi txakoliñez beterik ekarri ebazan, baita be edontzi batzuk eta jaki apur bat be laguntzeko. Areto erdian egoan mai baten ezarri ebazan eta arin izan zan bere neba Santiagoren alboan, jan-edari guztiak bertako jankidei ospatuz.

Ama-ordezkoak, berak gertu ebazan giar eta beste txarriki batzuk banandu eta edontsiak betetu, edan al eben guztian; orregaitik zan batzar aretako nagusia, adifnez. Danboliñe bera baño be alaiago, arin izan ziran, baña alai uts-utsean, ba da txakoliñek alaitu egiten dau baña ez mozkortu... neurriz edan ezkeru. Bedeinkatua izan bedi!

Morroño be giar eske agertu zan, giarra guztatzen jakon.

Morroñotxu, ama-ordeak esan eban, eutsi, zu be Jaungoikoak egiña zara ta.

Au esanez batera, giar zati eder bat bota eutsan.

Arraioa! esan eban berantzat bekaizkeriz beterik Nabarrok. Komunista oneik zoriona dabe... Baña itxaron, arraiñea abotik ilten da.

Morroñori giarrea kendu gurean, erazo gogorra egin eutsan.
Neuri emon dauste, miauzkatu eban Morroñok, nire jabego da...
Jabetza lapurretea da, marmar Nabarrok esan eban.
Eta aginkada bateaz kenduta, giarrea iruntzi eban.
Idiatarrak kutxa bat idegita, bertatik idatz-orri moltsu bat eta giltz pillo bat atara eba-

zan.

Inazio, bereala esan eban, giltz bat areitariko orri baten ganean ezarririk, emen daukazu zure etxearen giltza ta orri au zure etxe onen jabetasuna adierazoten dauan agiria da.

Bardiña egin eban, gaireroko beste ogetabederatzi bordariakaz, itz, berba, bardiñak eta etxea ta giltzak ospatuz.

Iruditu zeinke, asmau zeinke, "Errosa margodun goi-argi garden ori" jaia gainditu eban poz eta alaitasun atsegintsuaz eta an izan zan arritasun alaiagaz.

Baña, izan leiteke jazotea, zuk edestuten daustazun guztia?

Ez da al izango ba? Ara, nik uste dot, irakurri ta idazten dodanean, al dana jazorikoa dala, baña nire ipuñien ziurtasuna ez da al izatean uts utsean. Nik ez dot ezer ikertzen. Nire lora, zugatz, iturri, nire eguzki, zeru, etxe, gizon-emakumea, nire ume, txori, txakur eta katuetatik, antzeratuten dodaz. Adimen on on batekoa izatea, eta bear ba da... biotz-ona, dira nire merezimen bakarrak. Enkarterrira jaitsiten garanean, ipuin onen ziurtasuna egiztatzeko, lpentzara ez dozu igon gura izango, ba da bertara igoteko aldatz-gora pike neke-tsua dago, baña Balmasedara daroan bideari jarraitu eiozu, obeto esanda, Balmasedatik Castro Urdialesera doan bideari jarraiturik, Otañez deritxon izarotxuan, bitxi-lora usaintsuz beterik dagon landa eder baten gelditu zaitez, eta begiratu eizu Sartaldera. Bertan, mendi magal baten, baserri lirain bat aurkituko dozu, eleiz bat eta bere antzeko etxe zuri batzukaz osotzen dana. Baserri a, nekazari erri a, Talledo jaunak irazi, sortu eban, eta jakingo dozu ondiño mende-erdi ez dala; lpentza iraike eben aldian gitxi gora-bera.

Alaitasunak be eriotzara eroaten dauala, esaten dabe. Ez, ez alaitasunak ez dau ifñon il. Olan izango balitz, lgonkunde egunean Santiagoaz batu ziran baserritarrek, guztiak gorpuzango ziran. Alaitasuna, zekula be ez zan izango lñon, maila gorago baten.

Kataliñ, pozez negarrez egoan, beste guztiak bezela.

Zutat be beste giltz bat ba daukat, ixillean Santiagok esan eutsan.

Zein, ixiltasun bardiñean Kataliñek erantzun.

Nire biotzekoa.

Kataliñ, sasi-ume, errukiz azi ta eziko nezkatilla errukigarria, bere barnean maitasun-itxaropena izan leikean, baña bere itxaropenetik, ikusten eban jazoki-izatera, bitarte luzegia zan. Egia da, Santiagok bere gaizkatzea, berari eutsan zor, bear ba da ludi onetako gaizkarena eta baita be beti-betikoa, Baña Kataliñen arimea daukanak, ez daki zer zor dautsoen.

Une aretan Kataliñek sentitzen ebana, bere biotz-barneko eragiña azaltzeko berba, itzik, ez da sortu ta sortuko be; ta berak be ez eban aurkitzen. Ludiko miñ guztiak, zeruko biotz-eragiñik ezin leikee adierazi. SAntiagon eskua estututa, Jaungoikoagan gogoratu, negar baten geratu... besterik ez.

Orduan Santik, abots gogor indartsuaz, esan eban:

Adiskideak, datorren illearen zortzian, Ama Birgiffa guztiz Donaren egunean, jaian, emen, bertan itxaroten zaituet, batek be utsik egin barik. Egun orretan abade batek Ipentzako eleiz barria bedeinkatuko dau ta zirtailuan ur-malko batzuk gordeko dauz, ur-bedeinkatu malko batzuk, laster Katalif eta Santi alkartzea bedeinkatzeko.

Bedeinkatuak izan zaitzela! Bedeinkatuak!, ogeta baserritar etxegun-barriak oiuka esan eben.

Eta alan izan ziran, Jaungoikoak, egikisun onetan, mezedegarrietan, dirua ezartzen daben guztiak bedeinkatzen dauz... eta, nok daki bardin egingo ba dau ipuin zintzotasunezkoak edestuten dabezanakaz!

JUAN PALOMO

I

Urte bete luze joan da aurrerako ipuiñak idatzi ziranetik.

Euren egillea, Madrillen ogei urtetan alderrai zana; abi bako txori bat bezela, berana dala al izateko egoitz bateaz amesetan egíñez, ba dauka zendi ta egoitza, eskerrak zuri Jauna. Biziak dauazan jon-etorrietan, eginkisunetan, bere poz-alai ta goibeltasun-aldiak ain-banatzeko emon dautsozu lagun gozo ta bigun bat. Berak gorputzen, neketasuna ta ari-mean etsimena dauz betiko laguntzailleak eta:

Jauna! Sendi baten barnean sartukeran, nire lenengo itzak, berbak, bera goraldtu ta bedeinkatzeko izan bear dabe; eta ara emen, nire aita-amaren etxea kerizpetzen daberen itxaurpean jezarrita dagon emakumeak, egun anbatan bertatik igaroten dauan txangolariari, Teresan semearen bezela, esan al izatea: "Ara emen nire semeen ama donea"! nik orain edestuko dodana, sendi-bedeinkatzea izatea.

II

Nire jaiotzeko ibarretik nekarzan gogomenen artean, nire maitea, ta ogei urte lantsu ta neketsuetan, mendi maite areitatik urten eben errugabetasun usaíñez gantzututa eutsi dautsedazanak, batzuk "El Libro de los Cantares" deritxon liburuan eta beste batzuk "Cuentos de Rosa" liburuan idatzita geratu dira; baña ain ugari, ain beste dira nire biotzean geratzen diranak, ba da oneri esanez, "Biotz maitea, nire aita-amaren egoitzan naigabetuta, azkenengoz nire begiak ipíñi nebazanean, zугan síñisturik itxi, utxi, neutzun altxor maitea itzuli

eidazul, zu aripena lilluratu ta zure arima maitamendu ta ona, dardarazitzeko bear dodan guztia dot.

Egoaldean jasoten diran mendi orreik ikusten dozuz, ia beti edurrez txapelduta dagozan orreik? Adimenez jaso gaitezcan gorago ta gorago, mendi orreik baño azkoz gorago, ludioko baztartxu baten Enkantarri deritxon lurraldea aurkitu arte; eta toki txiki orretan, beste azkoz be erritxu txikiago bat artu, Kabia deritxona.

Kabi, euskaldun izkuntzan, Kabia gaztelar izkuntzan "nido" esan gura dau, eta ziurki orixe da, adar eta loraz osotutako kabi bat, amar edo amabi bat etxe babesten dauz, guztiak edurra aifako zuriak, eta eurak bezelako eleiz apal-eratsu bat, nire izeneko deunari eskeifia.

Mendi-lerro bien artean, legua bat inguruko, ibar estu batek bere urak itxasoan iraultzen dauz. Lerro-bizi bik, errekatxu txiki batek banantzen dauazala, sartaldeko mendi magal baten mailla aundi antzeko bat osotzen dabe.

Kabiako eleiz nagusiko eleizpean, arrizko zurgu edo eskillera bat dago, bere lenengo mailla arrilosa batek osotuz. Orain urte asko biguntzen eban euriak eraginda, erditik auzirik, bere zati bien artean ur-bide bat geratuta, bertatik Jaungoikoak zeruko ataska idegiten dauanean, ura amiltzen da.

Olan erdibitu zan, urak eraginda, Kabia Sartaldeko tontorretarako beste aldi baten sarrera izan zan mailla-nagusia, eta orain arri-mail artetik sortu diran aldapatatik urak amilazten dira.

Bizkargune bien bitartetik errekatxua jaitsiten da, bidearen maldartsagaitik kexatuz Zinto edo Kollitza tontoretik jaurtitako arria bera bezela arinka, bide txarra arin igaro bear dala bururaturik, baña mendi-orkatillara, barrenera, eldutean bere marmar-kexatsuak gitxiagotuta, eta baita be bere bitzakeriak, barren-arrenera eltze danean, guztiz atertzen dira.

Mendizka baztarretara errekatxua eldutean, ez dau marmar kexatxurik egiten; atsegintsu irribarreka agertzen da, bertan kereix eta intxaurrak aurkitzen dauzalako, ta euren kerizpetan bere nekeak atsedean apur bat arturik aiztuten jakozalako; baita be bertan aurkitzen dauz, mozukatzen daben espan gorri ozkirriak, zugatzen lorak usaintzen dabezan ortu ederrak, bere bidali-lekua oargabetu; ta sagar eta melokotoi-zugatzak eskukadaka jaurti dau-tsoezan lorak eta txaloakaz gozatzen.

Egoaldeko mendi tontorra eskuma aldetik jasoten da ta Iparraldekoa, ezkerretik, Kabia baserria alde bietatik babestzeko; Eta Kabia olan babestuta, pozik, nasai ta zoriontsu bizi da; gizonagandik aiztuta baña Jaungoikoagandik oroituta, eta ori da bere ardura berezia.

Kabiako amar edo amabi etxeak laraun oifarte inguruko saila baten moltzotuta dagoz, an emenka, ajolagabe ezarrita, eleizeak menperatzen dauazala... Emen, eleizean, bertako biztanleak jai egunetan, jazokisun berezi, alai ta atsegintsuenak ospatzen dabez.

Erriak Egoaldean errekatxu bat dau, baso-parra ta uretxabaropean, ur gardenagaz ibar bera doala. Sortaldera iturri bat, gaztaif orpo sendo, ur garden, urtsu, gizaldi mende

luze bat baño geiago dauan gaztañ orpo albotik sortzen dan iturria. Gaztañ sendo, lodia, Juantxuk, larogetik gora dagon gizon zaartxuak esaten dauanagaitik, bere sasolan, bere gaztaroan, erri inguruetakoz gazteak, mutillak, gaiztañeak eukan zulo aundi baten estaltzen zirala nezkatilla gazteak euren perraillekaz uretan joaten ziranean, euren emaztegiak ustegabez agurtzeko, ta besarkada maitetsuak emon.

Urrutiatar Jonen etxea, ezizenez "Juan Palomo" deritxona, da Kabiako etxegun ero-soena, eukitsuena, eleiz aurreko landa baten ezarrita dago. Antziña antziñako etxea da, antziña eraikitakoa, bere ate nagusi ganean are-arri maira-arri bat dago ta bere ertzariko baten gai bardifnez egindako lauki bat tartekatuta, auzokideentzat garratsitsua, ardurua, leba, aundikoa; ba da bera izan ezik, areik, erritarrak, ifioiz ez leukie jakingo ze orduten bizi diran. Ate ganean, eta beraz maira arri ganean, egurrezko zapaillu bat eta onen ganean, lurralde aretan atari edo atalondo deritxonetik igonez, maiz, sarritan edo ugari birakatuaz, mats-parra indartsu bin adar abarotsuak zabaltzen dira, grifia au zeozelako senditasuna da.

Eleiz aurreko landan, beste aldetik erritarren guztien dan larrain bat izan ezik, intxaurondo, kereix eta beste igalizugatez osoturik, baserri, Molinatar Antonen etxea, egoitza, dago. Bere apaltasanugaitik, beste aldeko lurraldeaz aldakuntz aundia dauka. Ezkerretara labea bere aterpe onetan, aterpean burdi, gurdi, bat eta lurgintzarako tresnak; onein artean, golde bat, eskubera eta bost-arrotz bat; eskumara kereix ondo bat dago, bere adar luzeakaz ia etxe aurre guztia estaltzen. Bizileku berezia, Antonen ta bere sendien egoitza da; bean, korta ta upeltegia, goian kanbara zabala. Etxe ostean orma bateaz inguratuta ortu bat, ta beratan ugazabak maitasunez zaindu, jagoten, dauazan igali-zugatz sendoak, naizta euren kerizpea, barazkientzat ez izan onuragarri.

On Juanen etxea guztia aberatsa, oparotasuna ta aundikia dan bezela, Antonion etxean guztia da estu ta txiroa, On Juanek ia urte osoan, gizen-garria saltzen dau; ostera Antoniok uzta batzeko baño ille bi lenago erosi bear izaten dau.

III

Ibarren Sartaldean mendi magalean, Kabi ezarrita dagola esan dot, baña eraxiki bear dot, aurrez aurrez dagozan mendi-magalean eta Kabiaz aurrez-aurrez, nire umetxuaro emon neban etxe zurizka maitegarria ondifo an dala.

Kabiako auzokide geienak gure senide, aideak, ziran. Urtero San Antonio, Deun Antonen, egunean, nire ama (G.B.), gure leioak kerizpetzen ebezan adarratatik txoriotxuak euren txio-txio ezitxuakaz eguna agurtzen eben baño lenago, ogetik jagiten zan, eta neire anak eta ni izartuten, izartzen, ginduezan.

Gelenetan amar bat bider inguru jagi gaitezan, dei egin bear izaten euskun baña Anton Deunaren egunean, deadar bat naiko zan gu danok izartzeko. Deadar bakar bateaz danok zutik, zutunik, izaten gifan.

Etxeke leiotik ikusten genduan, zelan Kabiako ke-zulotik zerurantz ke-zuri batek igo-

ten ebalak, eta arreta aundiz adi-adi entzutean, danbolifoi soifur gozo ta ain gozo ez zan kanpai soifua be entzun geinkean.

Ke ta soifur arek, geure senetik kanpora ezarten ginduezan, eta amak garbitu ta orras-tuteko une beratan be ezin izaten gifan egon geldirik. Txukun, apain eta maitekiro, jasean gure amak ipinten ginduezan. Gure biotzetan, Kabiako eleizako kanpaiak, izugarritzko poz, alaitasuna sorturik saltuka ta jolasten jardunten genduan, naizta gure ama beti ibilli esaten:

Ikosiko dozu, ikusiko dozu zelako plastadea artuko dozun, geldirik ez ba zagoz!

Gure ama maite inguraturik, Kabiara eltzen gifanean, bertan jai usaiña zan... lurraldea abaltasunez baña kutuntasunez be bai apainduta, eleiz ederra lorez txukunduta, gutzia zan an apainketa, notin, pertzona, etxe ta eleizea, dana ezin eder, polit egoan.

Gure senide, aideak, gura eben euren maikideak izan getezan, eta guretzat egun a, urte aren egunik etsegingarriena izaten zan; naizta aitaren utsunea garrantzitsua izan; gure aita ifioiz ez zan joaten erromerietara, berak esaten ebanetik, ifioanetik, ez jakozalako gutzatzen, baña nire eretxiz, eta au nire eretxia geroago baieztatu al izan neban, etxearen zain, jagoten, batan batek, norbaitek, egon bear ebalako, ta gure ama geratu ez eiten; orregaitik uste dot, esaten ebalak jaiak ez jakozala gutzatzen.

Larunbatak be egun zoriontsuak, alaiak, guretzat; egun orreitan ikastolara joan bear ez zalako. Eta baita be Larunbatetan izartukeran, ogetik jagitean, uste izaten genduan aita-amak lgandea emoten Kaira joateko baimenaren itxaropena izaten gendualako.

Ogetik jagi orduko, amak zurrumurruka ikusten ginduzan, eta naiz ta ez entzun esaten genduana, asmatzen ebazan apur bat gora-bera gure gurariak, naiak, eta irribarretxu bat egifizez, ez aditze adierazoten eban.

Gure zurrumurrua olan izaten zan.

Amari esan bear dautsogu ia itxi, utxiten, ba dauzku...

Zer itxi, utxi, bear eban, ez egoan esan bearzenik, argi egoan.

Bai, bai, goazen esatera.

Esaiozu zuk.

Ez, ez, ni ez naz ausartzen.

Ba ni be ez.

Esaten ba dautsozu, nire pelotea emongo dautzut. ez dot gura, asarre egingo daust eta.

Ala, koldar orif!

Koldarragoa zara zul

Kabiara joateko baimena eskatzea baztartuta geratzen zan, baña gure itxaropenak erri-txu aretan lgandea emoteko; ez ziran izaten galduak.

Egun osoan, edozein gauza edo zlogaitik gure amak entzun egian, Kabiaren izena atarutzen genduan.

Ene, zelako sugarrak diran Kabiako otorretegian! Osaba Inazioaren barrutietara eldu ete da sua?

Gure amak ez-entzun egiten eban.

Biar Kabian izango dan espatadantzan, eleiz-birak urtetzen dauanean, ze polito egongo da!

Gure amak ez eban aintzat artzen.

Biar Kabian bateo bat izango da, ta laukoak jaurtiko dabez.

Nire amak iñoan; "beste belarritik"!

Ze gendetsa biar Kabian izango dan, erri-aldetarrak pelota-jokora ontza bat jokatuko dabel!

Arraio, arraiook! azkenean oiuka amak esaten eban, azpertura nozue zuen Kabia orreaz! Joan zaitze, eta ia itzultzen ez ba zarie, bertan betiko geratzen ba zarie.

Pozez, gora txapelak, aizeetara, jaurtitzen genduzan, eta arifeketan Kabiarantz abiatuz:

Baña, arerio gaiztook, oiuka amak iñoan, nora zoaze alkondara ta arpegi orreikaz, ikazgille batzuk zariela iruditzen dozue? Ikusi eizu zelako gertu-bearrak Naizta norbera arduratzen il, edozeifiek esango leuke, amarik ez dozuelal! Ume oneikaz, emon bedi Jaungoikoak eroapena!

Olan esanez, gure amak Gerineldo batzuk iruditurik ipinten ginduezan eta mozu banaaz agurturik, esaten eban:

Ibilli zaitze Jaungoikoaz, barrabanok, nire azkena zuek egingo dozue ta. Agurtu eizue ondo be ondo Kabia, ba da zuek barriro bertara itzuli orduko euria ugari izango da.

Urrengo Igandea baño lenago euria izaten zan, eta beraz bere igarpena betetu, bestela ama, igarle txarra bezela geratuko zan.

Agorrillaren Larunbat baten arratsaldeko lauretan Kabiara eldu giñan, naizta arratsalde aretan bero, sargori izugarrikoa iza, ibarren, aranen, sakonenatik errirantz dagon estratako aldamenen dagozan madari-zugatzatan egozan igaliak eurak be, bertan, egozan lekuan, erreteko beroa izan, pozik Kabiara joan giñan.

Guztia au ederto gogoratzen dot, guzti onegaz ondo gogoratzen naz, naizta nik aldi aretan ez nebazan amar urte be.

Kabia basetxean garia jotzen, lurrinduten, ebiltzan.

Mandoak euren lana, bearra, amaitu eben eta larrain alboan egozan zugatz batzuri lotuta, garagar-bedarra jaten eta gizonak, langilleak, zugatz ber-beratan kerizpetan, bazkaldu ondoren, kerizpe ozkirri orretan baskal-ondokoa egin da gero, nagiak kentzen ebezan bi-tartean jagiten asi ziran. On Juan Urrutia bere etxeko balkoitik diadarka egoan:

Gora, jagi zaitze, ordua da garia larrinetik atarateko!

Lurralde aretan dan oiturea, nekazaritza lanetan alkar-laguntzeko, beso ugari bear dira, ta gure asaben oitura eder oneri jarraituz, Kabiako biztanle guztiak, andrazkoak zein gizonetzkoak, agure zein gazte, euren kako, sarda, oe-oil, isuski ta beste tresna batzukaz, apurka apurka, lanean laguntza izateko, agertzen asi ziran.

Gizonezkoak sardakaz gari-garaio laztotik banantzen eta gari-garaio larrainera urrera-

tzen, nezkatillak oe-oillakaz laztoa On Juan Urrutiaren kanbarara eroaten eta andrazkoak, andra-sasoizkoak, eskubereak atsera Itxi, utxiten ebazan gari-garaoak garbitzen, danak jardun eben lanean.

Mutikoak be lanean gifian... lazto ganean, katuen antzera saltoka, naizta On Juanek, lana begiztatzen egoanez, ikusten ginduzanean, aldizka, mandoak zirikatzeako zartailua arturik oiuka deadar egin:

Kendu zaiteze ortik, auntz-kume barrabanok!

Larraiflean alkar-izketa mamintsua izaten zan, baña On Juanen etxetik urteten eban giar errearen usain gozoa nabaritu zanean, eta onek, On Juanek, usain aren ostean, langilleen zirikatzei erantzunez, pernil eder eder bat erreta elduko zala ta bera buztitzeko bere upeltegiko lau kantara txakoli onenatarikoa esan eban, orduan oiua ta santzoak ugari ziran.

Felitzianak, baserri-alde aretako nezkatillarik politenatarikoa, bere buru ganean ipiñi gura eban lazto-txorta bat, Molinarreko Anton eta Benitok jasoten, burura jasoten, lagundu outsoen, baña lazto-txorta astunegia zan eta urrats oinkada gitxi barru jaurti bear izan eban.

Astanda egin bear zinduzan! gorrotoz beterik Antoniok esan eutsan.

Jesus Maria! Zelako miñal emakumeak erantzun.

Ederto etorriko jakon, ba da mando bat bezela bizkarkatzen da beti, begietatik sua botaten ebala, Antoniok iñoan.

Laster zuk geiago zamatu bearko dozu, Juanek esan eban.

Niki!

Bai. Zer! Eskontzeak lazto-txorta batek baño astuntasun geiago ez dau, ala?

Eskontzea, Jaungoikoak agintzen dauan bezela izan ezkerok, ez, jauna, Antoniok erantzun eban; oraingoan apalkiro.

Felitzianak irribarre gozo bat egiñik, Antoniori esker-onez begiratu eutzan.

Olan dala, Antonio ta Felitziana laster eskonduko dira, ez? Juana deritxon emakume auzokidetariko batek, itaundu eban.

Biar izango dira lenengo geierak, agertu-barria zan abadeak eleizpetik esan eban.

Felitziana lotzez gorritzuta, begiak jaitsi ebazan.

Begiratu eizu zelako aolkuak!... esan edo asmau eben andrazko guztiak. Ixildu zaitez mezedez, zeu eskontzen ez zaran ezkerok, gaiñerokoei ez eiozu kendu eskontzeko gogoal!

Bai, kendu gura dausat, ba da olan mezede aundi bat egiten dausat.

Ni ez naz eretxi bardiñekoa, On Juan jauna, abadeak erantzun eban. Zu eskonge geratu zeinteke nai dauan denpora guztian, baña Jaungoikoa ta gizartea iraintzen dozuz, eskongetasunaren alde berba egiñez.

Ara, or da Juantxu, auzi oneri orrek emon leikio epaia, soloan lan apur bat egin ebangaz nekatuta, larrain alboan pipea bitz biztuten egoan aguretxu bat aitatuz, On Juanek esan eban. Iru andra izan dauz, eta irurakaz, txakurra katuz bezela bizi izan da.

Bai egia da, Juantxok erantzun. Irurak guztiz txarrak urten eusten, arkakusuak bezela-

koak ziran, eta neuk guztiz onak euki ez dodazan ezkerero... nire etxean beti izan doguz asareak, alkar-iraintze bakoitxik...

Or ikusiko dozu, abadeak jarraitu, zelan eskontzeari ezartzen jakozan, eskontzen diran izaera kaskar ta jakitasun urriari dagokiozan erru guztiak.

Antonion jakituriaz nire eretxia ez da onenatarikoa.

Zergaitik?

Antonion geierak biar izango diralako.

Ixildu zaitetz, Jaungoikoagaitik, zure esanak entsuteak adore emoten dau ta! andrazkoek esan eben.

On Juanek jarraitu.

Bere izakeratzaz, Antonion izakera buruz... erakuskifetik, oiala zelakoa dan jakiten da.

Bai, auzokidetariko batek esan eban, Antonio larrauts, polbora, bezelako izakera dau, baña Pelitziana mamukio bezelako leun, ixilla; baña jokatuko neuke, urte bete barruan akelarru bera baño be, bigun, leun bere gizona ezarriko dauala.

Juana zuzen dago, errozoia dau, abadeak iñoan. Andra zentzundun, on batek, gizon suminkor, auskalari ta txar bateri, bere izakera, andrearen izakera, errez ezartzen dautsa.

Ba Jaunak, orain arte eztabaida orretan ixilik egon zana Antonio, asi zan berbetan eta iñoan: zuek eskontzaren buruz, eskontzatzaz, zeuk gura dozuena esango dozue, baña nik, naizta "Juan lana" bat izan, neure eretxia dot, eta uste dot eskontzea Jaungoikoaren legepean zerbait ongarrria dala. Bizi maltzur eta neketsu onetatik gizasemea bere arima ta gorpuzta zamatuaz dabil, eta maitasun edo bearenez zama au erodateko bidean jauzi gura ez ba dau edo trumilko ibilli, laguntza bear dau. Jaungoikoak ezarri dau gizonak laguntzarako andrea billatu bear dauala, eta andreak gizona, eta Jaungoikoa Salomon bera baño be jakintsuago da, arraiol, ba da berak bere baitan diño: "Gizonantzat andreak dauan lillurape-nagaz, eta gizonak andrarentzat dauan eragarkipenagaz, alkartuko dira ta eta idi buzterri bat ez da izango naiko, eurak banatzeko, eta olan aurrera jarraituko dabe, erdiz-erdiz zama aztunena eroanez".

Ixildu zaitetz gizona, ixildu, eta ergelkeririk ez eizu esan! On Juanek iñoan.

Zu zara olakoak esaten oituratuta, eta ori ez, Juanak erantzun eutsan, aldrako guztien iortzuna izanik, beintzat andrazkoena bai.

Juana zuzen da, baieztatu eban abade jaunak, eskontzea ta sendia, bere ondorio dana, guztia, bearrezkoak dira, bai gizon-emakumeentzat eta baita be bai gizartearentzat.

Baño ni, abade jauna, ez nau iñok ateratzen neuretik, neure eretxitik...

Jauna, ori da setatia izateal, andrazko danak batera esan eben. Baña gizona, abade jaunak berak baño be geiago jakin gura dozu ala?

Abade jaunak parkatuko dauts, nik daki dana da, beste edozelako gizakia nazala, zuek eta abadea jaunak diñozuen bearzen ori, eskontzea, ez dodala nabaritzen, sentitzen. Dirua eukiaz, zuzen be daukadan ezkerero, zuek diraustazuen zama ori erodateko morroiak dodaz, erodateko ta laguntzeko; eta nik andra-laguna, sendia eta orrek beste gauza orreik zuentzat ain garrantzitsuanak diranak, niretzat alperrikoak dira, ez dot euren laguntza ezetarako bear.

Noiazbait damutuko jatzu...

Ja! Ja! Damutu, bai zera!

Urrutiatar Jon deitzen zaran bezela...

Nire izena ez da ori, ni Juan Palomo naz.

Neuk bakarrik prestatzen dot eta neuk jaten dot.

Zuzen eta egi-egia.

Onetan andra errezuri antzeko legor, legor bat, On Juanen etxeko leio batera burua agertuz, deitu eban:

Benito, etorri zaitez azkaltzen, ba gertu dago!

Benito azkariaren billa arin joan zan; eta danak abadea izan ezik, ba ez eban nai izan maikidea izatea, larraiflean jezarrita, guztiz pozik eta saratatsu; estarria nekezaritzen eban borratxua kentzeko asmuz larraiflean berebillean jezarri ziran.

Une batzuk geroago, txakolin pitxar eder bateaz, andra legor luzea lagun, Benito agertu zan. Andrea On Jaunen nezkame bat zan, eta otsara bat beterik gaiñeroko janariakaz etorrerena Anbrosia.

Azkari alaia, pazko-aldi bezelakoa, añaakoa.

Geikeri batzun errudun, txakoliña izan zan, alan bein eta barriro On Juan Urrutiari "Juan Palomo" deitu eutsoen, eta Juantxuk maikidei gogoratuazo eutsen, Anbrosiak, naizta emakume done bat izan, bere azurrekaz zamatuko zan mutil, gizon, zori-gabeko bat, ez ebalá aurkitu, eta au entzutean Anbrosiak esan eutsan:

Zu be egunekotariko bat zara!

IV

Lau illebete siran Molinatar Antonio ta Pelitziana eskondu zirala.

Abenduko goiz bat zan.

Mendiak eta ibarra be bai, naizta ibar, aran, epel areitan edurra sarritan ez ikusi, ga-bean bara bat edurrez izkutatu ziran.

Kabiako biztanleak, leiotik kanpora begiratzean, berritasun a ikusirik alaitasun bizi-bizi bat izaten eben, benetan ikuspegi zoragarria.

Sarritan neure buruan asmatu dot eta itaundu be bai, poz, alaitasun ori, zeren ondorioa izan leiteken; lurraldeak edurrez zutintzen diranean, teilletu, zugatz eta errekatxuak zuri ta izoztuta ikusten doguzanean, izaten dogun alaitasun ori, zergaitik izan leiteken? Nik uste dot, edurra zuria dalako dala, ta zuria maite dogu, zuriak bere garbitasuna galdu baño bere izatea galdu gurago izaten-dualako. Maitatzen dogunean, arimean zorion eta alaitasuna izaten dogu lagun, ba da Jaungoikoak arimea maitasunarako emon dausku ta ez gorroto, ikusi-eziña eta aiergabetasunerako.

Eduartzea izugarritzkoa ta Andresillo, mutiko kozkorra, deabrua bera baño be azkarra-goa; ta Kaban esaten ebenetik, beste trebetasun artean, kanpaiak berba-azoten ezarritea

eban; egun aretan goiz-otoiz delak joten igon eban. Ain edurtze aundia izanik, kanpaiak inguratzen eban edurragaz, eleiz ondora, dorrepera agertzen ziran guztiei eurakaz eraso egi-teko, goiz osorako edur-pelotak egin ebazan.

Antonio, goiz-otoiz kanpaiak entzun orduko, ogetik jagi ta bere andreaz lo egiten eban logelako leiora urreratu, ta beraz ain zoritxarrez, ba da bere arpegiari, kanpadorretik jaurtitako areitariko edur-pelota bat ortsi deunako izar guztiak ikusieraziz, apurtu zan.

Kanpadorretik jaitsiten zan barre algara ots batek, jazoki aren egillea nor zan, Antoniori jakinazo eutsan.

Bere gizonak alako gorroto-aldi bat izango ebala ta, Pelitziana arriturik, logelan egoan eiza-izkillu, eskopeta, bat artu gurean, Antonio beragaz jabetu baño lenago, ogetik jagi, baña Antoniok, Andresillon barre algarari, beste barre-santzo aundi ta alaiago bateaz erantzun eutsan.

Pelitzinak pozez une aretan gogoratu eban, zelan bere adiskide zan Juanak bere geieira aurrean esan ebana, Antonio urte bete baño lenago akerlarru bera be baño apalago izango zala.

Ikusi dozu, Pelitziana, barraban ori? edurra arpegitik kenduz, Antoniok esan eban eta barreka jarraituz.

Gizona, ondo egin dozu ez sutzuzteaz.

Zelan sutzuztuko naz ba, urraza, letxuga, bat baño otzkirriago ezarri ba nau?

Ori Andresillo da arerioa.

Joan dan Udan kereix-azur bat jaurti eustalako emon neutsan zaplastadea, ondiño barraban orrek gogoan izan dau.

Jesus Maria! Eta orregaitik jo zenduan ba?

Ez ba! Aldi aretan zio ori baño txikiagogaitik joko neban ori baño askoz be sendo ta andiagoa.

Kaxkaraldiak!

Andrea, ezin nintzan nasaitu, odolak burura igoten eustan...

Eta orain, zergaitik ez dautzu igoten ba?

Nik, zer dakit ba alabea! Ori zuk jakingo dozu. Zugaz eskondu nintzanetik, ez dakit zelan arraiio atondu zaran, baña nigaz gizon barri bat egin dozu, orain nire arimeak, euli bateri be kalterik egiteko adorerik ez dau. Abestiak ondo diño:

Ni mutikoa nintzanean, ama,

Burdin batek be ez ninduan lotuten.

Arrutza bat bezelako andra bat

etorri da ni lotuten.

Ixildu zaitetz, ixildu, batek esango leuke, nik kate anbat bota dautzudala...

Bai, bota daustazu, baña burdifezkoa ez da, lorazkoa baño...

Ala, ala, balakarri ori, jantzi zaitetz, ez zaitetz egon or otzituten.

Ze otz, eta arraiio... Otzak, ez bero, lan, loak, gozeak eta ez jaiio danakorik ezek, zuk

maite nozun artean ez nau ni nekarazitzen, Maitasunak bat zoriontsu egiten dauanean, zelan iflor gaitz-eritsi leil

Olan, berba, itz, egiten ebanean, bere andrea atsedean apur bat artzen, ozkirri, zuri-gorritzka, eder, goi-argi benetako batek eta biotz-garbi batek eragiten dauan zoriontasuna iruditurik, ogean egoan, eta Antoniok bere alboan makurtuta, poztasun negar-malko bat bere arpegian izuri eban.

Andra apal eta maitamenduak besoak jaso ebazan eta bere gizona samatik oratuta besarkadatu, bere negar-malkoak Antonionakaz nastaturik.

Pelitziana ta Antonio, baserritarrak ziran, ez-ikasiak, ostaz ostaz, ludia euren begietan, euren begien aurrean, agertzen zan lurraldea baño aundiago zanik ekien, oztaz ostaz ekien, baña iflon ikasi barik ekien, guk, liburu batzuk idatzi doguzanak, orri, paper batzutan ikasi doguzan gauza bigun, garden, zindo ta deunak.

Murruze bat kortan entzunik, Antoniok irribarreka esan eban, "Rojo" ta "Galan"ek gozaria eskatzen dauste, ta errozoia dabe, ba da sasoi da jaitsti dagieden.

Ni be ba noa jagiten, geurea egin dagidan.

Ez da leiarik orretarako, andrea. Egon zaitez beste apur baten ogean, ba da otz aundia da, maitasunez Antoniok iflotsan.

Ez, sukalde, suteak, su barik, su-gabe, etxea goibeltsen dau.

Sua nik biztuko dot.

Eel kendu zaitez ortik lelo ori! Gizonezkoak ze ulertzen dozue orretzaz!

Rojo ta Galanek, idi bikote ederra, eguzki ber-bera bezelakoa, barriro murruse egin eben, euren izkuntzan adierazoten emon gurarik:

Baña, zu jauna, jaitsitzen zara ala ez zara jaitsitzen? Uste dozu andreari txerak egifñez, gure sakelak betetuko dauskuzuzala?

Antonio saran bateaz kanbarara igonik, leio alboan arto-betekada bat egiten egoan txori-aldra batek bera ikusita, ta euren azkaria une onenean nekarazitzen ebala, guztiz asarraturik iges egin eben. Sarana artoz betetu eta lepoan artuta, kortara jaitsti, idiei sarankadea bananduz. Barriro, txoritxu bat Udabarrian baño pozago sukalderatu zan.

Pelitzianak, burdiñol-sutegi bateko sua baño garrtsuago bat biztuta eukan ta okendo-sagarrakaz inguraturik, iru edo lau urdai-txingor zartagiñean erretan egoan.

Jesus, Maria ta Jose, zelako eguraldia dan!, leiora kikiratuta Antoniok arriturik esan eban.

Ba, zer, Pelitzianak ifloan, sasoi egiten da, edo izaten da. Arto, lur-sagar indaba ta urdaia ba daukagu, Jaungoikoari esker.

Artoa aitatu dozunez, otsarakada bat garanduko dot, ba da alperkeria, griña, aje, guztien ama da.

Ondo egifña, orrelan sutarako burutxak eukiko doguz, eta errotaria etorten ba da, zorroa beingoan bete egongo da.

Antoniok, kanbaran legortzen egozan artaburuetatik sarankada bete bat jaitsti eban, txoriei, artagarao jaten egozan txoriei, asarre-aldi bat egifñez, oneik barriro iges egin eben, marmar ifloela:

Arraioa! Gizon au azkariak kalte egin daizkun ondo saiatzan da!

Zizaillen bizkarrean oltxu bat egoan, trabilla bigaz lotuta ta au etzantasunez ezarrita, mai baten zeregifia betetzen eban.

Pelitzianak jaitsi eban, bere ganean mai-oiak zuri bateaz estaldurik, urdaitxingor bazuk azpil baten bere ganean ipifii, eta azpilla talo bero-bero zatikaz inguratu.

Bereala, andra-gizonak intxaustitiek be entzuten ziran barre-algara saratatsuak egifiiik, arin garbitu eben mai ganean egon ziran urdai ta taloa; eperrak izan ba ziran be, ez ain arifago.

Antoniok Jaungoikoari eskerrak opa autsazan jan ebezan janariakaitik bere andrak otoiei-erreguei, erantzuten eutsan; onek oltxu ganean egozan gauza guztiak kendu ebazan, barriro bere lekuan oltxua ezarririk. Astirik galdu barik, Pelitziana etxea atondu ta lapikoa suten ipifii eban, Antonio artoburuak garatzen, au da garaoa, artogarao, burutxetik banantzen, eta au egiten da, artoburu burutxa bateaz igortzirik.

Bitartean Andresillo kanpadorrean jarraitzen eban, bere betik igaroten ziran guztiei edurrezko pelotak jaurtitzen.

Andresillo, Meza-kanpaiak jo eizuzl, eleiz alboko urrenagotariko etxeko leiotik abade-etxeko andreak oiuka deitzen eban.

Andresillok, kanpaiak guztiz ondo jo ebazan, lurralde aretan alaitasuna ta jai-pozartuaz. Esan dodan lez, Andresillok trebetasun berezia eban kanpai-jotzaillerako, alan da ze, Kaban esaten eben, sakristau ta ikastetxeko irakaslearen semeak, Andresillok, kanpaei barba egin eragiten eutsela.

Eguraldi ona zanean, astegunetan eleizara Ambrosia ta beste iru edo lau atso joaten ziran, ba da gaiferokoak baserritarrak, kanpaiak mezarako deitzen asten ziranean, naiko izaten eben, lanean ibiltzen ziran euren soloetatik otoiz egifiiik, Jaungoikoarei eskerrak emotea. Baña egun au, nik aitatu gura dodan egun au, ez zan bardiña, egun berezia zan.

Mezara noa, ba da lan onek ez dau bat be leiarik, Antoniok kanpaiak entzutean esan eban.

Neu be pozik be pozik joango nintzake, Pelitzianak esan eban, baña ez ba naz joaten, Jaungoikoak parkatuko daust. Izan be eguraldi ona danean, norbera ezin dan lez geratu etxean, orregaitik gero guztia ankaz gora aurkitzen da, ta eguraldi txarra danean, antolatu bear.

Zuzen zara, emakume. Abade jaunak esaten dauan lez, otoitza deuna da, baña onespenagaitik, egin-bearrak ez dira baztertu bear.

Antonio eleizarantz abiatu ta bidean intxausti inguruan, Ambrosiagaz topo egin eban.

Egun on Ambrosia.

Juanaren bitartez, zuretzat be izan daitezala, gizona.

Je! Je! Je! Ze eguraldi polita dogun, ez?

Norbera etsi-arazita izateko berezia.

Etsi-arazteko? aitzitik, edurrak biotza alaitzen dau eta lurrak zatzitu, narotu. Urte edurtsua, urte ondasuntsua.

Gizona, ez eizu olako lelokeririk esan!

Baŕia Jaunagaitik, Anbrosia, beti izango dozu ba izakera oril Ezek ez zaitu poztuten!...

Ez, bestela zuen antzeko izango nintzake eta ez dot gura; keto batzuk iruditzen dozue

ta.

Zergaitik? Beti barre-aurpegia dogulako? Orduan Jaungoikoak zaindu daiskula.

Ala, ala, itxi daigun alkar-izketa au, azkenengo kanpai-deia joten dago ta sartu gaitazan eleizara.

Begira ze arin doan zure andrea!

Ez dozu ikusten gaur mezara ezin dala etorri?

Bai, ori be egunerokoa da ta! Ori...

Anbrosiak esaldia ezin izan eban amaitu, kanpaidorretik Andresillok jaurtiko edur-pe-lota batek ago-agoan jo ebalako.

Jaitsi zaitez ona, barraban oril, begietatik su-garra jaurtiz eta gora begira gorrotoz, oiuka Anbrosiak esan eban. Jaitsi zaitez, ba da dodan izena be, galdu bearko dot, zugandik ordainketa lortzen ez ba dot. Guraso txarren semea ba zara!... Zure ama... bat izan ba zana!...

Anbrosia, asarratuta Antoniok esan eban, ilda zan emakume baten oroimena erritarren aurrean laidotuko ebanaren agoa, aboa, bere eskuaz estaldurik, Anbrosial Jaungoikoagaitik illel dagokien itzala izan eizul!...

Onetan Anbrosiaren gorrotoa, Antonion aurkakoa zan.

Donge oril errozuri arek, ez dakit emakume baten irudia zan ala sumin-aldi oldarke-riarena. Nor zara zu niri eskua ipiñi daistazun? Jaiotz-etorki gaiztoa ba dozu! Zure aita!...

Anbrosia, ixildu zaitez. Antonio, lagun-urkoaren argaltasunakaz errukitu zaitez, sakristiko leiotik mezea emoteko jantziten egoan une orretan, abadeak esan eban.

Abadeak agindu areik egitean, doñuan zintzotasun berezi, izugarritzkoa, ezarri eban, eta erregua eginkeran apaltasun ain eginkorra adierazo, entzuleak ixil-ixilik geratu ziran eta Anbrosia ganera ikeratuta, bildurtuta, ixildu zan; Antoniok bereala, bere aita-amaren oroi-men erru-gabekoa loituta ikustean galdu eban apaltasuna, birjabetu eban.

V

Bedeinkatua izan dedilla Udabarria, lurraldeak lorez estaltzen dauana, eguratsa usain gozoz betetzen dauana, zerua urdifez jantziten dauana, biotzak alaitasunez osotzen dauanal

Eguzkiak argitu ta txoritxuak abesten dabenean, nire biotzean be alaitasuna abeslari ta dizdiratsu izaten da, naizta nire biotzak ez dau itxaroten urietan bizi garan amaibako ne-gutik urteea.

Orduan indar mendarakaitz batek narrasturik, uriko Sortalderantz abiatzen naz, eta gaztelu aurrean dagon plaza ederra zeartuta, Jaungoikoak egindako eguzki argitzen lotzorrez sortzen diran lora ta orriei, entzuten dautsedala iruditzen jat:

"Olerkaria! Jauna bedeinkatzeko ereserki, soñua jasotzeko abotsik ez daukagu. Gure izenean eresi eizu, bitartean guk, eskerrez beterik, usain gozo ta itzala sугan izuriko dogul

Jezarri dot gorputza, nire gorputza, uri errikidetsudunak, zaindari dauan Done gurtuzen dauan antziñako arresipean. Eta nire aurrean agertzen dan ortzi zabalean leiatsu nire ikusmena ezarri dot.

Guadarrama tontorretan ez dago orain edurrik.

Manzanarez ibai beste baztarrean, antziñako urak, eguzkia dizdiratzen dabe, leun eta urdin zerua bezela.

Virgen del Puerto, La Floria ta Casa del Campo'ko zugazti ederrak bere txanbil-orriz urdiñeaz "San Antonio"ko jaiak apaintzen dauz.

Somasaguaren tontorrek, eskal-bedarren lorak margotzen dabez, euren adiskide dan aize-ozkirriari esanez:

"Artu eizu, artu urriñontzi usain gozoz betea, ta urrunetik begizatzen gaitun atxillotu goibel areri eroan eiozuz; opatzen dautsogun oge, etzan-toki, usaintsu onetara etorri ezin danari".

Egurats, ortzi, urdin zear egazka, ta abestuten doazan elaien egoak ez daukadazala ikusirik, nire biotzean ez da abestirik, eta alaitasunaren dizdiratzea makaltzen doa.

Aail Nire arimaren sendotasuna eta menpekotasuna amaibakoak dira, baña Tantaloren oiñazeak urratzen dabel!

Ludi onetara bialtzean, Jaungoikoak iñostan:

Zuri ta txoriei izendatzen, berezitzen, dautsedazan mugagabeko ortzi, egurats, zabaletan, abestu azke ta zorionsu, barre egizu.

Baña gizonak egaz asi-orduko esan eusten:

"Negar-zotin, negar eta il zaitzez!"

Eta zotinka, negarrez espetxe estu baten ilten naz, bertatik begiekaz baño gogoaz geiago, Jaungoikoak nire arima argi ta azkatasun-zale, kekkalariari opa eutsazan lurralde bedeinkagarri lilluratsuak ikusten dodazala!

Baña ez, maitetxu nirea, naizta beragan luzaro egon, espetxe onetan ez naz ilgo, zure biotzean eta nirean Udabarri amaigabe bat da, berak bere abesti, argitasun eta usaiñ gozoakaz, arnasea ta bizia emongo daust.

Gero nire gogamenak Septetrion mendi goi orreik baño askoz gorago, ia beti edurrez zurituta egoten diran tontor orreik alderatuaz, Kabian ondiño gizaki maite maiteak, besoak zabalik ikusten dodaz, euren ota-indarrez begiratzean eurakana leiatsu, saiutzen narrastu gurean, umetxutan aberria ta Jaungoikoa maitatzen ikasirik, nire zaartzaroaren eskubiderako aztura lortu eben lurralde bedeinkagarri, itzuliaz gurean.

Itzuli gaitzean maite Kabiara, iñoiz ez da izan gaur baño polit eta lilluragarriago loraabi a. Neguko egun edoitsuak joan diralako, eta Udabarriko eguzkiak biotz guztietan alaitasuna sortuazo egiten dau; zugatz guztietan lorak, tontor eta espan guztietan abestiak.

Urallagaren tontorretan, eguzkiak bere dizdira alaitsuak agertzen dauz, eta apurka apurka, igoten, igoten doa, bere osotasunean agertu arte; ibar sakonenak be argitasun eta alaitasunez gainezka ezarri arte.

Kabiako kanpaiak saratatsugoak entzuten dira, iñoiz baño alai, iztunagoak.

Gaur Jesusen Berbizkudea ta lorán egun-jaiak batera ozpatzen diralako izango da, ala Andresillon biotzean lora anbat erne dala, ala iru ospakisunak dirala ta?

Une batzuk dira, Andresillo intxaustitik zear eleizarantz joiala; sasoi beratan iturritik ferreta bat urez beteaz buruan eta bere agoan klabeliñ bat, Isabel jaitsiten zan.

Andresillo abeslari joian, eleizea kerizpetzen daben kereix eta intxaurretan abesten daben txoriak baño alaiago, baña Isabel agertu orduko, ikusi ebaneko, bere espanetatik abes-soñuak alde egin eban eta bere begietatik alaitasunak. Egun on Isabel, ifiotsón.

Jaungoikoak on-onak opa dagizuzala, Andresillo.

Ez daustaz lar onak emoten ba.

Ba, zu abeslari zentozan.

Atsekabeak uxatuteko abesten neban.

Nok eragiten dautzuz ba?

Nok, diraustazu, nok?

ala zilibokari oril!

Bertan il naitela, egia ez ba da.

Judatarra! Jaungoikoak zigortu ez zaiazala.

Eta zergaitik?

Diraustazun ori guzur utsa dalako.

Maitatu naizu eta ikusiko dozu.

Ezetz esan ba dautzut.

Eta zergaitik, Isabel?

Zentzunik ez dozulako.

Zuk maitatzen ba nozu, ikusiko dozu, zein zentzundun izango nazan.

Baña egiz diraustazu ori?

Jaungoikoak gaizkatu naiala. Krabeliñ ori emoten dautzazu?

Ez, ba da abestiak olan diño:

Isabelek klabelin bat emon eustan

leioan ezarri neban,

aizeak eroan eban,

agur, Isabel biotzekoal!

Ez, leioan ez dot ezarriko.

Orduan non?

Biotzean.

Eutsi ba.

Ene, abade jauna dator!

Eta nire ama be bail!

Agur.

Agur.

Andresillok kanpadorrera igon, maillaka bakoitzean krabelin loratxua mozukatuz.

Isabel, etxean sartu bañio lenago, Andresillon kanpai-jotea entzutea itxaroten, gelditurik, bere baitan iñoan:

Barraban orrek zer esanazoko ete dautse?

Andresillo kanpai-joten asi zan, eta barre algarada bat egiñik, Isabelek jarraitu eban:

Ba, ez dautse esanazoten ba, Isabell Isabell Isabell...

Egun-sentiren lenengo argitasunetatik, Kahbiako biztanle guztiak erritik ebiltzan, zuzgazitiatatik, ortutatik, barre alaitsuz abeslari, norbait landatan, barrutietan, idiak jagon, zaintzen, beste batzuk barazkiak batzen, beste anbat gaztañediko iturrira ure oskirria billatzen, norbait, amaitzeko, ortzi deunaren edertasuna uts utsean, ederretsitzen.

Biotz guztietan, ia guztietan, alaitasuna zan jaun eta jabe.

Eta ez ba difiot guztietan zeozergaitik izango da, neure errazoiak izango dodaz.

Ikusi dagiguzan.

Urrutiatar Joenen etxea beste guztietatik ez bardiña zan, bere aberastasungaitik agerzten eban ez bardiñtasuna, eta ez Antonio Molinatarrenagaz uts utsean, baita be Kabiako beste guztiakaz.

Bere bizi-lagunaren erosotasunerako an ez egoan ezen utsik. Altzari ta apaintasunean, gauza txikietan emakume adiguritsu baten eskuaren kutuntasun utsa nabaritzen zan; aberats eta erosotasuna baztar guztietan agiri.

On Juanen gelea, errege bateri dagokiolakoa. Balkoira jasoten zan lora-itzalkia zear, egun-sendiaren lenengo eguzki dizdira argitsuak, usain gozoz beteturik.

Ain trebetasun bereziaz, ain beste gauza gogoragari Kabiako biztanlei agertuz, eta biotzetan ain beste poz, alaitasun eragin, Andresillok kanpaiak jotzen jardunean, bere ogetik On Juan birritan edo iru bider jagi; agondu zan, ozpiña bera bañio arpegi garratsagoagaz, oiuka iñoala:

Kanpai orreik, guztiz azpertzuta nabe, deabruak eroango, al dauz emendik millaka lekotara!...

Azkenean kanpaiak euren ekintza amaitu eben, eta On Juanek barriri lo egitea saiatu eban, baña alperrik, ogean egiten ebazan birakadak eta erdi-lotan esaten ebazan berba, itz, burugabeak, lo bat bañio lagaitzaldigabea zala geiago iruditzen eben.

Ez dakit ze arraiok olan ernaratzen eban, ba da inguruetan entzuten zan sarata bakarra, balkoira jasoten ziran loretan abesten eben txoriena zan. Ez ete zan bere biotzean, berak uts utsean entzuten eban sarata anbat egotea?...

Nok daki, nire Jaungoikoa, biotzeko, norberen biotzeko, saratak, norberari lo-gura kendu leikioena!

Ia amarrak ziran On Juanek ogea itxi, utxi, ebanean, eta ain tiraka aundia egin eban txilina jotean, gorotea, sokea, apurtu jakon.

Ze agintzen dau beorrek, jauna?, logelako atea erdi-idegirik, Benitok itaundu eutsan.

Danak inpernura, kalera, joan zaitezela, ba da guztiz gaizki otseintzen nozue.

Benito ezertxu be erantzun barik, baztertu.

Txula, txakur-emeari, gelako atea idegita ikusi ebanean, zeruak be zabaldu jakozan;

bere ugazaba-zalea zan, eta berari laztan, txera bat egitera joan zan, baña On Juanek osti-kada bat emonaz, eletxar bat lagunduz, mur-mur esan eban:

Laztankerietarako dago gaur bat, bai!

Txula, Chula, gizon eta emakumeen esker-gaiztoagaitik, txakurkeriak esaten bazartu.

On Juan katabera apatz baten bere gorputza agondu eban.

Txoriak, ortuko zugatzetan eta balkoirantz jasoten ziran loratan abeslari, euren txio txio estitsuaz inguruak alaituz.

Aldi labur baten, On Juanek euren abestia jasan al izan eban, baña azkenean asarrebiziz jagi, oiuka ifoala:

Deabruak deun bateri eroapena bera be galduzoteko naiko dan soñu ori; eroan da-giala.

Eta balkoia saratatsu idegi eban.

Bertan abesten egozan txoritxuak, ozipindu arpegi zimel a ikusirik, euren txio txio lilluragarriekaz beste zugatz batera joan ziran; kezkatu Españan olerkariak eben babes-eza-gaitik; baña igali zugatzen abeslari jardun ziranak, uste eben igeska a soñulari arrunt batzuei dagokiona dala, edo bear ba da, sutsu eresi lilluragari baten gogotsu jardun zirala, On Juan ez eben ikusi ez entzun be berak ifoana, naizta au bere besoak zabalik, errot-kurutz bat bezela, bere indar guztiakaz bein eta barriro ifoala:

Uxaaaaa!...

On Juan gorrotoz itsututa, iza-izkillua artu ta abeslariet danbada bat egin eutsen, baña zorionez zauri-gabe geratu ziran, baña Antonion etxeko atariko kereixara iges egin bear izan eben,

Danbadea entzun ebanean, Juana, On Juanen gelako balkoiaz aurrez aurrez egoan patifera urten, eta ondiño eiza-izkillua bere eskuetan ikusirik, esan eutsan.

Eiztan, On Juan, eiztan? Eskerrak Jaungoikoari jolasteko aldarte onaz ikusten zaitugulako! Izan be, nor ez da alaitzen Jauna berbiztu dan egun onetan, zerua, lora ta txoriak be ospatzen ba dabe? Ondiño gaur arratsaldean, intxaustian txistu ta pandero soñua lagun, dantzaldi bat egiten, ikusi al izango zaitugu! Arraioa! Gura dozu nigaz dantzatu?

Zoaz inpernura!

Joan zaitez zu urrunago!

Alkar-izketarako ez dot gogorik.

Ni lako atsoakaz, ez da egia?

Ez da gazteakaz be.

Ia, ia, On Juan jauna, guztia jakiten da ta!

Eta zer da zuk dakizuna; sorgin ori ba?

Jai! Jai! Jai! esakera-zaarrak diñoanez, madarigaitik txarto itz, berba, egiten dauanak...

Baña, ze madari ta madari-bako?

Uste dozu, atso arratsaldean Isabel estartan topatu zindueanean, latesi beste aldean iderrak eragiten egoana, nire amaren alabea, gorra zala?

On Juan lotzez gorrituta, gorrotoz ubeldurik, marmar berba, itz, ulertu ezin batzuk esan ebazan. Lotseak eta gorrotoak eraginda zan, eta bereala balkoitik baztertu.

Jauna, Juanak esan eban, judatar txakur bat zarala ez dautzut deitu, olan artegatzeko. Eskondu gura dozula esatea, zuri koroi bat ipintea da ta Isabeleaz izanik, ondiño azkoz be gelago. Bera txiroa da bai, baña zugaz ezeze Españeko erregaz beragaz be, eskontzea merezi dauana.

Baña, nok esan dautzu zuri, barritsu porrokatu ori, nik eskondu gura dodala?

Ori argi dago, ba da batek es dau asmau gura, txede txarragaz joango zarala...

Ni ez noa ez onagaz, ez txarragaz, nire bizitza osoan ez dot nire gogoan izan eskontzeko gurari, nairik.

Orregaitik deitzen dautzue "Juan Palomo", nik prestatzen dot eta nik jaten dot.

Andrea! andreal, arraio, arraio ori, ez naizu zirikatu, bada izugarritzko jazoki bat egin naikel...

Eta au esatean, On Juanek bere eskuetan eukan eiza-izkillua astintzen eban.

Juana ikeratuta, oi u saratatsu bat egiftez etxean sartu zan.

Benitok ez sukaldari-andreak ez eben asmurik etxetik kanpora joateko, lantokia galtezko, uste eben eskubide bardiñak ebezala, eurak ugazabari men ez egiteko, ta onek, uga zabak, eurei agintzeko, orregaitik etxean geratzea erabagi eben.

Benito! Ziriakal Anbrosial, On Juanek oiuka iñoan. Non arraio zagoze, txakur bat bezela emen bakar-bakarrik eta amorrotuta euki naizuen?

Benito ta Ziriaka, sukaldaria, euren nagusiaren dedarkadatar arin joan ziran.

Zer gura dau berorrek jauna?

Gozaria, baña txistu baño arifago, ekarri daistazuen!

Ondiño jauna, ez dago gertuta, sukaldariak, Ziriakak, erantzun eban.

Deabruok!

Jaki-gelaren giltza Anbrosiak eroan dau.

Eta non arraio aurkitzen da Anbrosia?

Seiretatik ona eleizan.

Arifieketa baten etorri daitela, bestela...!

Benito arinka eleizarantz Anbrosiari dei egiten abiatu zan, baña une batzuk berandua-go, murmurka eskillerea igon.

Ze arraio jazoten jatsu zuri?, bere nagusiari lotsa-gabe itaundu eutsan.

Nik bai, zuei garrotakadaka saitzak apurtuko dautzuedaz, ba da geaigo jasan eziñik naz.

Zeure eskubideakaz, ez zaitez etorri nigana, ba da labea ez dago ogi-opilla egiteko!

Anbrosial! Nire eroapena amaitzera doa ta...

Beratatik, liberdiko batzuk erosi eizuz, ikusiko dozu ze gozoa dan...

Gozoa! Gozoa!... Zetarako dot aberatsa izatea, beti bakar-bakarrik ba nago? Ez ba daukat, naizta dirutsa erazi, borondate onez, gogo onez, morroitaz dan bat! Euki ezteko-tan, ez daukat nire atsekabe, naigabe, samiñak nori edestul...

Eskondu zaitze, eta ikusiko dozu, zelan urkatzen zaran, eta onelan zure samintasunak amaituko dira.

Ara, Ambrosia, gai au itxi daigun alde batera, ba da burugabekeri bat egingo dot. Alik arifien, gozaria ekarri daistela, eta bitartean alkondara bat ekarri eidazu, soifekoak aldatu bear dodaz ta.

Garbirik ez dago bat be.

Orduan zer egin dozu zuk aste osoan?

Zital ori, zuk egiten ez dozuna.

Oneraspena ta eginbearrak batera izan leitekez.

Bai, zu be egunetarikoa zara?

On Juanek bere gorputza aulki apatz baten agondu eban, bere otseñak bere bidera ekarteko uste-gabetuta, ildura areri, aldarte areri azken bide bat aurkitu gurean. Egunero izaten eban izakera edo aldarte izugarri a, alaitzeko.

Eleizara mezea entzuten sartzeko lenengo dela entzun zan eta apur bat geroago On Juanek Intxaustin andra-gizon baten barre algara saratatsu batzuk entzun ebazan. Balkoira urtenda, Antonio ta Pelitziana zirala, mezarantz joiazala, ikusi eban, euren eskuetan eroen talo zati bana, gozoki-opiltxu bat izango balitz baño gozoago jaten.

VI

San Juan aurea, Igandea, eta Kabiako erritarrak, Enkaterrri inguruan ospetsua izango zan sanjuan-su itzel bat egitea erabagi eben.

Erri-alde aretan, jolastea baño aurreragoa izaten da beti, egin-bearra. Enkarterritarrrentzat euren soloetan lanean, egin-bearretan, emotea, izaten zan bearrezkoa; ta jolastea, jai-egunaren zati on bat eleizan eta beste zati bat pelota bolo, edo palanka-jaurtiketa jokoan emotea, edo bear ba da intxausti, eta euren etxeetan onelako joko ta egikisun erruga-beetan, jai-egunaren zati bat emotea.

Urte aretan San Juan eguna, San Juan aurea, Igandea zan ezkeru, Kabiatararak arratsalde osoa eben sanjuanadea gertatzeko.

Errosario ostean, eleizako landan batzar egin eben, batu ziran, eta danan artean, lenen lenen egurra, sasi ta beste errekin batzuk billa nora joan erabagi.

Matakabrasen, Antoniok esan eban, España osoko sorgin guztiak erretzeko naiko dan beste egur daukadaz.

Anbrösiak, berba, itz, oneik entzun ebazan eleizan egoala ta uste izanik beragaitik zirala ta gorrototsu, eleizatik urtenda, erabagi orren aurka berba, itz, egin eban.

Jaunak, zerutik jaitsitako abost txikitxu batek, beintzat ori eritxon, isekaz esan eban, Ambrosia otabar txingerrakaz ez dalela erre eskatzen dot, ba da naiko dau, errukigarri orrek, Segovian itsu, erren eta eskubakar izanik eskondu zanaren antzeko bat be, bere bizitzan aurkitu ezteaz erretea!

Danak euren begiak jaso ebezan, eta arrituta ikusi eben zelan Andresillo, kanpadorrean eta dorrea inguratutik egoan erlatz batetik nasai ta bildurgabe alde batetik bestera ebillela.

Anbrosiak txakurrenak esaten egoan, eta arri bat eskuan arturik, Andresillori jaurti eutsan; andrazkotan oitura dan lez iztar bat apur bat jasota jaurti, baña arriak erletza baño azkoz berago jo eban, eta lurrera jaitsikeran, jaurti ebana aurpegian jota zauritu.

Anbrosia ura, gatz ta ozpifagaz osatu eben eta gorriak ikusi-azo bear izan ebazan, eta bere etxera eroan. Lan au amaitu ta gero danak, baita larogeta urtetako agure Juantxu be, urkullu ta sarda batzuk arturik, Matakabrerako bidea artu. Antoniok bere etxe atarian gertuta eukan zatza, etxe aurreko solo baten zabaltzeko, be eroan eben.

Pelitzianak be batzarkide gura izan eban, baña bere gizonak belarrira zerbait esan autsan, eta guztiz gorrituta intxaustian geratu.

Erri-aldea gaineratzen eben tontortxuak Matakabras izena eban eta mendi-tontorrean lurralde zelai bat egoan.

Gizonezkoak otabar legortuak pillotzen ebezan, arantzakaz, euren arantzakaz, ziztatu ezteko urkulluakaz oraturik, andrazkoak lotzen ebezan eta egur-txorta aundiak egiñik, mendi-bera bota, eleiz alboko landa baten gelditu ta barrero bertan pillotu ta illunzerako sukarabi bi beste egiteko sugarria eukiten eben.

Ibar eta mendi-egaletan lenengo suaren argitasuna noiz ikusiko, leiatsu ta urduri egoten ziran, eurak be euren, euren sajuanadea, biztutzeko. Sortaldean an emenka su-argitasuna asi zan agertzen, bitartean andrazkoak panderoak gertatzen, gizonezkoak euren eiza-izkilluak eta mutil gazteak aga luze batzuetan eskegita zagi zaarrak, eta Kabia osoan poz alaitasuna zan jaun ta jabe.

Ostera, Juan Palomo, alaitasun onetan, batzar alai anai-arteke onetan ez zan kidekoa; bere etxeko atari ganean egoan balkoian jezarrita, espanetan eukan pipeari aldizka zurgaldiak egiten jardun eban, bere pipetik urteneko ke kizkurtsuei pentzakor eta adi-gabe begiraturaz.

Juanak, On Juan egoan balkoirantz begiak jaso ebazan eta bertan On Juan ikusirik esan eutsan:

Arraioa! Jaitsi zaitetz ona, gizona, zuminkoi ori, ta or ez zaitetz egon sugelindaei begiratzen... Gero, Juan Palomo deitzen dautzuelako asarratuko zara!...

On Juanek, ezizen au entzuckeran inki-minki bat egin eban; bera lenengotan jabetu ba zan ezizen onegaz, orain bere buru-auste, kezka negargarria zan.

Apur bat baztertuta intxaure baten kerizpean, Anbrosia ta Andresillo egozan eta nezka-tilleak ifotsan mutillari, gaba osoan kanpai joten ez daitela egon.

Ez zaitetz larritu andrea, kanpai-joketa ta joketa bitartetan dorretik jaitsiko naz, naizta ludia ondatu... ta dantza-aldi bat edo beste be egingo dot.

Baña nigaz uts utsean.

Aurrean ezarten jatan guztiekaz.

Ezetz Andresillo ezetz!

Gaur gabean besarkada bat emon bear dautzut.

Ala judatar ori, ikusiko dozu autortze zaranean.

Isabelen ama leioara urreraturik, burua bertatik agertu eban.

Isabell

Zer gura dozu, ama?

Gaur gabean ur barik itxi, utxi, gaizuzan uste dozu ala? Ez, zu jolas-aldian izan ezke-ro, beranduegi izan baño lenago ia perrail bete ur billa joaten ba zara.

Beingoan joango naz ama, Andresillo gandik aldenduz, Isabelek erantzun eutsan. Andresillok, bitartean, murmur ixillean iñoan:

Gaur gabean ikusiko dozu!

Une aretan, On Juan bereala bere gogo, bereala bere gogoketak bazterturik, intxaustira jaitsi zan.

Jaungoikoari eskerrak, Juanak iñoan, gisontasun bat egiten dozunean!

Zuzen zara, alai Juanek erantzun. Gaurko gaba alaitasun-gaba da, eta bakoitzak bere asarre ta gorrotoak baztertu bear dauz. Emen jai au ondiño alaiago izan daiten, kantara bi txakoliñen utsa dago.

Bai, bai, ori bear dogu, txakolin gelago, poz, abeslariago izan gaitez, bertako erritar guztiak oiuka iñoen; Isabelek izan ezik, ba da au lusail bete uragaz iturritik etorren, eta Andresillok intxaustik iñok ikusi-gabe iges egin eban.

Benito, On Juanek bere morroiari deitu eutsan, joan zaitez etxera ta txakoliñe danantzat naiko dan beste ekarri eizu.

Zeiñetarikoa ekarriko dot?

Upeategian dagonetariko onena.

Baña jauna, konturatu zaitez zer izango dan, Anbrosiak jakiten ba dau...

Anbrosiak ez dau sumauko, bada orretarako ez dau zuertasunik,urre, sudurre, apurtuta dauka ta.

Minutu batzuk geroago, txakoliña danantzat ugari egoan eta batzuk geiago ta beste batzuk gitxiago, danak, txolindutera joiazan.

On Juanek, uste-gabe ta iñori adierazotera emon barik, zugaztiren kerizpetan estalduta, iturriako bidea artu, bera baño amar bat urrats aurrerago joian Isabelen atsetik eta atsean; Isabel biragarro bat baño abeslariago joian.

Iturri alboan antziñako gaztain batek bere adar arro ta abarotsuak, aren ganean, iturriaren ganean, zabaltzen ebazan, orrez ganera eguna amaitzera joian, eta orregaitik illuntasuna iturri inguruan ia osoa zan.

Isabelek lusuilla, zurruzta-orde egiten eban teillapean ezarri, bertatik dariola egoan uragaz lusuilla betetzeko asmuz, eta lusuilla betetzen zan bitartean, uretara jaurtitzeko zugatzetik adar bat artzera joan zan; geroago ta geiago urreratzen ziran oinkada batzuk entzutean, ikeratuta oiuka esan eban:

Nor dator?

Ez zaitez ikeratu, Isabel, neu naz ta, On Juanek esan eutsan.

Isabel ez zan Andresillo bezelakoa, au guztiz maltzurra, deabrukeri zalea, ostera Isabel erru-gabetasunaren irudi ber-bera. Norbait ezagunaren berbea entzutean poztu zan eta baita adierazoten emon be, izan be, bakardade aretan ango illuntasunagaz eta bakar baka-rrik egoteak, bildur apur bat baño gelago eragin eutsan.

Zelan dator berori emendi? On Juan malmutz areri, tolesgabe Isabelek itaundu au-tsan.

Ba nator, azko maite zaitudalako.

Bai orixel!

Ez dozu siñisten? Ikusiko dozu zelako besarkada gozoa emongo dautzudan.

Ez, ez, ez, obena da ta! Isabelek atsera-egifnez esan eban.

Atseratukeran, gaztaiñ-enbor bateaz topo egifnik, On Juanek atzemandu ta bere be-soetan ebalá besarkatzen asi zanean, zugatz-enborretik abots izugarri bat entzun zan ifioa-
la:

Maltzurkeri ori ordainduko daustazul!

Isabel eta On Juanek oiú ikaragarri bat egin eben, Isabel, gaztaiñ ondoan mutu ta izu-ikaraz geldi geratu zan, eta bestea baserrirako bidea iges egifnez abiatu.

Ez zaitetz ikeratu, Isabel! maitekero Andresillok gaztaiñ ganetik saltu baten lurraraturik esan eban.

Aai, Andresillo maitea! ikeraz bere senargaiagana urreratuz oiuka esan eban, Andre-sillok estu besarkadatur, barre algara bat eginda esan eutsan:

Ez neutzun esan, emongo dautzudala? Zeozer, zerbait, arrigarria egingo nebala?

Une ber-beratan dizdira bizi-bizi batek Kabia osoa argitu eban.

Sanjuanadea! Sanjuanadea! pozez zoratuta Andresillok ifioan.

Eta Isabelen, buruan, buru ganean, urez beteriko lusuilla ezarrita, leiatsu esan eban:

Agur, nezkatilatxua, kanpaiak itxaroten nabe. Ez eizu esan ifiori Juan Palomo ta ni emen egon garanik.

Erbia bera baño be ariñago abiatu zan eleizarantz.

On Juan, intxaustira eldu baño lenago, etxeen atsetik zearkatuz, azkenean berean, be-re etxean, sartu zan.

Balkoira urreratuta, kirikaturik, entzun eban zelan erritarrak ifioen:

Baño non egongo eta da Andresillo deabru ori? Zelan ez dauz apurtzen kanpaiak jo-eragifnez ta bitartean erria alaitu?

Au entzutean, On Juanek bere bekokian plastada bat emonda, etsimenduta marmar ifioan:

Bera izan da! Bera! Orain erri osoan zabalduko dau, eta inguru onetako barre-eragiña ni izango naz!... Au da lotsea! Urteetako, adifneko, gizon bat eta nire guneaz!...

Andresillo be une aretan eleizako zelaira, zearka ta lenago inguraturik, eldu zan.

Aupa! Gora! Andresillo emen dago! euren txapelak goraka jaurtirik, mutillak esan eben.

Nondik zabiltz, gizona? abadeak itaundu eutsan.

Gaba osoan ernai ta azkor egon naiten, lo-zorrotxu bat egiten egon naz, Andresillok, erantzun.

Eta kanpadorrerako maillak launen-launen igon ebazan.

Kabian alako kanpai-joterik zekula ez zan entzun, bere alaitasun eta durundua ibar aretako beste eleizetatik entzuten zan kanpai-jotea baño gozo ta alaiagoa zan.

Barraban ori, berezia da! barrez ito bearrean oiuka Juanak iñoan. Orain bai, orain bai, berba, itz, egin, eragiten dautse kanpaiel!

Ibar, aran, orlegi, ezea, eundaka sanjuanadak, eguzki berak baño argitasun aundia-goaz, argitu ta alaitzen eben, eta ibaiak, aran barrenetik jolala, argitasun bizi bizi a bere ur gardenetan dizdiraturik, suezko suge bat iruditzen eban.

Ibar zabalean zear, zuri ta lirain jasoten ziran bost kanpaidorretatik urteten eben ereserki alaien ganera, beste irureun bat eiza-izkillu danbadaka saratatsu ebiltzan, eta eurakaz naastaurik oiukaragarriak:

Kepa Deuna! Kepa Deuna!

Pelaio Deuna erdian!

Baña sanjuanada guztien artean, Kabioakoa zan nagusi, beintzat erritarrak, erritar oneik, olan uste eben, eurak ez eben iñoren, ez ezeren bekaiztik, baña eurena onena lez ikusten eben. Uste eben euren jalotzeko erria ludiko onena zala, adar-lora zan kabi aretatik kanpora, zoriontasuna izan leitekela, ezin eben ulertu. Izakera txalogarria benetan, bekaizkeriari uko egitea.

Andresillok bere txantxa-esakerea danantzat eban, kanpaiel berba eragiteko Jaungoikoak emondako trebetasun bardiñagaz.

Isabeleri. Maite zaitut, asko maite zaitut!

Antonio ta Pelitzianari; "zuen semea ze ederra izango da, ze ederra!

Juantxuri," Eun urtetik gora izango zara, eta errekin ona erreko dozu!

Eta Juan Palomori, Ordea eukiko dozu! Ordea eukiko dozu!

Anbrosiari, Amurrul Ernega eizul!

Bai, bai, Andresillok ori iñotsan Urrutiatar Juaneri. Arek, bere errikideak pozez eta alaitasunez erdi-zoraturik ziran bitartean, buruko uleak be gorrotoz zuzterkatzen ebazan; txakur-emea ostikada bateaz bere albotik aldendu, katuaz bardiña egiten eban, ostikedaka atek idegiten ebazan, eta belarriak kanpaiak ez entzuteko estalduaz, iñoan:

Ordaiña izango dozu! Ordaiña izango dozu! Ordaiña izango dozu!... Zin egin dot!

VII

Urrunetako Soba mendi ostein Garagarrilleko eguzki beroa estaltzen asi zan.

Antonio ta Pelitziana euren etxetik ur-ur egoan solo bateko artoa jorratzen ebiltzan, eta beste erritar asko be euren soloetan lan, bear, bardiñean jarduten eben.

Kabiako biztanle artean alaitasuna euren eguneroko laguna zan, bakana zan euren biotzetatik aldentuta izatea; baña egon aretan, alaitasun berezi bat eben, oso atsegitsu zi-

ran. Egun bi aurrerago euria ugari goiko edoietatik dariola izanik, arto ta beste barazkiak, eta ortuko landara guztiak gozoro azitzen ikusten ebezalako. Lurrean sasoiz euria izaten danean, nekazariak egiten daben lan gogor eta neketsuen ordainketa bat izaten da. Eusko-tar nekazariak, baserritarak, Jaungoikoaren sifismen bizikoak, bere bedeinkatze bat beze-la artzen dabe ta euren lanaren saria.

Ardiak jaitsi bear dodaz, eta beingoan afaria gertatu, Pelitzianak esan eban.

Ez, Antoniok esan eutsan, ez dot gura aldatz-gora ori igon dagizun, zuretzat egikisun gogorregia da. Afaria gertatzen joan zaitez, ardiak Jon Deuna aurrean garbitu genduan barrutian, erne ta azi dan bedarragaz aunditurik, pusturik, Montekabrasen dagoz. Illuntzeko oitotza joten dauanean, neu arifieketa baten euren billa joango naz.

Pelitziana etxerantz abiatu zan, beso bete egur legor arturik, afarirako sua egiteko.

Atea kisketagaz uts utsean ixita, ertsita, egoan; Kabian giltzak eta giltzarraporik ez eben bear izaten, zetarako?

Pelitziana, Juanak, intxaustia zearkatzen eban bitartean, esan eban, sendia luzarotik dozu itxaroten.

Juanak aitatu gura eban sendia, txarri bi ziran; gozez ustegabetuta txillioa egozanak; sendian be tarteko ziran, oillar arro arro bat, Kabiako oillarrik jasekoena ta oillo aldra bat euren ugazabaren zain eroapen amaibakoaz noiz agertuko ziran eta gogoratzen, guztiz larri ta artega, basakatu anbatek usmatzean bertan aurkeztuta, euren txitatxuen ondamena izango zala, uste ebenak.

Astia, denporea, emoteko txarri ta oilloak alkar-izketa onetan ziardun:

Jaungoikoari esker ez dozue zuek txillio gitxi, gutxi, egiten!

Ez, ez gara izango zuek bezela "oilloak"!

Jakifia, zuek gende lodia zarien lezi!...

Ba zuek be, oillotegian sarata gitxi ez dozue atarutzen.

Baia ez gara zuek ariako arroak.

Ez, zuen txillioak zeruan be entzuten diral!

Ez zuek ziorik txikienagaitik musturrez zariel!...

Eel naiko da alaratzetik!

Ez dogu gura, txarriok!

Eztabaida au geroago ta gogorrago ikusten zan, baia atarian Pelitziana agertu zanean eta bereala oillo ta txarriak beragana urreratu millaka txera egifnez, eta ergel batzun antzera beragaz etxean sartu; abereak ziurki, ziur egozan etxe barruan saia ta egosari batzuk azkal-tzeko aurkituko ebezala.

Apur bat geroago, Antonion etxeko kezulotik, ke-edoi zuri bat jasoten asi zan.

Onek, Antoniok, bere esparrutik ikustean, pozez beterik ergel bat bezela barre egin eban, une aretan pipakada bat errekiñ eskatzen urreratu jakon Juantxuri iflotsola:

Ikusi eizu, ikusi eizu, zelako keak daukazan nire andreak. Nezkatilla ona dago nire andrea! Jaungoikoak berak daki, norberen etxeko kezulotik urtetan dauan keak, zenbat eta zelako gauza adierazoten dautsazan!

la ba. Ikusi dagigun, eta zuri kee orrek zer adierazoten dautsu?

Liburu-idazle bat bezela, norberak azaldu izango baleu, lau bat gauza gozo geiago Kabian entzun bear izango leitekez... Ara, aitu eizu, Juantxu, mendi edo esparutik nire etxeko kea ikusten dodanean, nire andrea beragaz, keagaz, olan itz egiten daua uste izaten dot, eguraldi otza ba da: "Su eder-eder bat egin dagigun, errukigarri a etxera eltzen danean, berotu daiten", egun sargoria ba da "Suten egur gitxi ipiñi eizu, bestela etxera eltzen danean, laba baten irudia izango da tal arrauts-opil bat gertatzen ba dago" "Gorritzka gorritzka ipiñi dagigun, olan guztatzen jako berari ta"; lapikora gatza botatzen ba dau. Bazkaria ez daigun gertatu gazi, ba da bera urez betetuko da. Egiten ba dau... ara, ez dakit zelan azaldu, baña ke orrek an, etxean, gogoan beti nabela, adierazoten dauts.

Esaten dautzuna, kea ez da.

Nok ba, nor izango da ba esaten daustana?

Biotzak.

Arraio, arraioa, izan leiteke, baña...

Ez ba da be, Juan Palomori itaundu eiozu, bere kezuloko keak ia zer dirautson.

Bai ederto! Orrek andrarik ez daualako.

Orduan biotza ez ba da, andrea izango da, eta ez kea, orretariko gauzak diñozana...

Ziur, norbait izango da. Baña baztertu dagiguzan oldozketa oneik, ba da arazo orreik gu baño gizon jakintsuagontzat dira, eta goazen ardiak etxerantz urreztatzen, ia arek kuntu-zurrunetan eratsiten dan zerbait gertuta ba dauka.

Antoniok gauza ez ziran arto batzukaz lazto-txorta bat egin eban, bere sorbalda baten ganean ezarri ta beste sorbaldean atxurra ta onelan bere etxerako bidea artu.

Bere idiei azkari mamintsu a opa eutsen, eta etxean sarturik bere andreaki ifondiko txera ta berba, itz, kutun, gozoak esan eutsazan, eta onek, andreak, txeralari, maltzur ijito ta antzeko ifondiko esakerakaz erantzun, Matakabrasko aldatz-gora abeslari joana, apur bat geroago, bere antzeko amabi bat ardi alai ta guriakaz jaitsi zan.

Eguna sargoritsua izan zan, baña ostera gaba atsegingarria, Illargia, iratargia, eguerdiko eguzkia bezelako argitasunaz, Kabia Ipar eta Egoaldetik babestzen eben mendiak, edurtze bat bezela estaltzen eben bitxi-lora, kamamillel osturiko usaiñagaz, eguaro, giro, guztiz lilluragarria.

Antonio ardiakaz etxera eldu zanerako, Pelitzianak mai txikitxu bat, aulki bi alboan eukazala ipiñi, ezarri, eban atari alboko kerizpean. Ardiek Petzilianak berak irakatsitako oitura, grifia, txar bat eben, bere ugazaba ta zaintzaillea ikusi orduko inguratzea, esan gurarik:

"Ikusi eizu, ikusi ia gureztat or baztar anbatan zeozer, zerbait, ba daukazu! ba da zuk emoten dauzkuzuzan jaki gozoen gozez gara". Eta Pelitzianak bakoitzari talo zati bana emon eutsen.

Anton azpil bat eskuan ebala ganbarara igon eban, bertako leio batetik kereix adar bat artuta, bera, azpilla, nekarazitzen eban igalia beratan ezarrita kereix-adarra astuntasun a kendurik, nasaitu zan esan gura balebe lez "eskerrak biotzdun ori", bereala Antonek, kereix

azpillagaz jaitsita, Felizianak piper, tomate ta arrautzakaz mai ganean ezarri eban azpillkada ondoan, alboan, beste aldean ipiñi eban.

Andra-gizonak maikedek ziran, Antoniok maia bedeinkatuta gero, Juan Palomo jantzu ta urdail-mifekoari be, bekaitzez il egin leikion, jan-zaletasunez asi ziran afaltzen.

Bañoa, alabetxu, batentzat jaten dozula ikusten dot, Antoniok esan eban, bintzat jan bear zeunkenean.

Zelan bintzat?, Pelitziafiak ulertu-gabe erantzun eutsan.

Zutzat eta entzunten dagon gizontxu orrentzat.

Bai, gizontxul andratxua bai izango da, Pelitzianak azkenean ulerturik eta gorri-gorri eginda, erantzun eutsan.

Ez, ez, emen ez dogu bear burutik jantzi ta oifetatik erantziten, billoztuten danik.

Gutzat txantxegarria! Ba nik ume-nezkatililetxu bat izan daitela gura dot.

Orduan Bilboko Errukigarri Etxean sartuko dot.

Aman antzeko maltzur-azkar bat ez ba da...

Bai, nire antzeko izango da, ziur.

Orduan maltzur-azkar bat izango, ta etxean geratu bearko dau, ba da maltzur-azkar guztiak zorionekoak izaten dira, zu bezela... ba dakizu.

Ara!

Bañoa, oraintxe gogoratzen ba naz... Osagilleak mutilla izango dala gure seiñe esan ba daust!

Bai zera... guzurti ori!

Entzuten dozuna, andratxua. Igandean, mezea entzuteko eleizara sartzeko gengozala, zu intxaustitik agertu zifanean, Osagilleak esan eustan: "Tonio, gura dozu jakin, mutilla ala nezkatillea izango dan?". Difot... Bai ikusten da gura dodala.

Itxaron eizu ba, oraintxe jakingo dozu.

Orduan ateko lenengo maillara igoten asi zifanean, zure oifetara begiratuta esan eban...

Txantxegarria ori be!

Andrea, ez zaitetz gorriritu! ez da orren-besterako, ezer txarrik ez eban esan da.

Bai, gizonezkoak ez zarie bat be begirazaleak!

Orduan Osagilleak esan eban, "mutilla izango da".

Eta zuk zer dakizu?

Ez dot jakingo, bal Ara, andra umedun batek mailla bat igotean, eskumako oiña lenengo ipinten ba dau, mutilla jaioko da. Eta ezkerreko oiña lenengo ipinten ba dau, nezkatillea da, edo izango da jaioko dana. Zure andreak igokeran eskumako oiña aurreratu dau, alan da ze mutil baten aita izango zara...

Ez dot gura...

Orduan esan dodan lez, Bilboko Erruki-etxera eroango dot.

Bai, neuk itxi, utxiko dautsut etal

Gura ez dozun ezker...

Bai, ez dot gura izango ba.
Eta zein izen ipiñiko dautsagu?
Izen poli-polit bat.

Juan Palomok esaten dau, izen politak dirala... bai, berak daukazan ipuin-liburuetan datozan batzuk.

Eta zelan dira?
Alfredo, Arturo, eta ez dakit zelako arraio beste batzuk.
Ze itzusi, motzak, diran ez! Ez da egia?

Benetan dira itsusiak. Orreik Prantziko deunak edo beste atserri anbatekoak izan bear dabe.

Benetan, zenbat politagoak diran Anton, Jon, Patxi, Joseba, Iñaki, Imanol... deun onak, Españako bezelakoak!...

Orreik, orreik dira niri guztatzen jatazanak! Arraio! emendiko deunak dagozan lekuan...

Ara Antonio ba, nik neure seiñeri zure izena ipiñiko dautsat.

Baña ez zara konturatzen gutariko bategaitik itaunduten ba dautzue ez dozu jakingo norgaitik dan? Edo ez ba dozu ardurea Lopezen itaundu egitea.

Eta zein itaun da ori?

Esango dautzut. Azpalditik Lopez eskondua zan eta guztiz artega ta asarre egoan on-dorengo bat ez ebalako. Baña alako baten bere andrea umedun geratu ta aur-mutil bat izan eban. Au dala ta, Lopez guztiz arro ebillen, baña andrea ogean eban eta bere zain egon bear ebalako, ezin zan joan errira lagunei barri au emoten. Orregaitik etximenduta ebillen. Baña ba dakizu zer egin eban barraban arek? Semea izan eban egun beratetik aurrera, luzaro egoten zan etxeko atarian, eta norbaitek, batanbatak, Lopezegaitik itauntzen ba eutsan, ezezagun batek ba iñotsan: "Lopez etxean dago? Orduan ardao-sagi bat bera baño puztua-
go eginda, erantzuten eban; zein aita ala semea?

Ara, ondo dago, Itxi, utxi, dagigun au, oldoztuko dogu txikitxu orren izenatzaz...

Izena ez da garrantzitsuena. Garrantzia, lebea, ederra, galanta izatea da.

Ziur izango da!

Bai, zure antzekoa izango da ta.

Ez, zure antza izango dau.

Urte betetzea baño lenago ibilten ikasi dagian, seaska-burdi bat egingo dautsat...

Oñefez ibilten irakastea, neure ardurea da.

Ze atsegintsu izango da, bere urrezko ule kirru eta bere amaren begi maltzur antze-
koakaz, arifieketan etxe inguruan ikustea... Jel Jel Jel ze mutil arlotea!

Ez eizu olakorik mutillagaitik esan!

Katu bat bezela, kereix enborretik igoten...

Bai, soiñekoak apurtzeko!...

Emoiozuz zaplaztada txiki batzuk.

Ara Neron, ez dot nire umea ezegaitik jo gural!

Ba, orduan neu jagiko naz eta emongo dautsadaz...

Ez dot gura, ez dot gura jo dagizun!...

Pelitziana ikeratuta, Antonio umetxua jotea galazo gurean, besoak zabalik, bere atsean egoan kereix-enborrerantz joan zan.

Zeuek galtzen ba dozuez umeak amatzar batzuk izanik...

Obeto...

Baña zorionez, gure umetxua benetako gizona izango da, ta ain dotore ta jasekoa izanik, ondasunez beteko etxe an batera eskonduko da, naiz ta au ez jat larregi guztatzen.

Ez, oba da Ameriketara joan daiten.

Eta ikusiko dozu ze aberast etorriko dan, ba da esaten dabe, an buru argikoa ta azkarak aberastuten dirala.

Bai orixe, aberastuko da! Je! Je! Je! Mutiko deabrua!...

Uste-gabe, Antonio ta Pelitziana konturatu ziranerako, atarian euren aurrean agerturik, Juantxuk gabon esan eban. Antonio ta Pelitziana konturatu eztea, ez da arritxekoa, ba da an ebiltzan jo ta ke euren umetxuaz eta euren aurrekorik be ez eben ikusten.

Gabon, Juantxu! Gura, nai badozu, naizta azkenetan egon.

On egin daitzuela. Andresillotzaz zagoze berbaz, ez? Benetan da mutil ori gazte maltzur, txerren bat. Juan Palomo beragaz guztiz asarre da, kanpaiak jotzen dauzan guztian, iraintzen dauala, esaten dau.

Zer da esaten dautsona?

Nik zer dakit ba! Bere gauzak, guztioi geureak esaten dauzkuzan bezela. Baña ezer txarrik egiten ez dauanari, egiten dauana esatea, ez da izaten arduraz izan bearrekoa.

la Andresillo ori, laster eskontzen ba da ta burudun izan, oneri jazo jakon bezela.

Batek ba daki zer esan! Isabel errukigarria ez da ziurregi. Baña arazo onei alde batera itxita, utxita, noiz izango zarie bi, Pelitziana?

Gauza bakoitzik ba dozu zuk!

Aulduta ikusten zaitut.

Ez dakizu zuk, zelako ostikadak emoten daustazan mutil onek...

Ze mutil eta mutil-bako! Nezkatileak esan gura izango dozu.

Ez jauna; Lengo lgandean, zelan onek eleizara sartukeran, bertako lenengo mailla igotean, eskumako oifia aurretik, lenago, ezarri ebala, eta Osagilleak diñoanetik, orrelan jakin al izan dogu mutilla izango dala.

Ez dakit ba, ordu bete inguru da pipakada bat errekin eske Oagilleagana joan nazanean, gaur arratsaldean barrutiko maillak igokeran ezkerreko oifia mailla ganean ezarri dozula, esan daust, eta beraz, zuen aurtxua nezkatiletxua izango dala...

Au entzutean Pelitzianak barre algara saratatsu bat egin, beste barre alaiago bateaz Antoniok erantzuten eutsola, jarraiturik iñoan.

Jaungoikoak gura dauana etorri daitela, ta sasoi onean, naizta ez jakin mutil ala nezkatiletxua dan, gure zoriontasuna osotzen dauan Jaungoikoaren bedeinkapen bat dala ba dakigu.

Pelitzianan begiak ezotu ziran, eta ez dakit zelan Antonio ta Pelitzianaren eskuak maipen, maitasun gartsuz alkar estuturik, topo egin eben.

VII

Igandea zan eta iñondiko euritsea.

On Juan Urrutia alai, atsegintsu eta bere erritarrak egoera onegaz guztiz arrituta egozan, ba da azkenengo aldian On Juan geroago ta atsekabetuago zan, zio onegaitik Juan Palomo ez eutsen deitzen, Kaskarrabiaz baño, baizik.

Zein izan zan aldaketa ustegabe onen zioa?

Ostera Andresillo zentzundun, beratan oiturakoa ez zan bezela goibel, itun, egoan, baña iñor ez zan bere arduraz, ba da Kabian guztiak ekien Andresillo bere emaztegaiagaitik baztertua izan zala, uko emona izan zala. Andresillon jokaeran, eginkeratan, Isabelek ez eban ikusten aldakuntzik, beti-betiko txoriburua zan; zio naikorik Isabelentzat beragaz eskondu ezteko. Andresillo beti bezela txoriburua zala baieztatzeko, ez zan besterik bear eleizpean marrastu ebana begiratzea baño, sur, sudur, oker batzuk ziran eta erritar guztiak igarri eben Ambrosiarenak zirala.

Arratsalde erdi inguruan atertu eban, baña bolatokia urez guztiz ondatuta egoan eta ezifia zan bertan txirlo ez pelotara jokatzea.

Basetxe-erriko mutillak goronbil eta txirloak arturik, eurakaz naizta apur bat narras, ba da berak ez eban gura joan, Andresillo eroan eben, eta jokaldi bat egiteko etxe baten bila asi ziran.

Ambrosial, Juantxuri errekin orri bat emon ondoren, bere andra-etxezaiñari, Jonek maltzurkeriz iñotsan:

Gaur eguerdiko amabiak arte baraurik izan nozu, zeu elizako deun guztiak jaten ego zaralako... baña gaur parkatzen dautsut, ez zaitut naigabetu gura. Zure garaipenatan ez zaitut atsekabetu gura.

Joan zaitex aizea artzen! Gaur alkar-izketarik ez jat atsegin. Ze garaipen eta garaipen bako...!

Baña zer, ez dozu usmatu ala?

Ez jauna.

Argi dago, sur, sudur, ona ez daukazula.

Ara jauna, mezedez ez naizu nekarazi, gaur ez naz txantxetarako, ta besterik ez ba da be, burura deabru bat jaurtiko dautzut.

Jal jal jal jaurti eidazu ia, ia apurturik, sure surrak jaretsi dauan garaipena izaten ba dau.

Baña, zein garaipenen buruz jarduten dozu, judatar ori? Zu gauza zara illetaategaitik be isekatzea, egunero egiten dozun bezela.

Zuk ez dakizula, ez? Ez dakizula, zure surra, sudurra, margoztua izan dala ta eleizpeko orman aurkeztua, erritar guztiak begiratu dagien?...

Ixildu zaitze, ixildu, jaungoikoagaitik, eta ez eizu nigaz jolas-erazi!...

Zureurre dala ta, Kabiako erritar guztiak jolazten dira.

Barriro dirautzut, jolastu gura ba dozu, tximiño bat erozi daizula.

Une aretan eleizpean barre algarak entzun ziran.

On Juan atari ganean egoan balkoira urreraturik bere burua atara eban.

Zer da ori Antonio? eleizpetik barrez ito bearrean etorrela ikusirik, itaundu autsan.

Ja! Ja! Ja! Zer izango da ba? Antoniok erantzun. Andresilloren egiteak, deabru berbera da ta. Antza danetik, Ambrosian surra ez dau margoztu ta guztiz ondo, ikatzagaz ba?

Au entzutean, Ambrosia basa-katu bezelako saltu bat egiñik, lapiko bat ur eta belaki bat eskuetan arturik, kalera oiuka abiatu zan.

Non dago ergel ori? ama zital baten semea ta aita zitalago batena?...

Jango dodan ogia ta edango dodan ura, pozoi biurtu daistazala, gertaera au merezizko oradinketa-gabe geratzen ba da!... Zin egiten dot! Zin!...

Ambrosiak, atzamar-nagusia atzamar-erakuzleaz krutzaturik, mosukatzen eban, eta arifieketan bere lapiko ta belakia eskuan eroazala elizperantz joian.

Eta egia, alan zan, bere surraren, sudurraren, irudia an egoan, lotsagabeko, irudizko, beste edozein zur bateaz naspildu eziñekoa, Antoniok esan eutsan bardin bardin. Benitok, Ambrosia ezin eban ikusi, begitzat artuta eban, eta aldamu edo oltza ordezeko izanik, surmargoztetze onetan laguntzallea izan zan. Andresillon laguntzallea.

Bere eskuan eroan belakiaz bere surra margoztuta egoan lekua ezin ebalajaretsi ikusirik, Ambrosiak beste oiuzugarri bat naigabetuta egin eban.

Goi-zerurik goiengan egonda be, margazki gaizto au, jaretsi al izango dot! lebakia margazkira jaurtirik, oiuka esan eban!

Naizta Ambrosiak bein eta barriro belakia margazkirantz jaurti ez eban bete bere guraria, naia; bein eta berriro lurrera jauzten zan eta azkenean jauzikeran artzen eban autsgaz basaz beterik aurkitu eta, onetariko jauzketa baten... plast, Ambrosian aurpegiaz topo egin eban.

Eleizpean batzen asi ziran andra-gizon, aundi ta txiki eta euren artean Jauntxu, au ikustean barre algara itzel bat egin eben, bafia Ambrosiaren arpegi ikaragarria ikusi ebenean nabarmenkiro, gorrotoz itsututa, basaz beterik, atseratu ziran, oinkada batzuk atserantz arretaz egiñik.

Barre-zantzo areik eta berak egin ebazan alegiñak marrazki a ezabatzeke, bere gorroto ta itsutasuna gelago biztu eben ta azkenean Ambrosia ormara urreraturik, txakur bat berak jaretsi ezin dauan toki baten okela zati bat ipinten dausanean egiten dauazan saltuketaren antzekoak, marrazki a aiekatu gurean, egin ebazan.

Andrea, zeure iztarrak ikusten jatzuz ta! Ez zaitze izan alkeinuzgarri! Juanak eta beste auzokide batzuk, bitartean mutillak uxatuz, esan eutsoen.

Orduan Ambrosiak, lapikoa jaurtirik, azaldu eziñeko txingar-gorrotoaz, etxerantz abiatu zan.

Sorgin madarikatu ori! Juantxuk, Ambrosia bezela asarraturik esan eban.

Jazo zana izan zan, Juan Palomoren uzandreak jaurtiko lapikoaz jota; On Juan txan-txetako gogoaz ain alai ikusirik, erretan egoan pipakada errekiñ gozo gozoa, beragandik lorturikoa, gozatzen asi orduko pipea apurtu eutsala.

On Juanek balkoian jarraitzen eban, eta bertatik barre ta pozez gertariko guztia begi-ratu eban.

On Juan, Ama Birgiñagaitik, arren, Juanak intxaustitik esan eutson, zerbait, zeozer, txarra andra orreri jazo bear jako! Osagilleari dei egiotzu, eta bitartean Ziriakari be esan eiozu, esaiotzu...

Ara andrea, bedar txarra ez da iñoiz ilten.. On Juanek erantzun. Bere gelan giltzapetu danean, ateari zartada, bultzakada, ona emon dautso. Bertan nasaituko da, ikusiko dozu bere asarre-aldia zelan leunduko jakon.

Bitartean eguzkia zekula bezela eder eta argitsu agertzen zan, eta Kabiako biztanle geienak, barakuilloen antzera eguzkira urtenda, beingoan intxaustia notintsaz, gendetsaz, bete zan.

On Juan, Ipar-sartaldera belarria zain ezarririk, luzaro egon ondoren, bereala oiuka iñoan:

Arraio, arraioa! Santoñan asi da asitekoa! Ez dozuez entzuten kañoi danbadak?...

Danak adi-adi, entzuten geratu ziran eta danak batera barre-algara egin.

Kañoi danbadak, kañoi dabada ona zagoz zu! Juanak esan eban. Andresillo bere la-gun batzukaz bere emaztearen etxean jolasten ba da. Ez zara nabaritzen txirlo-jokoan da-biltzala?

Emazte-gaia izan zana, esan gura izan dozu zuk, On Juanek arpegi apur bat illundu-rik, erantzun eutson.

Ondiño izango dana, maitamenduen arteko asarrei, ez eiozu egin iñoiz jaramonik. Naizta Isabelek ori esan, ijito orrek ondo lotuta dau, izan be, barraban ori edozein lorindu, zoratuteko, gauza da. Lorinduko leuke!

On Juanen arpegia, edoi illun, baltz batek eraginda azkenean baltzitu eban, ba da ezin zillegi eban iñok bere eretxiak ukatzea, ta bere entzupenaren zorroztasuna zalantzan ezarterik.

Kañoi danbadak dirala, dirautzuet!

Ixildu zaitetz, gizona, eta lelokeririk ez eizu esan!

Arraio, arraioa!... Keto, ezjakin bat iruditu gura nozue, ez? Bein eta barriro dirautzuet, ludia ondatzeko bezelako kañoi-danbaketa dabillega Santoñan. Entzun eizue. Buuuun! Ez da besterik, orreik Inglaterratarrak dira, ziurki Gibraltar gura izango dabel!

Ara, ara, zu edoi ganean bizi zara.

Baña ez dozue entzuten, eten-gabeko geldo orreik?...

Baña gizona, Ama Birgiñagaitik, ez zaitetz setatia izan! Txirlo-jokoa ta kañoi danbadak zelakoak diran, jakingo ez ba doguz emen!

Kañoi-danbadak ba dira ala ez, oraintxe jakingo dozue, bestela millaka deabruak eu-rakaz eroan nagiola.

Bereala On Juan leiatsu kalera jaitsirik, Isabelen etxerantz abiatu.

Etxeko atarira eldu zanerako, goian entzun zan bolakada ikaragarri batek sifist-arazi eutsan guztiz oker egoala, ta Kabiako bere erritarrak bera zirikatzeke gai bat, luzaro zirikatzeke gai bat, ba eukeela.

Birao ikaragarri bat esanez, egur pillo baten artetik taket aundi bat artuta, mailladi gorantz kanbarara abiatu zan, Andresillo aurkitzen eban toki beratan ilgo ebala, bein eta barriro zin egiftez.

Etxeko egoiz nagusian Isabel bere ama orraztuten egoan, eta ikaragarrizko oi u bat egiñik, beragaz topo egitera, geldi-erazteko asmuz, urten eban.

Oiu arek eta Andresillo ganako erakutsi eutson errukiak, Juan Palomo sifist-arazi eben, Isabelek bere espanetatik barrura Andresillok ez ebala baztertu ta zio onegaitik ondiño be bere asarrea gartsuago izan zan.

Isabel Andresillori deadarka egoan, iges egiala esanez, baña Andresillok txirlo-joken saratakaz ez eutsan entzuten; On Juan, naizta nezkatilearen alegin guztiak, taketa eskuetan, dardaratuz, maillasiko azkenengo maillatara eltzen egoan.

Bereala, ustegabe, Isabelen arpegi ederra alaitasunak, barne-alaitasun baten, argitu eban eta ixillean On Juaneri esan eutson.

Andresillo joten ba dozu, lengo egunean estartan eta iturrian esan zeustazan zikinke-riak edestuko dodaz.

Une aretan On Juan kanbarako atearen aurrez aurrez aurkitzen zan eta Isabelek iño-tsona entzunik, atsekabe ta gorrotoz beteriko kiñu bat eginda eskuetan eroan taketa lurrera bota eban. Taketak beko zurea-ola jokeran egin eban ots edo sarata entzuntean, Andresillo bere arpegia itzuli eta kanbarako leio batetik, bere bean egoan iko batera saltukada bat eginda, minutu bat baño lenago intxaustian aurkitu zan.

Bereala On Juan bere etxera itzuli, Isabelenetik urtekeran, abots moltso batek oiuka iñoen:

Buuuun! Ez da besterik, orreik Gibraltar gura daben ingalatarr batzuk diral...

Andresillo be, guztia jakin-erazita taldekidea, abots-talde aretan, Job berari be eroa-pena galdu-arazoteko naiko zan abots saratatsuz, izan zan.

Ordu bete beranduago, beluago, gaba illuna eta Andresillo oitura eban bezela kanpai joten egoan.

Ja! Ja! Ja! Iru Abe-Mari otoiz egin ondoren, Kabiako biztanleek iñoen. Mutil barraban ori, zelan antzekotzen dauz kañoi-danbadak kapai soñuagaz! Ikusi, begiratu eizu, Juan Palomo!

Juan Palomon eretxia ez zan uts utsik, Andresillok kanpaiakaz kanoi-danabadak antzekotzen ebazala, ori ezeze, orrez ganera, berak Juan Palomok balkoitik esan ebana adierazoten ebela, au da inglaterratarak, Santoña danbadaka ikeratuta ebela:

Jauna, gura dau argirik?, atea erdi-idegita Benitok itaundu eutson.

Jaungoikoaren argi izpi batek etxe au bertan aurkitzen garanakaz ondatu dagiala! On Juanek erantzun eutson, tinta-ontzi bat jaurtitzen eutson bitartean, eta mirari bat izan zan; beragaz jota ilda bertan ez itxitea, utxite.

Txula, Benito baño be zoritxarragokoa izan zan. Bere ugazabeari txera batzuk egiten sartu zanean, onek emon eutson ostikada bateaz anka bat apurtu eutsan.

Txula errenka baztertu, esango balebe lez:

Aaiil! Aaiil! Guztia Jaungoikoagaitik izan daitela, bada ludi maltzur onetan, maitasunez jokatzen dauan bat, onelan ordaintze dabel!

Biramon goizean Andresillo kanpadorrea igon eban, egunero bezela goiz-otoitzak jotzen. Igokeran dorre erdi inguruan, bertan egoan leio batetik, oitura eban lez, burua atara, leiopetik iñor, norbait, ba joian ikusteko ta ziuarki txistukada bat botatzeko.

Oraingoan leiopetik joiana abade jauna zan, Benito lagun ebala Juan Palomonen etxera leiatsu joian.

Andresillo Benitori txistukada bat botatzeko egoan, baña bildur zan, abadea Beniton ordeze jo egialako, eta orduan kanpai alboko gelatxu baten sartu.

Azkenengo kanpaiketa jo ebanean, entzun eban zelan abadeak kanpadorren bebazterretik dei egiten eutsola.

Zer gura dau berorrek, jauna?, kanpai baten azpitik bere bere burua agertuz erantzun eutsan.

Illeetara jo eizu, dirautso abadeak.

Nor il da ba, jauna?

Anbrosia errukigarria, guztiz goibel abadeak erantzun eutsan.

Andresillok illeta-kanpaiketa birritan doifü guztiz itunez egin eban.

IX

Urte bete da Ambrosia, Juan Palomon nezkame, buruko oiñaze-aldi batek eraginda il zala, eta ordutik ona Andresillo beste mutil bat da, guztiz ezbaridña, sarritan gorezpen-kanpaiak jo bearrean illeta-kanpaiak jotzen dauz, kanpadorreko leiolik ez dabil len bezela txistuka beetik doazanei, ez da dorreko erlaxetik ez dabil batera ta bestera, ez da be abestirik, ez barrerik, ez txantxetarik eta ez da be neskatillei limurkeririk esanten be.

Isabeleri be bardin samar jazoten jako, onek be ez dau egiten ez barrerik eta ondiño azko txarragoa, erriko mutillak len maitamenduten ebazan Alejandri errosaren margoak, galdu ebazan.

Deun Jon, San Juan, eguneko goizaldea. Isabelek ezartzen dau bere buru ganean lusuil dizdiratsua, ta or doa gaztañeditik zear aurrera iturrirantz. Bide erdian Andresilloaz topo egiten dau, au errira itzultzen zan; bere barnean bular-pean sentitzen eban biotz-eragiña baztertu gurean zekulako alegiñak egin ebazan, eta batez be Andresillori bere begi ezotuak eta bere biotz-ikara adierazo ezteko.

Onetan Isabel abesten asi zan:

Itxi, utxi, eidazu igaroten ba

Ur baretsua billa noa

aurpegia garbitzeko, ba
gorrizka nasala esan dabe.

Zergaitik abesten dozu, negarrez ba zara? Zergaitik diñozu gorrizka zarala, zurbil ba zagoz?, barre egin gurean, begiak negar-malkoz ondatzen jakozan bitartean, Andresillok itaunduten dautso.

Nik negar egin, naiz zurbil egon, ez dau zugan lebarik, ardurarik, Andresillo.

Ez dauala lebarik, ardurarik?

Ez.

Zergaitik?

Aiztu nozulako.

Isabel, ango goiko aitzak ikusten dozuz?

Ez dodaz ikusiko ba.

Baña eurak baño be nire maitasuna zugan, sendoagoa da.

Ala, maltzur oril

Ez dozu sifñisten?

Ez

Zergaitik?

Iñoiz zentzunduna izan ez zaralako.

Baña orain ba dot zentzuna.

Bai, luzarorako izango da!

Nire bizi osorako.

Guzurti oril

Isabel, Jaungokoagaitik, barrero maite naizu, ba da zu barik ezin naz bizi!, Andresillok esan eban, eta bere berbetan, izketan, ain egiazko oguzkera, doñua ezarri eban, eta ain biotz-dardara benetakoa, bere itz, berban, atsetik bere arimea joiala iruditzen zan.

Baña, bene-benetan diraustazu?

Jaungoikoaren kuruts onegaitik zin egiten dot!

Eta Andresillok bere atzamarrakaz kurutz bat egin eban, bere ganean mozu bero-bero bat ezarririk.

Kabiatarren sifñismen bero-beroan, notin, pertzona, batek zin egiten ba eban, beste guztiak, aren ondorioa beteko zala ba ekien.

Orregaitik Isabelek sifñistu eban, Andresillok bere maitasunetzaz esan ebana. Baña andrazkoen jakin-naitasuna aundia izaten da eta jakin gura izan eban, aldakuntz a zerk eragin eutson.

Eta zelan eta zergaitik da zure aldakuntz ori?, itaundu eutsan.

Gogoratzen zara, zelan orain ille bete Anbrosia il zala?

Bai, ez naz gogoratuko ba.

Ordutik ona arazo bik kezkatzen nabe; bata, kezka-arazia Anbrosia nire erruz il zala uste izanik, eta beste naigabetasuna, atsekabea, zuk maite ez nozulako. Ara Isabel, ordutik ona, kanpadorrera igon baño lenago eleizatik igarotean negarrez belaunikoturik Jaungoi-

koari otoizka egoten naz, bere gaizkatasuna, Anbrosiaren gaizkatasuna eske, nire samintasunak, atsekabe ta nire bizia bera be bear izanik, eskeifiaz. Izartuta ez da lotan be, ezin dot nigandik, nire gogoketatik, Juan Palomok maite zaitula aldendu.

Juan Palomok maite nauala? Bai orixe! Ikusten dodan bakoitzean, bakarrik ba naz, ikeratu egiten nau ta! Ikusi eizu zer jazo zan gaba aretan iturrian.

Gaba aretan konturatu nintzan maite zindudazala, eta arrezkero asi nintzan asmatzen zelan bera, Juan Palomo mendekatu; baña Anbrozia neure txarrerki bategaitik il zanetik, eta zuk, beste bategaitik baztertu ninduzun, zapuztu ninduzunetik...

Aaal Zure aboa bedeinkatua izan dedila!... Ori jazo jatanetik aurrera guztiz itun, goibel, izan naz... damutu jatan zu etsipetu-eza, zelai olesira joan ta bertan abotsa entzun eta ilteko...

Aii, bildur naz Andresillo! Isabelek oiuka esan eban, mutil gazteaganatz urreraturik beragandik babespena itxaroten.

Andresillon itzak, berbak, ulertzeko eta batez be Isabelen bildurra; esan bear dautzut maite, Kaban uste dabela, uste ez, sifisten dabela, nezkatiil bat zapuztzen dauan mutilla ta mendi goi-goi baten barrenean dagon zelai olesetik igarotean, goiko erpifetik jaitziten dan oiartzun bat entzuten ba dau, eta abots guztiz itun, goibel, biotz-mingarri, izugarria izan; entzuten daben urrengo egunean, biramonean, ilda agertuko zala.

Ama, au entzun ondoren, beifñola neureari itaundu neutsan. Norena da abots ain itun eta izugarria ori?

Norena izango da, seme maitea, goitik jaitsi ezker? Zerukoa, seme, serukoa. Gizon-nezkoak sendoak izanik, andrazkoak makalak izanagaitik, beste erru-gabe txarto artzen ba dabez, orduan nok, Jaungoikoak izan ezik andrazkoak babestuko dauz ba?

lñoiz umetxu eder batek, bere besoak zure belaunetan ezarririk, eta bere arpegi gorrizka, biguna zuregan jasota, ipuin bat edestzeko eskatzen ba dautzu, nire amak edestu esustan au edestu eiozu, ba da emakume batek ume baten biotzean zuk batzeko, biltzeko, erein ba eban, zuzenezkoa da zuk be erein dagizun bestearen baten, beste emakume anbat batuko bilduko dauana, izan daiten.

Baña goazen Andresillokana, Andresillotzaz berba egiten.

Igande arratsalde baten intxaustian dantza-aldi bat izan zan, eta nezkatiilla guztiak itaunduten eusten ia zergaitik ez neban dantzaten.

Ara, ba, eurakaz dantzatekotan...

Ori Isabeleaz izango zan, baña nik naizta olan ulertu intxaustian ez neban egon gura, bada neuretzat nifioan: "Isabel emen ez ba dago, zer egingo dot emen?", eta etorten ba da, zetarako egongo naz, jaramonik ez ba daust egiten, beste bateaz dantzaten ba dau? Orduan kanpadorrera igongo neban, gomutauaz, zenbat eta geiago urreratu zerura, ludiko saratak gitxiago nekarazitzen dabela bat.

Andresillo errukigarria! zenbat negar egingo zenduan!

Orduan ez neban egiten negarrik. Kanpadorrera Igon neban gogoratzuz, bertatik burua botatzea oba izango ez balitzaket, nire samin eta nekei amaia emoteko.

Ederto judatar ori! Eta zure aita ta maite zaituan beste guztiak, zer?

Zuzen zara, orixe gomuta neban eta nire baitan esan: "Nire aita zaarra da eta nire laguntza barik, mutillentzat marro bat artez egiteko gauza ez da. Ze erru dau berak niri jazoten jatazan arazo guti oneikaz, biar edo etsi nire laguntza gelago bear dauanean, bakar-bakarririk aurkitu daiten?" Ainbeste urte luze nigan itxaroten egonda? Arazoa ondo ausnartu, eta bururatu jatan jazoki izugarria nire gogotik aldatzea, ori erabagi neban. Bereala iturri ondoko gaztaifadira begiraturik, Juan Palomotzaz gogoratuta, barriro mendekatzeko, bera mendekatzeko, biotz-eragin bat izan neban. Nire naia, guraria zelan bete neiken oldoztuz, gaztaifeditik zelai erpiñera begiratu, eriotz-eguzkia zekula ikusi nebanik ori ta goibel zan, baña egun aretan erpiñaren goia argistuten eban... Adi-adi begiraten jarrairurik, lengokoa baño goibeltasun bizlago batek biotza makaltzen eustan... eta nire begiak negar-malkoz ondaturik nebazala, zukan gogoratu neban, baita be nire aita-amagan, eta Goiko gure Epaillegan. Une ber-beratan abadeak bere etxeko leiotik deadar indartsu bateaz, esan eustan; "Andresillo, otoiz-kanpaiak jo eizuz!" Kanpai baten sokea nire eskuetan artu neban eta lenengo kanpai-otsa entzun orduko, umetxu bat bezela negarrez asi nintzan, eta poz-ara-ziaz nasaituta izan nintzan. Kanpai-lokarria itxi, utxi, nebanean, belaunikoturik, ludi onetan egin dodazan kaltearen parkamena, Jaungoikoari eskatu neutsan, baita be otoiz egin neban, bururatuta, asmatuta egiteko nebazan kalteakaitik be... Arrezkero beste bat naz, Isabel beste bat naz, guztiz ezbardia.

Au esatean, Andresillo bere begiak adi-adi Isabelenetan, onen erantzuna noiz eta zelakoa izango zan, artega, urduri egoan.

Orduan, olan izanik, maite zaitut, nezkaitillatxuak ain lilluragarri egiten eban bere tolesgabetasunagaz esan eban.

Negar egin gura dauan umetxu batek bezela kiñu bat egiñik, jarraitu eban:

Baña ara, barriro ez naizu etsipetu, ori ez dago ondo ta.

Andresillok ixilki bere eskua artu ta estutu, ta nezkaitillatxuak pozez beterik irribarretxu bat egin eban; berantzat alkar esku-etutze arek, ordurarte Andresillok egin eutsazan zin eta eskeintze guztiak baño balio zintzoagoa eban.

Biak alkar eskutik artuta, iturriko bidetik jarraitu eben.

Isabel eta Andresillon zorian utsa ikusirik, iturriari berari be bekaitzkeriz ura garrastu egin jakon, eta ixilki ta murmur bera kerizpetzen eban zugatz zaar bateri esan eutsan:

Bai, oituratuta naz ezetasun audienagaz maitamenduta dagozan bikotzeen zorionak ikusten, baña bikote onena...

Bai, zaartzaroari dagokion tolesgabetasun otzagaz gaztaifña zaarrak geldi-arazi eutsan, oneina "gaztaifi illun ganezkoa da".

X

Isabel eta Andresillo iturri bidean aurkitu, topo egin ebanetik, eta bigarrenak, muti-

Ilak, bere samin eta atsekabeak nezkatileari edestu eutsozanetik, udabarri batzuk euren alaitasun eta argitasunaaz etorri-joanak dira, beintzat olan adierazoten dabe orain Kabian jazoritakoan buruz edestuko dogunak.

Udabarriko Igande guztiz alai bat da.

Juan Palomoren balkoia kerizpetzen daben zugatz-adarretan txoriak abeslari dabil, euren txio-txio gozo ta alaitzuakaz ingurua poztuten dabe ta eurakaz ifior ez da konturatzen. Antonio Molinaren etxeko atari ondoan dagozan kereixak izkuntz loratsu baten bidez adierazoten dautse, Españan ertilariak gozez ilgo ez diran aldi bat urreratzen dala.

Mezarako lenengo dei-kanpaiketa entzun da ta basetxe-erriko auzokideak, eleizpe ta intxaustira eltzen asi. Amabiko bat inguruko talde, mutil-talde, pilloturik dagoz, ze barrabaskada meza ostein egin asmatzen. Ikastetxe aldetik txistu sofua entzuten da ta mutil areik, beste batzuk be lagun ebezala, txistua jotzen dagon tokirantz arinka abiatzen dira.

Juan Palomonen etxetik, Juan Palomonetik, abadea urtenda eleizarantz doa Eleizpean jezarrita pipakada bat erretan dagozan gizonak, jagi ta pipea abotik kentzen dabe, eta baita be txapela edo kapela.

Zelan itxi, utxi, dau berorrek jauna? Juantxuk itaundu eutsan.

Ez da guztiz txarto, baña izaten dauazan neke-aldi orreikaz il-zorian ezartzen da...

Juangoiko Jauna! Ze balio gitxi, gutxi, dauan diruak beste gauza batzuen utsa dago-nean!...

Bai, benetan, eleizara sartzean, ifioan abadeak; dirua zaldun txiro bat da...

Lerro bitan, alkarren atsean, amabiko bat eta erdi inguru mutil, ikastetxetik urtenda, eleizarantz doa. Euren atsetik irakaslea, itun, illun, eta jasez jantzita. Mutillak biurritsu, naspillari, ez dakit zein diru gorabera arazoak poztuten dabezan.

Eel irakasleak ifioan. Ia zentzunez joaten ba zarie, aitu eizue Jaunaren etxera zoazela ta ez jolasten.

Mutillak apur bat makaldu dira, zentzun apur bat izanez, irakaslea euren ajolaz iruditzen dabe. Abade jauna eleizpetik igaro zanean, bertan aurkitzen ziran gizonak jagi ziran bezela, areik be bardin egin eben.

Egunon, irakasle jauna, guztiak ifioen.

Baita zueri be, irakasleak adikotasunez baña bere egin-bearrari ekion zentzuna galdu barik, erantzun eban.

Juantxu, bere prakak ia narratsu ezifnik dabil, eta bere iztarrak arintzen dauz eleizara sartu baño lenago irakasleaz bardintzeko.

Zu, Andresillo, difotso; erreten zagozan errekin on orretatik pipakada bat emoidazu.

Baña, gizona, orain ez ba dot erretzen, eskariatz bat be nekarazi gabe, irakasleak erantzun.

Ez dozula erretzen? Noiztik ona?

Basetxe-erriak nire aitaren ordezko ikastolan izateko baimena emon eustanetik.

Bene-benetako errekinzalea ez zifan izango ta.

Bai, zelan ez, baña zelan nire ikasleen aurrean erre, ze eredu nire ikasleentzat izango zan ori?

Bai, zuzen zagoz, errozoia dozu, gizona.

Baña meza ostean joan zaitez gurera ta Isabeleri esaiozu, pipea jaurti nebanean, gordetako emon neutsan errekin guztia, emon daitzula; esan nire orde zozazala.

Jaungoak emon bedi, bai zuri, Isabeleri, zure altari, jaioko dan semeari ta baite be zure etxeko erratoi guztiei, osasun ugari ta zorion uts betikoa.

Eskerrik azko Juantxu, ba dakizu maite zaitugula.

Eleizako atletik ezagertu baño lenago, Juantxuk irakasleari ezin izan eutson erantzun, poztasunez beteta, urduri, itzak urteten ez eutsuelako.

Ez zan gauza makala! kuarteroi bat errekin gitxienez bere eskuetan, eskuratuko eban! Goazeni, azkenean murmur esan eban! Guzurre ba dirudi Andresillo olako gizon zentzundun, ona, gizon-oso bat urtetzal...

Gizona, taldekide batek esan eban, On Andres gitxienez deitu eiozu!

Ze On Andres ta Ongabe, bere aita baño be amabost urte zarragoa ba nazl...

Ara ba, bera be, ez da edozein mutillak bere aurrean ez dagozanean!

Irugarren eta azkenengo dei-kanpaia mezarako entzun zan eta eleizpean eta alboko intxaustian egon ziran guztiak eleizara sartu.

Molinatar Antonio, Antonio Molina, Kabian jaio diranak zekula ikusi daben arpegi irribatsudunik eundienagaz bere etxetik urtenda, eleizan sartu zan. Mezea amaitu ondoren, eleizatik urtetea, irakasleak mutillai lerrotik urtetea agindu eutsen eta euren, bakoitzaren, egoitarantz joateko. Bai lerroa itxi, utxi, eben, agindu au betetuz, baña bakoitzaren etxerantz joan bearrean, bada antza danetik eleizan zerbait galdu jakelako edo, ez da iflor, eurak, mutillak, andik alde-erazitekorik.

Abade jauna txokolatea artzen bere etxerantz doa, Antoniok, naizta berak gura, nai, ez, abadeak gura ez, bere etxera, Antonion etxera, sartu-azo egiten dautsanean, esanez:

Ba, ez litzake bear besterik!...

Apur bat geroago, Isabel eta bere gizona, biak guztiz dotore jantzita, intxausti zearkatuta, Antonionean sartzen dira.

Ze arraio jazoten da Antonion etxean, ludi osoa, danak, bertara joateko; Juan Palomon balkoi ondoan abesten eben txoriak eurak be kereix berezira aldendurik, bertan euren txio-txio alali, lilluragarrienak eresiteko?

Baña, ara, igarri dogu! Mutillak Antonion atarirantz ariñeketan doaz eta oiuka:

Bateoa! Bateoa!

Eta egia zan, bateo bat egoan, ama txiroen elerti-ospetsuak ikertu dauanik apainketari berezienakaz jantzita, Isabelek bere besoetan aurtxo jaio-barri bat ekarran. Bere alboan abade jauna, irakasle jauna ta Antonio joiazan, onek, Antoniok, ume ergel baten arpegiaz pozez zorobiotuta begiratzen eban umea, naizta bein eta barriri Isabelek iflotsan:

Kendu zaitez ortik, lelo ori aitako bat baño ez zara ta!

Mutikoen sarata ta oiuaq txoriei esaten eutsen:

Zuen txio-txio orregaz joan zaitetze beste leku bateral

Baña txoriak geroago obeto ta doiñutsoago abesten eben, esan gurean:

Bai orixe, onelako egun baten joango gara beste leku batera, onak zagozel

Bateoa amaitu ondoren, bateotua ta taldekideak eleizatik urten eben.

Abade jauna, Antoniok diño, Jaungoikoak opa daustan aurtxo onen gorazpenez, irakasleak, berak dakizanetariko, kanpaiketa areitariko berezi bat egin dagiala gura, nai, neuke.

Berak gura, nai, ba dau, nigandik eragozpenik ez da, poz-pozik entzungo dot.

Nire aldetik be ez, naizta ez dakit egin-bear au aiztu ba jat, irakasleak, kanpaidorreko bidea arturik, erantzun eban.

Irakasleak kanpaiketa bat egingo dau! Irakasleak kanpaiketa bat egingo dau! aizearen arintasunez, basetxe-erri osoan zabaldua, pozez betetuko dauan abotsa da.

Danak itauntzen eben, zer izango zan irakasleak kanpaei esan-azo egingo eutsena.

Zekulako kanpaiketa alai, duintsua izan zan, zekulakorik iztunena izanik, urrunetako aran guztietan be pozez, abeslari entzuten ebezan; bakoitzak al eban bezela soñu a abes-tua; antzoki baten ikusleak antzerki baten entzuten daben soñua iruditzen daben bezela.

Kanpaien abotsagaz, On Juaneri irakasleak diñotso: "Ilten zara On Juan, ilten zara!

Juantxuri: "Errekin ori gozoa da! Errekin ori gozoa da!"

Isabeleri: "Gure mutiltxua dotorea izango da! Gure mutitxua dotore izango da.

Pelitziana ta Antoniori: "Zuen semea eguzki bat bezelakoa da! Zuen semetxua eguzki bat bezelakoa da!"

Kabiako mutikoei: txanponak dagoz, txanponak egongo dira.

Eta alan da, txanponak dagoz, ba da Antonio leiora urreraturik, burua kanpoa ebalatzen:

Atarira! Atarira!

Eskutada aundi bat txanpon atarira jaurti eban, bereala barrura arifieketan joan zan; luzarotik bere andrea ta semea ikustera, ez ebazan ikusten... sei minuñu gitxienez ziran.

Baña aldra poz eta saratsu aren artetik, unetxu bat lenago bere etxetik Juan Palomorenena igaro zana, Juana; bertatik naigabetuta abade ta osagilleagaitik itaunka urtetan dau, eta oneik beingoan etxe nagusira joan ziran.

Zer jazoten da Juana, zer jazoten da? itauntzen eutsoen.

On Juan errukigarria ilgo jaku! Nire etxetik oiuka entzun dot, iñoala: "Ostuten dauste" Txakur bat bezela ilten itxiten nabe! Auzokideak! Ez da iñor, nire bakartasan eta babes-gabeaz errukitzen danik?, eta arifieketan joan nintzan, eta jaun errukigarria il-zorian aurkitu neban eta bere otsein maltzurra jaramonik ez eutsoen egiten; bedar txarra iñoiz ez dala ilten, esanez.

Abade ta osagillea gaixoaren logelan sarturik, On Juan il-zorian egoala ikusi eben eta bere orduak zenbatuak zirala.

Zelan gagoz, On Juan jauna? itaundu eutsoen.

On Juanek zekulako alegiñak egin bear izan ebazan, erantzun al izateko ta bere begi illun eta erdi-galduak eurakan adi-adi izanik, esan eban:

Ilten nazl, azkenez motel-motel esan eban. Baztertuta! Bakarrik! Neure begien aurrean ostuta!... Nire otsaiñak nire buruzdipetik kutxatillaren giltzak artzen ikusi dodaz... eta nire diru ta apaingarriak eskuratzen!...

Nasaitu zaitetz, osagilleak iñotson, ikusi dagigun zure kaltegarria zuzendu alba dogu.

Nire gorputzaren kaltegarriak ez dabe osagarririk! Abade jauna, nire arimako gaitzak izango dabe?

Bai, On Juan, siñeskintzak Jaungoikoaren bitartez, arimako zauri guztiak sendotzeko osagarria emoten dau.

Aaa! jauna! Nirea ez eizu itxi, utxi-azo, ba da gorputza itxi, utxitera, leiatsu doa ta!

Abadea gaixoaz logelan bakar-bakarrik geratzen da, auzi-epaillea biurturik.

Apur bat geroago, logelako ateak idegita, Kabiako biztanle guztiei, ilzorian dagonak azken-agurra egin gura dautsela argitaratzen dau. Au jakitean, euren etxeetan egozan Kabiatar azko be, siñismen biotz-eraginda urreratu ziran.

On Juan apur bat nasaiago da, len itxuragabetuta izugarria zan arpegiak, orain deuntasuna, ezin-esandako bakea, gozotasuna, iruditzen dau.

Nire adiskideak, ilzorian egoanak esan eban, ordu zoragarri, arduratsu onetan, parkatu eidazue, sarritan zuzengabekoa zuekaz izan ba naz...

Ludi onetan nire utsik aundiena, On Juanek geroago ta arnasa estuagoaz, jarraitu eban, sendia ukatzea izan da. Zuek zoriona aurkitzen dozuen sendia. Uts onen ondorioak dira, gero izan jatazan kalte ta naigabe guztiak; ludi onetarako galdua egiñik, eta Jaungoikoa ain errukigarria izango ez balitz, zerurako be bai, baña orain Jaungoikoaren aurrean apal, nire txarkeri, gaiztokeri guztiekaitik damutzen naz. Sendia bedeinkatua izan dedilla!

Bedeinkatua izan bedi! begiak negar-malkoz ondatuta erriar guztiak erantzun eben.

Bedeinkatze guzti onein artean, On Juanen arimea bere azken-arnasa itxaropentsuaz, zeruratu zan.

XI

Biramonean Kabiako biztanle geienak, Iparraldean tontortxu baten aurkitzen zan ortudeunaraño, On Juanen gorpuari lagunduz bere illetara joan ziran.

Gaba eldu zan, ezo, aizetsu eta illuna, eta basetxe-erria ixiltasunean geratu.

Juanak ogera joan baño lenago, suteko illentia amatau ta batu ebazan, bere sendiak beti egin eban bezela, eta On Juanen etxe aldetik barre-algarak entzuten zirala uste izanik, sute, sukaldeko leiotik bere burua atara eban.

Ez egoan oker, ez: antza zanetik Benito ta Ziriakak, il jaken euren ugazabaren eriotzak eraginda eben atsekabe ta samintasuna gozotzeko, upeltegira bira anbat egin eben, upeltegiko txakoliña ta jakitegiko urdai-azpikoa auzokideak egiñik, jostaketa alaitsua zan.

Baña aize boladak Juanaren belarrietara, Benito ta Ziriakaren barre-algarak utsetsean ez ekarzan, Iparraldeko tontorretik intziri errukigarri bat be entzuten zan. Intzirik oneik, ortu-deunaren atean ordu batzuk lenago lurperatu eben bere ugazaba gomutauz, Txulak egiten ebazan.

Juanak leioa ertsi eban, negar-malkoz beterik bere begiak eta murmur ifoala:

Errukagarria ludian bakarrik bizi dana, ilten danean bere txakurra izan ezik ez dau izango beragaitik nok negar egin!

ERRITAR IPUÏÑAK

KASILDA

Maometar Almenon, Toledoko erregea zanak, Fernando el Grande eritxon Kastillako erregeaz, adiskidetasun bene-benetako bat eban.

Maometar errege onek, Kasilda eritxon alaba bat eban, guztiz eder eta errukitsua.

Gaztelar oipu-nezkame batek, errege maometarren alabeari edestu eutsan, zelan nazaretarrak euren Jaungoikoa, erregea; aita-amak, neba-arrebak eta emazteak gurtuten ebezala.

lopu-nezkame onek, maometar erregearen alabeari be edestu eutsan, nazaretarrak ifioiz ez zirala umezurtz geratzen, ba da euren sabeletatik izanekoak ilten jakezanean, beste bat, Miren, Mari, deritxona ilezifia geratzen jakela.

Urteak joan, urteak etorri, Kasilda bai gorputzez, baita be edertasun eta ontasunean be, azten zan. Bere ama il jakon, eta nazaretarren zoriona, nazaretar umezurtzen zorionaren utsa nabaritzen eban.

Maometar erregearen baraztegia mugatzen eta inguratzen eben, ziega illun, itzaltsu batzutan kristau espetxeratu asko, gozez, katez, lokarriz samatuta, asperenka, negarrez egozan.

Egun baten Kasilda bere aitaren baraztetik ibillaldi bat egiten joan zan, eta atxilotu. negargarrien asperenak entzun ebazan. Printzetatzua jauregira guztiz goibel, biotz samín, atsekabetuaz itzuli.

II

Jauregi aurrean Kasildak bere aitagaz topo egin eban, eta bere oifetan belaunikoturik esan eutsan:

Aita! Niere aita! Aita, nire jaunal lorategi mugan aurkitzen diran ziegatan espetxeratu ugarien negarrak, asperenak entzuten dira. Kendu eiezuz euren kateak, lokarriak, eta zabaldu, idegi eizuz, bertako ateak, nazarretarren lurraldetara erritaratu daitezcan; eurakaitik negarrez dagozan aita-amak, neba-arrebak, emazteakana joanda besarkatu egiezan.

Bere biotz barne-bernetik mamotarrak bere alabea bedeinkatu eban, beste gauza guztiak baño geiago maitatzen eban Kasilda, gizon ona zalako.

Maometar errukigarria arek, bera baño beste alabarik ez eban.

Maometarrak Kasilda maite eban bere alabea zalako, eta orrez ganera bere amaren irudi ber-bera. Urte bete luze negarrez bere eriotzagaitik, andrearen eriotzagaitik emoten ebazan.

Baña maomatarra, aita baño lenago musulmana zan, eta ganera erregea, eta bearrezkoa ikusten eban bere alabearen ausarteria zigortzea.

Ba da, Kristau espetxeratuak azkatu gura ta eurakan erruki izatea, Igarleak, "Profeta" eriotzagaz zigortzen eban gaiztokeri bat zan.

Orregaitik bere arimaren biguntasuna bazterturik, Kasildari abots zemaikaz eta arpegi illunagaz, esan eutsan:

Baztertu zaitez, guzur-sifisdun oril! Zure miña ebagia izango da ta zure gorputza, soifña, su-garratara jaurtia, Ba da nazaretarren alde, eta eurak babestu gura dauazanak, ez dau merezi beste zigorrik!

Urkariei deitzen joan zan, bere alabea euren eskuetan itxi, utxiteko, baiña Kasilda barriro bere oifetan jauzi zan belaunikoturik eta negarrez bere amaren oroimenez, parkamena eskatu eutsan.

Maometar gizajoa, bere begiak malko-negarrez ondaturik, bere alabea artu eban bere besoetan eta bere biotzean estaturik, besarkatu eta bere obena parkatu, esanez:

Geiagotan ez eizu eskatu ezer nazaretarrak babestzeko ta ez zaidazala ikusi eurak errukarritzen, ba da orduan zuretzat parkamenik ez da izango, gure Igarle deunagaitik idatzita dago: "Suntzituta izango da, kristauak ilten ez dauazan maometarra".

III

Txoriak abeslari ziran, urdiña ortzi deuna, eguzkia gorritzka, lorak euren orriak zabalzen ebezan, usain gozoaz inguruak ondatur, eta goizaldeko aize ozkirriak maomatar erregearen etxera, lorategiko usain gozo ta lilluragarriak narrasten ebazan.

Kasilda guztiz goibel egoan, eta naigabeak aitzu gurean edo gitxienez baztertu bere gogotik, leiotik bere burua atara eban.

Lorategiak, baratzak, zekulakorik eder eta atsegingarriak iruditen jakozan, eta euren lilluratasuna jasan ezifik, bere naigabe ta atsekabeak abaro usain gozotsu aretara biraka eroazan.

Esaten dabe, edestuten dabe, ez dakigu ipuin ala jazoki dan, urrikalmen-aingerua, txirpillota edo mitxeleta eder eder irudiaz, bidera urten eta beragaz topo egifik bere biotz eta begiak atsegiñez bete ebazala.

Txirpillotea, egazka, egazka, lorarik lora joian eta Kasilda bere atsean arifieketan pitxi polit a jaretsi gurarik.

Txirpillot eta nezkatililatxua orma sendo bateaz topo eginda, txirpillotatxua ormea gerneratu al izan eban, baña nezkatililatxua izaki ain lilluragarriaz maitamenduta bertan geratu.

Arrizko orma sendo arein beste aldetik, Kasildak erosta, aieneka errukigarriak entzun ebazan, eta une beratan gogoratu eban, zelan Kastillan eurakaitik negarrez egozan aita-amak, neba-arrebak, emazte maiteak, kate gogorakaz lotuta ta gozez erdi-illik nazaretar kristauak zizpuratzen ebela.

Barriro be Kasildan arimea goi-maitasun eta errukitasunak sendotu ta bere adimena argitasunez bete eben.

Kasilda gaztelura itzulita, zorrotxu baten janari batzuk batu ebazan, eta eurakaz eta urre apur bateaz, barriro leotz ikaragarri areitarantz itzuli, bere aurretik eta lagun izanik, egazka, txirpillotatxua joiala.

Urrea leotz-saifiak limurtzeko zan, eta janariak espetxeratuak elikatzeko.

Urre ta jakiak zorrotxuan bere gonatxuz estaltzen ebazan, baña errosa kalera bira egitean bere aitagaz topo egin eban, au be gaztelutik ibillaldi bat egiten joian.

Zer egiten dozu ain goizzeti emen, nire alaba maitea?

Goizeko aize ozkirriak eraginda kulunkatzen diran loratxu, larrosatxua bezela, Printzetatxua gorri-gorri geratu zan, ta azkenean bere aitari esan eutsan:

Larrosa polit eta usaintsu oneik begiratzera etorri naz eta bide batez txoritxuen txio-txio lilluragarria entzuten, iturri onetan eguzkia dizdiratzen ikusiaz, eguaro eder onetan aize osasuntsuaz nire birikiak betetzen.

Eta zer daroazu gona orregaz estalduta?

Kasildak bere biotz-barne barnetik nazaretarren Ama il-ezifari otoiz egifik, bere laguntza eskatu, eta orduan barriro bere aitari erantzun:

Nire aita ta jauna! larrosategi onetan artu dodazan lora gorri eder batzuk daroadaz.

Almenonek bere alabearen egitasuna ontzat-artu gabe, umetxuen jantzitik tirakada bateaz lurrera, lora pillo bat jauzi zan.

IV

Umetxua guztiz goibel egoan, goibel; maomatar erregeran lorategiko zitiriak bezela zurbil.

Kondairak edestuten dauanetik, Kasildan zanetan ia odolik be ez zan geratzen; Printzetatuaren espanetan dizdiratzen ziran pitxi zuriak, oldarka jaurtirik egunero gorritzatzen ebazalako.

Umetxua zurbil egoan, eta maometar erregea samirrez, atsekabez beterik, bere alabea ilten ikusirik.

Toledoko osagilleen jakituria ez zan naikorik printzetatzua osatzeko, eta orduan Almenonek Sevilla ta Cordobako sendagille ospatsuenei dei egin eutsen.

Baia lenengoen jakintasuna nezkatillatxua osatzeko, ez ba zan izan gauza, bigarrenekokaz bardia jazo zan.

Nire erregetza ta nire altxor, ondasun guztiak emongo neukez nire alabea sendotzea-gaitik! Kasildaren azken-arnasa ur ikusirik, maometar atsekabetuak ifioan.

Baia gaizkatzaillirik ez zan agertzen, eta eriotzeak, naizta bere aitak alegin zekulakoak egin bere bizitzaren alde, bere lan izugarrian jarraitzen eban, umetxua il-zorian ezaririk.

Nire alabea ilten da! Kastillako erregeari eskutiz baten bitartez esan eutsan. Zure menpeko lurraldetan ba dago ifior osatu al dauanik, osatu egianik, etorri daitela nire gaztelura, nik emongo dautsadaz... menperatuta dodazan lurralde guztiak, nire altxor eta ondasun guztiak, nire alabea ber-bera be bai.

V

Kastilla ta Leonen erregetzapean ziran lurraldetan deiketak egin ebezan adierazoz; Toledoko errege maomatarrak bere alabea osatzen ebanari, bere lurralde guztiak, bere ondasun, altxor guztiak eta bere alaba ain maite ebana be bai, emongo eutsozala.

Eta esaten dabe, Judeatik etorri zan osagille bat aukertu zala Kastillako erregearen jauregian, printzetatzua osatuko ebala, bein eta barriro zin egiten ebana.

Berbetan, izketan, gizon arek agertzen eban jakituria ain aundia zan, eta bere arpegiak iruditzen eban ontasun eta apaltasuna ikusirik, Kastillako erregeak, ezpai-gabe, gutun edo eskutiz bateaz Alemonegana bialdu eban, Kasilda printzetatuaren gaizkatzailea zala baieztatuz.

Judatar osagilleak, umetxuaren bekokia ukutu ebaneko, odolaren eragifia gelditu ta gaixoaren matrail zurizka ta goibeletan, larrosa margo gorritzka alai agertzen asi zan.

Ara emen nire erregetza, zuretzat artu eizu! Alemonek pozaren pozez ia zoraturik eta eskertasunez negarrez, ifiotson.

Nire erregetza ez da ludi onetakoa, Judatar osagilleak esan eutsan.

Artu eizu nire altxorrik bereziarena, bere alabea aitaturik, Toledoko erregeak ifioan.

Ontzat artzen ebala adierazoz, osagilleak eskua Kasilda egoan tokirantz luzatu eban, esanez:

Maomatar birgifatxuaren gaizkamena osotuko daben ur garbitzaillie batzuk dagozan errira joan daitela.

Biramonean, Kasilda printzetatzuak nazaretar lurraldeak oinperatu ebazan, Judatar osagillea lagun ebala.

VI

Kasilda ta judatar osagillea, nazaretar lurraldetatik ibillialdiak luzaro jardun eben, eta azkenenan ur urdiñdun ozin aundi baten bere baztarrean gelditu.

Bere esku biakaz eraturako ontzian, osagilleak ur tantal batzuk arturik, nezkatillatxuen bekokian izuririk, otoiz egin eban, iñoala:

"Aita, Seme ta Espiritu Deunaren izenean, neuk bateatzen zaitut!

Bereala nezkatillatxuak azaldu ezifeko zorion bat izan eban, umetxutan bere nazaretar-nezkameak esaten eutsanetik, doatsuak atsegin-tokian izaten daben antzekoa.

Bere belaunak tolestu ziran, bere begiak zeru-zapal urdiñan adi-adi geratuta, bere inguruan hosanna abesti lilluragarriak entzunez bat-batean bere begiak alboetara, bere alboetara begiratu.

Judeatik etorritako osagillea, une onetan ez egoan beragaz, bere alboan, dizdira bizi-biziak inguratutik geldiro-geldiro, astiro-astiro, zerurantz jaso zan.

Nor zara, Jauna? Nor zara? itsu-erazi ta zurturik printzetatzuak esan eban.

Zure senarra naz, zu aunatzen zinduan gaixo ber-bera, Jairoren alabea osatu, sendotu, ebana naz. "Nigaitik bere etxea, aita-ama, neba-arreba, seme-alaba, bere lur eta ondasun guztiak itxi, utxiten dauzanak, batetik eun artuko, ta betiko bizitza izango dau", esan ebana naz.

Bribieska lurraldetan, San Vicente deritxon ozin urdin baten bere baztarrean base-eliza txiro bat dago ta beratan bakardade osoan Toledoko erregearen alabea bizi izan zan, gaur-egun base-eleiza onek Santa Kasilda deritxo.

ERAIKILLEAREN ANDREA

I

Krsitau-ikasbideko zortzi Doatsutasunei beste bat eraikitzea zillegia izango balitz, nik au esango neuke:

Kondaira-oar batzukaz Doatsutasuna apaintzea zillegia balitz, nik bederatzigarrenari, Kondaira-oar au ezarriko neuzkio:

"Doatsuak emakume zentzundun bateaz eskontzen diranak, ba da etxe-bizitzako zorriona eurena da"!

Amalagarren mende erdi inguruan Enrique de Trastamara, sasi-semeaak, Toledo, iskilluak bitartez inguratu eban. Toledotarrak adoretu ta setati babesten ziran, euren erregeaz zintzo izanik, erregearen ezizena batzuentzat "Cruel" zital, odolzale, zan eta beste batzuentzat "El Justiciaro" Zuzen-zale.

Toledotar gudari adoretuak San Martin zubi eder eta bikaiña, uri-oroigarriak euki ebazanetariko altxorrik ederrena, sarritan zearkaturik, Cigarrales inguruan ezarri ziran, On Enriquen gudariei erazo gogorak egiten eutsezan, eriotzketa izugarriak.

Orretariko urtekerak jazo ez eitezan, OnEnriquek zubia apurtzea erabagi eban, San Martin zubia.

Zubia, esan dogun lez, altxor eder bat zan, uri odol-aitorle, zaldun eta eleiz-batzardun uria arresi antzera ingurutzen ebanetariko bat, oroiz-arri oneik, elerti ta kondairatzaz ba da-be zer adierazo, ba da On Enrikek, bere anaiaren erregetza berantzat eskuratu gurean, bere anaiari be sastakai bat biotzean emoteko gauza diran politiku andiki, ospe-zaleentzat be.

Tirso ta beste olerkari ospetsuak lan ikaragarria egin dabez, Toledoko Zigarrales lurraldeak, bere izena goraldtu ta ludi osoan ezagutzeko. Lurralde onetan ugari dira etxeak,

atseden-etxeak, ederrak, euren baratz, lorategi ta igali-zugatzez inguratuta osotua diranak, eta zugatz-igalien artean mertxita bere igalien bikaintasunagaitik bereziena dana.

Gaba baten zigarraleseko zugatz abarotsuak, adartsuak, On Enrique gudariakaitik ebakiak izan ziran eta San Martin zubi ganean pillotuak.

Egun-sentia bere dizdira alaiaz eguna urratu eban, bereala izugarritzko su-gar aundi batek, solo ta ortuak ezereztu, Tajo urdiñak, On Rodrigoren Jauregiko erauskiñak, ondiño be ibai urifiñak beregintzen dabezan maomatar dorretxua, esakerak diñoan lez, bere oiñean On Jualianen alabea, bere zori-giartzoko edertasunean zori-gabeko erregeak bere begiak ezarri ebazanean uraztatzen zala, argitu ebazan.

San Martin zubi ganean izugarritzko su-gar bat ikusten zan eta arlandu gogor, Alhanbrako ikusgarriak sortu ebezan zulakaitz ber-beragaz ziranaren eztanda, basatikeriak zapal dutako ertiaren erosta errukigarria dirudian.

Toledotarrak, su-argitasun ikaragarri arek eraginda izaturik, San Martin zubia bere ondamenetik gaizkatu gurean babestzen, arifieketan joan ziran, baña euren alegin eta arifieketa guztiak alperrikoak izan ziran, ba da Tajo ibaiko ur naaspildu ta sakonetatik, sarata itzaltsu, goi-baltz batek zubia birrindua izan zala adierazo eutsen.

Benetan, alan zan! Uri-kaisar aretako goi-erdiak gorritzkatzen asi ziranean, ibaira jaitzitsen ziran nezkaitilla toledotarrak euren lusiaillak ur gärden eta ozkirriaz betetzen, euren arimea goibel eta sumiñ erazita eta lusuillak utsik, euren errira itzultzen ziran. Tajo ibaiko urak naastatuta, loi, illun etozalako. Euren uriolatan San Martin zubiaren erauskiñak ondiño guztiz amatau gabe etozalako. Uriolak, ura bera be ondiño iregiten ikusten zan.

Orduan erri-sumindura zekulakorik aundiena zan; Toledarrentzat, San Martin zubia, Cigarrales deritxon eunkeda atsegin-toki areitara joateko bide bakarra zan. Arabiatarrak lorategi ta ortu batzukaitik eben zaletasun bizi-bizia, Cigarralesentarrantzat arein ondoren bat zan. Makaltzen joan euren adorea bizkortu, suztu zan eta Trastamara ingurua, inguratuta ziranakaitik laster izan zan erazotua, ta euren arerioak, Cigarrales lurraldeak odolez gorrituta ltxi, utxi, ondoren, iges egin bear izan eben.

II

Montiel anai-erailleak San Martin zubia ustu ebanetik, urte luze asko joanda ziran.

Errege ta gongotzaiñak gurari bizi-bizia eben, zubi au lenago izan eban eder eta sendotasunagaz ikustea ta orretarako, beste bat eraikitzeke gogor jokatzen eben. Baña ez arabiatar ez kristau eraikilleak ez eben al izan Toledotarren guraria betetzea. Bein eta barrio zubi arranbelak amaitu baño lenago, ibai uriolak lotz, aldamu, narrazten ebazan, eta beraz barrio lan, bear, bardiña asi bear izaten eben.

On Pedro Tenorio, onenatariko gongotzain bat, eta bere liburuan "Toledo y las orillas del Tajo"n nire adiskide jakintsuak, Antonio de la Torre diñoanlez, Toledotarrak gizon onegaz euren erregei añaiko zorrean dira. Aitatu dodan bezela, On Pedro Tenoriok,

Españeko uri ta erri aundietatik dei batzuk egin ebazan, San Martin zubia barriztatu ta beste eder eta sendo bateaz, urak birrundutakoa ordeztzeko, eraigille, arkiteto, bat lortzeko asmuz.

Egun baten, gizon-emakume bikote bat, biak guztiz ezezagunak, Cambron atletik Toledora sartuta, San Martin zubiaren ondarrak eta oifarrriak ikusi ta gero, bizileku uts bat alokatu eben, zubitik ez urrunegi.

Ordu batzuk geroago gizona gongotzain jauregira abiatu.

Gongotzaiñak eleiz-buru gizon jakintsu ta zaldun askoaz alkarizketan jarduten eban, ba da bere jakituri ta zintzotasunak eraginda, pozik izaten ziran beragaz al izaten ebenean. Bere alaitasuna, gongotzaiñarena, aundia izan zan, bere aide, senide, batek esan eutsonean, lurralde urrunetatik etorrita, gizon eraigille ospatsu batek, beragaz egoteko baimena eskatu ebala.

Atserritarragaz berba, itz, egiteko gertu egoala, arin erantzun eban.

Atserritarra gizon gaztea zan, baña gogorakisun eta bear ba da, bizitzan izan eban zorritxarrak eraginda, agure edo beintzat zaarra dirudian.

Biotz onez agurtu ondoren, bere jesarlekuaren aurrez aurrez egoan aulki bat opa eutsen.

Jauna, atserritarrak esan eban, nire izena guztiz ezaguna izango jatzu, Juan Arevalo naz eta eraigillea bizi-bidez.

San Martin zubia berriz eraigintzeko gizon eraigille trebe bat aurkitu gurean España-ko Lurraldetan egindako nire delari erantzunez, aurkeztzen zara? Jakin-erazi gura dautzut, zubi onetatik uri apal eta ospetsu onetatik ibai beste aldeko erri ta urietarako bidea zala.

Dei orrek nakar zure aurrera, Toledora.

San Martin zubiearen bir-eraillitzeak dauazan gaitz, zailtazunakaz nabaritzen zara?

Ezagutzen dodaz, Jauna, eta guztiak garaitzeko gauza nazala uste dot.

Non egin dozuz zure ikasketak?

Salamankan.

Zeintzuk dira zure trebetasuna baieztatu leikeezan lantegiak?

Bat be ez, jauna.

Naigabe ta itzalgaizt kiñu bat egiti eban au entzutean eta atserritarra konturatuta, bereala jarraitu eban:

Nire gaztaroan gudaria, baña nire gaitz eta gaixo-aldiaren erruz bizitza itxi, utxi, bear izan neban. Kastillara itzullita, nire aberrira, luzaro iragille ikasketatan sutsu jardun neban, lenago liburuakaz, teoriz, eta geroago egikisunez, praktikaz.

Tamala dot, zuk adierazo ezitña lantegi bat zure jakituna ta trebetasuna baaizitzeko.

Zu nekarazitzen zaituna goratzi bearrean Tornez eta Duero ganean beste batzuk goratzen dauazanak dira.

Ez zaitut ulertzen.

Ni txiro ta ezezuna nintzan, ogi ta ospe non irabasi uts-utsean aurkitu neban, eta ogia irabasteaz geratu nintzan, beste batzuentzat ospea itxirik.

Tamala dot, barriro be, zugan entzinduteko, zuk ez izaterik biderik edo aukerarik, zalanza au argitaratzeko.

Bai, bat dot, eta uste dot on-artuko daustazula.

Zein da ori?

Neure bizia.

Azaldu eidazu.

San Martin zubiaren arku nagusiko gaillurra kentzen danean, bere ganean lekurik be-rezienean, lan areik zuzendatu dauazan eraigille ber-bera egongo da. Ederto, arreman au ontzat deritxot.

Eta nik osotu, betetuko dot, jauna.

Oitura-gabeko ontasuna adierazxorik, gongotzaiñak eraigillearen eskua estutu eban, eta au bere etxerantz pozik eta alai abiatu zan.

Juan Arevalo lagun ebala, Toledora eldu zan andrea, gaztea ondiño ta ederra, naizta gaixoaldi ta nekeak makaldua izan, leiatsu ta artega leio batetik adi-adi bere laguna noiz agertuko egoan, eta ikusirik bere gizona urreratzen, beragaz topo egitera arinka urten.

Kataliñ! Kataliñ!, eraigilleak esan eban, bere andrea pozez beterik besarkatzen eban bitartean. Toledo apaintzen daben oroi-arrien artean, Juan Arevalo izena, ondorengoiei adierazoko dautsen bat egongo da.

III

Orain Toledotarrak Tajo ibaira aitz-arte ta erroitz areitatik urreratukeran, antziña Florida lora-tegi antez egindako uri-bideak arro erakutsiten ziranetatik, ezin eikeen esan, "San Martin zubia emen egon zan", San Martin zubia, naizta uztai ta oltz, andamioz, zurkaiztauta egon, antzifekoaren sustrai ganean jasota aurkitzen zan.

On Pedro Tenorio gongotzaiñak eta toledotarrak eraikille trebe ta zoriontsua goraltzen eban; aldi aretan euren artean ez zan beste gairik, zubia ta eraigilleak egin eban lan ikusgarria, ba da naizta aldi aretako ibai uriolak izaten ebezan eraso gogorrak, zubiaren iru arkuekaz bat egin eban eta beraz zubia osotu. Benetan lan txalogarria iru arku areik batean eutsitea ta ibai-uriolen eraso gogorrak jasan al izatea. Lana ausarta ta itzala zan benetan.

San Ildefonso jai egun aurrean, uriko zaindari; Juan de Arevalok gongotzaiñari jakin-azo eutsan, lana amaitutzat emoteko, zubia guztiz eraikita geratzeko, iru arkutako marko-oltzak kentsea uts-utsik geratzen zala ta eurakaz batera arkupeko andamu edo oltzak, piñuzko zure aundi ta astunak.

Gongotzain eta erritarren poza azaldu ezifekoa zan. Arretaz apainduko arlosa aundi ta astun areik, zurkaiztatuta egozan marku-oltz eta oltzatatik banatzea lan guztiz arrikutsua zan, bafiñ eraigillearen nasaitasuna ikusirik eta zure ta aoltz areik kentzeko unean, eraikigi-

Ilea zubi ganean egongo zala, uste osoa eban guztia ondo izango zala, danak urtengo eba-
la ondo, guztiz arduragabe bizi ziran.

Toledoko kanpai guztien kanpaiketa saratatsu ta dei batzuen bitartez San Martin zu-
biaren bedeinkatzea ta zabaltzea argitaratu zan, biramonean uriko agintari ta eleiz-gizon
ospetsuak jai onetan tarteko izanik.

Toledotarrak Tajo ibaia begizatzen dan goietatik, pozez eta biotz-ikaraz beterik Ciga-
rralesko lurralde ederrak ikusten ebezan, urte luzarotan goibel, baaztertuta, bakardadean
bizi izan ziranak, berbiztuko ziran, biramonetik aurrera biziera barri bat izango eban. Antzi-
ñako edertasun, bizkortasuna lortuko eban.

Illundu aurrean, apur bat lenago, Juan Arevalo zubi erdiko arku ganera joan zan, bi-
ramonean egin bearko zan lanerako gauza guztiak gertu itxiteko asmuz. Lanak azterketzen,
guztiz pozik ebillen, dana guztiz ondo joakolako, baña ustegabe bere espanetatik irriba-
rreak alde egin eban, bere arpegiko alaitasuna, illun eta goibeltasuna biurturik, bere etxe-
rantz guztiz atsekabetuta, burua makur-makur abiatu zan.

Katalin, bere andrea, etxetik beragaz topo egiteko asmuz urten eta maitasuneko arre-
ra egiteko gurariatz, baña berari be, bere gizona alan ikusirik, bardifezko naigabe, atseka-
bea bere barnean; bere biotzean sortu jakon. Arritasunaren argazki ber-bera zan bere arpe-
gia, ta ikerez baterik esan eban:

Jesus gure Jaun eta Jaungoikoa, gaixorik zatoz?

Ez Katalin maitea!, bere naigabea estaldu gurarik esan eutsan.

Ez eistazu ukatu, zure arpegiak atsekabe utsa adierazoten dau ta!

Arratsaldea luzea izan da ta lana be gelegia...

Etorri zaitetz, etorri sutondora, bertan bertako berotasnaz eta afari on bteaz, osasun
eta alaitasuna jaretsi al izango dozu.

Pozal... marmar Juanek samifez beterik esan eban, bitartean bere andrea sutan gar-
tsu egozan arte-mukur batzun ondoan afaria gertatzen jardun.

Zekulako alegiñak Juanek egin ebazan bere naigabe ta jan-eziña beragandik bazter-
teko, baña alperrik izan zan.

Zure bizitzan lenegoz ixilpentzen daustazu zure zoritxar, samin bat!, Kataliñek esan
eutsan. Beti zugandik merezi izan dodan maitasun eta uste osoa, gaur-egun otziturik baz-
tertuta dozuz ala?

Katalin, mezedez ez naizu geiago iraundera, atsekabetu, nik zukan dodan maitasuna
ezbaian sumatuz.

Alkar uste-osogabe ezin leiteke maitasunik izan.

Bion onerako dan orain ixilpentzen dautzudan aopeko au, ontzat artu ta aitzu eizu.

Naigabetzen zaitun aopeko orj oñaze guztiz sakona da, ta jakin gura neuke apur bat
arintzen lagundu daizudan.

Eztitu, goxatu, eziña da!

Nik dautzudan maitasun batentzat ez dago eziñik.

Ara, jakin gura dozun ezker; biar nire begirune ta bizitza galduko dodaz, ain maiteki-

ro ta itxaropenez jaso dodan lan ikaragrrri ori, ainbeste lan eta neke jasan bear izan dodan zubia amaituta emoteko, biar amilduko da, guztia l'bai ur ganean izango da.

Ez! Ez! sugar maitasunez besarkaturik bere gizona, Kataliñek esan eban, bitartean bere biotz-barnean barri arek eragiten eutsan oiñaze zekulako a ezeztu gurean, ito gurean.

Bai, nire lanean garaille urtengo nebala uste osoa nebanean, biar goizean Tajoko urpean zubia ondatuta ta beragaz bere ikerle ta gidari izan dana eroango dauan uts ikaragarri bat nire lanetan nabaritu dot.

Zubia ondatuko da, bear bada, baña zu ez nire maitea, ba da neuk belaunikoturik gogozain ber-beraren aurrean eskatuko dautsot, zuk emoneko itza, berbea, betetzea ez daitzula zilleigi.

Alperrikoa izango da, eskatzen dozuna, ba naizta zure erreguak kontuan izan eta zilleigi zuk nai dozuna, nire begirune, alkegabe ez dot gura bizirik.

Bizitza alke, begiruneaz izango dozul Kataliñek esan eban.

Goizalde zan. Oillarrak etxe inguruetan eguzkiaren argitasunak eraginda kukurrukua ebiltzan.

Kataliñ guzurrezko-loan egoan, lo-gogor, sakona iruditzen eban, eta bere gizona lan eta oiñazeak eraginda nekatuta, etenda, une batzuk lenago lo-zorroan egoan, loa baño ames gaizto baten antza geiago eban.

Kataliñ sarata-gabe ogetik jagi zan, bere arnasea be ez zan entzuten eta suterantz abiatu.

Suteko leiotik Tajo ibaia ikusten zan, eta Kataliñek beratatik bere burua atara eban.

Illuntasun Ikaragarria, gaba aretakoa, nozean-beinka iñusturiak lurralde a argitzen eban.

Tajo ibar, sakan, aretan ez zan entzuten beste saratarik, ibaiaren urbizi ta San Martin zubia eutsiten ebezan oltzak aizeak astinduaz, ataraten ebena baño.

Kataliñek leioa arreta aundiz ertsi, ixi, eban saratarik egin ezteko. Sutondoan erdi-amatauta egozan illentitariko bat arturik, beragaz kalerantz, ia arnasarik be artu barik, ixiltasun osoa izan eiten, urten eban.

Nora joan? Etxetik urten orduko inguratu eban illuntasun ikaragarri a argitzeko, illenti a eroan. Naizta illuntasuna zekulakoa izan eta Kataliñek burutatuta eban lekura elitzea gaba illun aretan lurralde areitatik arriskutsua izan, biotz-ikara sutsu batek eraginda, aurre-ra ausarta joian. Kataliñek bere gorputza inguratzeko ezarri eban longaiñaz alegintzen zan illentia eskutatuzeko, argi pizka a bere zaindari bakarra zan, erroitz areitatik troka sakonetara jauzi ezteko. Bere askai makala une aretan berantzat ez zan eragozpen bat bere guraria, naia, betetzeko, bere bidean adoretzu jarraitzen eban.

Lan eta neke ugari, ta ez arriskua be gitxiago, San Martin zubira eldu zan. Bere arku ta oltz bitartetatik, aizeak txistu antzeko ots bildurgarri bat entzuten zan, ibaia zubi bazter, zurkaitz baten albotik Igarokeran murruez kezkatu, eragozpen a gaiferatu ezifik, naizta lenago Trastamaragandik eta ber-berak be sarritan zuzendu al izan arazo au.

Kataliñ zurgaitz albora urreraturik, ezin izan eban zebatu, beragan eban izugarrizko biotz-ikara. Izan eitekean, ura indartsu ta murrusaka joian ibai baten leize edo amil-toki baten ganean egoalako bere arritasuna izatea, bear ba da, beti egikisun on eta mezedegarriak egiten oituratuta egonda, orain, une aretan, zuzi, illenti ezeztetzegarri bat eroan bere eskuetan, agian, izan eitekean be, une aretan justuri saratatsu bat entzun zalako, edo maitasun buru-ukatzeak ulertzen ez dabe begien aurrean, une orretan gaiztakeri bidean ezarri ebalako.

Ordurarte eskutatuta euki eban illentia aizeratutik, oltz edo andamiora urreratu eban. Zure erretxintsuak sutan asi ziran, eta sugarra aizeak astinduta, bereala oltz guztietatik egonda, zubi guztia inguratu eban.

Bizkortasun bizi-biziaz eta justuri ta zubia inguratzen eban su-garraren argitasuna lagun izanik, Kataliñek zubitik bere etxera zan bitartea arifiñeketa baten egin eban, eta etxeratzean arreta aundia izan eban sarataxu bat be ez egiteko.

Bere gizona ondiño lo egoan.

Kataliñ illunetan billostuta bere gizonaren alboan ogeratu, bitartean San Martin zubian sugarrak izugarrizko saratakaz, erruki-gabe, bere gizonak ainbeste neke ta lan gogorraz egin eban lana, ezereztuten eben.

Apur bat geroago marmar-ots luze ta ixilkiro bat uri osoan eta kanpadorre guztietan su-kanpai ots illun, goibel, durundutsua entzun zan. Ondoren, bereala, On Enrike el Bastardok zubi ganean biztutako sugar ikaragarriak San Martin zubia ondatu ebanean, estanda zekulako bat entzutean, toledotarrak aizeratu eben oiü-mingarri bat; euren biotz-barnetik doiñu oiñazez euren naigabea agerturik.

Juan de Arevalo izu-ikaratuta izartu. Kataliñ bere alboan lo egoan edo lo egoala iruditu gura eban. Lasterka baten Juan jantzirik, kalerantz abiatu zanean, pozez konturatu zan, sugarrak zubian azkena une gitxi barru egingo ebala.

Bai Gongotzaiñak, Artzobispoak eta baita be toladotar geienak, erreketeta a, zubia erretzea, alabear bat zala edo zeruko su batek eragifia zala uste eben. Zubia galtzeak samintasun benetakoa euren biotzetan sortzen ba eutsen, euren atsekabea ez zan txikia-goa, eraikigillea, arkitetoaren samintasuna sumatuz, ba da, berantzat, eraikigillentzat zubi barri a egitea, garaipen edo azken zoriontsu bat zan, eta toladotarrak uste eben bere biotzarentzat sartada izugarri bat zala, ta beraz etsipen, samin-batek bere barnea astintzen ebala.

Toledotarrak iñoiñ ez eben jakin zeruko sua ala alabear anbat, zer edo zein izan zan, zubia ezereztu ebana; baña Juan de Arevalo gizon zintzo ta guztiz ona zan ezkerro, uste eban gizeseme onak Jaungoikoaren bebespena beti ebala, ta zalantza barik, ezelako zalantza gabe, beti uste izan eban, zubia zerukosuak ezereztu ebala.

Kataliñek be gizonari esaten eutsan, bera be eretxi bardiñekoa zala. Izan be, norberan gizonaren izen ona babestearren esaneko guzurtxuak Jaungoarentzat kontuak izateko obena, ezelan be ez dira izango.

Zubi barri erreteak, Juan de Arevaloren garaipe edo zoriona, urte bat baño ez eban

atseratu, ba da urte bete beranduago, beluago, San Ildefonso egunean, orain be Toledotarrak euren aide, senide, ta adiskideak ikustera, San Martin zubitik joiazan, bide batez Cigarrales lurralde politak ikustatuaz. On Pedro Tenorio gongotzaifia, be eskuman Juan de Arevalo jezarrita egoala ta onen oroimenez jatordu berezi bat ospatzen ebela, Katalifari ifio-tsan;

Batzuentzat garaipena irugarrenean izaten ba da, zure gizon maite Juan de Arevalo gure adiskidearentzat, garaipena bigarreanean da.

INPERNUAN ANKAZ AURRERA

I

An goi-goian, an goian mendi magalean, basetxe zuri ta eder bat, masti ta zugatz-igaliz beteriko soloakaz inguratuta, ikusten da.

Gure Jaun eta Jaungoikoak bertako masti, zugatz-igali ta soloetan bere bedeinkatzea urtero izuritzen dauala dirudi, ba da euretan gari ta arto, igali ta ardao ugari uzta bezela izaten da.

Bertako biztanleak euren beigiak basetxerantz jasoten dabezenean, euren begietatik negar-tantalak eta espanetatik bedeinkatzeak urtenez, Egillea goraltzen dabe.

Zegaitik bedeinkatze ta negar-malko orraik?

Laster jakingo dogu, Marta ta Teresan alkar-izketa entzuteko, belarriak zorrotz ezar-tzen ba doguz.

Basetxe ta ibar bitartean, mendizka oiñean, bazterrean, gatzanadian dagon iturrira doazala daben euren alkar-izketa, arretaz entzuten ba dogu.

Martak berrogeta amar bat urte dauz, bere sasoiari suurpean bibote onan jabe izana, beintzat olan dirudian. Ostera Teresa, amasei urtedun nezkatiill begitzar bi zekula ikusi ez diran bezelakoduna, ta arpegia bere astuntasuna urretan erosi eziñekoa.

Bizkor ibilli gaitazan, dirautso Martak, ba da amaikak joko dabe ta barraban a, bazkaltzen joaten danean ur ozkirria aurkitzen ez ba dau, zezen indartsu bat bezela egoten da.

Ba, nire aitagaitik ez dautzut ezer esango, bera da bat ba ...!

Alabatxu, nire gizona, batez be On Mateontzat lanean dabillenean, ia jan ez dau egi-ten. Barrero lanera joateko izaten dauan leiatasunagaitik, bazkaltzen jezarri orduko, barrero lanera itzuli gura izaten dau.

Nire aitari be, bardin zamar jazoten jako, egun osoan On Mateoren lurraldeak lantzen egongo litzake.

Egia da umetxua, egiten daben guzti ori ta gelago merezi dau beragaitik egitea; ba da bera bizi dan artean, gure erri aldean ez dot uste txirorik egongo danik.

Zuzen zara andrea! Begiratu eizu zer egin dauan gugaz. Igaz uzta guztiz urria izan zan; urte-saria ordaintzeko beste garao be gure lurraldetan, ezin izan genduan batu, eta urte-saria parkatu ezeze gure soloak ereintzeko beste garao emon euskun.

Bardin egin dau gugaz eta beste etxeondoko danakaz.

Gizon ori ilten danean, zeruan dagozan izarrak baño be aingeru geiago lagun izango dauz.

Gure Jaun eta Jaungoikoak urte luzarotan bizirik izan dagiala! On Mateo ilten dan egunean, zerua berari arrera emoteko apainketarik bereziena kaz izango da, ostera lurra, baltzez, il-soiekoakaz, azken agurra berari agertzeko jantziko da.

Joan dan Igandean abade jaunak eleizan iñoan, aundi ta txiki, zaar eta gazte, danok dogula gure barnean loikeri anbat, baña nik uste dot, On Mateoren biotz-barnea urte ta zidarra eurak baño be garbiago dagola, ba da jaun bedeinkatu orrek, bere izate ta gogo guztia, lagun-urkoari lagundu ta mezedo egiten emon dau.

Zorionsua beragaz eskontzen dana!

Eta zer, lengo egunean nire aitari iñotsonez, eskontzen danean, nezkatiil aberats batez ez da izango, nezkatiil deduzko, itxura onekoa, jaseko, ta etxezalea izatea naiko-izango dau.

Ba umetxua, zugan dira doe guzti orreik, zalantza-gabe, zu zara berantzatz egokiena.

Zelako gauza ames-garriak diñozuz!

Umea, ez zaitze orregaitik gorritu, zuk ori, On Mateo ezeze Españeko errege bat be merezi dozu.

Baña On Mateo ain aberats, on eta jasekoa, zergaitik eskonduko da nigaz!

Eta zergaitik ez, alabatxu, gauza arrigarriagoak ikusi dira. Berak ezerezetzat ez zaitu ikusten. Lengo egunean atarian josten nengoala, bera nire etxe aurretik igarotean..., ba dakizu zein begiko ta ez aundiki-zalea dan ta, berbetan, izketan, etorri jatan, eta onetan alkar-izketan jarduten gendula, zu agertu zifan, eta berak beti daukan arpegi irribarretxuaz esan eustan; "Ara or Teresa, erriko nezkatiilla guztiak batera baño geiago balio dauana".

Aaa zelakoa burlletia!

Baña, naizta olan izan, mirari izango da isekak biurtzen ez ba dira, ori zeure eskuan dozu.

Teresa larrosa gorri-gorri bat bezela egoan, bere begiak alaitasunez beterik bere biotz-barneko poz zorionsua estaldu ezifik.

Onetan iturrira elduta, Teresak bere ezitze ona agertuz, lenengo txandea lusaila betetzeko, Martantzat opa eban.

Egurdiko eguzkiak, zekulako sargoriaz, asunek eurak bezela zirikatzen eban, eta itu-

rriak amabost egun lenago zurrust osoan ura dariola ba eban, orain firi-firi, ari me-me irudituz lusaillara ura izuritu.

Martan lusailla betetu zan, eta bereala une beratan ibar aretako eleiz nagusiko kanpadorrean amabiak jo eban.

Josus, amabiak diral, arrituta Martak esan eban. Zeruko Ama Birgifea, zelan egongo ete da prakerre a, ni etxera itzulten nazanean! Alabatxu, ezin dautzut itxaron, zuk bidea ba dakizu ta au luzarorako doa.

Teresak lusailla Martan buruan ezartzen lagundu eutsan, eta Marta gaztañaditik bera joan zan.

II

Teresa gaztañapean kerizpetan jezarririk, lusailla betetzen zan bitartean bere belauan ganean ipifiti eban ukondoa, ezkerreko matrailla esku barruan, eta ausnartzen, gogoketatan, asi zan.

Zer zan gogoratu, ausnartzen ebana?

Batek ba daki nezkatil eskongai batek zer ausnartzen dauan, zertarako ta zergaitik jakin barik, Frantziko deunak bezela geratzen diranean.

Urak lusailla utsik dagonean lodi ozenduten, ozentzen, dau, ta betetzera urreratzen danean bere doñua tiple, goren, biurtzen da, eta uraren otsak lusaillan izuritzean, Teresari adierazo eutsan, lusailla buruan ezarri ta etxerantz abiatzeko, ordua zala.

Teresak urretx-adar bat lusaillan, uretan, ura mugidu ez eitean ezarri eban, eta ira batzukaz buru ganean ipinteko moño bat egifitik, lusailla burura jasotzen saiatu, baña bere indarrak ez ziran izan naikorik.

Urez beterik zan lusailla buruara jasoten, Teresa iru bider saiatu zan, baña alperrik izan zan, eta izan ebazan indarketakaz, klabeliña bat bezela gorri-gorri eginda egoan.

Alde guztietara begiratzen eban, lusailla buruan ezartzen laguntzeko ia norbait ikusten ba eban, eta ara non, On Mateo gaztañaditik bera, ixilkiro abestuz, irribarreka jaitsiten dan.

Sasoi berezian zatoz, On Mateo.

Urte bete inguruka ibilli baño oba da sasoz eltzea.

Lusailla buruan ezartzen, lagundu eistazu arren, esku bat bota eidazu.

Arimea ta neure bizia be botako neukez zure oifetan.

Ála, iseka-zale ori!

Emen ez da isekarik, zu isekatzeko nigan ez da isekarik.

Olako berbak, zuk zenbateri esan ete dautsazuz!

Teresa, berba, itz, zentzunez egin dagigun. Egunak dira bakarrik aurkitu gura zindudazala, On Mateok bere betiko izakera txantxa-zalea alde batera baztertuta, esan eban.

Teresak bere burua makurturik, bere begiak lurrean adi-adi, bere matrail eder, ozkirri,

margotsuak, ondiño be gelago gorrizkatu ziran. Une aretan bera ez zan arduratzen ez lusail ez da be bere aita bazkaltzeko, eroan bear eban ura begira egoala be.

Ni, On Mateok jarraitu eban, aberatsa naz, alan da guztiz be, ez naz zoriontsua, zeo-zer, zerbaiten, utsa dodalako.

Baña zeren uts dozu, zuk ba?

Maite nauan biotz batena.

Erri-alde onetan ez dago biztanlerik zu maite ez zaitunik.

Asko poztuten nau orrek, ori olan izateak, baña ez da naikoa.

Ez zaitut ulertzen.

Teresa, zure irribarre orrek eta diraustazun lots orregaz, ulertzen nozula adierazoten daustazu, baña naizta olan izan, argiago berba, itz, egin gura dautzut. Arratsaldea eroritzen danean, aran osoaz ixiltasuna jabetzen asten danean eta eguzkia urrunetako mendietan goibelki estaltzen danean, gabako otoikanpalañ soñua entzutean, nekazaria bere lana amaitu ta gero bere egoitzarantz joaten ikusten dodanean eta zelan bere andra ta seme-alabak pozez eta maitasunez beterik itxaröten dautsoela, nire biotzean, nire barnean azaldu eziñeko, goibeltasuna, ixiltasuna, sentitzen dot. Arima bat, neureagaz naastau ta erdiketu gura dauan beste arima bat aurkitzeko gurariaz, berdinketu leiteken sentipen bat.

Loraz beteriko landa usaintsuak zearkatzen dodazanean, zugazti orlegi ta kerizpetsuetatik ibilkor, lañotsu izaten nazanean, txoriak euren txio-txio alaiakaz eresitzen dabenean, zerua urdin, ozkarbi dagonean, gizaki ta izate guztia bizkortzen danean, Udabarriaren bizi-erazoa nabaritzen danean, eguzkia sortaldean estaltzen sentitzen dan goibeltasun ixiltasun, kezka, larri-aldi berbera sentitzen dot. Ulertu dozu, Tereza, zein biotz-eragin dan, alperrik azaldu gura dodana?

Nik zuk lez, bezela, gauzak ez dakidaz esaten, baña ondo dakit zer dan ori.

Zer da Teresa?

Ara! Zer izango da ba? Bat gazte danean...

Maitatzea bear da, ez da ori?

Teresa len baño gorrizkagoa zan, eta erdi-irribarrez adierazoten emon gura eban, "Ori da ba kezka" (Gaztelarrez esaten dana, "Esa es la madre del cordero").

Ba ederto, On Mateok jarraitu eban, nire biotzean dan utsunea zuk betetu zeinke.

Baña ez zara konturatzen ni txiro-txiroa nazala.

Baña ni guztiz aberatsa. Maitatu gura nozu? zure maitasuna, nire ondasun eta nire maitasunaren orde, izatea gura dozu?

Nik... Nire aitag gura ba dau...

On Mateo ez zan lejoa ta argi ikusi eban Teresari itaun gelago egitea, beraganako maitasunatzaz, alperrikoa zala ta ixildu zan.

Iturri ganean egoan gaztanadititik, uretan iturrira etorren nezkaitilla bat agertu, eta On Mateo lusailla Teresan burura jasotzen leiakatu zan.

Biar zuzen be, zure aitagaz berba, itz, egingo dot, Teresari ixilka esan eutsan.

Iturrira eldu zan nezkatilea, Teresa ain gorrituta ikusteaz, arritu zan, baña Teresagan maltzurkeririk nok asmatu leikean eta ez da On Mateogan be?

Teresari atsegintsu izan jakon, On Mateoaz izan eban alkar-izketa? Iturrian izan eban alkar-izketa?

Teresaren begitxuak etxeratu zanean, dantzaten egozala, ba dakigu, ta arratsalde osoa abesten eta mendi magaleko basetxera begira emon ebala be. Au da kondairak difioan guztia.

Biramonean On Mateo, Teresaren aitagan aurkeztu zan. Teresan aita bere basetxe aurreko solo baten lanean egoan.

Egun on, Santiago.

On Mateo jauna, zu emendik?

Bai jauna, Indianoren Jauregiko berrizketa-lanaren arremana amaitzen ba dot, ikusi gura dot.

Bertara bizitzen jaitsiteko ustea dau berorrek, ala?

Ez, erriko txiroentzat bertan osaetxe txiki bat antolatu gura dot...

Ondo egiten dau berorrek, ba da Jaungoikoaren urrengoa txiroen babes eta estalpe da!... Ze zoriontsua zuk izan bear dozul...

Zure eskuan dago ni zoriontsua izatea.

Nire eskuan! Zelan?...

Zure alabeaz eskontzeko baimena emoten ba daustazu.

Zu beti txantxelari, On Mateo!

Ez da txantxerik, Santiago, egi berebilla da. Bein baño geiagotan entzungo zeustan, iñoiz eskontzen ba naz, nezkatilea txiro, itxura onekoa, jasekoa, ta deduzkoa izango dala.

Bai, ori egia da, bein baño geiagotan entzun dautzut, baña...

Ba ederto, eldu da garaia, iñor be ez zure alabea bezelakorik.

Baña, On Mateo jauna, nire alabea deduzko, zintzo utsa... ba da baña...

Emen ez da bañarik. Gura dozu nire aita izatea?

Ez dot gura izango ba, On Mateo!... Ames bat dirudi... eziñekoa...! Bai... niri pozen pozez zeozer, zerbait, eragingo daust!... Bedeinkatua izan dedilla gure Jaun eta Jaungoikoa. Urte asko ondoren, ainbeste lan egin eta gero, amesetan beratan be itxaroten ez neba-na emoten daust etal!

Santiago negarra jasan eziñik, bere begietatik tantal pozgarriak izuritzen ebazan. Poz, alaiak, eragindako negar-tantalak.

Barri au, aran-zear arin zabaldu zan, gaba illundu baño lenago, egun ber-beratan danak ekien, naizta apur bat arrituta, guztiak ekien On Mateo Teresaaz eskonduko zala. Pozez, erdi-zoratuta, Santiagok bere barnean ixillean izan eziñik euki eziñak, aurrez aurrez, topo egiten eban guztiei esan eutselako.

Santiagok On Mateo eskertzen eban, baña onek zio onetan eskertasuna alperrikoa zala adierazoten eutsan, Teresak bere diru ta ondasun guztiak baño geiago balio ebalako.

III

Urte erdi baño geiago joan zan, On Mateok Santiagori bere alabeaz eskontzeko baimena eskatu eutsonekik, eta Teresa ondiño eskonge egoan.

Ostera On Mateok geroago ta geiago Teresa maite eban, eta ifioiz baño gogo biziagoa eban beragaz eskontzeko.

On Mateo Teresagaz eskontzeko eragozpenik ez zan, ez da atxakirik be On Mateon aldetik. Ez-eskontzeko arazoa zuzen-bidekoa zan. On Mateo azkenengo sei bat illebetetan, egikisun garrantzitsu ta ongarri batzukaz, guztiz arduratuta aurkitzen zan. Osaetxe barri bat eraiki gura eban eta baita be ibarreko, araneko, eleiza nagusia berriztatu.

On Mateon eskontza egunean izango eban biotz-eragin zoriontsuari, beste atsegin, zorion, bat be izan gura eban, egikisun bi areik amaituta ikustea. Bere gurari bereziena, berak bere diruaz barriztatua izan zan eleiz aretan, bere eskontzea, Teresagaz eskontzea, eleiz barriztu aretako lenengo eleizkizunak izatea, zan.

Alan da guztiz be, erritarrak beira ezbardifetatik begiratuaz, arazoak beste margotakoak ikusten, eta jakifia, len ain goralduko gizona iduki edo zutoitik jaitsi gurean, ezin eben ulertu arima garbi, ongilleak ondiño egon leitekezala. Ori, erletlaren-aztikeria deitzen jakona.

Biotz-olerkariak, ona dira niretzat, ekandu onaren edertasunaz maitamenduten diranak eta gogoketak maite dabezanak, bertsoak egin edo ez egin.

Egun euritsu baten igon zaiteze mendi batera ta erritar ez-jakifiei zin elozue, eriotzeak eroan eutsuen andra batek, onetan orduan, egun aretan zugatzpe baten maite zinduzala esan eutzuelako, ezaiozue, difiot barriro be, otoi ta negar zugatzpe orretan egiftez, atsegin apur bat izaten dozuelako, igon dozuela! Ikusiko dozue zelako barre algarak egingo dabezan; ulertu eziñik zetarako ta zergaitik buztita mela-mela izan zarien.

Beste alde batetik bearrezkoa da esatea, On Mateogaitik marmar ebiltzanak, guztiz oker ez zirala.

Entzun dagiguzan zeintzuk ziran auren marmarketak.

Baño nezkatillatxua, Martak gaztañeditik iturrirantz joiazala, ifiotson Teresari, orain emen bakar-bakarrik gagozan ezkerro, zure eskontzatzaz egin daigun berba, itz, ba da au, zure eskontzea, gauza ifioiz amaitu ezifia da. Sifñistu eistazu, nik ifioiz ez neban uste izango On Mateogan jazoten dana.

Baño ezer txarrik ez ba da jazoten!

Ez da ezer onik be. Zuzen deritxazu, zure aitagan zugaz eskontzeko baimena eske joan zanetik ona urte erdi baño geiago joan da, ondiño zugaz eskondu barik egotea?

Ondiño eskondu ez ba da, zio deun eta on-on bategaitik da.

Ez difiot olan ez dala izango, ta On Mateogan eta ez da zukan be Jaungoikoaren agin-duen aurkako ezereen bildurrik ez dogu izan bear, baño ulertu eizu, konturatu zaitez, askakisun eta min luze, gaiztoak, ludi onetan ugarri dira. ta bat baño geiago ausartu da, On Mateok ez dauala izan ifioiz zugaz eskontzeko gogorik, esaten.

Laster ikusiko dozu, euren eretxian edo gurarian, zein oker dagozan.

Olan uste dot, umea. Konturatuko zara, marmar dabiltzanak, arazo onetan euren zioak dabezela. Baña zurtu zaitez, mutil aberats bat nezkatilla txiro bateaz eskontza eske joaten danean, zio illun, oker, txarto asmatzeko bat beti izaten da, naizta gizon deun bedeinkatu bat izan. On Mateo gizon bat baño ez da, eskongaia, il zan nire izeko batek esaten eban lez; "Gizonezkoak". Onenagaz laba bat biztu dagiela!

Naiz ta zu gai orretzaz ekin eta ekin jardun eta naizta erri osoa marmar ibilli, ni ez naz be irudikor On Mateoaz, ba da ziur naz, Jaungoikoak agintzen dauan bezela maite nauala.

Nik be ba dakit ori, alabatxu, ta gizon zentzundun eta zintzo bat dala, baña alanda guzti be, sarritan neure zalantzak izaten dodaz. Ba dakizu guztiak gara aragizkoak eta aragja biguna da. Beste alde batetik, oldoztu eizu, Jaungoikoak ez daila gura, baña biar On Mateo ilgo balitz. Zelan geratzen zara zu? Galduta, galtzen asi dan zure izen ona, barriro ez dozu zueganatuko.

Orretzaz zuzen zara, Teresak esan eban, nergar-malko batzuk bere begietatik izuritzen zirala.

Egunak joan ziran eta asteak be bai, ta Teresak bere burutik ezin izan eban aldendu Martagaz gaztanaditik iturrira joan zanean izan eban alkar-izketa au. Bitartean Teresa geroago ta makalago aurkitzen zan.

Arratsalde baten illuntsean, On Mateo etxeratuten joanean, oitura eban bezela, Santiagorenean gelditu, laster bere sendia izango zanagaz alkar-izketan, eta Teresa ta Santiagori esan eutsen, zortzi egun barru osaelxea amaituta izango zala ta eleizea be barriro idegiko zala, beratan Teresagaz zekula ta betirako alkartzeko.

Gaba aretan Teresa ta bere aitak pozez beterik lorik be ez eben egin.

Biramoneko goizeko zortzirak inguru ziran eta Teresa apur bat artegatzen asi zan; oitura eban lez, On Mateo goiztarra zan, guztiz goiztarra, egun aretan On Mateo, beti egiten eban bezela, bere etxetik, etxe-eraikitzeko lanak begizatzen ez zan jaitsi, berak ordainduta, bere lepotik egiten ebezan lanak ikusten.

Artega ta kezkatu gaztanadira begiratzen eban, ziurrago esanda, Teresak gaztanadi alboko bide-ziorrera begiratzen eban, eta ara non, On Mateo jaitziten ikusi bearrean, non ariñeketan eta larri On Mateon morroi bat jaitziten, ikusten dauan.

Teresa guztiz artega, ikeratuta, beragaz topo egitera urtenda, zer jazoten zan itaunka asi jakon. Atsekabetuta, ikaraz, jakin eban, otsaiña osagille ta abadearen billa joiala. Bere nagusia, On Mateo, goizentitik makalduta aurkitzen zan eta azkenengo unetan ezbear bategaitik ilzorian egoan.

Apur bat geroago, ibar osoan negarra baño ez zan entzuten, gaztelarrez esaten daben lez "Negar aran bat zan", On Mateo il zalako!

IV

Autularia zentzundun, erispen argikoa ba da, amaikagarren mendean jazokiro egiteak, emeretzigarreneko idatz eraraz azaltzea, ba da guztiz ez-egoki ta naastatzailea izango litzake, ba da non da burugabekeri ta barregarri aundiagorik, esate baterako, adibidez, Rodrigo Diaz de Vivarrek, bere maitasuna Jimenaria itz, berba, oneikaz adierazotea: "Andereño, akitegian zu ikustean izan neban atsegin zoriontsu aretatik ona, Kaskanteko arrasta sua, ta Iparraldeko burdin-bideko su-gurdi guztien sugar beroa nire biotza erretzen dau". Esaidazu arren, nire emastegaia izan gura dozula, bestela zuk erdefiatzen ba nozu, "kalabazak" emoten ba daustazuz, izkillu-danbada bateaz nire burua ilgo dot. Nire garaunen estalkia jasoko dot.

Erritar ez-jakifñak, sarritan bere idatzietan ezelako zeastasun-gabe onelako zaarkeriak erabilten dauz eta ori geinbat zio bi oneikatik izaten da, bata beste era baten idazten, azalzen, ez dakilako, eta bigarren, euren irakasleak diranak ikusirik, idazle-irakasleak diranak, emeretzigarren mendeko gaztelarren aboan, Berori ezarten dabela, amaikagarren mendeko gaztelarren izketan, Zu, "Usted, ezertzeko baimena dabela.

Edestuten noan jazoki au izan zan aran beratako erritar ezjakin batek, On Mateok begiak ixi, ertsi, ebazaneko zer jazo jakon, ber berak, itz, berba, bardiñakaz azalduko dauzuet, ez-ikasiak euren izkeran naaste, zaarkeria, ta funts-gabea zelan erabilten daben kontratu gaitazan.

Ixillik ba, erritar ez-ikasia doatzue berbetan, izketan!

On Mateo il zan, azken ordua eldu jakon eta ludi au itxi, utzi, bear eban.

Eta ni orain nora noa? Il orduko bere baitan On Mateok esan eban. Il nazan ezkeror nora obeto, zerura joango naz. Illak zerura baño obeto nora joan geintez?

Esan eta egin, zerurako bidea artu eban, eta or doa eremu legorretatik zear, aitz, mendi ta baso arantzatsuetatik, zelai ta troka ikaragarriak zearkatuz, zeruko atetara eldu zan.

Atarira eldurik, ate ganean idatz-oar bat ikusi eban ifoala: "Atezaiñaren baimena barrik, ifor ez daitela sartu", baña laukitxu areri jaramonik egin barik, uste eban ludi onetan bezela an be bardin izango zala, norberak gura eban erara ibilli leitekela.

Eee, zalduntxul Nora zoaz?, bere eskuetan giltz-txorta bat eta buruan garaoil itzel bat eukan gizon zaartxu batek itaundu eutsan.

Errege Jauna ikustera, On Mateok erantzun eutson.

Zure zintzotasuna guztatzen jat, egiz, baña ez dozu ikusi atezain-gelan dagon laukia idatzita?

Ze idatzita ta idatzibako laukiak, ate guztietan egoten dira ta orregaitik zer, ifok ez dautse egiten jaramonik...

Ori, atezaiñak euren eginbearrak ondo ez dabezalako betetzen da.

Beteko balebez, beste gauza bat izango litzake, beste oillar batek abestuko litzakie.

Zer diraustazu oillar edo oillarraren buruz, lotsa-gabeko ori? gizon zaartxuak guztiz nekarazita esan eban.

On Mateo guztiz larri egoan sartu arte, leaitu egoan sartzeko, eta ikusirik atezaiña-gandik txarrean ez ebalu ezer lortuko, bere esakerea aldatu eban.

Parkatu jauna, nekarazi ba zaitut.

Ez gaitezan ibilli ziriakaz, olako, txantxeta zalea ez naz.

Benetan egiten dozu ondo olan izateaz. Zure egin-bearrak ondo betetzen dozuz, eta beraz nire gogokoa zara. Orain mezedez, esaidazu, errege Jauna emen da.

Bai jauna, emen da.

Zu beste atezaiñalakoa ez zara, areik Kristo ta ingurukoak be ukatzen dabez.

Ostera be ziriakaz?

Parkatu eidazu jauna...

Parkatu dautzut baña gelago ez dautzut parkatuko.

Arraioa, zelako izakera dozu eel. Ara gizona, erre eizu txorkor bat eta adiskideak izan gaitezan.

On Mateok bere errekin-ontzitik txokor eder bat atera eban, eta aguretxuari emon eutsan, naizta atezaiñak ez erre, artu eban, ba da atezaiñen oitorea ez da emoten dautsenei uko egitea.

Olan dala, zuk Erregea ikusi gura dozu, ez?, oraingoan guztiz maitekero, ate-zaiñak itaundu eutsan.

Zuk zillegiten ba daustazu...

Zure mezua Erregeari adierazoko dautsot, naizta nireztat ille-orde, ule-orde, bat geiago izango da.

Ez jatzu bat be txarto ule, ille-orde bat etorriko, On Mateok bere baitan ifioan.

Zelan dira zure izen, abizenak?

Emoiozu mezedez txartel au.

Arraioal txartela irakurtean, atezaiñak esan eban. Nik izan neban lagun baten izenki-dea zara, eta zuzen be idazlea zan. Beste ezergaitik ez ba da be, orrexegaitik beteko dot zure naia, guraria.

Atezaña idazgelara sartu zan eta une batzuk geroago, On Matoaz izan zan.

Neureak izan dodaz beragan aurkeztu zaitez an lortzea ta ganera ain goiztar, baña azkenean emon daust baimena barrura igaro zaitez an.

Milla esker, ta ara emen beste txokortxu bat bazkal-osterako.

Atezañak idegi eban atea ta On Mateo beste barik, beingoan barruan izan zan.

On Mateo Erregeaz aurrez aurrez aurkitu zanean, asikera arrituta geratu, baña gero guztiz ona zala ikusirik, barrero bizkorturik arnas barria izan eban.

Jauna, ifiotson, ni nentorren...

Emen, baztertxu baten eske, ez?

Zuzen be, orretantxe jauna.

Bai, bai! Kokolo, ergel baten bezela!

Bakoitzak al dauana egiten dau...

Eskatzen daustazuna pozik emongo neuskizu, baña ezin dot, lenago egin-bear txiki-txu bat bete bear dozu.

Zein, Jauna?

Iru bat egun garbi-tokian emon bear dozuz.

Ze erru dot ba, Jauna, ze gaiztakeri egin dot?

Urte erdi baño geiago nezkatilla zintzo ta deduzko bat, astia galtzen bere kaltean izan dozu.

Baña nire asmo txar-gabe izan da Jauna. Nire guraria ez zan izan Jauna berari kalterik egitea.

Orreelan izan ba zan, inpernura artez-arte, zuzen-zuzen, joango ziñakez.

Eta arazo ori baztertu, eztaidutzeko ez dozu eskubiderik, oben txiki au ez zeinke ez-jakin egin?

Emen ez da egiten ez-jakin eta ez da be ez-ikusirik, uste dozu an beala zagozala?

Ondo dago Jauna, zigorra berorrek gura dauan bezela beteko dot.

Ikusi dagizun on-irizten zaitudala ta zure egikisun onak gogoan dodazala, beste batzukaz egiten dodan bezela, epaillerik epailla, auzietetik auzietxera ibilli bearrik ez dozu izango.

Jaungoikoak ordaindu daitzula, Errege Jauna.

Zin egiten daustazu, artez, zuzen, zure elmugara joango zarala?

Bai, Jauna.

Aurrera ba, joan zaitez.

Jaungoikoa zugaz izan dedilla.

Joan zaitez gure Jaunagaz, gizona.

V

On Mateok zerutik urten baño ez eban egin, bera baño sei egun lenago il zan auzokide bateaz topo egin eban. On Mateok gizon au zeruan egoala uste eban, ba da danak izan eben gizon zintzo ta deuntzat.

Auzokidea pozik eta alai etorren.

Zu emendiki arrituta On Mateok esan eutsan, nondik zatoz?

Garbitokitik.

Etá zelan itxi, utxi, dautzue urteten?

Neure zigorra bete dodalako, ara emen daroat txartel-agiria, nire azkatasunaren txartel-agiria, girgil batetik dindilizka eroan tutulo bat erakutsirik, esan eutsan.

Aldi laburrean, asti laburrean, garbitokian egon zara.

Aldi laburrean diñozu!

Geien be sei egun bat.

Sei milla urte gitxienaz!

Etorkisun ederra nirea! On Mateok guztiz arrituta berantzat iñoan.

Oneri sei egun, sei milla egun eretxi ba jakoz, andik ez dago gauza lar oniki

Eta bere bidean jarraitu eban.

Urrats batzuk ibilli ta gero, guztiz arrigarrizko toki bat aurkitu eban, toki, ikusi-gabeko berezia; zugatz eta lorez inguratutako lurralde, iturri ur gardendunak narotua, baña an dana zan zeatz-gabe, goibel, bardifiak argia ta ura, bardin zugatz eta lorak.

Argia illunki zan, lorak usain eta margo-gabekoak, zugatzak ez eben kerizpe ez igalirik emoten, eguzkia bero-gabea ozkirria.

Lo-zorro baten sentitzen dan zorion antzekoa, baña bat batean logaitz baten izaten dan makaltasuna, naigabea.

Millaka ume landa zabal baten ara ta ona ebiltzan, ez alai ez goibel.

On Mateok laztandu ebazan, ontzat artuak izan ba ziran be, alaitasunik eurakan ez eben adierazo.

On Mateok lauко batzuk gozokiak erosteko emon eutsezan, eta ajolagabe artuak izan ziran.

On Mateok laranja batzuk be bota eutsezan, eta arrera bardin-bardifa izan eben.

Azkenean, On Mateo euren artean sarturik, zuzen eta gudaritzaz itz, berba, egin eutsen, uste eban onelan bera be euren taldekidea izanik, umeak adierazoten eben ardura-gabea, errez gainduko ebala, baña guztia alperrikoa izan zan. Eurak ez-entzun bezela gerezten ziran.

Goiko zeru aldetik agertzen zan argitasunak uts utsean euren barneetan biotz-eragin goibel bat sortzen eban.

Ze izaki ain bakanak! On Mateok esan eban. Ez gorputzen ez arimetan be ez dabe ez bero ez otsiki! Umiltokiko umetxuak dirudil

Gure txangolaria bere bidean jarraitu eban, eta bere aurrean eukan ikuspegira begiratu.

Lurralde aretan bide ezbardin bi ikusten ziran, eta euretatik aran ezbardin bitara eltzen zan.

Ibar biak benetan ziran ederrak, batez be ezkerrekoa, atsegin-toki bat zan Jakiña, loratsuen, ba da garbi-tokirako bidea itxaropen lorakaz ondo apainduta guztiz orniduta egoan bear dau, eta izan be itxaropen-lorea loraerregiña da, ostera inpernuko bidean lorarik ezin leiteke egon. Beraz, ezkerreko bidetik joan gaitazan, loratsuen da ta.

Esan eta egin.

Bide a benetan zoragarri, lilluragarria zan, oiñak erreztasunik audienagaz, bigun-bigun, leun zirikatzen ziran.

Zekulako edertasunez beteriño lorak, lilluragarriak eta igali gozo ta urtsuak bazter guztietatik ugari.

Soñua, eresi bigun, txukun, amesgarriak entzumena gozotzen eben.

Lorategi areik zearkatuz, iraurdura polit apatzean atsedentzen egozan emakume eder eta eragarkarriak, txangolarriak bertatik igarotean maite-araziz agertzen ziran.

Egoitz, pabelloi, arein kerizpean, jakirik bikain, gozoenakaz usain eta ikusmenean gozotasun-zoragarri-eragin sortzen eben.

Deabruak eta bere izenean, edo bere orde zizonak asmatu, ikertuko atseginkeri guztiak, eta batez be emakumak ikertuko atseginkeri guztiak gizasemeen ondamenerako, edo ondamera izan daiten, lurralde aretan aurkitzen ziran.

Oo! Jaun eta Jaungoikoal, On Mateok esan eban. Zein ulertu ezifiak dira zure egikisunak gizeseme ez-jakin arrunt batentzat! Zure jakiturian nik lez sifisten ez dauanak, eta nik bezela zerurako bidea legor, atsekaitz eta garbitokiko bidea errez, lillurakeriz beterik ikusi dauazanak, zelan Jauna, sifistutu al izango dau, bata ta bestea, biak, jakituri berezi, zekulako, baten egifiak dirala?

Ainbeste edertasun, ainbeste gauza lilluragarri, ainbeste atseginkeriaz, On Mateo iguindurik aurkitzen zan, baña onetan, bereala ustegabe, lora usain eta margotsuen orde, sasi ta arantzak agertu ziran, zugatz kerizpetsu orde, zugatz legortu, illak, iraun politen orde, aitz gogorak, egoitz eta pabelloi, loratsuen orde, aitz-zulo illun, ikaragarriak, soñu lilluragarrien orde, basapiztien orro ta suge-txistuak.

Ara, agertu da agertzekoal! On Mateok ikeratuta ifoan. Bere aurrean etxe illun, zaar bat ikusi eban, bere ate ondifo illunagotik bikea bera baño be ke illun baltzago bat, zunde, ats, iguin bat lagun ebala, urtenez.

Etxe ikaragarri aretatik, alfeka izugarriak, orroak, biraoak, zemankutzak, zartadak, deunbadak, kaldera-irikiteak, ortz-karraskadak entzuten zira eta jasan ezifeko erre-usain iguingarri bat lagun zala.

Ara emen garbitokia! On Mateok ifoan.

Eta etxe zaar aretarantz abiatu.

Atera urreratu zanean, etxe aretako atera, saltu bat egifnez oinkada batzuk atseratu zan, iragantzeko indar-gabe sentitzeaz.

Quid faciendum?, itaundu eban. Onean sartzen ez ba naz, baleiteke or barruan dagozanatariko anbatek narraz sartu-erazitea, ganera zartada bat artuta eta bear ba da nire zigorra egun batzuk geiagotuz. Beste alde batetik, beti gizonakaz berbakoa izan ba naz, Jaungoikoaz gizon-galdu bezela, berbagabea, itzgabea, agertuko naz? Ala, aurrera ta Jaungoikoak gura dauana izan daitela!

Au esanik, abiadea artu, xixi, ertsi, begiak eta... batera! biral irural... inpernu lupe aretan sartu zan.

Izta baten sentitu ebazan izugarritzko iru aginkada ta bereala arpegian adarkada itzel batek eraginda, bere bizitzan lenengo izaneko oben txikia bere arimetik botatzeko naiko izan ziran.

Begiak zabaldu ebazanean, nongandik arrera ain ona izan eban jakin gurean, konturatu zan ate bazterrean egoan txakutzar batek, iru burudun txakutzar bat zala, bere buruan, bekokian adar ia neurkin batekoak eroazala.

Zure amaren auntzari, adarkadak emon bear zeunkioz ta txakutzar ori lotuta euki! On Mateok arduradunari esan eutson:

Ez zaitetz asi nigaz kukurrukuka, ba da zartada bateaz zure soin osoa zaituko dautzut. Ba dakizu nogaz berbetan zagozan?

Deabruaz, Jaungoikoak parkatu daistelal! Pizti bat zaral! Apur bategaitik begi bat ez daustazu ateral!

On Mateok au esan orduko, eunkada urkatzaile euren sarda, igetel zorrotz, kate goritu, bike irikitu eta beraun urtuaz, barre-algarak egifilik bere ganera jauzi ziran.

Adardunak eurakaz orman jo eban, sarata izugarri bat etxe aretan egifilik eta On Mateoganantz gorrotzko bitsetan zigortzen joiazan urkatzaile guztiak geldi-erazi ebazan.

Porakaillo oneri, ifioek neure baimen barik ez daiotsola ukaturik egin!, adardunak ifioan.

Zuzendari jauna, zure agindua betetuko dogu, apal-apal urkatzaileak esan eben.

Bakoitza bere lekura itzulirik, arteroko zeregiflean jardun eben.

Naizta adarkada gogor bat jasan bear izan, On Mateok arduraduna, urkatzaile pizti areikandik gaizkatu ebalako, eskertu eban.

Ez dago zergaitik, erantzun eutson. Zugan zeozer, zerbait, berezia nabaritzen dot, emendik etorten diran beste batzukan nabaritzen ez dodana, baña oltza aretan bere obenak ordaintzen dagon epaillea jauzi zan gaiztakerian ez neuke jauzi gura zaitzezan.

Zuzendariak aitatu eban tokira begiraturik, urkatzaile batek, zelan soin-ganekodun bateri makilla aundi bateaz zartada itzelak emoten eutsozan, abotik kanpora miña atera eragifitez, On Mateok ikusi eban. Bein eta barriro egiten eutson zigorketa au. Apur bat bere makaltasuna arindu orduko, barriro urkatzailea an zan bere makilla ikaragarriaz zigortzen, baita be zigortzaile-lagun bezela suge-zital, bibora, eskutada bat suge-zital saman ezarriaz, erabilten ebazan.

Ikuspegi izugarri aretatik, On Mateok bere begiak aldendu ebazan, eta guztiz arrituta itaunka ifioan:

Ze oben itzal izan dau zorigaiztoko orrek, olan zigortu dagien?

Ilitzeko, urkatutako, epaitua egoan gizon baten eriotzea ordu bete aurreratu eban; ilda, urkatuta, ordu erdi geroago, bere parkamentxartela eldu zan, eta orain, gizon baten eriotzea ordu bete aurreratu ebalako, betirako oiñazea dau.

Izugarria da zigorra, baña zuzena da, ba da epaille batek parka-zalea, biotz biguna, izatea oba dau ta ez gogorra, zorrotza.

Baña gizona, olako abururik ez eizu mezedez edatu zabaldu; erri nastaille, asaldari diralako. Beste alde batetik etxe oneri orain arte irabaspide onak galdu-eragin dautsoz. Esate baterako atzo, ia ziurkin genduan beste epaille batek iges egin dausku, eta zergaitik uste dozu? Ilitzeko ogendunaren eriotzea ordu bete atseratugaitik, ba da bere parkamena, berak "Bere seme bakarra" esan baño lenago eldu zalako. (Antziñako legetan, ez dakit oraingoetan olan izango ba da epaituak "Sifisten dot" otoitzean eta bertako berba, itz, oneik esaten ebazanean "SEME BAKARRA", orduan urkatzaileak bere lan negargarrian asten zan).

Andra-gizon baten oiua ikaragarriak alkar -iraintzen entzutean, On Mateok eurak egozan tokirantz begiratu eban. Gizon eta andra bat alkar lotuta kate gogor batzuzak, kateak

euren gorputzaz, bien soñak, inguratzen ebazan, biraka bat baño geiago emonez, txillio ikaragarri batzuk, minduz egifñik, kizkeltzen sutan egozan.

Orreik, zuzendariak esan eutsan, maitakeriz alkartutakoak ziran.

Eta zer! Obena da maitatzea?

Maitetasuna ez, baña maitekeria bai. Azalduko dautzut. Or ikusten dozun gizon ori eskondua zan, eta bere laguntzailleak, naizta jakin bere egoerea, ez eban zalantzarik beragaz batzeko. Eriotzea eldu jakonean, bere andrea alakoa edo olakoa ta ez dakit ze beste gaiztakeri bere andreagaitik esaten etorri jakun; baña Jaungoikoak berandu, belu, zala olako berba, itz, damugarriakaz etorteko ta ona bialdu euskun, eta bere adiskide, andreagaz, bardin egin eban.

Ooo! Ze bizikidetasun izugarria!

Zuk be emen izango dozu emakume eder bat beragaz zure neke ta samifñak ainbanatzeko.

Nik? Nor?

Nor? Teresa.

Teresa ain garden eta deuna da ta...!

Bai, ez difñot ona ez dala orain, baña esango daustazu, zuk ezarri zeuntson aomenagaz bere baitan ba difño, "Deabruak naroan ezkeru, zaldi-burdi eder baten eroan naiala".

Emakume ori zuk ez dozu ondo ezagutzen.

Andrazkoak ezagutzen dodaz, ain ondo ze, etxe onek eurakaz arreman onenak beti egin dauz, eta egiten dauz be.

Ba, naizta danak gai onetzaz Teresagan zalantzan izan, berantzat bere barne aitormena, naiko izango da.

Bai egia da, norberaren barne-aitormena ondo dago, baña andrazkoak zeozer, zerbait, geiago bear dabe. Eta dirautzudana baieztatzeko, or dozu katedun ori, ez dot uste txarto itxiko nauanik. On utsa zan, obengabea, baña senargai bat izan eban, asmurik onenagaz joian mutil gazte bat, maitalea; baña senargaiak gaurko biariko itxita, atxaki funtzezko barik, alkar eskontzea larregi luzetu eban eta ustegabe egun baten eriotzea eldu jakon. Nezkatilea urteak joan urteak etorri eskongei egoan eta mutil gazte bat be ez zan beragan urreratzen, berba, itz, maitegarri bat esaten. Lenengo entzun ebazan berba itxaronpetsuak eskondu batenak izan ziran eta berak egifñeko "enbidori" nezkatileak "gura dot" erantzun eutsan.

Egoitz izugarritzko aren zuzendaria olan berbetan, izketan, ikustean, On Mateok izan eban samintasuna, biotz-miña, su-garrez lotuta aurkitzen ziran maitakeri zale areik euren gorputz eta baita be arimetan sentitzen eben miñ, atsekabeaz uts utsean bekaldetu eitekean. On Mateok zuzendariari itaundu gura eutsan, emakume aren lenengo gizon maitakeri-zaleak egin eban.obenagaitik, baña ez eban izan ausarte naikorik, ba da bestean erru larregioa bere erru aunditzea zan.

Ara, zugaz dodazan zalantza batzuk argitzaritzen noan bitartean, etxe au begiratzen jardun eizu, ba da ondo izango dozu emengo bizieraz etxekotu zaitez, olan gero ez jatzu ain neketsua izango.

Au esanik adarduna aldendu zan.

Naizta On Mateo etxe aretan ordu lauren bat bakarrik egon eta kalte guztia aginkada batzuk eta adarkada bat izan, mende oso bat bertan emon ebalá eritxon.

VI

Edestu dagigun On Mateok etxe aretan astia zelan emoten eban. Bitartean bere obenaik espetxean aurkitzen zan zuzendariak, bere idazgelatik telegrama baten bitartez, adierazoten eban:

"Nire zuzendaritzapean dan espetxe onetan, On Mateo deritxon gizon bat oraintxe sartu da, eta bere bekokia ez-onartuen oarrik, ezaugarririk, ez dakarren ezkerro, erabagirik ez dot artuko, beste telegrama, zuen telegrama baten bitartez, zuen auzibideak artu arte".

Nabaritu eizu, irakurle, zelan idatz-lan onetan oiturako dan "Dioz guarde", Jaungoikoak zaindu zaidazala ez dala agertzen. Gu be nabaritu gara, baña goazain ipuiflagaz aurre-ra.

On Mateo bakarrik aurkitu zanean, zelako eguraldia zan ikustera joaialan atxakiaz, atera urreratu ta iges egitea bururatu jakon. Ospa egitea, baña atean, an, bere agin, ortz ikaragarriak erakutsirik, eta bere begi zorrotzakaz jan gurean, txakurtzar bat egoan.

Orduan iges egitea alperrikoa zala ikusirik, etxea zear, bazter guztiak ikusten asi zan.

Bereala gizon bigaz topo egin eban, bata deabruaz liburu bat irakurten egoan, eta bestea margo-lauki bat begirutzen. Deabruaren aginduz egiten ebezan lan oneik.

On Mateok liburuan orri bat irakurri ta margo-laukiari begirakada tolesgabe egin eutsan, eta naizta elertitzan azko ez ulertu, ez da be elerti-ederratzaz, orrelako liburuak idatzita ta margo-lauki arek margotuta ikusi bear izateak, guztiz naigabetu zan.

Gizon areik miñen-miñez, jasan ezifñik, biorkadaka egozan, biak oiuka, biak biraoka, liburu a irakurte-zigorraren parkamena biak eskatzen eben eta baita be lauki-margo a begiratzeko parkamena, zigor orren orde, bike gori-gori baten uger, iger, egiñez, alda-ordaindu egiela zigor a, segundo baten arriak eurak be kizkaltzen ebazan laba baten sartzeaz, edo alboko espetxe-gela baten egoan amagiñerrabeaz bizitzen zigortuaz.

Nortzuk dira gizon orreik? gidari-antzeko topo egin eban bateri, On Mateok itaundu eutsan.

Orreik; erantzun eutson; idazle eta margolari uztel, gaizto bat izan ziran, eta il ziran, Jaungoikoa eurakaitik ez zan errukitu. Elerti ta goi-argiaren bikaintasunaz gizartea lilluratzeko jaió ta bide ori artu dabenak, euren gai-eztasun eta txastamen txarragaitik gizartea oñfizatzen ba dabe ta euren egien-bearrari uko egin, olako gizasemeak zigor gogorraren jabe dira. Jaungoikoak eurari ezarritako zigorra, ez da izan besterik tsastamenen osogunea emon eta euren egikisunak begiztatzera saiatu-azotea baño.

Au entzutean, On Mateok zigorraren gogortasuna ulertu eban, zorigaiztoko gizon arein zi-

gorraren gogortasuna, eta guztiz errukiturik: Españan arkatza ta ixatsa erabilten daben askontzat geroragotuta dagon zori izugarritzaz gogoratu eban.

Orain, ba deritoxozu, gidari-antzekoak esan eban, Pedro Boteron galdarak ikusten joango gara.

Ixildu zaitez! On Mateok ausnaurtu eban. Nik uste izan neban, Pedro Botero inpernu-ko berezitasun bat zala. Ara bai, orain ikusten dot zer dan, emen galdara arduradunari irudi, antzagaitik izen ori emoten jako. Bezerienen izenak, arrunt-ondokoakaitik nabaritzen dan apetagaitik, Españen zear apeta orrek "Puertas del Sol" eta los "Tios Vivos" gelagotu dauz eta ludian zear Suizos eta Humes akeitaetxeak.

On Mateo, bere gidaria aurretik joiala, galdera saillara igaro zan eta bertan Pedro Botero ezagutu, bere langillei bear, lan, gogorra eragiten.

Langilleak deabrua bera baño be itsusiagoak ziran eta neurri guztietako galdaratzar lerroan ezarrita egozanak sugarrez elikatzen jardunten eben. Galdaratan guztitariko meatz eta naslika irakitzen egozan.

Galdara bakoitzan gizaseme bat erre edo egosi egiten eben.

On Mateok lenengo galdara bietan begiratu eban, euretariko baten izugarritzako aien-oiuka samaraño sartuta egoan gizon bat ikusi eban, eta bestean garriraño sartuta beste gizon bat.

Nortzuk dira zoragaiztoko bi orreik?, gidariari itaundu eutsan.

Garriraño sartuta dagona, laterri baten jauntzargo zan, eta samaraño sartuta dagona laterri ber-bera, azkatu ebana, beraz erri gaizkatzailea.

Eta zergaitik zigortu dabe gaizkatzailea?

Bere azkatasunagaz erria, besteak jauntzargopean, bere basatikeriaz izan eban aifako zoritzarrekoa egin ebalako.

Eta basatia zergaitik dago garriraño bakarrik sartuta, ta beraz zigor txikiaoz?

Besteak, gaizkatzaileak, izan ez eban egi-zaletasuna berak bai ebalako.

Egoitz izugarritzako ataritik sartu zanetik ikusi ebazan oiñaze ikaragarriak eraginda, On Mateo guztiz nekarazita, makal, itun aurkitzen zan, ta ikustaldi luzatzeko gogoia galdurik, begiak ertsi, ixi, ebazan eta etorri zan lekutik barriro itzuli.

Baña gizona, gidariak esan eutsan, ondiño onena ikusteko ba dozu!

Ez dot gelago ezer ikusi gura, On Mateo erantzun, ikusi dodanagaz, garbitokiko nairgabe, miñ, atsekabeak paratzen nago.

Baal! Ixill, gidariak bere eskuak espanetan ipiñirik geldirazi eutsan. Ixildu zaitez gaizto ori, ba da zuzendariak entzuten ba zaitu, toki ori aitatzen nabaritzen ba zaitu, galdua zara!

Zein tokiagaitik diñozu?

Ori aitatu dozun ori. Zuzendariak bere izena aitatzerik be ez dau gura, ba bera da gure bezerorik onenak kentzen dauskuna.

Kenduko dautzuena inpernua izango da.

Zer diñozu inpernua izango dala, inpernua au ba dal!

Zer? Zer diraustazu? On Mateok, atserantz saltu aundi bat egifiik eta arretaz adi-adi zer esango dauan entzun gurean, esan eban.

Zelako gorra zara jauna, ala zure entzumena alaitzea gura dozu? Ipernua au dala dirautzut eta olan da.

Inpernura ankaz aurrera sartu zala konturaturik, beragan sortu zan izugarritzko bildurra, azaldu eziñekoa da. Zekulakoa itz, berba, areik beragan izan eben biotz-eragiña.

Aaa! Neuk dot erru guztia, astoko, ergel bat izanagaitik! marmatzen eban, ingurako gizasemeak erruki-azoten ebazan izugarritzko ukubilkadak bere bularrean emoten ebazan bitartean.

Baña astokillo onek, zelan artu neban ezkerreko bidea, eskumako artu bearrean? Zelan ez nintzan konturatu, zalantza barik inpernuko bidea, garbitokikoa baño loratsuago izango zala ta baita be garbitokikoa, zerukoa baño loratsuago!

On Mateo bere zoritxarragaitik, olan aienekatzen zan, bere eskuetan telegrama bat eroala zuzendaria agertu zanean.

Txistu baño ariñago emendik ospa, iges egin bearko dozu, Barrabaz bat egifiin esan uteson. Idaz-gela onetan, zu zargoi bat zarala adierazoten dauste.

Bigarrenez esan baño lenago alde egingo dot, geiago ez nozu emen ikusiko.

Ospa emendik bal!

Ez zaitez larritu, ziur egon, zure agindua betetuko dot. Zure arpegia ez ikusteagaitik uts utsean balitzake be, joango nintzake!...

Adarduna izakera petralezkoa zan, ta On Mateori adarkada bat emon gura izan eutsan, baño gidariak, On Mateogandik eskupeko errege siñesgabeko irudi dun txanpon bat artubarria zanak, bitartetuz, naizta olako egikisunak galazota izan, eta zuzendariak ez eban egin besterik, ate aurrera eroan, ipurdian ostikada eder bat emon eta txakurra uxatu, onek aginkada batzukak prakak urratu egiozan.

VII

On Mateo inpernura sartu zan bide beratatik urteten abiatu, ba da, inpernutik garbitokira zearkatzeko ez egoan beste biderik, ori da sarrera tokira urten bear eban, zerura ta oben-ordaintze bitartean ziran lurraldeetara.

Prakak apurtuta eroazan lez, bildur zan, umeak alan ikusirik barreka asiko zirala ta. Baña ez, umeak apur bat berak lenago itxi, utxi, ebazan edo ikusi ebazan leku ber-beratan egozan, eta naizta itxura ain barregarri aretan ikusi, ajolagabe begiratu eutsen.

Ia zeruko atetan aurkitzen zanean, argitasun berezizko burutasun bat izan eban.

Garbitokiko neke, samifiak, igaro dodaz, esan eban, eta nok daki, Jauna guztiz errukigarri ta ona izanik, guztia bere gogoan izatea gura izango dau, naizta guztia neure ergel, ketokeriagaitik izan! Emen nagon ezkerreko bere biotz errukigarriarrean apal-apalik parkamena eskatuko dautsat!...

Eta arraioa! Ezetz esaten ba daust, garbitokiko bidetik atsekabetua ta eroapenez abiatuko naz eta nire erruak ordaindu, esanez: "Jauna, zure gurari, nai, deuna bete daitela!

Barriri On Mateok; Epaille-Nagusiagana aurkezturik apal eta errukior parkamena eskatu eutsan. An bean ludian negarrez eta bere ondamenen arriskuan geratu zan nezkatilla garbi errugabekogaitik, bera be bere gogoan izanik, ludiko gaiztakeri guztietatik babestu egiala, eskatu eutsan.

Nire aurrean linurkeri bateaz, Jaungoikoak esan eutsan, aurkeztatu zara; naizta oben argala izan, galazo eustan eta orain be galazoten daust nire alboan ezarri zaitez; baña zugan jazokisun berezi bat egingo dot, guztia aitzutzat izango dot eta baita be zugaitik eta baita be zure erruz, errukigarrizko otoitzez negartzen zaitunagaz. Itzuli zaitez ludira ta bertan onbide, biurture, ta damutasunen bidez garbitu zaitez ta zerua alaitu, poztuko, da, egun baten zu ta zure biotzak aukeratuko nezkatilea, nire alboan jezartzen etorten ba zarie.

On Mateo amesetan bezela, illuntasun ikaragarrian aurkitzen zan, uste eban guztiz ezagun egiten jakozan lurraldetatik zear joiala eta azkanean geldi-geldi geratu zan.

Izugarrizko ots batek bere gorpuzki guztiak eta bere adimena be baldartuten ebazan.

Bereala paitar bero tantal bat bere ganera izuritzen nabaritu eban eta bere matraillean, espan bigun eta gozo batzuk laztantzen. Bizia barriri beragan alkaturik, bere gorputza ta adimena bizkortu, begiak idegi ebazan eta bere oiua emakume baten oiugaz naspillatu zan.

Mendiko basetxean, bere gelan, egoan, eta Teresa, poz eta lotzez dardaraz bere alboan.

Birgiña garbi, on utsa, illaren matraillean mozu ta negar-tantal bat ezartzen il-gelan sarturik, illa, gorpua, negar-tantal deun arek eta mozu deun arek eraginda, berbiztu zan.

Sinismengabeen filosofitzat, azaldu ezinikoa da, Kristoaren abotsari men eginiñik, illo-bitik Lazaro jaso ta berbiztutea.

Erritar ezjakinentzat be, obengabeko birgiña baten mozuak, gorpu bat bizitzara biur-tzea.

Jaunak! Eskerrak, ludi onetan erritar ezjakiñak eta filosofoak baño apur bat gorago ezarri gaituzulako!

Erritar ezjakiñentzat, On Mateo estrepu batetik itzulikoa zan, osagilleak berak be, bere bizia orrelan galdu ebala, uste eban.

Zortzi egun geroago, abadearen oiñetan, apal-apal makurturik, Teresagaz betirako, eskontza deunaren sakramentuan, alkartzeko, otoiz eginiñik eta parkamena eskatuz, bere ari-mea diñot, gertatzen eban. Eta une onetan edestu dogun kondaira arrigarria abadeak entzindu eutsan.

Seme, abadeak esan eutsan, guzti ori ames utsa da, gaixo baten il-ametsa; Jaungoikoa golegi da, lurrako gauzak zerukoakaz antzekotuteko, baña ames ori eragin dautzuna bedeinkatu eizu, beragaz ikusi al dozun ikaskai ongarrri ori, ifioiz aitzu ez dagizun.

TXAKUR BALTZA

Mena aranetik jaitsitean, bideak, Bizkaiko Enkarterri zearkaturik, Castro Urdialesen dau bere azkena, baña bizkaiko lurraldetatik urten orduko, Otañez mendi deritxon lurralde basati ta bakar-leku arrigarriak zapaltzen dira.

Ain pikea da aldatz-bera, ta mendian agertzen diran trokak ain sakonak, lubeta, terraplen, ta arresi ikaragarriak beti biraka egiftez, Otañez mendia zearkatzea al izaten da.

Bakartasun aundienatariko baten; au da, erdiko trokara uriolak izuritzen diran baztarra zeartzen dauan bidean dagon bide-ukondo baten zurezko kurutze bat aurkitzen da. Izugarriko bakartasun aretan; antziña jazoriko gertaera lastagarri bat gogoratuz.

Mikel, mutik giputz alai ta langille bat, uriol ostein dagon gurbiztegian Udabarriko goiz baten agertu zan; mendi aren, mendizka aren, tontorrean txabola bat eraiki eban, eta biramonean gurbixak ebagi ta ikasgiñan asi zan. Bertako ikatza, egur-ikatza, Otañez, mendi beratetik urtekeran eta bere izena daroan errian dagozan burdiñolatarako zan.

Bere amaibako abestiakaz Mikelek bakartasun a alaitzen eban eta Eguen eta Igandee-tan Kastro Urdialesera joaten ziran nezkatilla-ogizaltzaileakaz izaten ebazan izkintxu edo li-murkeriakaz eta baita be bertatik igaroten ziran gizasemeakaz izaten eban alkar-izketa mamintsu ta txeratsukaz.

Alde aretan Kastrora joaten ziran nezkatillaren artean, Sopuertako nezkatilla guztiz eder bat aurkitzen zan. Mandotzar bat traillan eroala ta txakur txiki baltz bat lagun, egun-sentian Eguen eta Igandero, Kastrorantz joanez Otañez mendia zearkatzen eban, eta bere etxera Sopuertara sartaldean eguna illundu baño lenago itzuli.

Mikelen txabolea bide-zior baten aldamenean, mendizka tontor baten egoan.

Goiz eta arratsaldero Mikel eta Agustina, au zan Sopuertar nezkatiil ederraren izena, alkar-izketan jardutzen eben bitartean, txakur txiki baltza, urtxintxa, ardilla, bezela bizkor mendi-gora igoten eban, Mikelek gordeten eutsan ogi zatia jaten eta eldukuran egiten eban-zan txera bardin-bardiñakaz, Mikel agurtzen eban.

II

Igande arratsalde baten, Mikel bere txabolan atsedentzen egoan, aurrerako gabean ezin egin izan ebazan loak beraganatu gurean; ba da gaba aretan ikatz-txondor bat amatau ta aterpera eroanez, babestu bear izan eban.

Zaldi ganean prantsezta kaldereru bi, Enkarterrirantz joiazala, uriolak izuritzen ziran birakan bertan agertu. Eguraldi sargori ta eguzkitatik iges egin gurean, bide-ziorra kerizpetzen ebazan altzapetan gelditu ziran. Izerditan eta guztiz nekatuta etozan.

Toki aretatik, Mikelen txabolea ezeze bidearen gañferoko zatia be, biraka-biraka mendi magaletik jaitsiten, ibai sakonunetatik jarraituz, errekatxu bazterretik eta gaztanedi kerizpetsuak zearkatuz, Otañezko lenengo etxeetaraño, ikusten zan.

Prantsezta euren zaldietatik lotura batzuk arturik, alboko barrutitu baten zaldiak itxi, utxi, ebezan jaten eta bide-zior alboan azkaltzen geratu ziran.

Lengo egunean, emendik igaro giñanean, kaldererutariko batek esan eban, an goian ikasgille batzuk egozan. Non egongo ete dira gaur, ba da ez da iñor ikusten?

Gaur igandea dan ezkeru, Otañezera soñekoak aldatzen joango ziran eta bide batez kuartillutxu bateaz, eztañiak ikatz-autsetik garbitu, erantzun besteak.

Ala, guk be garbitu dagiguzan geureak bideko autsetik, giar apur bat eta zurrutada bat edo beste egifiaz.

Esan eta egin, prantseztañiak giar zati on bana gozoro jan eben eta satoa bein eta barru estutu be, apurka apurka alaiturik.

Ikatzgilleak euren txabolean ete dagoz lo, euretariko batek iñoan.

Ikusiko dozu, ze arin jakingo dogun, besteak erantzun.

Eta eskua dei-adarraren antzera agoan ipiñita, oi u itzal bat egin eban, ikatz-gilleen bazkaria, sukalaria burdiñezko pala bateaz erreten ebazan arto-opil batzuk eta lapiko baten babak urdai ta zezifagaz, janari au gertuta dagola ta jaten etorri eitekezela, ikatzgillei dei egiten eutsen antzera.

Añuuuu!

Kaldereruak ez eben izan erantzunik.

Ez zaitex nekatu, gizona, lagunak esan eutson. Ez dautzut esan ba ikatzgilleak gaur arratsaldean, arrastian, Otañezen dagozala?

Gaur zubitxu orretaik igaroten diran guztiei zubi-zaria eskatzeko, egun amesetan be asmau ezin ohea dala, ez dozu uste?

Baña txarrena da, iñor bertatik igaroten ez dodala ikusten.

Ixildu zaitez, zubia igaroten norbait ba doala, uste dot.

Alan zan, an, bekaldean zaldi baten txilin otsa ta nezkatile baten abesti alaia entzuten zan.

Ikusi gurean kaldereruak jagi ziran begiratzin, eta egia zan, zubirantz mando eder indartsu ganean eta bere atsetik txakurtxu baltz bat joiala, nezkatile bat etorrela, ikusi eben.

Ogi-saltzaille bat da, prantseztartariko batek esan eban.

Iru edo lau ogerleko barik ez da etorriko...

Guk gure lanean, iru edo lau egunetan galdarak konpontzen irabasten ez doguzan ogerleko orreik.

Ez deritoxo nezkatile artoa dana?

Oba baño obeto.

Mandoa be bikaiña da.

Nire astuntasuneko gizon batek bear dauan aifñakoa.

Dirua, nezkatile ta mandoa... mantxunga irukotxa.

Prantseztarrak alkar-izketan jardun eben, baña ixillean, nezkatile ogisaltaillea ur egoan eta.

Mikell Agustifñek txabola aurretik igarotean deitu eban.

Baña Mikelen erantzunik izan ez eban lez, aurrera jarraitu eban.

Txakurtxuak txabolara igon eban eta beratar sarturik, Mikeleri txera batzuk egin eutsosan, baña au lo-gogorrean egoan, gero bere ugazaba, nezkatiletxua, aurrera joiala urrundutzen konturaturik, txilin otsari jarraituz arifñeketa baten barrero mando atsean egoan.

III

Agustifñek, mendia inguratzen eban bidetik zubia igarotean, zearretara igotean, bide aldamenean aitz baten etzanda kaldereruak ikusi ebazan; eta unetxu baten, zerbait, zeozer, zoritxarrekoa jazokolakoan gorrizkaturik geratu zan, baña alegin apur bat eginda, narotasun, lasaitasuna adierazo gurean, aurrera jarraitu eban.

Arratsalde, arrasti on, jaunak, ezezagunei esan eutsen.

Zuri be bai, nezkatile, beragana urreraturik, kaldereruek erantzun. Nondik zatoz?

Kastrotik.

Ba dakizu zubia ordaindu bear dala, ez?

Zein zubia?

Oraintxe igaro dozuna.

Eta zenbat ordaindu bear da, ba?, dardaraka Agustifñek itaundu eban.

Aldean daroazun guztia, kaldererutariko batek nezkatilelagana erazoturik eta bereala eurretarike beste batek, mandoa eroan traillako sokea kendu eutsan.

Jesus Jauna, gaizkatuko al nozul, zorigaiztoko nezkatiletxuak oiuka iñoan, bereala

kaldererutariko batek, gizon indartsua bera, bere besoetan oiuka ta negarrez, bidea kerizpetzen eban altz-abaro batero eroan.

Txakur txikitxuak adoretu egin eban erazo bat, bere ugazaba besoetan eroan gizonari aginkeda bat egitez, baña galdereruak emon eutson ostikada bateaz, guztiz makal eta minduta itzuli bear izan eban.

Lagundu eidazu, Birgifiña Doneal... Mikell..., Agustifiek oiukatzen eban, geroago ta abots makalagoaz.

Orduan txakurtxu baltzak, erdi narraz, arifieketan, alik eban ariñen Mikelen txabolarentz igon eta beratan sartuta, izugarritzko auzi-mingarriak egin ebazan.

Txakurraren atzamarkadak eta auziak eraginda Mikel izartu, eta laguntza eske Agustifien oiukaragarriak entzutean konturatu zan zer jazoten jakon. Orrez ganera, irazko ogetik zutundu zanean ikusi al izan eban, zelan galdererutariko batek Agustifien eban borrokak eraginda, Altz-ardazkaren mugimendua.

Mikel bildurrez, arrituta, kikilduta geratu, nezkatiill ogisaltzailleari erazo egin eutsoenak bi gitxienez zirala, asmau ebalako, eta ez zan izan gauza txabolatik urtetzeko be, naizta txakurtxua ate aurrean auzi-mingarritan jarraitu.

Agustifien oiuk geroago mingarri ta makalagoak ziran.

Mikell... Mikell... Mikell... Gaizkatu naizu!... Ilten nabel.

Txakurrak, Mikelek ate ondoan egoan aizkorea ez ebala bere eskuetan artzen eta bere ugazaba gaizkatzen joateko asmurik ez ebala ikusirik, koldar aregandik alde egin eban.

Apur bat geroago Agustifien oiuk guztiz ixildu ziran, ta Mikelek bere txabolako ate ondotik ikusi eban, zelan galdereruak euren zaldi ganetan bizkaiko mugarantz abiatzen zirala, gero andik Saldamandoko mendi-lerroko bidea arturik Alen mendirantz joiazala.

Iraitza izan zan lekuan sasi-arte baten txakurtxua ausi-mingarrika jarraitzen eban. Gaur egun, toki ber-beratan, nezkatiill aren oroimenez egurrezko kurutze bat ikusten da.

Kurutz onen alboan, milla ta zortzireunde emeretziko Irailaren ogeita zortzian, Lasmuñekaseko mutil gazte batek kondaira illun-baltz au edestu eustan. Lasmuñekas Bizkaiko lenengo erria, baserria, bertako mugarría igaroten, da.

IV

Mikelek erailleak aldendutzen ikusi ebazanean, berak be Otañez bidea, artu bada, jakozkoa agintariei jakin-eraziten joan zan.

Ibarrera aurreratu zan, baña ondiño an goian, gaba illunaren ixiltasunean, txakurtxuaren ausi, zaunka, errukigarriak entzuten ziran.

Bere barnea, izan eban izugarritzko bildurra makaltzean, aldenduten jakon bitartean, une aretan bere jokaera koldarkeri utsa izan zala ikusirik, geroago ta geiago beste biotz-eragin samingarriago batek bere barnea atsekabetuten eban.

Nire koldarkeriak, Iñoan bere baitan, Jaungoikoarena ezeze gizonaren barkamena be

ez dau merezi. Mikell... Mikell... oiuka Agustifiek deitzen eustan, il-arriskuan, aurkitzen zanean. Eta nik ez neban adorerik, urrunetik erantzunda itxaropen apur bat sor-erazi beragan, eta iltzailleak bear ba da, apur bat bildurturik uxatzeko!... Zelan Jaunkoiko Jauna, lotzez il barik, ifloren begien aurrean aurkestuko naz, jaio nasan lur onetan, adore ta zindotasun ain ugari dan erri onetan olako jokarea bat babestu?

Eta Mikelek gorrotoz eta lotzez, beragan eban gorroto eta lotzez, begiak negar-malkoz ezotuta ebazan.

Gaba geroago, ta illunago.

Mikel zubira eldurik, bereala bere aurrean Agustifien txakurtxu baltza bere su-gar begi dizdiratsuakaz ikusi eban.

Mikelek txakurrari txera bat egin gura eutsan, baña onek amurruz kurrunkatu, bere begietan dizdira sutsua agertuz, azkenean gaztanediko kerizpetan estaldu.

Ontañezko agintari ta epaillea, Mikel lagun ebela, beingoan mendirantz abiatu ziran, ogi-saltaille gaztearen gorpua artu, eta ondifo bizirik ba zan, bearrezko laguntza emoteko asmuz, orretarako erriko osagillea eurakaz joian.

Bide guztian, Mikelek ikusi al izan eban, zelan txakurrak bere aurretik bein eta barriro zearkatzen ebala; beti amurruz, mur-mur eta bere begietan su-gar bizia agertuz, baña guztitarik bereziena, berak bakarrik, uts-utsik, txakurra ikusten ebala zan, bestea, beragaz joiazanak ez; eriotz izugarritzko a izan zan lekura urreratzen zan bitartean, zenbat eta urrago aurkitu, txakurtxuaren ausi zaunka errukigarriak entzuten ebazan; bere ugazabaren gorpua alboan, zintzotasunez zaindurik.

Altxa zaztrakara eldu ziranean, Agustifia zauriz beterik aurkitu eben, eta txakur baltz txikitxua bere alboan.

Osagilleak Agustifien gorputzean ondifo bizi apur bat zala nabaritu eban. Saiatu zan konorterera ekarten eta azkenean lortu eban, baña une gitxitarako. Nezkatiill zorigaiztoko errukigarriak, bere iltzailleak nortzuk izan ziran esan ondoren bere azken-arnasa izan zan.

Txakurra Agustifien gorpua atsetik Otañezeraño joan zan, ostera Mikel bere txabolan geratu.

Mikelek bildurra uxatu gurean, txabolako ate aurrean su itzal bat biztuta, ogeratu zan; ain bat len lo geratzeko saioltuz.

Gaba aretan izartu zan guztietan, eta bere irazko ogetik txabola aurrean egoan sua ikusi ta bere alboan txakurtxua, beti bere agifak erakutziten eta begiak su-amurruz dizdiratsu, bere biotz-samiña aunditzen zan.

Eguna argitu orduko, Mikelek illenti ganean makallo zati bat ezarri beragaz, oitura eban lez txakurrari emoteko, aurrerako arratsaldeko ogia, etxipetu eban eta orrelan gozaldudu, ondoren ibaira jaitsi, ur garden zurrutada eder bat egin eta barriro gurbixa artera igon lanean jarraitzeko; baña ibai alboan, aldamenean, an egoan txakurra bere agin amurru-tsua erakusten.

Ibai bazterreko aitzetara jaso ebazan begiak, euren ganean txakurtxua egongo zala uste izanik, eta urak bere irudia dizdiratzen ebala, naizta alde guztietara bein eta barriro be-

giratu, txakurraren urratsik be ez eban ikusten. Egoera onek bere barnean, azaldu ezifeko bildur izugarri bat sortzen eban.

Egun osoan txakurtxua alde batetik bestera igaroten ikusi eban, eta baita be, altzaditik etozan alperrizko oiu mingarriak, Mikell... Mikell... Agustifaren abots ber-beratan, entzuten ebazala uste izan eban.

Illuntsean, Mikelek kurutz bat eginda, Agustife il eben toki ber-beratan, ondifo ikusten zan odolaren ganean, ezarri eban; apur bat geroago Enkarrirantz abiatuz.

V

Mikel galdamesko mendiatarra joan zan, Enkarterri lurraldetan, bertan ikatz egiten ebiltzan giputz bere erritar batzukana, eta eurari edestu eutsen jazoriko guztia ta baita be berari jazoten jakona. Bere adiskideak bertan geratzeko esan eutsoen, eta euretariko bi bere Otañez mendiko lana amaitzera joango zirala. Mikelek pozik onartu eban bere adiskideakaz lankide izatea. Baña egun beratan eguzkia Sartaldean mendi tontorren atsean estaltzen asi zanean, bere aurrez aurrez, bere begi dizdiratsu ta agin zorrotsakaz txakurtxu baltza an egoan. Urrengo egun eta gabetan ikuspegi bardiñak, bildurrez beterik atsekabetu eben. Bildur eta lazturaz, Mikelen asmamena nastatzen asi zan eta bere gogo, barnean, ez eban nasaitasunik, bardin zan izartuta naiz lo egon, unetxu baten be ez eban bakerik.

Arratsalde baten, illuntzean, Mikel lanetik txabolarantz, aizkorea bizkarrean poz pozik, poza be sifistu ezifik arratsalde aretan txakurtxua ikusi ez ebalako etorren, baña ara non, beste iru urrats emon baño lenago, bere aurrean, beti bezela bere begi dizdiratasuak eta agiñak su-amurrua iruditurik, non agertzen jakon.

Mikelek, gorrotoz itsuturik izugarrizko aizkorakada bat txakurrari jaurti eutson, eta apur bategaitik ez eban zatitu bitan, eta geiago barik txabolarantz jarraitu, nasai ogeratu, ziurki geiago bere aurrean ez ebala ikusiko ain beste nekarazitzen eban irudi ori, uste izanik.

Baña biramonean txakurtxua ifioiz baño be asarre ta sutuago agertu jakon, eta bere gorputzean zauririk ikusten ez zala.

Orduan zorigaiztoko gizon onek, Mikelek, Bizkaitik iges egitea erabagi eban, uste izanik, bear ba da Gipuzkoan txakurtxuagandik urrun nasai bizi al izango zala. Alan da ze, Bilborako bidea artu, uri onetan Donostira joateko, itxasontziratuteko asmuz.

Txakurtxu ori, bere lagunak esan eutsoan, deabrua ber-bera izan bear dau; zu nakazaritzeko txakurra biurturik, bere antza artuta. Geiagotan agertzen ba jatzu kurutze bat egizu ta ikusiko dozu, zelan iges egiten dauan.

Mikel Gueñezara jaitsirik, Kadagua ibai bazterretik joian. Bear-bearrezkoa izanik, bere lagunen onua betetzeko, erabagi zintzo bat artu eban.

Alonsotegi baño apur bat gorago, bide bazterrean arri-zutoi bat bere goi-aldean bur-

difizeko kurutze bateaz goiratuta, dago; arri-zutoiñaren alde batetik, olan idatzita agertzen da: "On Diego de los Hoyos emen il zan. Otoi Jaungoikoari beragaitik. Abenduaren 9 an il zan. 1675ko urtean". Ia gizalde, mende, bi bakardade aretan oroitarri orrek toki beratan iraundu dau; gizonaren diru-zakeleriak burdiñezko kurutze orreri ukaturik ez dautso egin, ez da be arrizko zutoia arrikada bateaz zatitu ez loitu. Bedeinkatua izan bedi bere illak olan gogoratzen dauan erria ta olan azkamen, gaizkamenen ikurra gurtuten dauana!

Mikel, txapela eskuan eta Aita Gure bat otoitzen toki beratan bere arimea Jaungoikoa-gan ezarri ebanagaitik, urreratu zanean, antxe, bertan, kuruzpean, berari adi-adi txakur txiki baltza, begiak su-amurruz dizdiratsu ta agiñak, ortzak, erakutziz, ikusi eban.

Ez zan, ez, deabrua jazarpentzen ta zemakaitzen ebaná, ez; Jaungoikoa zan, bere bar-ne ber-bera zani!

Bilbon itxasontziratu zan, bai, ikuspegi izugarria, beintzat, itxasoan Donostira eldu arte ez ebalá lagun izango, uste izanik. Bafia oraingoan be, oker egoan, illuntzean Itxason-tzia Donostira urreratu zanean, antxe, Itxasontzi ganean larderitsu, beti bezela bere begi su-amurruz dizdiratsuakaz, agiñak, ortzak, agertzen, an, bertan, egoan bai, txakur txikitxua.

VI

Mikelek zentzuna be galdu eban, ba da arratsalde baten bere aita-amaren egoitza itxi-ta, utxita, iges egin eban. Bere aita-amaren, bere etxea, Donostitik guztiz ur egoan eta itxa-saldera, bere biziari azkena emotego asmuz, erabagi zintzo bat artuta, abiatu zan.

Bidean be txakur txikitxu baltza agertu jakon, bein eta barriro ta egunero berrizkatzen zan agertze onek, artu eban erabagi izugarrikoa sendotzen eutsan, izan be, etsita, itxaro-pengabe, ludi onetan aurrera jarraitzeko gogogabe aurkitzen zan.

Ondartzara elduta, an ebillen ur-antzanak, olatuak, ekaitz gogor baten antzera joten eban aitz bat billa, bereala bere gorputza jokeran zatitu ta ezereztuko eban toki baten billa. Olako baten bere begiko zan aitz bat aurkiturik bere ganera, goi-aldera igon.

Amilkatzeko aukeratu eban izugarriko leiza azterkatzean, eta izango eban eriotz lka-ragarria gogoraturik, bere buru-erailtzeko adorea makaltzen joakion. Naizta buru-iltea dan jazoki koldarkeri oneri, zelan deitu leikion adorea.

Itxasora begira ebazan begiak ikuspegi onetatik aldenduz, bere aurrean egoan lurral-de ederra begistatu eban, alde batera uri alai eta ederra ta beste aldera bizkar orlegi ta lo-ratsuak, basetxe zuriak eta ortu ta barazt lora usaintzuakaz, an eta emen abestia alai ta kan-paiketa saratatsuak, eta an goian, mendi magalean txistu soñua alai ta pozgarria jentetzeari deika jai atsegintsu bat emoteko opatuz.

Mikelek bizia ederra dala gogoratu eban, naizta zorigaitzokoena izan, eta bereala bere asmakisun izugarria, baztertu eban, beste aldi oba baterako bere buru-eriotea itxi, utxi, eban.

Ondartzatik urrunduratzean, bere bazter batetik, oiu guztiz mingarri bat entzunik, ber-

tarantz bere begiak biurtu ebazanean, uretan, oleatu artean buru gizaseme buru eder bat ikusi eban, baña bereala uretan estalduz.

Gaizkatu naizuel... buru ber-berak bein eta barriro, beinka uretan estaldu ta agerturik, atsekabetuzko oiuz laguntza eskatzen. Bitz beteriko oleatu artean agertu jakon ikuspegia, berantzat benetan zan samingarria.

Izugarrizko oiu au entzutean, Mikelek bere gogotik baztertu eziñeko Agustiñeren oiu, samingarri bardin-bardiñak ziranak gogoratu ebazan. Bere asmakisunetatik aldendu ezin ebazan oiu mingarri, atsekabetsu areik.

Guraso, aita, batek bere alabea gaizkatzera egingo eban bezela, ukamen osoz eta adoretsu ur-oleatu aren artean oldartu zan.

Une batzuk geroago bere besoetan eutsiten ebala, nezkatilla gazte bat ekarran; oleatuak bizia amurruz kendu gure eutsoen nezkatilla gazte eder bat.

Luze ta neketsua izan zan borroka, baña azkenean, Mikel saurituta, odolez gorrituta, ia arnasarik be artu eziñik, nekez eta biotz-ikaraz itxaso bazterrera, zorigaiztoko nezkatilla-txua besoetan ekarrela, urten eban. Luzaro atsekabetuta bere billa ebillen zendia be, lagundu gurean, beingoan agertu zan.

Mikelek gaizkatu eban nezkatillatxu gaztea, Madrilleko diru-etxe bateko gizon ospetsu ta aberats baten alabea zan. Pozez eta eskerrez beterik negarrez, bein eta barriro bere alabea gaiztatu eban larre-gizonaren eskua estutzen eban.

Eguzkia sartaldean estaltzen asi zanean, Mikel bere basetxerako bidea artu eban, arratsaldero ordu beratan txakur txiki baltza agertzen jakon orduan, baña egun aretan txakurtxu baltza ez jakon agertu.

Egunak eta asteak joan ziran eta txakurra ez jakon barriro agertu, baña egun baten bere etxeko ate aurrean, txakurra baltza ez, baña Madrilgo diru-etxeko gizon aberatsa, berak, Mikelek, gaiztatu eban nezkatillatxuaren aita, bai agertu jakon, bere esker ona agertzen, zorrotxu bat urrezko eun ontza emonez.

IGALI-ZUKU - KONPOTA

I

Oraingoan errege bat zan, baña ez dakit nondikoa, ba da kondaira ainbeste itaun, galdera, ta erantzunez guztiz iguinduta da, ta orregaitik barrero ez dautsot itaundu gura izan. Uts utsean Periko eritxola dakit, Mari Kastaña delitzen eutsoen bateaz eskondua, ta bere bi-zi osoa jaurlaritzan on bat lortu gurean, ministroak aukeratzen emon ebala, ta guztiak txarrak, okerrak urtetan eutsoela ikusirik, ifoala:

Ez ba, barrabanok guztiz azperten ba nabe, ikusiko dabe zer dan onal...

Erregiftea, Mari Kastaña, sukaldari guztiz ona ei zan, ostera politikatzaz ez ekian ezer, gai au ez zan bere gogokoa. Ondiño aldi aretan sukalde, sutea, ta politikea ez ziran alkar maitamendurik, aldi aretako biztanleak kazkarrak ziran lezkerok, ez ziran konturatu gauza bakan, guztiz bakan bateaz; biotza sendotzeko, bere auzokidea zan urdaila sendotzea nai-ko zala. Abertzaletasunaren sua biztutzeko, txingar txiki bat nai-ko dala.

Periko erregea bere andreak politikatzaz eban arduragabetasunagaitik, guztiz kezkatu egoan, eta euren artean estabaida ta asarreak ia eguneroko ogia zan.

Ba dakizu, andrea, nire bizitza-legeak aldatu bear dodazala?

Ez da izaten egunik aldatzen ez dozuzanik.

Guztiz oker zara, zekula be nik nire asmakisunetan ez dodaz aldatu. Josus, baña ze gizon guzurtia... ez naz ba larri izaten ni; egunero maian egun bitan alerrezkan lenengoko bardifñak atera ez daizudazan!...

Baña, andrea, beste lenengoko batzuk ba dira... (Principios)

Ba, beste batzuk ezin dautzudaz ipifñi, azoka ta dendatan jakiak, janariak, guztiz garestiak dira ta batek ez daki zer erosi be.

Baña, umeal Zure sukalderako zaletasun berezi orregaz, "entzalada" baktzik egiten dozu...

Baña arlote oril zer esan bear dozu zun nik egiten dodazan entzaladakaitik? erregeak berak be ez dauz jaten, zuk gaur jan dozulakorik.

Alako oillar iztarra gaurkoa!

Zer!... Oillarra pepitorian ez da egon gozoa, ala?

Andrea, entzun eistazu eta ez naizu artegatu.

Gaur odola kinpulangaz gozaldu dozuna, ez zara ausartuko erreta egon dala esaten? Atzamarrakaz mizkatzeko bezelakoa egon ba da!

Ez diñot olakorik. Dirautzudana da, zugaz ulertzerik eziñekoa dodala, ta guztiz asarratu baño lenago ba noa.

Eta andra-gizonaren alkar-izketa mingotza, errega bere gelara arazo politikoakaz arduratzen, eta erregifia sukaldera, sutera, lapikoa irikitzen ba egoan ikustera joatea, izaten zan.

Sarritan matraka oneik Periko erregearentzat egokiak izaten ziran.

Ainbeste estabaidagaz azpertuta, jasan-eziñez, bere andreari sukaldean sartzea debekatatu eutsan, baña egun baten, uste-gabeko gertaera batek bere erabagia aldatu egin eutsan. Konturatu zan bere jasanpena amaitugabe aurkitzen zala.

Erregea bere gaztelutik nekez urteten eban, baña erregiñeak egunero goiztar erosketak egiten joaten zan, eta orrelan erregearentzat izaten ziran mezuak, bere andreak artzen ebazan.

Andrea arraintegian egoan egun baten, lebatza errial bi ala batean izan bear eban eztabaidatzen, langabeko gizon txiro bat gaztelura urreraturik, apal eta itzaltasun osoz, erregearentzat zan mezu bat emon, eta arifieketan joan zan.

Mezua olan idatzita egoan:

"Jauna, agertzaille au zure Erregetzaren menpeko zintzo bat da, eta ganera langabekoa, ba da zure aulku-emailleak, maltzur eta zuzengabeak bere bizi-bidea kendu eutsuen, bere ordeaz asto bat ezartzeko, ori bai, euretariko senide bat. Alan da ba ze, bear bearrezkoa dot, zure ministro azpi-zapoak ondasun ikaragarriak eskuratzen dabezala, zuri agertzea; eta ez diñot gelagorik, bada ulertu gura dauanantzat naiko deritxolako, eta abar".

Ze ausarkerial Ze zuzengabekerial, oiuka Mari Kastañak suminduta irakurgala au irakurriaz, esan eban. Nor izan leiteke gauza gazteluan gozokirik egiten, jakifñik neure berezitasun bat dala! (Esan bear da gaztelarrez, "pastel", gozoki, egitea edo banatzea, diru eskuratzeari esaten jakola). Ia gazteluan nor ausartzen dan neu gelago aintzatu nauan zeregin baten, bere eskuak sartzea! Bereala Erregeak jakingo dau, ta Erregeak jakin orduko saltzaille orreik urkatzen ez ba dauz, neugaz aurrez izango da ta zekulakoak entzun bear izango dauz.

Erregiñea geroago ta sutsuago arifieketan gaztelurantz abiatu zan.

Periko! oiuka deitu eutsan bere gizonari. Irakurri, irakurri eizu orri au ta begiratu eizu

zetan zure aolku-emailleak emoten dabezan lanerako diran orduak. Bereala urkatu eizuz, eurakaitik ez eizu izan errukirik, bestela egun anbatan lapikoran gatza bota bearrean, pozoia botako dautzut.

Periko Erregeak, irakurgaietan aitatzen eban gozokia "pastela" erregiñeak ulertu ebana baño eiogaitz gaitzagoa zala, asmau eban. Jaurlegitzaren arazoei dagokion bezela, zentzuntasun eta maltzakeriz, asterketak egiten asi zan. Bere azterketatan argi ikusi eban, bere ministroak egiten ebiltzan "paztela" bera erregetzatik kentzea zala, beste errege bat erregeaulkian ezarriaz.

Erregearen aolkuemailleak atxilotuta, urkatzera auziak izan ziran.

Erregeagandik errukirik ez eben izango, ba da bere bizitzan lenengoz benetan guztiz asarraturik zan; espeteratuak Erregiñagana joan ziran parkamena eske. Erregiñeak jakin ebanean aolku-emailleak asmatzen eben egiteko "paztela" ez zala berak ain bereziki egiten eban antzekoa be, bere senarraren bitarteko bakezale bikalñia izan zan, eta azkenean bere gizonak, Erregeak, parkaturik aolkuemailleak azke geratu ziran.

Ondo dago, Erregeak bere andreari esan eutsan, ain beste arduratzen zaran ezkeru, bizia parkatzen dautset, baña nire lurraldetatik erbesteratuak izan bearuko dabe. Egia da, aurturu bear dot "paztelak" egiteko berezia zarala.

Gorezpen au entzutean Erregiñea zabal-zabal geratu zan, ain zabal ze ordutik dator miriñake maltzur ikertea.

Ikusi eizuel! Periko erregeak bere baitan esan eban, ara nondik nire andrearen sukaldari zaletasunak, izugarritzko ezbear batetik gaizkatu nauan! Nire andreak dauan grifia ori ez ba eban izan, lebatza irakurgai-orri orregaz inguratuko eban eta ez neban ezelan be jakingo zital maltzur orreik asmatzen ebana. Argi dago Jaungoiak gauzak buruz egiten dauazala. Itxi dagigun nire andra ospetsua Jaungoikoak emon dautson grifia orregaz. Baña zelan arraio atonduko nintzake inguratzen naben ain beste laguntzaille maltzur, zitaletatik gaizkatzeko? Jazoten dana da, gizon gaizto, zitalak, zintzoak uzteldu, izurritzatu egiten dabezela, eta uztelkeri, lasaikeria gizarte osora eltzen da, ta onek olan jarraitzen ba dau, urte batzuk barru, urte gitxi barru, gizon zintzo, arduradun bat ezin izango dot aurkitu. Errua neurea da, ain itxia izanagaitik, baña ez, egun baten nire eroapena ganezkatzen ba dabe, ikusiko dabe...

II

Erregearen aolku-emoille, laguntzaille ta morroien uztelkeri, lasaikeri dala ta, Erregearen naigabe geroago ta aundiagoa zan, eta Mari Kastañaren sukaldari-zaletasuna geiagotzen joan.

Sarritan Erregeak, bere emazteari, andreari, zaletasun au deabruagandik jatorkola, uste eban, baña bereala egoki, guztiz egoki, ikusten eban eta "paztela"ren jazokia gogora-

tuz, txalotu be bai. Jaungoikoak Erregiñeari zaletasun a ezarri ba eutsan, Goiko Epailleak ba ekian zer egiten eban.

Egun baten erregeetxean albiste on bat izan zan, Jaujako erregea, kide ta Periko Erregearen senide, aidea, oneri ikustaldi bat egiteko asmua ebal.

Mari Kastafiaren poz-alai barri au berari jakin-arazi eutsoenean azaldu ezifekoa zan, bere trebetasuna sukaldari bezela errege ospetsu orren aurrean agertzeko, abagune berezia izango zala, uste eban.

Ezer esango ez baleu bezela, Jaujako erregea geugaz bazkalkide izango dogu, jan eta edan ugari egiten dan laterriko erregea, ta lanari uko egiten dautsenal Mari Kastafiak oiuka; saltuka esaten eban, pozez ume txikitxu bat balitz bezela. Orrelako epaille trebe, bear bezelako bat bear neban, nire sukaldari-lanak aintzat aurtu dagiezan, ba da nire gizona lez gozamengabekoak bear diran bezela nire sukaldari-lanak ulertzeko ez dira gauza. Salatu bear naz jakiten, zein janari diran Jaujako erregearen guztokoak, eta suzmatuko dot naizta zeregin orretan zekulako dirutsa eralgi.

Arazo au zuzentzeko, Mari Kastafiak zeregin berezi onegaz Katxano eritxon gizon bat, beragan uzte osoa ebana, Jaujara bialdu eban. Eguank eta asteak be joan ziran, ta naizta Katxanori Erregiñeak teilla biaz deitu, ez zan agertzen. Beste erritar bat zeregin bardiñaz bialdu, baña au be ez zan itzuli. Irugarren gizon bat be bialdua izan zan, baña au be urrean Jaujan geratu zan.

Orduan Erregeari guztia, jazoriko guztia edestu, azaltzea baño beste urtenbiderik ez eban, euren erritarrak ze zio gaitik Jaujatik itzultzen ez ziran, bere senarra ia ba zan gauza jakiteko, jakin gurean.

Zein zio izango da, ba? erantzun eutson. Jaujan ondo jan eta obeto edan egiten dala-ko ta orrez ganera ez dabe lanik egiten. Uste dozu, ez dala zio naikorik?:

Baña zital orreik, gomuta bear izan eben laterri onetako erregiñea ni nazala.

Baña uste izan dabe, sakela, urdaila, ludi osoko erregiñea dala.

Jan-edari guztiak pozo biurtu daiekezela...

Baña ez zaitez larritu, andrea, Jaujan dodan ordezkariari, argitasunak bialdu daistazala, adieraziz bertako agintarientzat zein janari diran egokienak, zuk emen gertu daiezuzan, eskatuko dautsat.

Emoneko itza Periko erregeak bete eban. Egun batzuk geroago Jaujatik bere ordezkariaren eskutitz bat artu eban; onetan, Jaujako erregearentzat jakirik gozo ta atsegintsuena sagar-konpota zala, jakin-erazten eutsan.

Periko erregearen laterrian, lurraldetan, igali-sagar gitxi egoan, bañ otsarakada bat batzea lortu eban eta erregiñeak zazpi giltzpean gitxienez gorde ebazan, bildur zan bertako mutillak jan egiezan.

Azkenean Jaujako erregea eldu zan, eta begirunez jaialdi polita, kanpaiketa sarata-sua, zezen-soka, argitasuna ta esku-mozutzea, izan zan.

Periko errege ta Mari Kastafia erregiñaren etxean, gazteluan, esku-mozuketatan arazo bakana jazoten zan. Errege onein erritar guztiak, euren menpekoak, ukondoka ibiltzen

ziran erregeñaren eskua mozukatzeko ta gero mozua emon ondoren erregeñaren eskua mozukatu ta espanak mizkatu egiten ebezan. Onek esan gura dau, eskua sarritan egozten egoala!

Periko erregeak eta Mari Kastaña erregeñiak, Jaujako erregearen gorazmenez antolatu eben jatordu nagusia ospatzeko aurrerako eguna zan.

Periko erregea bere idaz-gelan egoan, berantzat garrantsitsuak ziran gauza bi, arazo bi, gogoratzen: bata, lenengoa, zelan antolatu leikean ministerio edo aolku-emaille talde on bat, bigarren jaurlaritza bere jaiotze errira, ta erritarren artean atsekabe ta negarrak alderatzeko, irakurgaiari idatzi eitela, iltzailleak naizta urkatuta egon, euren gorpuak jaioterri-
ra bialdu egiezela.

Asmakisun sakon oneitan egoan, eta ara non, erregeñea negarrez eta uleak tiraka zuzkartzan non agertzen jakon.

Aa Periko maitea, galduak gara!

Zer ba, zer jazoten da, andrea?

Zoritxar itzal bat.

Baña azaldu eidazu bein, ba da guztiz artega ta arduratsu naz.

Sagarra uztelduta aurkitu dodaz.

Andrea, ez zaitez larritu orregaitik, ez naizu artegatu, arren! Txarriei emon eizuz.

Ez zagoz txarri txarra zui!

Andrea, ez naizu geiago zirikatu, ba da zenetik be urten-azoko nozul!

Au esanik, erregeak ateari bultzakada bat egitnik bakarrik geratu zan, bitartean erregeñea negar baten, naigabetuta aldendu. Arduratsu zan, sagar-konpota edo sagar-egosiak ezingo ebazala egin, ba da egikisun onetan bere gorezpen osoa eban.

Laterriko arazo gogor eta sakonakaitik Periko erregea guztiz arduratsu egoan, eta andrearen arazoak arin buru gabetu zan; biramonean, bazkal orduan erregeñea guztiz nasai ikusirik arritu zan, nasai ez eze alai ta atsegintsu aurkitu eban.

Bazkari berezia asi zan.

Lenengo azpilkada jakia ikusi ebanean, Jaujako erregeari bere begitxuak alaitu jakozan.

Errege Jauna, berorrek lurralde onetako janariak, jakiak, zalegarriak ez dauz izango, Periko erregeak esan eutson. Jaujakoak oituratuta izanik, ba da esaten dabenetik jan-edaritzaz Jauja ospetsuena da ta.

Oker zara, errege jauna, Jaujan jan-edariak txaztamen guztiz txarra izaten dabe.

Baña jauna, Jaujan jan eta edan uts utsean egiten dabela esaten ba dabe, eta ganera lanik egin barik.

Egi-egia, egi osoa, zuzena.

Ba da orduan ez dot ulertzen...

Jesus, baño zein buru-gogorr da berori errege jauna! Jaujan lanik egiten ez daben ezkerro, orrexegaitik zuzen be, janari guztiak gorditnik jan bear dira.

Egia, berorrek errege jauna dau errozoia! Olakorik ez neban bururatu. Antziñatik nabil

ni be nire laterrian lanik egin barik bizi al izateko zerbait asmatzen. Asmakisun ugari izan dodaz, baña azkenean nire lan-bide ori baztertzea erabagi dot, ba da lana nire erritarrei kentzen ba dautset, lan egitea kentzen ba deutset, gutzia ankaz gora ibilliko da.

Jaujan jazoten dan bezela.

Baña gizona, zergaitik ez dau berrorrek jauna lan egiten arazo ori zuzentzeko, gero berorren menpekoari lan-egifiazoz?

Zergaitik lanik ez dodan egiten? An, Jaujan, lanik ez dalako egiten.

Laterriko lanak, lan-bideak, proiektuak, aitatu dozuzan ezkeru, bion artean eta beraz gure erri bientzat izan daiten, gure iltzaille-gaiztoak erritaratu al izateko, agiri bat izenpetzea gura neuke.

Nigandik ez da eragozpenik, asi bei berori arauak ezartzen.

Nire lenengo araua, nire erritar iltzaille-gaiztoak urkatuta ta gutzi be erriratuak izan daitezala, izango da.

Ori ezin leiteke, adiskide.

Eta zergaitik?

Jaujan lanik ez dalako egiten.

Benetan eragozpen tamalgarria.

Olako ta beste arazo batzutan alkar-izketan jardun bitartean, Jaujako erregeak bere sakela gozoro betetzen eban. Erregiñea arropuz, estanda bearrean eta ain gozoro jaten ebazan janariak gertatu ebazan sukaldaria, bera zala, amurruz esan gurean, Jaujako erregeari ori jakinerazoteko, aukera berezi baten begira egoan.

Aukera au eldu jakon. Jantokira sagar-konpota eder bat ekarri eben, au ikustean Periko erregeak oiua ikaragarri bat egin eban, ostera Jaujako erregeak jatekerizko oiua.

Jaujako erregeak azpillkada bat sagar-konpota txistu baño arifago iruntsi eban eta beingoan beste bat artu. Biak, azpillkada biak, ganezka izan ziran.

Errege jauna, sagar-konpota atsegin jakola dirudi, erregiñeak esan eutsan.

Ez jat izango atsegin ba, atzamarrak eurak be jateko lez geratzen dira ta! Zekula be nire bizitza osoan olako janari gozorik ez dot jan. Egillea aurkeztu daitela esateko gauza da.

Egillea, pozez eta biotz-eraginda erregiñeak esan eban. Berorren Erregearen otsein apal au da.

Ederto! Ederto! Jaujako erregeak aboa janariz beterik ebala esan eban, oiuka Baña zelan erregiña ori, janari ain bikain eta gozoa egin al izan dozu?

Berorreri Errege Jauna senda-araua emongo dausat, gatzeluan, zure gatzeluan Erregiñeak...

Ez zaitze nekarazi andrea, bada Jaujan ez da lanik egiten esanez, erregiñeak bere berbeta, izketa, irugarren sagar-konpota azpillakadea artzen eban bitartean eta bere sakelak be nasaitasun apur bat izan egian, gorantz txalekoa zabalduz, ebagi eutsan.

Jatordua alaitasunez amaiturik, Jaujako erregea bere gelara bazkalondokoa egiñez atsedean apur bat artzen aldendu zan.

Mari Kastaña be bere gelarantz abiatu erregiña bat baño be arroago.

Biramonean Jaujako erregea bere errirantz joan zan. Erregiñaren eskua mozukatu ondoren, eta edozein beste erritar bat bezela, espanak bein eta barriro mizkatuz, eta andra ospatsu a barriro goralduez, gaztelutik urten baño lenago sagar-konpota aren ondakiñak biderako ermon egiozala, erregiñeari eskatu eutson.

Periko erregea ta bere andrea bakarrik geratu ziranean, arek bere andreari itaundu eutsan; baña andrea, alako sagar-konpota ain gozo ta ederra, zelan egin al izan zenduan? Jan naizue iñoala?

Ara, ba dakizu, naizta otsara baten sagarrak uzteltzen asi, beti egoten dira euren artean umo ta zintzoak, eta guzti oneik zekulako gozoenak egoten dira, eta ez da gitxiagorako olan izatea, ainbeste zikinkerri, uztelkeri artean olako zintzo ta lisunkerigabeen jarraitzean.

Arreta aundiz, zintzo, uztel-gabeak, banandu nebazan, eta eurakaz egin neba Jaujako erregeak ain gozoro jan dauan sagar-konpota ori. Eta ni sukaldaria izanik goraldau nauana.

Eta zer egin zenduan uztelakaz?

Beingoan mando artera bota nebazan.

Ederto egiña, ekarri eidazu bosteko ori ta agur, ia nik be konpota eder-eder bat zuk bezela, egiten ikasten ba dot.

Biramonean Periko erregea asarre, gorri-gorri eginda agertu, ta bere menpekoen artean sartuta, uztel ugarietatik, menpeko uztel ugarietatik, zintzo apurrak banantzen asi zan. Eta zintzo langilleakaz, ministro, aoulku-emaille, kapitanak, auzi-epaille, gobernadore ta abar, jaurilaritza-opil eder bat egin eban, eta uztelak mandoakana bialdurik, mandoak esatean, ezpetxea ulertu bear da.

Barri-emollei eskatzen dautset, Gobernu-utzaldi guztietan irakurgai au barriztatu da-giela, eta batez be errege ta agintariei biotzez eskatzen dautset olako konpotak egiten da-bezenean, arreta aundiz ibilli daitezela, konpot-tresnara sagar uztela bota ezteko, ta sagar umoak, zintzoak, mandoakana.

BASERRITARREN IPUIÑAK EREITE TA UZTA-BILKETAK

Joseba ta Josebe, bere andrea, maitasunez baketsu lo dagoz.

Josebak illuntzean leioa erdi-idegita itxi eban, egun-sentian argi izpiak logelan sarturik, esan egion:

Jagi zaitez, loti ori!

Txoritxuak euren txio txio gozoakaz abestuten dabe; ortuko zugatz adar goinetan ezarrita, saratatsu ifioen:

Txio txio, eguna argitzen da!

Txio txio Jaungoikoak zaindu zagizala!

Txio txio, Ze gozoro, ze gozoro

Lorak, zerua ta eguzkia ikusi!

Txoritxu jaunak, gaur eguzki ta zerua ikusiko dozue, baña lorak... parkatu eidazue Jaungoikoagaitik azaroan gara ta.

Joseba ta Josebe alboko logelan lo dagozan umetxuak izartu ez daitezkan, ixil ixillean jagiten dira, eta Josebak gozaria bere mandoentzat gertatzen eban bitartean, Josebek bere gizonarentzat gertatzen eban.

Zelako usain gozooa arrauts eta urdai-azpikoena, Josebek bere gizonarentzat mai ganean ezarri eban azpilakadeak. Sute, sukalde, bero bero ta alaia, baztar baten mukur batzuk erreaz, nasaitasuna ta bakearen irudi ber-bera zan.

Zerbait kutuna bere andreaki, sukaldariari, esan gura dautso, baña umeak izartu eztearren ixilten da. Baña berbetatik, izketatik, egikisunetara doa, ta bere maitetasun, kutuntasuna, mozu eder batzuk eronaz, adierazoten dautso. Ondoren maia jezarten da, ta jan ez, iruntsi egiten dau gozaria.

Kortan mandoak irrirtzika dagoz, esango balebez: "Gure sakelak betetzeko zerbait ederto etorriko litzakigu".

Mandoak garagar apur bat jan ondoren, Josebak buztartzen dauz, buztarriaren ganean goldea, lepoan gari-zorroa ta beste mozu bat andreari emon, eta onek, zoaz koipe ori esanez, mandoak aurretik eta gogoia atsetik, basetxetik urteten dau. Eguzkia be bizkar-gane batetik, sorkaldeti agertzen da.

An doa Joseba, an doa Joseba, ibai bide-siorretik ibarrerantz, bere maitasun ta itxaropen abestiaz.

Goizaldea ozkirria, azaroko ipar-aizeak, Guadarrama tontorretik dirioe:

Erein, erein eizu, ba da guk putz egingo dogu azia garbi, autz ez lazto-gabe lurrera jauzi daiten.

Josebak mandoak solo mugan, bazter baten itxi, utxiten dauz, koputxu bat artzen dau, ta solotik ibillaldi bat emendik, beste bat aragotik zearkatuz, lurra, azi erre-margodunakaz erdi estalduta ezartzen dau.

Onetarikoak kiloan gitxi sartzen diral, txoriak ifioen.

Josebak atsea emoten eban bakoitzean, txoriak mokokada gari garao batzuk artunda euren sakelak betetzen ebezan...

Josebak abestutean, bere samifiak eta baita be txoriak uxatzen dauz.

Aurrera txikitxuak, aurrera, mandoei ifiotsen.

Mandoak, lanerako gertu, adoretzu zirala, erantzuten eutsoen, esanez:

Zeuk gura, nai, dozunean, ugazaba jauna.

Goldeak lurra apurtzen dau, ta golde-aska bateri beste golde-aska batek jarraitzen dautso, ta txoriak txio txioka asarre ta saratatsu, nekazariari oi-andar eta mandoei basapiztiak deiturik, eurakan jateko gogoia bizkortzen eban azi erre-margoduna lurperatzen ebelako.

Guadarramako ipar-aizea geroago ta gogorragoa da, ta nekazariaren arpegira abazuz garao antzeko batzuk botatzen eutsozan.

Nekazari ta mandoak, txoriak eta ipar-aizeak, onelako ta antzeko zeregiñetan emon eben eguna, baña onetan, tan, tan, tan, urrunetik kanpai otsa entzuten zan, eleizea ta etxeak estalduta bezela aurkitzen diran okullutik, ibarreko dorre txikitxu batetik sortuta, nekazariari esan gurarik: "Zure andra ta umeen oroimenak".

Perikok kendu eban txapela, amabiak ziran, kurutze-satua egiñik, otoitzen asten da. Otoi egiten dauan bitartean, Jaungoikoa ta zeruan dagozan bere aita-amak gogoratzen dauz, eta berari itxaroten dagozan bere andra ta seme-alabarekan, eta bere barnean, ori... biotzeragiña... ori... sentitzen dau, arraio arraioa, ez dakit zelan deitzen jakon, baña elerti edo olako zerbait izan bear dau.

Mandoak eta asmakışunak gogoan izanik, or doa Periko baserrirantz, illuntzean gauza guztiak bardifiak diran sasoiari, otzak illik, nekez aunatuta, gozez makalduta, basaz betarik buzti-buzti eginda.

Goibel, itun, dator gaua, ostera nekazaria alai ta pozez, lurpean estalduta itxi, utxi, dauazan gari-garao urrezko areik, etxeko leio bitartetik agertzen zan argi-izpia, bere etxeko

ke-zulotik jasoten dan keezko odei zuria ikusteak, eresi lilluragarria iflotsoen: "Zerura igoten dot, ba da lurrean suaren oifaze izugarria be iraun dot". Bitartean, bere espanetatik itxaropentsu urteten dau:

Lantxuak jasan bear dira`
azia ereintzen dan bitartean
baña Jesusek esan dau:
"Ereinten dauanak, uzta batuko dau".

II

Bere gizona lanerantz ibarretik zear joaten ikusirik, Josebe pozik eta gogotsu berotutara sartuko zan, ogeratuko zan, ba da goizaldea otza eta orrez ganera gau aretan Josebe berandu, belu, ogeratu bear izan eban, euren semeen solñeko batzuk josi bear izan ebazalako, umeak geldi egon-eziñak izanik, erosi ala apurtzen eben eta, baña bere gizona baño gitxiago ez dau gura izan, eta goizeko argitasunak, etxean leiotik sartuta, oiuka iflotsonari be, ez dautso ez-entzun egin gura.

Izan naizu eredu, argitasunak iflotson, ludiko kale guztietatik zear ia ordu bete da nabillela, lotiak izartzen, eta goibel, itunak, alaitzen.

Pepak argiri erantzun leiokion:

Bai, zu oilloakaz ogeratzen zaran ezkeru...

Baña ba dakien lez ez dala zuzen atzekabetze-eratzeta, arin artegatzen dalako, alkar-izketan jarraitu bearrean, egikisunetan saiatzea erabagi dau.

Etsai orreik borrokan asi baño lenago, iturrira joan bear dot, barrabanok Napoleon bera baño be borrokariagoak dira.

Eta lusailla buruan ezarririk kalerantz urteten dau, ori bai, bere semeak izartu ez daitezcan, ateaz saratarik egin barik, otsik egin barik, arreta aundiz.

Txakurra Leon eritxona, beragaz doa, esango ebala bezela:

Ze arraiol! Lusailla zure burura jasoten ezin dautzudan lez lagundu, erbi edo untzi anbatek elardian erazoten ba zaitu, nire babesena izango dozu.

Katuak teillatu bazterretik janaria eskatzen dau, oilloak be orturik kar-ka dabiliz, garao apur bat euren biroak betetzeko eskatuz.

Oillarra ortuko orma ganean arro kukurrukuka mairu-errege bezela, ifloala:

Kristo jaio daaaaa!

Alboko beste oillotege batetik bere kide batek erantzuten dautso:

Ba dakit nikkkkk!

Oilloak arifñeketan doaz Pepagaz topo egiten, eurentzat gozaria eroala uste izanik, bitartean eurretariko lagun batek, gorringo-biko arrautz eder bat ipiñi-barria ta beraz erretzeko guztiz gozo izan bear ebana, berantzat ipintea ain neketsua izan jakolako, azkaria zergaitik eskatzen eben, azaltzen eban. Aldizka abots gogor eta garratzagaz ifloan:

Ipin... ipin... ipi... fi... gaitiki! Ipiñi... ipiñi... gaitiki!

Sakela, gogor eske dagonean, beste arazo batzuk aitzu egiten dira, oillarrari be aitzu jakon, naizta guztiz zuzena izan, orma ganetik babesten eban arazoa eta arin doa oilloaren itzaldia babestu ta bultzaten. Arraioa, zuzentasunen bidez ez ba da be, bai sarata aundiago egiftez.

Txakurrak, Leonek, oillarraren eginkereagaz guztiz asarraturik, oillotokiko errege arroari eraso gogor bat egin eutson. Baña oilloak kar, kar, kar, danak batera bere aurka garratz etozala ikusirik, bere erazoketak baztertu ta bere ugazabaren albora itzulita, bere baitan gogoratu eban: "Euren nagusi ankerra iraintzen dabenean, ainbeste zalapart egiten daben ergel oneik, ez dabe gogoratzen, ankerra ilgo balitzake, beste oillar batek abestuko leikioela".

Joseba, txakurra Leon aurretik ebala, elardiko iturrirako bide-siorretik doa.

Iturriko ura sortzen dan ibar, arantxua, ikustean, sasi-arte batetik, uste-gabe unti batek urteten dautso.

Josus! Arrituta Josebek esan eban, gogoratzu deabruak be arpegia unti batena dauala.

Txakurra, Leon, bere atsetik ariñeketa baten elardi gora, eta beingoan untzia arrapazten dau, eta txistu baño ariñago iruntsi, esan gurarik: "Iltzaille zitala, nire ugazaba erruki-garriari iru-zorrotz egin gura izan dautsozu, ez? Orain neuk esango dautzut zenbat diran lau ta bi".

Josebek lusaila urez betetzen dau, eta barrero bere buruan ezarririk, or doa basetxera, iturri ondoan txakurra etzunda itxita.

Josebek alperrik txakurrari begiratzen eutson, onentzat burua apur bat jasotea naiko zan eta bide-siorra zaindu, bere ugazabari adierazoten emonez: "Andrea joan zaitetz nasai, ba oneri ezarri dautsodan zigorragaz, ez dot uste beste batek bidera urtengo dautzunik".

Txarria, katua ta oillo-talde bat oillarra buru ebela, Josebari arrera emoten doaz, etxe aurrean, ogei bat oinkada aurrerago, bakoitzak bere abesti berezi ta lilluragarriena opaturik, abesti mota guztietarikoak.

Katuak buztena jasoten dau, lepoa makurtu ta bere ugazabaren gona magalean igortzen da, ordez bere ugazabak txera batzuk egiftez. Zelakoak diran katuak!

Txarria bekaikeriz beterik, katuak egifa antzeratu gura dau, baña basarte, lupetze, aundi batetik urten-barría zan ezkerro, bertan ondo idoiztuta, basaz ondatuta bere ugazaba itxi, utxi, eban.

Bere aldetik Josebek, ganorabako, zikin, zakarra deitzen dautso ta bereala atea zartada on bateaz ertsi, ixirik, eta guztiz asarratuta etxeratuten da.

Katua ta oilloak bere atsetik arin doaz, eta ateko be-zulotik etxerazten dira.

Txarriak be bardin egin gura dau; alperrik ainbeste bider muzturra sartzeaz azpértuta, bere naian amor egiten dau ta naigabetuta girrintzeka, aizto bat, bere Daun Martin eguna aurreratzeko, eskatuz.

III

Josebek lapikoak beingo baten sutan ipinten dauz, eta oilloei, katu ta txarriari gozaria emoten dautse. Sute, sukaldea, garbiturik, etxea urre bezela ipinten dau, bitartean oiuka esanez: Oraintxe naz zuekaz! Oneik, Perikito, Kanuto ta Hermenegilda, ogetik deika egozarak ziran:

Jantziten! Jantziten!

Kanutok zortzi urte dauz, Perikitok sei eta Hermenegildak lau irurak oge baten egiten dabe lo.

Ara emen, arreatxuak besarkatuta lo geratu zan andrakilla bateri bularra emon eta urrukamatzen eban bitartean, mutillak zelako alkar-izketa eben.

Nik neure lorontzian garia ereinten noa.

Nik be bai nirean.

Eta gari ugari lortuko dogu?

Bai, ugari lortuko dogu, asko.

Eta zer egin bearko dogu artuko dogunaz?

Barriro ortuan ereingo dogu, eta askoz geiago lortu.

Eta gero?

Asko ereinten jarraituko dogu.

Eta asko ta asko eukiten dogunean?

Orduan aberatsak izango gara.

Eta aberats izatea, zer da?

Ara! Etxagunen semeak daukan bezelako pelota bat eukitea.

Aaa! Ori bai atsegingarria! Eta neketsua da ereintea?

Eta aitarentzat garestiegia ba da!

Orregaitik gomazko pelota bat eukiko dogu.

Bai, bai, eukiko dogu.

Aaa, ze atsegiña!

Hermenegilda, Menegilda edo Minigilda, ba da era guzti oneitara deitzen dautse, bere andrakillari bularra emoten jarraitzen dau, bitartean bere nebak euren alkar-izketan ekonomitazko arazoak dabez.

Eta gero andrakilla besarkatuta estuturik, abesten dau:

Lo egizu, nire umea, lo

mamu dator eta

Lo gitxi egiten dabezenak

eroaten dauz.

Maltzur demontrea! diño gero. Ez dozu lo egin gurá, ez? sakela bete bete egin eta gero? Zaplastada batzuk umetxuarentzat! Alaa!

Eta barriro abesten dau:

Ona dan umetxua,

Jaungoikoak bedeinkatzen dau,
ta okerra dan umetxuari
biziok emoten dautsoz.

Ia, ia, nire umetxua lotan da! Bedeinkatua izan bedi zure arimea, ludi osoko urreak baño geiago balio dozu ta! Nire umetxuak ona izan bear dau, bada bere amak ona izaten irakatsiko dautso. Irakurri ta idazten ikasiko dau, kristau-ikasbidea, ta josten, sukaldaritzan eta etxea atonduten. Eta aundia aziten danean, guztiz polit eta ederra izango dan ezkerro ta etxeko-andratxu ona, erriko mutillak beragaitik zoratuta egongo dira, ta langille ta mutillik jasekoenagaz eskonduko da. Bere amagandik ikasi dauana egitiik, bere gizona soloetan ereinten dauan bitartean, berak etxean ereingo dau. Lur eta etxeko uztakaz, aberatsa izango da, urte askotan, luzaro, bizi eta azkenean zoriontsu ilgo da, zerura artez-arte, zuzen-zuzen, joateko.

Hermenegilda ameseta oneitan jarduten eban bitartean, emakume bi, au da, bere ama ta auzoko bat, ezizenez Oña Juana la Loca esaten eutsoena, logelako atean arretaz egozan entzuten, kokolo batzun antzera ao zabalik.

Ume ameseta areik, Joseberen begietan negar-malko samurkorak izuri-eragin eutsoezan.

Andrea, nezkatilla orrek dauka txiliñal! Juana la Locak esan eban, barre-algara sarata-tsu bat lagun ebala.

Andrea, Josebek erantzun eutson, umeak txori-barritsu bezelakoak dira, entzuten dabena esaten dabe.

IV

Amal jantitera! Ama jantitera! (A vetir)

Orain semetxuak, orain noa! Zeure baimenez Juana, andrea, borrokolari orreik atondu bear dodaz, bestela, ogea zatituko dauste. Zertan jardun ebala Kanutok, uste dozu, etxea apur bat garbitzen nenbillen bitartean, izan be barraban oneik ezer ez egingo baneu bezela itxiten dabe ta? Ez dozu sifistuko andrea, lastaitik galtzua atera, oge ganean zabaldu ta bere ganean biraka ibilli, a garia jote, eultzitea, zala iñoan! Arerio gaiztogandik ikasten dabela ba dirautzut, eta batez be "Medialenguagandik", olan deitzen dautsot Kanutori, bere berba, itz, egiteko era begikoagaitik!

Zureak ia egun osoan ikastolan jardun, ez? Baña nireak...

Eta zergaitik zuk be ez dozuz ikastolara bialtzen?

Ba dakizu, gaur bategaitik eta biar beste bategaitik, beti itxiten dogu urregorako, eta olan dagoz astokillo batzuk eginda, arimea baztertu ezkerro. Baña beste gauza bat, zure gizona nondik dabil, azpaldian ez dot ikusten eta?

Andrea, non ibilliko da, ba? Ibarrean, ereinten.

Zuen lukurreriak galduko zaitue, zer jazoten jatzu bizitzeko, ilteko une bat beti izango da eta.

Baña andrea, Txiroak garanak, zer egin bear dogu, lan baño?

Eta gu ez gara, ala? Baña alan da guzti be, lan egiten dogu egin bear dogunean, eta egin bear ez danean, jolasten gara, bada norbera il ezkeru, beste guztiak or geratzen dira. Gaur esate baterako, arek, nire gizonak, eguraldia ez dala lar onegia ikusita, ez dala bat be Kristau lurra muturkatzeko ta ibaia arrantzarako guztiz egokia datorrela ikusirik, bere baitan esan dau: "Ala, joan zaitez Josebaren etxera, ia berak eta bere andra ta seme-alabak, ibai ondoko baso-jatetxera eguna guztiz alai emoten, etorri gura ba dabe, eta bide batez amabi-erdiko libra arrain, atarrañi ateratzen ba doguz".

Juana, andrea, milla esker gogorapen orregaitik, eta gura aldetik Jon jaunari be emioizuz. Baña alabatxu, ereinten ez dauanak ez dau uztarik lortzen; eta gero lelokeri bat da, ezer egin barik dagona, olan egotea gura daualako da, ba da ez daustazu esango, bear bezelako emakume batentzat, Jaungoikoak agintzen daualako emakume batentzat etxe baten zeregiñik ez dauala. Beti dago zeregiña etxean.

Ixildu zaitez, andrea, ixildu zaitez, lukurreriak bizitzen ez dautzue itxiten! Zueri esan nai esan ez bardin-bardin da!

Zer gura dozu andrea! Esakerak diñoan bezela, izakera ta itxurea...

Andrea, zuen naia, guraria, izan daitela. Baña egia da, gaur zuek lanez itota, izerditan, zure gizona soloan eta zu etxean izango zarienean, gu zubi alboko baso-jatetxean nasai, gozoro, eguna emongo dogu. Izan be, tokitxu ain izkutuan dago, ain ikutzuan...

Ama, Kanutok oiuka negarrez iñoan: nik baso-jatetxera Juana la Loca ta Juan Bigardoaz joan gura neban!

Larra-suge batek Juana andreari zartada bat emon ba eutsan be, onek mutillaren urtekerari emon eutson erantzuna gogor eta garratzagoa, ez zan izango.

Miñ luzedun ori, entzun eizu, begietatik sua urteten eutsola esan eban, ori da ikastolan irakasten dautzuna?

Andrea... Josebek tomate baño gorriago eginda aldizka, esan eban; ez eizu umeen esanari jaramonik egin...

Jaramonik ez egiteko? Juana la Loca! Juan Bigardo! Bai, atsegin izan jataz, ba, ume moko orren urteerak! Baña bera ez da errudun, ori, errua, bere gurasoena da orrelako txantxa barregarriak irakatsigaitik. Gero arro-poztuko dira euren seme-alabak ondo ezitzen dabezela tal... Kristau izena be galduko dot, barraban, ergel, orreri ordean emoten ez ba dautsat. Emongo dautsodan lenengo ostikadeaz, nire etxe ingurura agertzen danean, zapuztuko dot.

Andrea, kontuz ibilli zaitez diñozunagaz, eta geiago egiten dozunagaz.

Zergaitik, ba? Ederto egongo litzake, edozein ergel, mokoso, orrelako bategaitik ezezunak ezartzen itxiteal

Baña nik ez ba dodaz ipinten! Kanutok ogetik diño... Danak deitzen dautzue olan, eta On Juaneri Juan Bigardo...

Ondiño be aurrera jarraitzen dozu, ama txar eta aita txarrago baten seme ori? Guztiz sumindurik, Juana andreak iñoan.

Baña andrea, Txiroak garanak, zer egin bear dogu, lan baño?

Eta gu ez gara, ala? Baña alan da guzti be, lan egiten dogu egin bear dogunean, eta egin bear ez danean, jolasten gara, bada norbera il ezkeru, beste guztiak or geratzen dira. Gaur esate baterako, arek, nire gizonak, eguraldia ez dala lar onegia ikusita, ez dala bat be Kristau lurra muturkatzeko ta ibaia arrantzarako guztiz egokia datorrela ikusirik, bere baitan esan dau: "Ala, joan zaitetz Josebaren etxera, ia berak eta bere andra ta seme-alabak, ibai ondoko baso-jatetxera eguna guztiz alai emoten, etorri gura ba dabe, eta bide batez amabi-erdiko libra arrain, atarrañ ateratzen ba doguz".

Juana, andrea, milla esker gogorapen orregaitik, eta gura aldetik Jon jaunari be emoiozuz. Baña alabatxu, ereinten ez dauanak ez dau uztarik lortzen; eta gero lelokeri bat da, ezer egin barik dagona, olan egotea gura daualako da, ba da ez daustazu esango, bear bezelako emakume batentzat, Jaungoikoak agintzen daualako emakume batentzat etxe baten zeregiñik ez dauala. Beti dago zeregiña etxean.

Ixildu zaitetz, andrea, ixildu zaitetz, lukurreriak bizitzen ez dautzue itxiten! Zueri esan nai esan ez bardin-bardin da!

Zer gura dozu andrea! Esakerak diñoan bezela, izakera ta itxurea...

Andrea, zuen naia, guraria, izan daitela. Baña egia da, gaur zuek lanez itota, izerditan, zure gizona soloan eta zu etxean izango zarienean, gu zubi alboko baso-jatetxean nasai, gozoro, eguna emongo dogu. Izan be, tokitxu ain izkutuan dago, ain ikutzuan...

Ama, Kanutok oiuka negarrez iñoan: nik baso-jatetxera Juana la Loca ta Juan Bigardoaz joan gura neban!

Larra-suge batek Juana andreari zartada bat emon ba eutsan be, onek mutillaren urtekerari emon eutson erantzuna gogor eta garratzagoa, ez zan izango.

Miñ luzedun ori, entzun eizu, begietatik sua urteten eutsola esan eban, ori da ikastolan irakasten dautzuna?

Andrea... Josebek tomate baño gorriago eginda aldizka, esan eban; ez eizu umeen esanari jaramonik egin...

Jaramonik ez egiteko? Juana la Loca! Juan Bigardo! Bai, atsegin izan jataz, ba, ume moko orren urteerak! Baña bera ez da errudun, ori, errua, bere gurasoena da orrelako txantxa barregarriak irakatsigaitik. Gero arro-poztuko dira euren seme-alabak ondo ezitzen da bezela tal... Kristau izena be galduko dot, barraban, ergel, orreri-ordea emoten ez ba dautsat. Emongo dautsodan lenengo ostikadeaz, nire etxe ingurura agertzen danean, zapuztuko dot.

Andrea, kontuz ibilli zaitetz diñozunagaz, eta geiago egiten dozunagaz.

Zergaitik, ba? Ederto egongo litzake, edozein ergel, mokoso, orrelako bategaitik ezezunak ezartzen itxiteal

Baña nik ez ba dodaz ipinten! Kanutok ogetik diño... Danak deitzen dautzue olan, eta On Juaneri Juan Bigardo...

Ondiño be aurrera jarraitzen dozu, ama txar eta aita txarrago baten seme ori? Guztiz sumindurik, Juana andreak iñoan.

Andrea, euki eizu geldirik miña, begiratu eizu zer diñozun!, Josebek be asarratuta iñoan.

Dirautzuedana da, ba noala, emendik ba noa, bestela zentzun-gabekeri anbat egingo dot.

Joan bedi berori, andrea, Jaungoikoaz.

Bai, ba noa, bai, eta ez naz itzuliko etxeari sua emoteko izan ezik... atsegin izan jat ba, bai, ume geldo orren txantxeal La Local... Bigardol...

Juana andreak jauzkataka urtetzen dau ta kanpoko atea idegikeran, barrura sartzeko zelatzen egoan txarriak, bere iztarrakaz topo egiñik, anka z gora jaurtitzen dau. Inguru aretan ebiltzan gazte batzuk, au ikusirik, barre algaraka asi ziran, berak zapladaka ta arrika erasoten dauz eta azkenean uxatuta doan txakurra bezela etxeratuten da. Bitartean alboko mendizka txikitxu baten, indi-oillar batzuk euren bizi-bidea billatzen dabe, katalandarrez iñoela:

"Pau, pua, paul!" Euskeraz "bakea, bakea, bakea" esatea bardin-bardiñada.

Juana estaldu orduko, Josebek eraso gogorra Kanutori egin eutsan, oiuka esanez: Indino! Indino! miña zuzterkatu bear dautzut!

Bai orixel diño Kanutok, maltzurkeriz barre egiñik.

Eta zergaitik ez, geldo, maltzur, zital ori?

Zergaitik, diñozu zaplaztada bat baño geiago ez daukadala?

Ala zoaz! maltzur ori, zamurkeriz beterik zara ta... irribarretxu bat ez-erakutzi gurean iñoan Josebek.

Edozeiñek emongo leukioz Kanutori zaplada biko bat bere txantxeagaitik, baña bere amak mozu bi emongo dautsoz, otxin bi balio dabezanak.

V

Parkatu eidazue amaeen balkortasunatzaz egingo dodan bereiztatzegaitik.

Ingalatarrak, bakanak dira, au baieztatzen dau 1814 garren urtean arrano bat kaiolatzeak, eta 1860 garren urtean Alpes mendi tontorrean arrantoxu bat ezartzea, orregaitik ez da arrizekoa; orain urte gitxi jakin-erazi eben umetxuen arteko irakuzketa bategaitik, irakuzketa bakan bategaitik. Umetxu ederrenarentzat 500 libra zaritza izanik, irakuzketa au izan zan, eta eurak iñoenetik, gizasemeen obekuntza bizkortzeko asmuz antolatatu ei eben. Argi dago ba, bakanak dirala.

Ara emen ba, igalatarren biotz-beratasuna!

Epai eguna eldu zan, epai eguna izan ba zan ala ez ikusiko dogu, baña beintzat alan eritxon.

Lantzar zabal baten jasota, oltza baten jezarrita epailleak egozan, eta amar milla ama, euren besoetan beste ainbeste ume eroezala, aurkeztu ziran, danak zaria lortzeko asmuz.

Edozeiñek uste izango dau, umetxuak guztiz ederrak ez'ba ziran be, gitxienez ederrak

izango zirala, ba da zein amak, saririk jartziko itxaropen barik, inpernuko lekutatik, bularreko ume bateaz, olako ibillaldi bateri dagokiozan neke ta kalteakaz ausartuko da joaten?

Baño ez jauna, danak ez ziran guztiz ederrak, ez da ederrak be, amar millatetik, lau milla gitxienez Pizio baño itsusi, motzak, ziran.

Epaillei, amar milla aurkeztuta, oneik eurentzat ederrena, egokiena, zana sariaz garaitzea, izendatu eben. Baño erabaglia entzun orduko, an izan zan ba izatekoa. Bedaratz milla bedaratzireun da larogeta emeretz amaek, oiuka, sarataka epailleen erabagien aurka, euren eumea ederrena izanik, baztertu ebelako. Nekarazituta, negarrez, oiuka, euren umetxua irakzkuketa aretako ezeze ludi osoko umerik ederrena zalako.

Ume konkortu ta ergel baten amak be oiuka esaten eban:

Ze maltzurkeria! Ze maltzurkeria!

Azken-epaia, iruditzen zan.

Epailleentzat, ustegabekoa zan an jazoten zana eta bederatz milla bedaratzireunde larogeta emeretz amaen suminalditik ostaz ostaz urten al izan eben. Jakifia, ordu bete lenago bozteun libarren jabe ziran; eskuratuta balebez bezela jardun eben.

Ingalatar amak eta Espafatarrak, ezbardintasan bat uts utsik dabe, lenengoak euren umei rona emoten dautsela ta bigarrenak ozpifia edo jarabea.

Baño goazen bigarrenakaz.

Josebe maitamenduten dauan gauzatariko bat, Kanutoren erdi-berbetea zan. Ni be beragaz naz. Nik be ondo deritxot.

Ume batek itauntzen daustanean: "Erosiko dautazu zadi ondi bat", gaztelarrez ipiñiko dot, bada obeto doakio, "Me va a compa uno cabayo gane"?, mozuz jango neuke, baño ume batek itauntzen ba daust: "Egingo daust berorrek zaldi eder bat erosteko, opa bat?, andrazkoak esaten dabena esaten dot nik be: "Nire semea izango ba zintzake, ez dakit zer egingo neukan zugaz!

Nire semea izango balitz, nire semea balitz, bere semearen erdi-miñak Josebe atsegintzen dauan aifñako atsegifia, nire semearen miñ osoak eragingo lauskit.

Josebeaz eta prantzezakaz be ez naz adoz, au da, izenen buruz, izenatzaz. Josebek diñio Kanuto izen polita dala ta prantzeztarrak gogor dira, "le nom ne fait rien a la chose".

Nok apur bat barre-zalea izanik, irribarretxu bat ez dau egiten, entzunik: "Zu On Lesmes" edo "Entzun eizu On Kanuto".

Onetariko izen barregarri bateaz deitzen jakon nire adiskide batek, egun baten esan eustan:

Ludi onetan zoragaiztoko bi dira, errukiaren atsaldia be ez dabena; bata da, lodia izatea ta bestea, izen barregarri bat eukitea. Zeuk, ber-berak, naizta nire adiskidea izan, alegin itzal bat egin bear dozu, nire izena aitatzean barre egin ezteko edo nire izen onek eragiten daustazan atsekabeak edestuten dautzudazanean. Bein baño geiagotan batzar batera joan naz eta etxeko otsaifñak ni aurkeztzean izaten diran barre algarak entzun dodaz. Alan da ze, alegiñak egiten dodaz, batez be andrazkoen aurrean nire izena ez aitatzeke, ba da, zelan esan neike ifon nire izena Trifon dala!

Nire adiskidea zuzen egoan; negar tantalak begietan ebazala arazo au edestuten eus-tan, eta ni ostera irribarre bat estaldu ezifiki nengoan. Loditza beste zoritxar bat izaten da, izakera barregarri bat, eta egia esan, ez leuke olan izan bear, izakera erruki-erazo baño. Gi-zaseme lodia, gaixo batzutarako arriskugarria izaten da, euretariko bat, aplopegi, mugimendu gitxienagaz nekatzen dira, edertasuna galdu dabe, adimen bera be gorputzaren mo-teltasunaz batera doa. Itz bateaz esanda, hemotisis, aneurisma edo biziena daben baten ai-ñako zoritxarrekoak dira. Eurak gauza guzti oneikaz jakitun diran ezkeru, adiskiderik mai-teenak be sarritan larregitan, biotz-min eragifiak onelako urtekera batzukaz sortzen dau-tzoz: "Gizona, zu lotsa-gabe loditzen zara" edo "txarritxu bat egifik zara"! edo "Gizona, no-ra zoaz sakel orregaz".

VI

Ingalatar biltzarrekoak esaten daben erara, "bill de indemnidad" bat eskatzen dot, au-rrerako alderraikaitik, eta joan gaitzean Josebe ta bere umeekana; amaa eta semeak buruz idazten dodazanean, orduan naz ni, bai, atsegin-tokian.

Ez dakit Juana la Locaren adiskidetasuna gaitzea ez dauala arduratzen, ala Kanuto maltzurkeriz beterik izan, baña egia da, Kanutoren esakeerak egin eutsoen min eta atseka-beakaz, Josebe ez da gogoratzen.

Jantziten ba dakiela adierazo gurean, Periko ogetik jagi da, ta alan da, prakak jantzi-tea lortu al izan dau, baña aletxo, botoiak, ipintean an dago bere arazoa, batera jo zein bestera jo, botoiak euren lekuetan ez dabe sartu gura.

Alde ortik, ergel oril eskuekaz zaplada bat emonez, amak esan eutsan. Ez zara lotsa ain aundia ta ondiño ez dakizu jantziten?

Pepak txistu baño ariñago jantziten dau, ta bardin egiten dau Kanuto ta Hermenegil-daa.

Eta orain zer egiten da, umetxuek?

Gozaldu, Kanutok erantzun.

Zelan diñozu gozaldu, maltzur ori? la kurutze-santua zelan egiten dozuen. Atairen, semearen...

Umeak kurutze-santua egiten dabe.

Eta orain? "Jaungoiaz ogeratu nintzan"

Eta umeak batera, ama oartzaille izanik, iñoen:

Jaungoikoaz ogeratu nintzan,

Jaungoikoaz jagiten naz,

eta ludian zear noa

zerua billatzen.

Ama-birgifeak estaltzen nau

bere logain aberatsagaz,

beatztopatzen dodanean
eskua luzatzen daust.
Nire aurrean,
aingeru eder batek
zeruko bide-siorra
agertzen daust.

Olan egiten da, orain ikastolara joan zaitezen, joan gozaltzen, joan zaiteze gozaltzen.

Kollara txiki baten benetako jabea nor dan eztabaidan luzarotxu ibilli ondoren, ume-
txuak maia inguruan jezartzen dira, geroago beste asarraldi bat, Kanutori baño Perikitori
otamen aundiago bat emon dautsolako da, Josebek esku gogorraz ertsaten dauazan asa-
rraldiak. Asarraldi bitarte oneik, Joseberi bekaizkeriari dagokiozan ondorio kalte ta minga-
rriak azaltzeko egoki izaten jakoz, kalte ain aundiak, gizonen arten be guda-zitalak be sor-
tu-arazoz. Gero umetxuak, bakoitzak bere otamena beingo baten jaten dabe, ez, obeto
esanda, iruntsi egiten dabe.

Ama-Birgijña Guztiz Garbial, atsotxu eskeko batek atean deitzen dau. Jaungoikoagai-
tik mezedez, amointxu bat!

Josebek bere seme-alabaren eskuetan ogi zati bana ezartzen dauz, eta oneik arifieketa
baten txiroana doaz.

Seme maiteak, difio atsotxuak, zuen aitalk soloetan ereinten dauana, gure Jaun eta
Jaungoikoak bedeinkatuko dau, eta baita be zuen amak zuen biotzetan ereifekoa be.

Orain ikastolara! Joseberen abots gogor, garratzak, Hermenegilda ta bere nebak ika-
ratzen dauz.

Asieran, lenengotan, zalapart antzeko zerbait nabaritzen da, ta azkenean jazarleak eu-
ren eretxia guztiz garbi adierazoten dabe. Nik ikastolara ez dot joan gural!

Josebek oiuru onei ez dautse jaramonik egiten, olako gertaerakaz oituratuta dalako.

Jazargilleak beraganatu gura dauz, urreez ez ba da be, bai margoz bere antzeko diran
sagar batzukaz, baña nezkatilatxuak uts utsean amor egiten dau, andereñoagana bakar-ba-
karrik joateko gertuaz.

Perikito ta Kanuto, oiuru jarraitzen eben, Nik ikastolara ez dot joan gural, eta orduan
bai, bere semeak ikastolara joan daitezana, euren amak beste bide gogorrago bat artzen
dau. Au da, nai edo nai ez, jazarleak artu eskutxuetatik eta eurakaz ikastolara joan.

Bide erdi inguruan, Josebe eta bere semeak, zama ikaragarri bateaz, plast egiteko be-
zelako zama izugarri bateaz, asto bat aurkitzen dabe, topo egiten dabe.

Ama, bere jakin-gurea asarraldi baño aundiago izanik, Kanutok itaundu eban, asto
ori, zergaitik doa ain zamatuta?

Astoa dalako, Josebek erantzun.

Perikito ta Kanuto, ispillu aretan irudituta ikusi ziran eta euren asarraldi guztia eze-
reztuta geratu.

Loraillako goizaldeak, Kalderonentzat maitagarriakl, nire leioko loratxuetan ezarrita, zueri abesteko, bitartean nire abestiak zuen edertasuna gogoratuko dau, ta nire bizitza-lagunaren altzoan lo dagon aingeru aren ametsa, seaskatuko leukel

Loraillako egun-sentitxuak, nire biotza zuen abesti gozo ta lilluragarrien zorrean dago, bada zuetariko batek, Artzain Deuna luditik, lurretik, zerura jagi zanean, aingeru bidali batek, ibar eta egoitzatako abeslari txiro baten atean delitu eban, zeiferi nire egoitzan nasaí, maitamenduz dardaraka ta zalantzaz beterik, bedaratzi ille aurretik itxaroten gengozan.

Loraillako goizaldetxuak nire atean delitu ta nire egoitzan irribarrez agertu, nire bizitza ta nire biotzako lagunaren altzoan lokarrazi zan aingeru bidalia, zuetariko batek bere eguzkiaz argiratu eban, bere lorakaz apaindu, bere usaiñakaz igortzi eta bere abestiakaz urrुकatu, seaskatu eban.

Loraillako goizaldetxuak, Jaungoikoak bedeinkatu zaizela!

Bizkarguneko elardiak edurra aifñako loratxu zuriakaz betetzen dira ta ez dago elardi ez erraitzik, txori anbat euretan ezarrita bere txio txio alai ta lilluragarriaz Jaungoikoa gorretu ta ta eskertzen ez dauanik, bere abestian esanez: Zelaiteko lorak eta zeruetao eguzkia, itzuli zaitzeze, lurralde ta ostape guztietako biztanleí, bizia ta alaitasuna sortzen!

Aa! Nekazariak ipar-aize ta Azillako abazuza, kaskaragarrari arpegia emon, oldartu, ta aletokiko azirik onenak, epaillako eguzkiak itxaropenez, biurtuko ebazala eta Ekaiñeko eguzkiak, urretan, ezarri eban ibar, arana, ze eder ta loratsu agertzen da.

Ortuko zugatz-sagar loratsuetan txoritxu bat abeslari da, eta Josebak ikusita, Sartalde ta Sortaldera begiratzen dau.

Sartalde Illun eta goibelean ondiño izarrak dizdiraz agertzen dira, bafia Sortaldetik zidar eta suezko girgii zabal baten antzera, argitasun bizi-bizia agerturik, urrunetako ardi arran eta bekada otsak, txorien abesti ta artzain eta nekazarienak, ibai ta iturri marmar-otsakaz naastaturik, eguzkia urreratzen dala jakin-arazten dau, ain maite dauan errege baten urreratzea, leiatsu itxaroten dauan jendetzearen marmar-otsak bezela.

Egutaize bigunak dakartse baserriei goi-aldameneko mendizkak apaintzen dabezan isatz lorak, bitxi-lora ta eskai-bedarren usain ozkirri, gozo biguna, eta bere biotzean, miragarrizko ots bat entzuten dau, diñotsola: "Egaz eizu, egaz, Udabarriko lora margotsuakaz eta egun-sentiaren irribaretxu alaiz, apaindurik dagozan landa zabaletara".

Eta nekazaria, bere andra ta bere umei mozu maitasun eta baketsu bat emonda, mendizka gora doa, bere abestietan bere biotzaren alaitasun amaigabea agertuz.

Ia ez da zeruan izarrak dizdiratzen, urrunetako mendi bizkarrak eguzkiaren dizdirak eraginda gorritzzen doaz. Izadiaren bizi-eragillea dan goi-izar bere aunditasun osoz mendi goi-goian agerturik, ibar, arantara, argitasun zekulakoa bialtzen dau.

Nekazariak, bere oifetan, bean, iaurri orlegi aundi bat bezela zabaltzen dan ibar, aranera, begiratzen dau, ta ain leiatsu, sutu, erein eta landuak izan ziran gari-soloak, margo

itxaropentsutik, urre margora biurtzen asi dirala ikusirik, bere barnean, bere biotz-barnean alaitasun bizi-bizia sentitzen dau.

Orduan bere begiak eta gogoa bere basetxera egazka doaz; eta bere egoitzan etxe, ke-
edoi bat jasoten da, iflotsola: "Zure lagunak, laguntzailleak, zu eta zure umeak gogoan
dauz"!, ikusten dau.

Eta nekazariak Jaungoikoa bedekintzen dau, egun batzuk geroago bere andra ta
umeak; aletegia aundituta, uztaz beterik ikusirik, izango daben poz alaitasuna, gomutauz.

VIII

Oilloak, baserri ta arana ederto ikusten zan mendizka batetik, ibar osoa estaltzen eban
gari-eraintze, begiratzen eben. Eurak ondo ekien an bean bellegitzen, oritzen, ebana, garía
zala, eta gogotsu aran zelaira jaitsiko litzakez, gari-garaoz betekada eder bat egiteko, baña
une aretan, miru bat egazka zearkatzen dau arana, ta jakíña, bildur dira lumatuta geratzeko.
Nok daki Samaniego ospatsuaren alegi, ipuñiak, irakurri bada bez ala ez!

Baña ara emen, bere ugazaba non ikusten daben gari-solotik etorrela, bere aurretik
naiko urrun Leon txakurra txori batzun antzean eta eurak arrapau gurean, baña zoritxarrez,
txakurrak egorik ez dauka ta artatxoriak beragaz olgetan ebiltzan, asarre-eraziz esango ba-
leuskio bezela: Salatu zaitetz ia arrapatzen ba nozu!

Leon eta bere adiskideak, oilloak, bidean alkaturik, baserrirantz batera doaz eta one-
lan alkar-izketan ziarduen.

Zer egiten dozue zuek emendik?

Begiak bete-bete egin.

On egin daitzuela, esnea izango balitz bezela.

Eta zu, ortik nondik zatoz?

Azillaren erein genduan garía, ikusetetik.

Beñon ezkeru polita egongo da, ez?

Biar asi gura dogu bera ebagiten.

Erakuzkin bat ekarri bear zenduan.

Joan zaitetze zeuok egazkada baten, bere billa.

Miruaren bildur gara.

Zuok, ezerezegaitik bildurtzen zarie ta.

Mezedez eizu berba, itz, obeto.

Keto batzuk zarie. Ez zaitetze izan "oilloak".

Txakurkeriak esaten zatorkiguz?

Nor-nok, norbaitek, esan leike!

Berba, itz, zuk baño obeto egiten dogu, berbetan zagozanean, auzika, zaunka zarala
esan leike.

Ez, ez, mokoa ba daukazua, zuok.

Joseba euren ondora eldu zanean, barritsu onein alkar-izketa amaitu.

Zer da ori, Leon? Leonek oilloei txakurkeri bat egingo eutsela, uste izanik, Josebak itaundu eban.

Leonek, txera batzuk eginda, parkamena eskatzen dautso.

Txori ona zagoz zu!, Josebak iñoan.

Bide alboan bedar-zaar artean estalduta egoan txori batek, Josebak ikusi daua ta beratzaz berba, itz, egiten egoala, Leonek uxatuta ta bere aurretik egazka iges egiten dau.

Txakurra biotz-eraginda asarratuta egoan, bere ugazabak ifotsona entzutean: Bialdu eiozu erbi-txakur bat!

Joseba gal-buru batzuk garaltzen dator, eta oilloak ikustean, eurentzat apur batzuk eskatuz, inguratzen dabe.

Josebak gari-garao batzuk botatzen dautsez, eta oilloak, eurentzat jaki ori berezieta izanik, garia aro, giro, zekulakoan aurkitzen dala adierazoten dautse.

Txoria, Leonek jarraikatuta, teillatuko zure baten ezartzen da, bertatik txakurrari zekulako txakurkeriak difotsoz. Txakurrak, betik, arpegi garratza, illuna agertzen dautso. Bitartean katua ez da lo, ule zein lumatara bardin egiten dauan ezkerro, txorian atsetik, erdi-narraz urreratzen jako ta! zaz! txerpakada bateaz beraganatzen dau ta gero arro-arro, txoriaz jaitziten da.

Leon eta katuan artean, eztabaida garratz bat sortzen da, obeto esarteko auzi bat, txoria epaitu ta zioritza nori egokion, eta Joseba eldu zanean katua guztiz asarre zan.

Josebak arazo au katuaren alde epaitu eban, esanez: "Jaungoikoak emoten dautsoe-nari, Deun Kepak bedeikatu dagiola", onek esan gura dau, txakurrai ostikada bat emotea, ifotsela:

Txakurra ta katua bezela ibilli bear dozu betil!

IX

Oillararak birritan baño ez dau abestu, ostera Josebarenean ordu aretan, mugimendu berezi bat nabaritzen da. Danak dagoz jagita, nezkatilla ta mutil talde bat, bakoitza bere igi-taiatz artega, barre ta abeslari, nozean-bein aterantz, Josebek etxean egindako ogi-opil batzuk eskurik-esku erabilili egiezan, gertatuta eukan lekura, bidali batzuk egifiez.

Leon be, eguna irabasi ebalako edo, saltoka alaitasunez dabil. Bere ugazabak ogi-erdi bat emon dautso, esanez: "Artu eizu "tragaaldabas", zu be Jaungoikoak egifia zara ta".

Perikito, Kanuto ta Hermeñegilda be alkondara utsean; lizunkeriz, euren amak asareak bigunkiro ifotsela:

Zuek, estegu guztietako txakurtxuak beti izan bear dozue.

Mutillak, eguna argitzen doal, nekazariak Sorkalderantz besoa luzatuaz, oiuka iñoan. Eta alan zan, bertatik egun-sentiaren argitasun gozoa agertzen zan.

Araneral Arenaral, segalariak alaitsu erantzunik, Joseba ta Leon lagun ebezala aranera-
rako bidea artuz.

Itxaroten eutsen gari-soloaren mugara eldu ziranean, egunaren argitasunak bazter
guztiak alaitzen ebazan eta izarrak apurka apurka estaltzen.

Goiztaro ederra benetan. Zerua urdin amuko lora bezela. Eskai-bedar, sauri-bedar, eta
bitxi-lorak euren usain gozo, eta soso ta urretxindorrek euren abesti lilluragarriakaz, eta
garia ogi zuria eginda opari-itxaropentzuz, lurragaz adiskidetuz, arduratuz diran, estalpe
urdin aren ganean atsedenduteaz irrikatzen diran guztiak, agurtuz.

Andra-gizon segalariak, bakoitza bere bikoteaz, soloaren alde guztietan lerroratuta
dagoz, luzetara, eta Josebaren abots agintariari erantzuna emonez, euren lanean asiten di-
ra. "Danak laneral Josebak ifioan, eta danak batera, bata bestea baño gogotsuago lan go-
gorrean jarduten eben.

Segalariak jasoten ebezan gari-txortak, galburuen astuntasunagaitik, tolestu egiten
ziran.

Gari-garao bakoitza, urre-garao bat biurtu dal, nekazariaren lan gogorra, Jaungoi-
koak bedeinkaturik, saritu ebala, ikusirik.

Eta onek, nekazariak, maitasun, esker on eta pozez beterik, begiak malko-negarrez
buztita, ifioiz baño geiago Jaungoikoagan, bere andra ta umeekan gogoratzen dauz.

Baserriko dorrean, millarri bezela, an urrunean jasoten dana, luditarrei bidea... erakusten,
zerurako bidea erakusten dorre aretan jotan asi dan otoiz-kanpaiketa arek, nekazarien biotz, ne-
kazarien biotzak abes-ixillean, maitasun eta eskerrez beteriko erezerki laguntzaillea da.

Segalariak adoretzu ebagiten dabe garia, eta Leon, txakurra, gari-txorta batzun ga-
nean lo dago.

An, solo erdian bere bakartasun abestia negartzen dau.

Beragandik ez urrun, pozpolin batek zazpi txor-txor, au da zazpi bider zazpi txor-txor,
bere izkuntzan esan gura dauana, "ogi ona dogu aurtan, abeslari".

Ludi osoa zapi baten; batzuk lanean, beste batzuk, lo, batzuk negar eta beste batzuk
abestu!

Txitxarrak benetan abeslari. Eguzkia bere dizdira txingartuaz agertutzen dauz. Segala-
riek be, eguzkiaren berotasunak sutsuten dauz eta euren arpegi zimeletatik izerdia ugari
izuritzen da.

Baserriko dorrean amabiak jotan dabe, eta len lanera daitu eben espanak, orain agin-
du gozo bat zabaltzen dau, esanez, Orain danok jateral!

Joseba ta bere langilleak, beargiñak, baserrira alai abeslari itzulten dira, eta Leon,
txakurra, gari-txorta ganean lo jarraitzen dau.

Josebek, mai zabal baten ganean mai-zapi garbia, ogi zuria ta ardaoa ezarri, eban bi-
tartean, ikastetxetik etorri-barri diran umeak mar-mar, gen... gen... gen..., dabiltz, noiz jan-
go dogu? itaunka.

Segalariak aurkitu eben janaria, ugari ta ondo sukaldatukoa zan, alaitasuna lagun iza-
nik, sukaldariak maikide guztietatik gorezpen beroak izan ebazan.

Bazkaldu ta gero, bazkal-osteko labur bat eta segalariek barriro Josebagaz ibarrerantz abiatzen dira.

An, ziran bai, abesti ta barreak, txantxetak eta alkar-zirikatzeak; nezka mutil eskongaien arteko erdi-esaneko berba, itz kutunak.

Eleizako erriko dorrean kanpakiak gaba-otoitza adierazoten dabe, ordurako solo osoko garia lurrean ebagita aurkitzen da.

Segalariek gelditzen dabe euren lana, ta Josebak iru Avemari otoitzen dauz, lankide guztiak erantzunez. Otoitza amaituta gero danak erriko bidea artzen dabe.

Aran aretatik alde egiten daben izaki lerro artean bat izan ezik, beste guztiak alai ta abeslari doaz, ostera Leon, txakurra, bide guztian goibel eta naigabetuta; lotan geratu zan ezkerro ez dau ezer jan.

Bide amaitugarri onetan, lanik egiten ez dauanak ez dau jaten, Josebak ifotson.

Bai, zuzen zara, Leonek buruaz adierazoten dautso.

X

Ur-gurpillak, noria, egiten dauan biraka azaldu ezkerro, alperrikoa da beste guztiak azaltzea, ba da gurpillak beti egiten dauz biraka bardiñak, eta ura be kangilloiek, bardin bardin izuriten dabe. Ur-gurpillatzaz diñoguna, nekazariari dagiona bardin-bardiña da; urte baten azia erein eta uzta-batze egiten dauan lez, urrengo urteetan be azia erein eta uzta-batze egiten dau. Ur-gurpillaren era-bardintasunak, ibilkeria bardiñak, ozifia urez bete daiten ez dau galazoten; bardin bardin jazoten jako nekazariari, bere lanaren bardintasuna ez da oztoporik eletegia gariz bete daiten.

Urte azko dira Joseba ibarren garia ereinten lenengoz ikusi genduanetik, eta Josebe bere bizilekuan, egoitzan, su bazterrean maitasun, ontasun eta buruzpi ekonomi, ereinten. Ereinte oneik luzaro, urte askotan, barriztatu dirala esan dagigun, eta arakatu dagigun uzta-batzea, nekazarien eten-gabeko lan eta iraunpenari dagokion bezelakoa ba da ala ez.

Joseba ta Joseberen etxean, barri, aldatze, aundi bat nabaritzen da, sumatzen da. Oneri, andra-gizon oneri, euren auzokideak ezizen batzuk ezarri dautsez, auzokide Juana ta Juaneri ezarrikoakandik guztiz ez bardiñak; Josebari "madruga" deitzen dautse ta Josebari "Araña".

Joseberen etxetik lenago izan eban "txirotasun zoriotsua" aldendu da. Egoitz eta bere barruan ziran guztiak adierazoten eben txirotasuna al denduta zala; etxea, egoitza, aunditu ta zuritua izan da, altzariak geiagotuak, janari-gela aberastua, kortea mando bikote batzuk eta guztiz ederrakaz ornitua. Eta len, beste aldi baten, txarri txiki bat ikusten zan lekuan, sei ta guztiz ederrak ikusi zeinkez; atean, etxe aurrean eta bera zaintzen, lengo eizaxakur gaitz-gabeko txakurraren orde, txakur ozkari bi itzelak.

Mirari oneik nok egin dauz?

Urte luzeetan Joseba ta Josebek arduratsuz, arretaz, lan gogorrez erein eta uzta-ba-
tzeak eginda.

Mirariak aitatu doguz, baña beste aundiago batzuk doguz aitatzeko.

Igandea da, zerbait, zeozer, berezia Joseba Madrugaren egoitzan jazoten da. Suetean
mukur ikaragarriak su-garratan, lapiko ta kazuela aundiak inguratzen dabela, aurkitzen di-
ra; eta nezkame bi edo iru ta beste ainbeste morroi emendik ara gelditu barik, Joseba ta
Joseberen aginduak betetzen, mugitzen dira Onein begi, irribarre, arpegi ta berbetan zo-
rion utsa agertzen da.

Albo errietatik etxegun aberast ugari eltzen da, baita be Josebaren etxera bere auzoki-
de azko doa, ta euren artean erriko aundikienak.

Ala, jateko ordua da, mats-parrapean mai aundi bat maitasunez apainduta ezarrita gero,
iñoan Josebek. Joan zaitzeze, ia areik urreratzen ba dira, jarraitu, erbesteko batzukaz alkar-izke-
tan jardunten eben mutil gazte jaseko batzuk aitatur.

Ara goaz, ama, mutikoak esan eben, eta oneik Periko ta Kanuto ziran.

Apur bat geroago Kanuto itzultzen da.

Or datoz, eta nire eskon-senidea be bai, iñoan Hermenegildak. Kanario! lelo orreik,
ze maitamendurik dira ondiño!

Beti olan izango dira, maitasunez eskonduak dira ta ez diruagaitik.

Baal Baña zortzi egun dira eskondu ziranetik, eta ondiño eskongaiak dirala edozeiñek
esango leuke!

Maite diran señar-emazteak, beti dira eskongaiak.

Gau baten orixe nire aitak esan eban: Etxagunaren semea nire arrebeaz eskondu baño
lenago, ibarretik gau baten gentozan, eta ara non Hermenegildaaz burni-saretik izketan
ikusten dogun. "Burni-sarea, leioa, biar ormatuko dot", irribarrez aitak esan eban. Joseba
jauna, bera be irribarreka, nire eskon-senideak esan eutson, erruki ala bekaizkeria da?

Zeren bekaizkeria?

Zeren izango da, ba! Gazteentzat ain atsegintsuak dirazan, nezkatil gazte arremanakai-
tiki!

Oker zara, seme, aitak erantzun eban, ba da maite diran senar-emazteentzat, euretari-
ko bat ill arte arreman orreik, txera ta laztan gozo orreik ez dira amaitzen. Ogei urte dira,
nire andreak gure etxean nigan gogoratzu egun osoa emoten dauala, eta nik soloan lanean
jardunez bereagan, nire andreagan, eguna emoten dodala. Alkar ikusteko ordu eltzea, zuek
ain artega, leiatsu itxaroten dozuen ordua zuen maitaleaz ikusteko, bardin-bardiña da. Or
dozu, zelan ogei-urte oneitan, zuentzat ain gozoro diran une orreik egunero bein baño
geiagotan, izan dodazan.

Baña zuen alkar-ikuste orreitan, eskongaietan bezela ez da izaten atsegintsu.

Zelan ez? Bi bider atsegintsuago izaten da ba ta. Zu atsegintsu zara, burnisare ostean
itxaroten dagon nezkatilea zure emaztea izateko, zuk aukeratu ziudulako, eta nik neure
etxean, egoitzan, sukaldean itxaroten dodana, neure emaztea dalako, neuk aukeratua iza-
naren ganera neure seme-alabaren ama, etxeko-andre ta zaindaria dalako.

Bedeinkatu izan dedilla bere miñia, ta baita be bere arimea ta beragaz eskondu nintzan eguna!, Josebek bere begiak negar-malko dariola, esan eban.

Bitartean Kanuto itz, berbetan, egoan. Zuen aita bezelako bateaz, zuen arrebea erriko mutilik jaseko, on eta aberatsenagaz eskontzea, ez da arritzekoa, ta zu ta zure anaikaitik, ogei zudu inguruetako nezkatilla polit-ederren eta aberatsenak, zuen begira adi-adi adurra dariola egon eitezan. Zelako aita, alako semea.

Zelako aita-amak, esan gura izango dozu. Ia, ama, ez zaitex ain txikitzat agertu, ba da uzta onek ezer balio ba dau, zu ez zara gitxien erein eta jorratu dauana.

Josebek eta bere semeak izan eben alkar-izketa, Hermenegilda bere gizon, aita-giñer-rabak eta talde ugaritsu bateaz agertu zanean, ixildu zan. Talde onetan erriko abadea be ba etorren. Josebak abadeagana artero joan bear izan eban, mezedez etorri eiten eskatzen, ba da eskon-barrien jatorduan be mai-buruko izan zan bezela, orain be, bazkari onetan be, eztaí-ondoko jatordu onetan be emakume eskon-barrien etxean, mai-burukoa izan eiten.

Ia ba, jaun-andreak, danok penitentzi egitera! Josebak apaltasunez esan eban.

Eta maia luze a berrogeta amar bat notin, pertzona, danak agiñ, ortz, onekoak, inguratu eben; agiñ onekoak esan dogu, eta olan zan, naizta batzuk agiñik ez euki.

Azpiikada barri bat agertzen zan bakoitzean, maikideak, sukaldari berezia izanik, Josebe gorezten eben; eta bonbilla barri bateri zapotza kentzen eutsoen bakoitzean, Joseba ain apal, xume izan ez ba zan, bere edari-gela Jerez, Oporto Burdeos eta Valdespenako onenatarikoak añaiko zala, uste izango eban.

Onetan gizon bat eskuan eskutik gorrizkadun makilla bateaz, larrañean jan-gela biur-tua izan zanean, bere atean agertzen da ta irribarreka itauntzen dau:

Niretzat ezer ba dago?

Alkate jauna! Endore jauna!, maikide guztiak alaitsu esan eben, leku apur bat etorri-barriari egin gurarik. Eta au une ber-beratatik beste maikide bat da.

Zoriontsuak ikusten zaituen begiak!, Josebek iñoa; zure billa joan gara baña erritik kanpora zarala esan dauskue. Gaur goizean goizeti etxetik aldendu zarala.

Bai, alkateak erantzun eban, gorpu bat jasoten egon naz.

Gorpu bat!

Zubi ondoko bentatxu, edantegi, baten agertu da.

Norena da, ba?

Juan Bidargorena.

Jesus! Juan errukigarria!

Bart bera ta beste batzuk mandazain batzuei lapurretan ebiltzala diñoe, eta zeregin orretan egozala, "guardiasibil" batzuk agertu ei ziran eta euren izkilluakaz danbada batzuk egin ondoren Juan ilda geratu zan eta besteak iges egin ebela, zurrumurrua da.

Ziurki Juanen semeak bertan egongo ziran, naizta azpaldian erritik ez dira ikusi.

Abere-zaldi batzuk ostugaitik, orreik espetxean dagoz.

Juana errukigarria!, Josebak begiak negar-malkoz beterik, esan eban. Orain zer egin-go dau atsotxu orrek umez beteta, gizona il ba dautsoe? Gizajea gozez ilgo da!

Ez, Josebak iñoan, errian ez da ilgo gozez iñor nire gar-kutxan garirik geratzen dan bitartean.

Edo nireatan, bere suiñek jarraitu eban.

Josebek eta bere alabeak, bakoitzak bere gizonari begirekada laztan, maitekiro bat egin eutsen, itz, berba, barik esaten eutsela:

Gure aurrean notintsa au ez balitz, mozuka jango zindukedaz.

Bazkaria alaitasunez amaiturik, abade jaunak Jaungoikoari, artu daben elikagarriagaitik eskerrak emoten dautsoz, eta gero bakoitza bere lurraldetan daukazan uzgaitzaz egiten dau itz, berba.

Ezku ona dozu zuk ereintzeko, alkateak Joseberi diñotso.

Ondiño ohea dau nire andreak, irribarreka pozez beterik Josebak erantzuten dautso. Zuek ez dakizue, zergaitik gure gari-kutxak plats egiteko bezela egoten diran? Ba esku bitara ereintzen dogulako, uste dot izaten dala.

Onetan gazteak, nezka-mutillak, maiatik jasoten asi dira. Mats-parraren beste aldean Kanutoren gitarra soiñuak eraginda zalapartari gaztedia maiatik jagi da.

Ia, ia! diño alkate jaunak, ia abade jaunaren baimenaaz dantzaten ba dozue, ta ludia ondatu daitela!

Abadearen baimena ba dabe, ta Kanutok bere kitarra lagun dauala, olan abesten dau:

Nik ibarren gogotsu
ereintzen dodan bitartean,
gogotsu etxean
nire andreak ereintzen dau,
eta urte azkenean
ze uzta ain gozoa
aurkitzen dogu!

Mientras yo con afanes
siembro en la vega,
con afanes en casa
mi mujer siembra,
y al fin del año
qué cosecha tan rica
nos encontramos!

OLERTIA ZER DAN

Ni alosodun erregea banintz, eta astia neurritzeko tresnak dagozan bezela, sendikera neurritzeko egongo balitzaz, errege-agindu bat agertu-eraziko neuke onelan idatzita:

"Jauna, onen edo orren mailla zendimenduz ez dauanari, bertsoak egitea galazota dago".

Bart, gabako aize ozkirria gozatuz eta zero urdiña begistatzen, balkoira urten neban, eta onen baretasuna sentitzean, nire arimeari niñotsan: "Ikasi eizu, ikasi, nasai, lasai, egoten"; eta laugarreneko nezkameak eta aurrez aurrez dagon etxeko laugarren-berezietako morroiak izan eben alkar-izketa au entzun neban:

Onezkero, ze ordu da Periko?

Amabiak.

Nire jaun-andreak laster etorriko dira.

Eta nireak be bai.

Biar dozu urteteko txandea, ez, Bonifazia?

Ez, baña nire etxeko-andreari baimena, urtetzeko baimena, eskatuko dautsat, nire egunak diran ezkerero:

Errazoia dozu, nezkatilla! Zoriontsu emon daizuzala.

Olan itxaroten dot.

Zutzaz bertso batzuk egingo dodaz.

Bai, zuk orretarako buru ona dozul

Tras! tras!, atean deitzen dabe; laugarreneko jaun-andreak dira, ta olan Periko ta Bonifaziaren alkar-izketa amaitzen da.

Poztu nintzan olan jazoteaz, bestela arinkeri bat egingo neban, eta Maritornez aurrez aurrez bizi zanari deituaz diñotza.

Entzun eizu, burutik ez dira ateratzen, biotzetik baño.

Bear ba da alboko auzokidea, bera be balkoian aize ozkirriaz bere birikiak betetzen egongo zan, eta olako gaietan bere burua jakitunatzat daukan ezkerero, tartekoa nai izango eban gure alkar-izketan, esanez:

Parkatu eidazu, jauna, baña bertsoak, bai burutik eta baita be biotzetik, atera leikez. Biotzetik uts utsean ateratzen dana, olerkia da.

Parkatu bear dozuna, zeu zara, erantzungo neutsan. Lerro ezbardifetan idatzita agertzen diran itz, berbak, bertsoak dirala, gendailak aditu, uste ba dau, ta itz egifnik, abotsez abestu leitekezela, ederto, orduan ados gara, baña bertsoak olerti bezela, gendailleak aditu, ulertzen dauazan ezkerero, ondo be ondo egin dot, orreri bertsoak biotzetik urteten dabela ta ez burutik, adierazoz.

Bestaldekoa gizon zentzundunezkoa da ta nire eretxia zuzen eta bidezkoa zala, arin ulertuko eban, eta irakurle, zu bera baño be zuzenezkoa izanik, nire asmakisunatzaz nigaz batera izango zara.

Barriro diñot, ni alosodun erregea banitz eta sentimentuak, olertiaren oifarrri berezia, neurtu al izango balitzaz, garbi ipintea agindu bear izango neban, eta errege-agindua neurte izenpe ta aztarna, zilluekaz, zeifien laburpena ipuin onetan gordeta geraturik.

Zuk irakurle jauna, esango daustazu:

Baña argitu gaitazan, ze ulertzen dozu zuk olertitaz, ba da idazburuak, ipuin onen idazburuak, zeatz azaldu bearrean ezarten zaitu, ta Horazio...

Ara gizona, egia esateko Horazio ta Greziotzaz ez dot larregi aditzen, baña uste dot, olerkia zer dan, zeatz azaldua dala esanez, zuzen-edertasunaren izate, izaera, bat dala.

Baña jauna, gaidun-edertasun izakia, olerkiaren zati, arlo, berezi bat ez da?

Zuzen be, alan da, baña zerbait ederr, asmakisun eta sentimentu ederrak be sortzen dabezalako da. Larrosa-ondoa olerkia da, larrosak, lorak, emoten dabezalako.

Orretzaz ados gara, baña zergaitik orain olerki zer dan azaldu gurea, erabilten dabenak, olertia erabilten dabenak, zuk baño zeazki azaltzen ba dakie?

Orain ipuin au orreintzat idazten joango ba nintzake, idazki bat bezela itz, berba, egingo zeunke... liburu on bat bezela, ba da liburu guztiak ez dabe ondo berba, itz, egiten, baña egunero non jakin-gabe kanpaiak entzuten dabezananatzat idazten dodan ezkerero, zure oarpena ez da egokia.

Gizaseme guztiak, egunero sarritan olerkaritzaz itz, berba, egiten entzuten dabe, ta berba au entzuten dabenetatik, eunetik larogeta-emerezik ez dakie zer adierazo gura dauan. Itaundu eiezue, bai, larogeta-emeretzki orreri zer dan olerkia, ta barreka erantzungo dautzue, Epailleko Ama Birgifiñaren eguna, zein illetan dan itauntzen dan bezela; Ara, zer izango da bai Bertsoak!

Baña zergaitik ez da baten-bat, norbait, saiatzan, gauza bakoitzari bere izenez deiturik, erezi, olerkari, askok, Aristotelesetik Martinez de la Rosa arte, egin-bide ezbardifakaz

ondifio argi azaldu ezin izan dabena, ez dakien ainbesteri, benetan eta argitasun osoz, lor-
tzen ba dau azaltzea?

Baño zergaitik ez da baten-bat, norbait, saiatzen, gauza bakoitzari bere izenez deitu-
rik, erezi, olerkari, azkok, Aristotelesetik Martinez de la Rosa arte, egin-bide ezbardia-
katzeko argi azaldu ezin izan dabena, ez dakien ainbesteri, benetan eta argitasun osoz, lor-
tzen ba dau azaltzea?

II

Une onetatxera eldurik, gogoratzen naz ez dala lenengoz olerkia zer dan azaldu-erazi-
ten, saiatu nazala. Aristotelez gregokeran dala, Horacio latifizez, eta Martinez de la Rosa iz-
keta zeatz eta bigun baten idatzita dala, uste dabon gizon batzuei azaltzea; baño zoritxarrez
nire entzuleak aldi aretan ain urriak izan ziran, eta basa-mortu baten itz egiten nebala diru-
di.

Jazorikoa azaldu bear dot, nire asmakisunak beti izan dira nire arimaren kezka-eraz-
leak.

Nire adiskide Josebek Villaviciosa de Odonen lurralde aundi bat dauka ta beratan
egoitz eder baten bere sendiaz bizi zan; bear izanagaitik baño zaletasunagaitik geiago ne-
kazaritzan jarduten ebala. Udabarri ta Udatan lurralde polit aretara joaten naz aldi orreik
emoten.

Nire adiskidearen andreari, Anari, ama ta emazte bezela eredugarri danari, berak ja-
kin-gabe trebetasun bakan a ebala, bere bizi osoan itz-lauan berbetan egon dana, zerbait
antzekoa jazo jako.

Ana berak jakin barik olerkaria izan da, andrazko beste geienen ezbardia, ba da oneik
bizi osoan egoten dira olerkari dirala ta, jakin gabe ez dirala.

Ekaiñeko egun eder baten, amabiak ziran Josebaren etxera eldu nintzanean.

Txakurra, Leon, nire lagun benetako zana, etxera eldu baño bitarte naiko luze bat le-
nago, nigaz topo egitera etorren, bere txera ta saltukaz, ifhostala: "Zoriontsuak ikusten zai-
tuen begiak! Eta ortuko orma albotik agertzen dan kereiz-ondo batek, bertatik igaroten zi-
ran mutillei bere igali gorri, ederrakaz, bekaizkeria sortuazoz, bere albotik berari jaramonik
egin barik igaroten nintzala ikusirik, zartada bat emon eustan.

Etxeko eskilleratik igoten nintzala, uste izan jatan irakurten egozala, ta une batzuk ge-
roago, bear ba da, nire oiñkadak entzutean irakurtea itxi, utxi, ebela nabaritu neban.

Jan-gela eder baten, bertatik zurubi-txiki batetik, jaitziten dan matsar eder batek ke-
rizpetzen dauan ortura, lan-gela onetan diañot, Ana, Markita, Koldo ta Josebetxu egozan.

Ana josten ziardun, Marikita amabost urtedun nekatilla alaia, nik "Kurutzala-pil" jo-
katzean igarten dodan bakoitzean ikusi gura neukan arpegia eban, eta bere eskuetan liburu
bat erdi-ertsirik, eta Koldo ta Josebetxu sei ta lau urteko umetxuak, barruan zer eukan jaki-
teko, sozialista gizon ospetsu baten irudia apurtzen ziardun.

Koldo ta Josebetxu, nigaz topo egitera arifiketan etozan, eta onak izan ba dira itaundu neutsen lez, gozokirik ba nekartsen erantzun eusten.

Oiturazko arrera ta agurtzak egin ondoren, bere gizona egun bi aurreragotik ez dakit nongo azokan egoala, esan eustan, eta gaba aretan bere etxeratzea itxaroten ebala.

Irakurten zengozen, ez?

Bai, zeozetan, zerbaiten, astia emon bear da ta.

Eta Marujillak zer irakurten eban?

Madrilleko olerkari batek idatzi dauan olerki-liburu bat irakurten egoan.

Eta zein olerkari da ori?

Urtero jaietan zezenak eztenkatzen etorten dan bat.

Ziri-ezarlari bat olerkaril Andrea, zoratuta zara ala?

Ziri-ezarlari da, bai jauna, baña ziri-ezarlari zaletasunez.

Baña olerkaria ez da izango.

Bai, bai da.

Zertan igarten jako, ba?

Berak esan edo idazten dauan guztia, bertoz agertzen dalako.

Marikitak liburua eskuan artu neban, lau bat bertso irakurri nebazan, eta zelakoak diran jakiteko, bateaz naiko dan ezker, esan neutson!

Ziri-ezarlari ori olerkaria ez da, ez da liburu onetan olerkaritzarik agertu.

Orduan zer agertzen da?

Bertso batzuk.

Bardin da, ez?

Niretzat ez.

Ori be bai, Anton! Oleri ta bertsoak ez dira gauza bardin-bardiñak!

Ez andrea, liburu baten bertsoak agertu leitekez eta olerkirik ez izan, egon, eta olerkia egon leiteke ta bertsorik ez.

Ederrak emon daustazuz! Orduan zertzuk dira bertsoak?

Zuri erantzun baño lenago, itaun bat egin gura dautzut. Marikitak zenbat jantzi daukaz?

Oraintxe esango dautzut; bikan-bikaiñak bi baño ez, euretariko bat orlegia, eta bestea urdiña.

Eta zeñegaz egoten da politen?

Urdiñagaz. Eta berak ondo daki, arropuz orrek, urdiña jantziteko larri egoten da ta, oster a bestea gorpuratzeko ez.

Ara Ana, begiratu eizu, aditu eizu, olerkiak, bikaiñak, jantzi bi uts utsean daukaz, bata itz-lauzkoa da, eta bestea bertsoa, eta bertsoaz itz-lauzkoagaz baño apiñago dagoan ezker, soñeko ori eta ez bestea jantziten irrikatzen da.

Baña bertsoak olerkiak ez ba dira, eta bai bikaiñen dagokion jantzia, zer da olerkia?

Anak itaun au egin eustanean, zurubi-txikirantz abots bigun bat entzun genduan, iñoala:

Jaungoikoagaitik, amoin bat ez dot ez aita ez amarik!
Koldo ta Josebetxuk sozialista irudia barruan ez egoala ezer ikusi ebenean, arifeketa baten zurubirantz abiatu ziran.

Ama, aza-trontxo bat jaten dagon nezkatillatxu bat da. A ze txarrikeria! Esaiozue gure-ra sartu daitela.

Alan zan, sei bat urte inguruko nezkatillatxua, ia billosik, aza-trontxo bat marrazkatzan, jan-gelan sartu zan.

Umetxua, aza-trontxoa kendu ta ortura jaurtita, esan eutsan. Zergaitik olako txarrikeriak jaten dozuz?

Goze naz, umetxuak begiak negar-malkoz beterik, erantzun eutsan.

Errukigarria! Markita ta Anak esan eben.

Nongoa zara? bigarrenak itaundu eutsan.

Navalcarnerokoa.

Eta zure aita-amak?

Ez dot aita ez amarik, beazunez il jatazan ta.

Nire arimako alabatxua!, Anak begiak negarrez ondatuta ta biotz-miftez umetxua muzukaturik esan eban. Naizta umetxua loikeriz, zikinkeriz, beterik egon, Anak bein eta barriro bersarkatu eban. Zergaitik Goiko Epailleak bere aita-amak il ziranean, eurakaz batera ez eban eroan! A samintasuna, Jauna, oiñazea!

Olan esanez, Ana sukaldera, sutera, bizkor joan zan, eta jan-gelan be entzuten ziran zizpuruka, txistu baño arifago, kazuelatxu bat, lapikoko saldarik onenaaz, zuku gozo-gozo bat gertaturik, beste okela zati bat ogi apurra lagun ebala, umetxuari eroan eutsan.

Umetxua jaten egoan bitartean, Anak, Markitak zortzi urte izan ebazaneko jantzi ta beste soifeko batzuk billatu; soifekoak naizta baztertuta egon ta barrirak ziran, bada txiki geratu jakozalako baztertuak izan ziran. Umetxuak bere janaria amaitu eban orduko, arpegia garbitu, bere soifeko jantzi zirtzilak kendu ta ordez barriago edo obeago batzuk ezarri eutsozan, eta laztanez ornidurik agurtu eban.

Anak barriro bere lana, jostea artu.

Baña gure arterako alkar-izketara biurturik, esan eustan, zer da olerkia?

Olerkia da... erantzun nautson, zure begietan daukazuzan negar-malko orreik, zizpurutzen dozuzan zizpuru orreik, biotzean ondiño dozuzan zirikada orreik. Biotz sendimendu orreik.

Bail murmur Anak esan eban, jardunbidez zerbait azaltzen asi nintzala aituaz, ulerturik.

III

Ama, noiz jango dogu? Gen, gen, gen! Nik jan gura neuke! Koldo ta Josebetxuk oiuka ifioen. Bitartean ama ederto astinduz.

Eroapen apur bat izan eizue, orain joango gara jatera! Jesus, ume etsai oneik!

Anak jostea itxi, utxi, eban, eta limurkeri egunetarako nire oroimenez, berezita eukiten ebazan bere trebetasunak egitera sukaldera, sutera, joan zan.

Bitartean ni, ordura ibillaldi laburtxu bat egitera joan nintzan, nire bularreraño goi dan orma batek banantze dauan Joseben ortu alboan, beste solo baten lanean egoan mutil langille kirru bateaz, alkar-izketan egon nintzan.

Apur bat geroago, Koldo ta Josebetxu alkar-muzturrek apurtzen ebiltzala, uste izan neban, eta barraban arein artean bakea lortu gurean, jan-gelako zurubi-txikitik arifeketa baten joan nintzan. Barraban areik, ni jaten joan naiten deitu eistela agindu eutsenean, alkar-zirikatzan asi ziran, ia nor lenengo joango zan eztabaidatuz.

Jan-gelara sartu nintzanean, zekula ikusi dodanik mai "olerkienagaz" aurkitu nintzan. Mai-orniak ezelkikoak ziran eta azpillak Talaverakoak, bafña, ze barritxuak eta mai zapiak ze zuriak, eta ze igali ezbardifizeko eskusarea, ta ze lora-txortatxuak maiaren ukondoetan, eta guztia ze apainkeri ta kutuntasunez ezarrita!

Ana, ifnotson, zu zara olerkia zer dan itauntzen daustazuna?

Bai, barriro be itauntzen dautzut, ba da ondifo ez daustazu esan bear dan bezela.

Olerkia mai au da.

Maia au olerkia? Ixildu zaitex irrikari ori!

Maia au, ta batez be, apainketa lilluragarri oneik egiteko zuk izan dozun biotz-eragifña.

Ez zagoz biotz-eragifi txarra zu! Zer dau zer ikusirik olerkiak, bateri, norberari lotaxu polit ezeak, igali ederrak eta mai zapi zuriak, atsegin ba jakoz, guztatzen ba jakoz?

Ba olerkia ortxe dago, txastamen orretan, txastamen adikor, bigun, lilluragarrian.

Aaa, ze txastamen gozoa dauka oneik! Josebetxuk, mertxika eder bateri aginkada egifñez, esan eban.

Eta mertxitan ba da olerkia? beste bat erdi-bituten eban bitartean, bere anaiak itaundu.

Bai orixe, ba dago, irribarreka erantzun neutsen.

Guzurtia, azurra baño ez ba dauka! erantzun eustan.

Urtekera barregarri onek eraginda barreka izan gifñan, eta alaitasunez bazkalordua emon genduan, naizta sarritan Anak gure alkar-izketa geldi-arazi ifñoala: nire Josebak jan ete dau? edo gaur non jan ete dau arek?, edo bear ba da beste onegaz, Josus Jauna, zer jarduera ete dau gaur arek, etxeko bizi erosora oituratuta izanik?

Gogamen guztiz kutunak eta kezka gozoak, euretan Anari adierazi neutsan bezela, zezen zirilarri guztien bertsoetan baño olerki geiego zan!

Bazkaldu ondorengo alkar-izketan ziardun, umeak jangelako baolkoira urtenda, guztiz alai oiuka asi ziran:

Osaba Bailen! Osaba Bailen! ama, Osaba Baileneri esaiozu, gudari-ipuifñak edestuten gugana etorri daitela.

Anak, balkoian agertuta, kalean egoan aguretxu bateri deiturik esan eutsan: Osaba Bailen, zurrutada bat egiten igon gura ba dozu?

Alabatxu, oraintxe noa, agureak erantzun, españatarrak zurrutada on bat eta txokor bateri ifioiz ez dautso uko egiten.

Agurea etxera gorantz etorrena Anak ifiostan, osaba Bailen deitzen eutsoela, izen beratako borroka edo guda aretako jazokisunak edestutea bere atsegifik bereziena zalako. Zoritxarrez guda aretan borroka baten zauritua izanik, zauri onen ondorioz itsurik geratu ei zan.

Alantxe zan, Osaba Bailenek ez eban ikusten arimen begiakaz izan ezik. Jaungoikoak guztioei zaindu dagiguzalal

Anak, edontzi bete ardao bikaiña opa eutsan, eta nik txoko eder bat.

Ardao ederra, bai jauna, itsu errukigarriak ifioan, naizta ifioiz obeagoa edangabea ez izan.

Non?

Bailenen, Dupont menperatu genduanean. Aldi atan buruan zauri bat neban, eta deika, obeto esanda, oiuka ur-ontzi baten eske nengoan. Onetan toki beratatik Castaños generala igaro zanean eta nire burua guztiz zaurituta odolez beterik ikusirik, bere esku berberagaz pitxar bat ardao osoa bikaiña, bere negar-malkoakaz naastauta, emon eustan. A bai zan ardao! Bako berak be obarik egin ezifekoal

Ala Osaba Bailen, egun aretan zer jazo zan edestu eiguzuz.

Ez egoan, ez, erregutu bearrik, bereala asi zan. Egun zoragarri aretan, gorezpen berezia izan genduan egun aretan, ogeta amar milla prantzez, gudarizar trebeak, ogei milla gudari-gazte españatarrakandik menperatuak izan ziran. Españatar gulariak gozez, billosik, la izkillugabe, baña aberriaganako maitasun sutsu bat biotzean ebela, ta prantzez gulariak Bidasoatik Manzanarez birarteko lurraldetan izan eben aldukeria ta jokaera zitala gogooan izanik, prantzez arerio areik gogor zigortuak izan ziran.

Gogorapen oneik sutsututa, egun gorazpen a agureak margo polit, lilluragarriakaz ain adoretu edestu eban, gure biotzak be zartada gogorak agertzen ebezan eta negar-malkoak, edeslariari bezela gure matrailletatik be ugartitsu izuritzen ziran.

Ana esan neban, zezen-zirikailleak idatzi dauan liburua irakurtean, orain sentitzen dozun antzeko zerbait, zeozer, sentitzen da?

Ez, olakorik ez antzekorik be ez da sentitzen.

Liburu aretan ez dagoz bertsoak baño, ta agureak edestuten dauana olerki uts utsa da.

Maiatik jagi gifan, eta ortura jaitsiteko gertu gengozanean, Ana geldituta bereala esan eban:

Laukiatzaz ez dautzugu ezer esan!

Zein lauki? Zein margo-lauki?

Madrilkeko margolari batek, Joseban adiskidea, bera, opa dauzkuna.

Eta ona da?

Benetan ederra. Etorri zaitex aretora ta ikusiko dozu. Villaviciosa bere ortu ta gazte-luaz, ta bere inguruko lurraldeak iruditzen dauz. Gauza egokiagorik!...

Danok aretorantz abiatu giñan, eta egia zan, Anak esan eban margo-lauki ederragaz aurkitu nintzan. Lurralde polita bereziz margotuta, ezetasunez beterik, egizkoa ta lilluragarria.

Zer deritxazu?, Anak itaundu eustan.

Benetan ikusgarria. Zelan deritxo margolariak? Zein da margolariaren izena?

Haes jauna da.

Izen au entzutean nire biotzean alaitasuna zan. Margolari onen margo-lurraldeak, ikuspegiak, niretzat pozgarriak, atsegintsuak dira; izena bera be entzutean olako biotz-alaitasun bat eragiten dauts, azaldu eziñeko atsegin bat, sentitze maitagarria daben gauzaei dagokioen poz zoragarria.

Oil-margo txiki aretan, aran txikitxua bere goi-bera guztiakaz agertuta, bere sakonadatik Villaviciosa inguruko lurraldeak narotzen dauan errekatxua dago, eta goi-aldean, mendizka baten, On Fernando VI bere azken egunak emon eta il zan gaztelua.

Ordu luzeak margo-lauki orreri begiratzen emoten dodaz, Anak esan eban.

Eta nik be bai.

Eta nik.

Eta nik, Marikita ta umeak jarraitu eben.

Margo-lauki ori begiratzean sentitzen dan atsegiña, zertan dala esan leiteke, norbera lenbizikoa ikusteaz azpirtuta ba da?, Anak itaundu eustan. Eta zer izango da berebizikoa, margozki aifñako atsegingarria ez ba jaku?

Ertiaren olerki ondorioa da.

Baño zer? Ertiak olerkia dau?

Ez dau izango ba, edertasuna ta olerkia gauza bardin-bardiña ba da! Eta zein da ertia-
ren olerkia?

Lurralde ori ordu luzeak begiratzen, eragiten zaituna, orixe da ertia-
ren olerkia, margo-
zkoa ikusteak bere bizikoa ikustea baño be atsegintsuago egiten zaituna, margo-lauki
orren aurrean zuk sentitzen dozuna.

Ze gauza ain ederra olerkia dan!

Edertasuna ber-bera dala esango neuke nik.

Aretoan pianu eder bat egoan.

Oleri, erti-margo, eta eresi, soñua anai-arrebak dira. Lenengo biakaz ziardun gara, ta
ondo izango litzake, azkenengoaz be, soñuatuz, alkar-izketa labur izatea, Anari esan neu-
tsan.

Ara, ara. Itxi, utxi, eistazu soñuatuz, ori gazteentzat geratu daitela.

Zu zaarra ba zara, ainbeste bider Joseba maitamenduzuzan abesti areik pianuz langu-
duta abestuaz, gaztetu zaitetz.

Milla urte ba dira pianu aurrean jazarri ez nazala! Oneik nire etsaiak, oneik emoten
dausten ainbeste lanagaitik, soñua baztertuta ba dot!

Ala ama, jazarri zaitetz eta jo eizu soñu apur bat, gela au alaitu daiten, Markitak niri
lagundu gurean esan eban.

Txarra ta erregutua, bi bider da txarra, Anak erantzun eban. Eta pianu aurean jezarrita, Arrietaren abesti bat asi zan pianuan jo ta abestuten. Antzelari onek bere abesti-egite guztietan ezartzen dauan biotz-eragin lilluragarriaz, benetan Anak soifü-aldi berezi bat opa euskun.

Abesti ta eresi areik azaldu ezifeko zorgorraldi baten izan genduzan, eta gero Ana pianotik jagi zanean, bere begiak eta baita be Marikitan eta nireak be bizkortuta, negar-malkoz beterik aurkitzen ziran.

Abesti bigun eta goibel areik entzutean, nire bizian diran gogorapen gozo ta maitegarriak, nire biotzean berbiztu ziran, eta ziur naz, sentitzen bardifñak eragifñik Ana ta Marikita-ren begiak buzti zirala.

Jauna, Anak esan eban, zer izango dau, eukiko dau, soifüak, doiñuak, norberan barnean, biotzean, olako sentipen bat eragiteko?

Dauana, daukana, eta arimean izuritzen dauana, olerkia da, erantzun neutson.

Apur bat geroago danok ibilladi bat egitera orturantz joan giñan.

Morrozkokirrua abestuten asi zan:

Urdinzalea dirautsue

Urdiña guztatzen jatzulako,

Naizta urdinzalea izan,

Zu nireztat atsegintzua zara.

Mutil orrek ederto abesten dau! esan neban, eta ganera jasekoa dal

Nire alabeak ba daki, Anak erantzun.

Nezkatillatxua larrosa bat bera be baño gorriago agertu zan.

Ala, ala Marikita! Olan dira gauzak ee?

Ba! Marikitak jarraitu eban, klabeliña baten antzera bere arpegia gorri bizi-bizi bat ebalal! Zuen esateak dira orreik!

Senargai ta guzti oraingo ee?

Bai zera, senargaial

Esan eizu bai dala, Josebatxuk, nire ostean estaldu guararik bere arrebearen erazotatik aldendu gurean, iñoan; barritsu, nastaille ta olako batzuk bitartean entzunez.

Mutikoak apur bat makurtzeko kiñu bat egin eustan; apur bat makurtu nintzan eta orduan belarrira, zearka begiratzen eban bitartean esan eustan:

Ara, lengo egunean Marikitaaz iturrira joan nintzan, eta Rubioaz topo egin. Mutilla bertan egoan klabeliña bat agoan eukala. Bertara eldu giñanean, Rubiok Marikitari esan eutsan: Bedeinkatua izan dedilla ludi onetara ekarri zinduzan ama!, eta klabeliña jaurti eutsan. Marikitak klabeliñatxua pozez beterik artu, ta Rubio aldendu zanean, loratxua mozkaturik begiak buztita ebazan. Ba dakizu zer dan ori?

Guzti a olerkia dala erantsuteko nengoala, bururatu jatan, itauna egin eban Josebatxu zala ta ez bere ama, eta orduan umetxuaren belarrira, olan esan neutsan:

Ori da, umeak ikusten dabena edo entzuten dabena, iñok itaundu barik edestutzen dabenean, txori itsusi-itsusi bat etorten da, eta zas!, mokokada gogor-gogor bat miñean emoten dautsela.

Ala, maltzur oril! Orain ez zaitut maitel, guztiz asarre, nire longaiñaren magala-azke itxirik, bere amaren gonatan estaldurik, Josebetxuk esan eban.

Naizta mokokokadearena ez-sifestu agertzen ebalá, guztiz ziur ez zan, ba da órduetik aurrera, ildako baten bezela ixil-ixillik geratu zan, tolesgabe bezela bañá txoriak urreratzen ziran bakoitzean bere arpegia amaren gonakaz estaldurik; beintzat ori nabaritu neban.

Ortu zabala muga batetik bestera zearkatu genduan, benetan lorategi bikaiña, arratsaldea ber-bera bezela atsegingarri egoan, eta beste gauza askoren artean, txoriakandik txalaparta gozo ta biguna entzunda poz-alai izan giñan.

Ertilari areik sasoiá ba ekien ez zala egokiena biotz-eragiña izateko, bañá esan eben:

Ze arraioal Erbestetarrei opatzeko, saiátu bear gara, naizta gure gogokoa ez izan.

Eta abestu eben, bai, eta guztiz ederto.

Ortu muga baten egoan mendizkatxuan ixil-ixilik gelditu giñan. Sartaldeko mendimagal urrunen ostean eguzkia estaltzen asi zan, eta bere azken izpi bellegi, oriak, zelaitxu a, argi leun eta bigun bateaz astintzen eben. An urrunean, baserrira itzultzeko lur-tresnak batzen ebazan nekazariaren abestiak entzunik, arratsaldeko aize-ozkirri gozoak, kanpaidorreko kanpai soñu, mendi ta zelaitako zurrumurru goibela, Guadarramako marmarregaz naastautá ekarzala, uste genduan, eta gure bekokiak aize-ozkirriak laztantzen ez ebazanean, ixildu egiten zala dirudiala.

Zurrumurruak, usain-gozo, txori txio-txio alaiak, eguzkia sartaldean, agurtuten, agurtzen, ... guzti onek gure biotza istasun lilluragarri baten murgiltzen eban.

Nire ingurura begiraturik, Marikita ta umeak al denduta egozan, eta nire alboan Ana bakar-bakarrik geratuta, bere sorgorraldiak nire zentzumena zentzungabeturik. Ez dakit nire begiak buztita ba egozan, Anan begietatik negar-malko batzuk izuritzen zirala, bai.

Ze oldozkor geratu zara zu! Anari dirautsot.

Ba zu!, irribarretxu bat egin gurean aleginduz, erantzun eustan.

Zertaz zara gogoratzen?

Zertaz gogoratuko dot ba! Nire gizonatzaz, nire seme-alabak, nire aita-amak goian bego, nire neba-arrebatzaz, tzaz... ara, norberak maite dauazan eta maite izan dauazan gizaseme guztientzaz.

Eta zergaitik gaur-egun ifioiz baño laztantasan, maitetasun beroago bateaz gogoratzen dozuz?

Zuzen be, Jauna, orixe zuri itauntzeko asmuz nengoan. Zer izango ete da goibeltasun alai au, maitasun au, eguzkia sartaldean estaltzen ikusten danean, batek sentitzen dauan negar egiteko gurari, nai, au, eta illuntzean aizeak dakarskuzan ots, ate sumurru leunak entzutean?

Ana, gura dozu jakin, zer dan ori?

Bai, ez dot gura izango ba!

Ori olerkia da.

Bedeinkatua izan bedi olerkia, nik asmatzen asi nazana ba da!

IV

Ixildu zaitetz! Zure seme-alabak agurtu-gabe aldendu dira ta!

Umeak etxeratuko ziran, eta gozoro nasai lo egongo dira. Egund osoan umetxu orreik egiten dabezan lerrenakaz, ez da arritzekoa. Euren soifietan, gorputzetan, zillar-bizia daroe-la esan leike.

Baña Marujilla?

Marujilla? Ori nora joan dan jakiteko, ez da itaundu bearrik, Rubiogana joango zan, beragaz maitamendurik da ta.

Oinkada batzuk aurrerago Koldo ta Josebetxuaz topo egin genduan, gari-galtzu pillo usaintsu baten ganean lo arduragabe egozan, nasai, lasai, aurpegiak gorritzka ederrak, euren amaren begiak iruditzen eben sentipen bezelakoa; bere erraiteko kutun areik, nire barnea zabalduz apur bat lenago azaldu gura neutsan biotz-eragiña agertzen eben, eta zoro-alaitasunez euren amak ifioan:

Begiratu eizu, begira, zelako altxor ederrak semetzat Jaungoikoak emon daustazan! Eee! Bedeinkatuak izan zaitetzela, ludiko urre guztiak baño geiago balio dozue ta!

Ana, zoro bat egiñik, oiuka ta bere seme-alabak mozuka jan bearrean, izartu ebazan; oneik euren ukubillakaz begiak igortzirik eta alieneka gure atsetik joan ziran.

Bai, alan zan, Marikita, Rubioaz alkar-izketan egoan, eta urreratzera giñoazala nabari-turik, euren berbetea, izketa, amaitu eben, esanez: Ze gogaigarria! ori zan nik entzun neba-na.

Gaba illuntzen asi zan, eta Marikitak bere senargaiagandik agurtu zanean, nire begiak ezin izan eben ikusi, baño amaren begiak guztia ikusten daben ezker, Anak ixillian belar-rrira, umeak entzun ez egien, esan eustan:

Begiratu eizu, nezkati barrabana, orman berantz dagozan asmakisun-loratariko bat zusterkaturik, mosu bat ezarri ta Rubiori jaurti dautso. Ikusi dozu, zelako nezkatiill maltzur ori!

Zipertasun ori, parkatu eiozu, nezkatiillatuak bere barnea, biotzean, izan bear dauan sentitze zoragarri orregaitik.

Bail Baña... ori txarto egiña da...

Ori be, olerkia da.

Une batzuk geroago Marikita gugaz batu, bildu, zan eta danak batera etxerantz abiatu giñan.

Urtxu egoan etxe baten aurrean, gizon bi eztabaidan sutsu ebiltzan, eta ain aundia zan euren zalaparta, azkenean berbatatik eskuetara joango zirala uste genduan.

Zurezko maillaki batetik jañ-gelara zuzen, artez, igon bearrean, ortuko atetik kalera, borrokalaria baketu gurean ebiltzan gizon batzuei laguntzen, joan giñan.

Kalean oiñak ipiñi orduko, erriko eleizako kanpaiak, tantlan!, otoitzera deiturik, ama-biak joten ebezan.

Kalean egozan notin, pertzona, guztiak, borrokalaria tartean izanik, buru-utsik, kuru-

tze-santua egin eta ixilean une batzuetan geraturik, gure etxearteko gizaseme maite guztiak, bai illak eta baita be biziak, gogoratu, otoiz egin eben.

Talde aretako ainbatek euren eskuak begietara jasoten ebezan.

Apur bat lenago, sutsu, gogor oiuka eztabaidan ziarduenak be, adiskidetasunezko itz, berba, batzuk alkar egifiik, alkarreganako gorrotorik gabe, banandu ziran, ba da euren espagnetan Jaungoikoaren izena entzun neban.

Ana nigana urreraturik eta esku-zapia bigarrenez bere begietara jasota, ixillean esan eustan:

Itaun bat; eta erantzuten ba daustazu, itxaroten dodana, neure bizi osoan sentitzen dodan gauza bat, eta gaur arte ze izen emon jakin ez dodana, oraintxe asi naz ulertzen. Guztiok ikusi dogun au, eta guztiok sentitzen doguna, zer da?

Olerkia da.

Aaa! Barriro dirautzut; bedeinkatua izan bedi olerkia, ludi onetan batek sentitzen dauan eder, zintzo, kutun eta deuna dalako!

Bai, Ana, bail, andra aren eskua estuturik esan neban.

Idatzita lerro ezbaridiñak izanik, eta itz, berba, egifiik, abestu leikezan, bizi osoan liburu ta izparringietan ikusi dodazan, eta jan-edanetan eta antzerkietan be bai, itz, berba, naasgarri orren asmakisunera itzulirik, nire biotzak olan iñoala entzun neban.

Atseratu zaitze, guzur ezarleak, zuen gogoan iztegi batek beste orrialde dozelako, ta zuen entzumena gauza ba da, bedarazi itzkiñeko esaldi batetik beste zortzi itzkiñeko esaldi bat nabaritzen, olerkarien izena zuen buruei ezartzen dautsozelako! Atsera emetxar lotsagaldu bateri birgifiña obengabea deitzen dautsozuenok, luditarrak naastu-azoz, birgifiña emetxarragaz eta emetxarra birgifiñeagaz! Atsera, olerkari deintzen zarioanok, zuen biotzetan berotasunik eta zuen begietan negar-malko bat be, umetxu bat otzak illik dardara dagonen, edo gozez gizaseme bat ilzorian dagonean, edo eguzkia sartaldean estaltzen danean, kanpaiak Jaungoikoa ta gure illak gogoratzen dauzkuzanean, edo bere semeek jazoki-arri-garriak aberria gorezten dabenean, edo zintzotasuna etxe-bizitzan edo jaurleritzan dirdirutzen dauanean, sentitzen ez dozenok!

Atsera! Bai bertso sutsuetan edo itz-laun edo baita be esaldi latz eta min-toles adierazoz, olan olerkari bezela sentitzen diranentzat, itxi, utxi eizue. Nok esan dautzue, zeken orreik! trebetasun apur bateaz, itz, berba, gitxi batzuk alkartzen dakien bateri, olerkarien izen agurgarria, ezarri leikiola? Nok esan dautzue izen bardiña dabela, oldoztu ta sentitzen dauan izekoak sortzen dauan Jaungoikoa; ta asmakisu-gabe, sentipen-gabeko egiten dauan gizonak?

Nire biotzak au iñoan, eta bertsoak egiten dabezan zezenzirikatzeileen lotsarako, eta euren biotzetan olerkaritza sentitzen dabenean gorezpenerako, ba da beragaz zintzotasunez ba doaz, naizta euren gozputz eta arimetan be otz izan, eta kaleko basartean dantzatu eragitea ukatzen dabinari, naizta oiuka balkoletatik oiuka entzun; dantzatu eragin eizozu, dantzatu, ta txanponak jaurtiko dautsueguz! guzti au idazten dot.

V

Olerkia zer dan azaltzeari uko egiten dautsot, naizta azalpen onetan asi nintzan arrera sutsuak, nire indar-makalak ezagutzen ebazanak ez itxaron olakorik eta bai zerbait ongarriagoa.

Argi dago, teorika ez dala nire jakintasuna.

Ludi onetan, zeozer, zerbait, ikasi ba dot, jardun-bidez izan da.

Umetxual Zure egikisun, zure izketa, zure asmakisunak ba dakidaz, ume biurtu nazalako da, zuk egiten zenduana egiteko, zuk sentitzen zenduana sentitzeko, zuk itz, berba, egiten zenduan bezela egiteko, ume biurtu nintzan.

Ama! Zure maitasun, poz-alai ta goibeltasunak ulertzen ba dodaz, nire biotza zuregaz kidetu dalako da, zure biotzean jazoten zan guztia jakiteko.

Lan eta atsekabearen semeak! zuen neke ta samintasunak ulertzen ba dodaz, nire bekokia oinazeak eta nire eskuak lanak kaskartu dauzalako da!

Kastillako lurraldeak, ipuifi onetan zure gogoramena ezartzen dot! Iñoiz erri-egiten zaituenak bezela aren zintzotasunez margotu ba dot, Udabarrriak apaintzen zaitun bezela, eguzkiak sortalde orduan edo sartukeran argitzen zaituen lez, urestatzen zaituan ibai, errekatxuaren, zurrumurrua arratsaldeko aize-ozkirriak astintzen dauan bezela, zearkatzen zaituen nekazari abestiak, bekeinkatu ta deuntzen zaituen kanpai-dofuak lez, bein eta barriro, ordu guztietan alderraiz astiz, astura liburuan ikasiaz, zearkatu zaituedalako da.

Madrilletik eldu-barria nintzan, umea ondiño, nire aita-amaren egoitz apala baña nasaia, oldozturik uts utsean, eta nire umearoa emon neban aran, ibar, kerizpetsu ta aitz alda-patsu areik gogoratzen nebazan.

Aldi aretan beste ume bateaz adiskidetasun zintzoa lortu neban, margozeala zan, eta San Fernando lkastetxera urte batzuten joanda, naiko polito margotzen eban.

Zer gura dozu margoztu dautzudan?, arkatz bat eskuan eta paper bat bere aurrean ebalatzen eustan.

Etzetxu bat, zugatz eta arkaitz, aitz, batzukaz inguratuta, margotu eistazu, erantzun neutsan, nik neure buruan, nire adimenean, nire aita-amaren etxea zugatz eta aitzakaz inguratuta beti izan neban etxea.

Baña nire adiskideak Madrilletik ez eban iñoiz urten, eta orregaitik aitzak zer ziran ez ekian, eta gai onetzaz nik bein eta barriro azalduta, margotzen ebazan aitzak ez jatazan izaten bat be atsegintsu.

Niretzat margolaritza ezezuna zan, guztiz ezezuna, osteria egun baten nire adiskiderai aitzak zelakoak ziran ziardunean, arkatza arturik, paperean margoztu neban, obeto esanda, nire aita-amaren etxe bera inguratzen eben lurraldekez antzeratu neban.

Une aretan, uste-gabe, margolaritzan trebea zan zaldun batek, margazkiak estaltzeko aistirik izan gabe, beragan eskuratu ta azterkatzen asi zan.

Bakoitzari berana itzultera joan zanean, ni gorri-gorri eginda nengoala nabaritu eban,

eta nik egindako marrazkia madriltarrak emon eutsan, ta madriltarrak egindakoa niri, le-
nengoari esanez:

Artu eidazu semetxu, eta zure adiskideak bezelako aitz-marrazkiak margotzen ikasi
arte, zure marrazkiakaz lotsatu zaitez.

Arrezkero aitzak margotzean, irakaslearen esanak gogoratzen dodaz, baña ondifo ni-
re aita-amaren etxea inguratzen dabezan aitzak geiago.

Erti-lanetan egia izan leitekenik ez dot ukatzen, baña ludian, urtzian, ziurregokiagoa
da.

Margolari! Zugatz bat margoztu gura dozunean, zure gogoaz joan zaitez zugazti aundi
batera, aurrerako aldi anbatan zearkatu zenduan zugaztira, ta argien ikusten dozun zugatza
margotzeko arturik, bere azalaren margo ta zakartasunak zintzo-zintzo antzeratu eizuz, eta
baita be enbor eta adarren okertazunak Teori ez dala nire berezitasunik, azaldu dot, eta al-
derrai oneik argi baiztatzen dabe.

Lerro oneik Villaviciosan idazten dodaz, eta euren amaen gonatetik eutsiten dirala,
nigana urreratzen ume barraban areik ikusten dodaz. Jaungoikoak, ipuif oneik barruan zer
daukien, daben, ez jakin gura izatea, egin dagiala!

Ola! Ola! Anak diñaut. Lanean ez?

Bai, emen naz neure garaunak urtu bearrean olerkia zer dan azaldu al ba dot.

Lortuko dozu zuk, bai! Bestela niri itaundu daistela.

Itxi, utxi, eizuz zure teori orreik eta egitez irakatsi eidazu.

Bai, baña idatziz azaldu bear dodan ezker...

Zuek ez zarie ezetarako! Ba dozu geiago zer idatzi, niri zelan irakatsi zeustan?

Idatzita dago.